

ASTEGUNETAKO
MEZA - OTOITZAK

eta

JAINKO - ERRIAREN
OTOITZA

ABENDU - ALDIA

LEENENGO ASTEKO ASTELENA

Otoitza.—Eiguzu, gure Jainko Jaun orrek, zure Semearen etorreraren zain irauñ dagigula: etorrita atea jo dagianean, otoitzean iratzarririk eta bere gorapenak abesten aurkitu gagingan.

Salmu-atala

B. Bai poztu nintzala ni,

«Jaunaren etxera goaz» esan eustenean!

Bai poztu nintzala ni,

«Jaunaren etxera goaz» esan eustenean!

Eldu dira gure oiñak

zure ataurrera, Jauna.

Jerusalen lodi ta batuta egindako

uria lez dago jaso.

Araxe igoten dira leiñuak,

Jaunaren leiñuak.

Israel'go oitura danez,

Jaunaren izena ospatzera.

Antxe dagoz auzi-maiak,

Dabid'en jauregian.

Opa egiozue bakea Jerusalem'i:

«Nasai bizi bediz zu maite zaituenak, izan bedi bakea zure arresien barrukaldean, nasaitasuna zure jauregietan».

Nire anai ta lagunuen alde

auxe diñot: «Bakea zugaz».

Gure Jainko Jaunaren etxeagaitik, ondasun betea opa dautsut.

Opari-otoitza.—Onartu egizuz, Jauna, Zeugandik artu doguzan ondasunok; eta, ogi ta ardao au ekartearen bidez, eiguzu: orain gure bizitza ilkor onetan ospatzen dogun egintza santu au, salbamen-agiri izan dakigula.

Azken-otoitza.—Sakramentuok ospatzeak, Jauna, guban frutuak emon dagizala: gure bizitza ilkor onetan be betiko ondasunen balioa jakiten eta, sakramentuen bidez, ondasunotan geure biotza ezarten irakasten dauskuzu-ta.

LEENENGO ASTEKO ASTARTEA

Otoitza.—Onartu egizuz biotz onez, gure Jaun eta Jainko orrek, gure eskariak, eta lagun egiguzu, babes bagarik gagoz-ta; urr dagoan zure Semearen aurpegiak barriztu ta pekatuaren antxiñako buztarpean barriro jaustetik gorde gagingala.

Salmu-atala

B. Aren egunetan zuzentasuna loratu daitela eta bakea oparo izan daitela betiko.

Zure erriari zuzentasunez, eta zure apalai artez agindu dagitsen.

Aren egunetan zuzentasuna loratu daitela, baita bakea be, illargia itzungi arte;

itsasotik itsarora nagusi izan daitela, Ibai Anditik legor-mugaragiño.

Deadarka ziarduan beartsua, berak atarako dau [onik,

baita laguntzailerik ez eukan errukarria be; bera izango yako erruki beartsu ta eskekoari, berak zainduko dau beartsuen bizia.

Aren izena betiko izan daitela, eta aren izen onak eguzkiak aña irauñ dagiala: bera izan daitela erri guztien bedeinkapena, eta lurreko enda guztiak zorionsutzat autortu [dagiela.

Opari-otoitza.—Gure txirotasunaren erregu ta oparigai oneik bigundu zagiezala, Jauna; eta, gure buruak laguntza ta geure irabazi bagarik ikustean, zatoz, errukitsu, guri laguntza ekartera.

Azken-otoitza.—Eukaristi onen bidez janarituta, apalik eskatzen dautsugu, Jauna: zure sakramentuan alkartzearen bidez, zeruko ondasunak biziro maite izanik, lurreko ondasunak negurriz pisatzeko jakituria emon daiskuzula.

LEENENGO ASTEKO EGUASTENA

Otoitza.—Gertatu Zeuk, gure Jaun eta Jainko orrek, gure biotzak, zeure Seme Jesukristo etorri daitenean, betiko jaitarako duin aurkitu gagingan eta Aren eskuetatik, zeruko janari lez, zeru-saria artzea merezi dagigun.

Salmu-atala

B. Jaunaren etxea izango da nire bizitokia amaibagako urteetan.

Jauna da nire artzain, ez dot ezeren bearririk: bedar bizia dagoan zelaietan etzun-azoten nau; iturri geldietaruntz naroa eta bizkortu egiten dauz nire indarrak.

Bide zuzenetik naroa, bere izenaren maitasunarren. Ibar illunetatik joanarren be, ez dot bildurrik izango, Zu neugaz zoaz-ta: zure zigorrak eta artzain-makilleak baretu egiten [nabe.

Mai bat atontzen dozu nire aurrean nire arerioen kontra; orioz igurtziten daustazu burua, eta gainezka dago nire edontzia.

Zeure ontasunak eta errukiak egiten dauste lagun nire bizitzako egun guztietan; eta Jaunaren etxea izango da nire bizitokia amaibagako urteetan.

Opari-otoitza.—Gure oparigaiok Zeuri eskin-tzean, Jauna, sakramentu onen bidez egin nai izan dozun salbamen-egintza burutu dagizula guban, eskatzen dautsugu.

Azken-otoitza.—Zeure errukia eskatzen dogu, Jauna, artu dogun zure janari onek laster datozan jaietarako gertatu gagizan, gu pekatu guztietatik garbitzen gaituala.

LEENENGO ASTEKO EGUENA

Otoitza.—Iratzartu, Jauna, gure biotzak, eta eragiezu zure Semearen bideak atondu dagiezan; zure maitasunak eta parkamenak gure pekatuak atzeratzen daben salbamera ariñagotu dagiela.

Salmu-atala

B. Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena. Emon egiozuez eskerrak Jaunari, ona da-ta, Aren errukia beti-betikoa da-ta.

Obe da, ustea gizonakan jartea baiño Jaunaren aterpean egotea; obe da, ustea nagusiakan jartea baiño Jaunaren aterpean egotea.

Zabaldu egidazuez garaipenaren ateak, eta Jaunari eskerrak emoteko sartuko naz. Eskerrak emoten dautsudaz, entzun nozulako eta neure osasun izan zaralako.

Emoiguzu osasuna, Jauna, emoiguzu zoriona, Jauna.

Jauna Jainko da: Berak argitzen gaitu.

Opari-otoitza.—Onartu egizuz, Jauna, Zeugandik artu doguzan ondasunok: eta, ogi ta ardao au ekartearen bidez, eiguzu: orain gure bizitza ilkor onetan ospatzen dogun egintza santu au, salbamen-agiri izan dakigula.

Azken-otoitza.—Sakramentuok ospatzeak, Jauna, guban frutuak emon dagizala: gure bizitza ilkor onetan be betiko ondasunen balioa jakiten eta, sakramentuen bidez, ondasunotan geure biotza ezarten irakasten dausku-ta.

LEENENGO ASTEKO BARIKUA

Otoitza.—Iratzartu egizu, Jauna, zure aal-izatea ta zatoz; gure pekatuakaitik zemaika doguzan arriskuetatik onik atara gagizan.

Salmu-atala

B. Jauna da nire argi ta osasun.

Jauna da nire argi ta osasun, nori nik bildurrik?

Gauza bat eskatzen dautsat Jaunari, eta onexen billa ibilliko naz:

nire bizitzako egun guztietan

Jaunaren Etxean bizi nadilla.

Jaunaren poza izango dodala uste dot bizidunen errian.

Izan ustea Jaunagan; izan adoretsua, izan kemena, jarri Jaunagan zure ustea.

Opari-otoitza.—Gure txirotasunaren erregu ta oparigai oneik bigundu zagiezala, Jauna; eta,

gure buruak laguntza ta geure irabazi bagarik ikustean, zatoz, errukitsu, guri laguntza ekartera.

Azken-otoitza.—Eukaristi onen bidez janarituta, apalik eskatzen dautsugu, Jauna: zure sakramentuan alkartzearen bidez, zeruko ondasunak biziro maite izanik, lurreko ondasunak negurriz pisatzeko jakituria emon daiskuzula.

LEENENGO ASTEKO LARUNBATA

Otoitza.—Gizona pekatuaren antxiñako buztarpetik atarateko, mundu onetara zeure Semea bialdu zenduan Jainko Jauna: emoiguzu Aren etorrerea gartsu itxaroten dogunoi zure parkamen bikaiñaren grazia ta egiazko askatun-saria.

Salmu-atala

B. Zoriontsuak ustea Jaunagan dabenak!

Goratu egizue Jauna, soñua ona da-ta, gure Jainkoari gorapen gozoa dagokio.

Jerusalen Jaunak barrizten dau, eta Israel'go erbesteratuak batzen.

Berak osatzen dauz biotz ondatuak, eta arein zauriak lotzen.

Berak zenbatzen dauz izarrak, bakotxa bere izenez izentatzen dau.

Gure Jauna aundia ta aaltsua da, Aren jakituriak ez dauko negurririk.

Jaunak eutsi egiten dautse apalai, gaiztoak autsetaragiño beeratzen dauz.

Opari-otoitza.—Gure oparigaiok Zeuri eskin-tzean, Jauna, sakramentu onen bidez egin nai izan dozun salbamen-egintza burutu dagizula guban, eskatzen dautsugu.

Azken-otoitza.—Zeure errukia eskatzen dogu, Jauna, artu dogun zure janari onek laster datozan jaietarako gertatu gagizan, gu pekatu guztietatik garbitzen gaituala.

BIGARREN ASTEKO ASTELEENA

Otoitza.—Igo beitez zure aurrera, Jauna, gure eskariak, eta bete egiezu zure serbitzariak zure Semearen Gizakundearen misterio arrigarria eza-gutzeko gogoa.

Salmu-atala

B. Bizi da gure Jainkoa, eta Berak salbatuko [gaitu.

Jaunak diñoana entzungo dot:

«Bere erriari ta bere adiskideai

Jaunak bakea iragarten dautse».

Onezkero, urr dauke Aren zintzoak osasuna, eta aintza geure lurrean bizi izango da.

Errukia ta zuzentasuna alkarregaz datoz, zuzentasunak eta bakeak mun egiten dautsoe zintzotasuna erneten da lurretik, [alkarri; eta zerutik zuzentasuna dago begira.

Jaunak euria emongo dausku,
eta lurrak bere frutua ekarriko dau.
Zuzentasuna ibilliko da Aren aurrean,
osasanak jarraituko dautse Aren lorratzai.

Opari-otoitza.—Onartu egizuz, Jauna, Zeu-
gandik artu doguzan ondasunok; eta, ogi ta ardao
au ekartearen bidez, eiguzu: orain gure bizitza il-
kor onetan ospatzen dogun egintza santu au, sal-
bamen-agiri izan dakigula.

Azken - otoitza. — Sakramentuok ospatzeak,
Jauna, gudan frutuak emon dagizala: gure balioa
jakiten eta, sakramentuen bidez, ondasunotan geu-
re biotza ezarten irakasten dauskuzu-ta.

BIGARREN ASTEKO ASTARTEA

Otoitza.—Zure salbamina lurreko baztarreta-
ragiño agertu dozun gure Jaun eta Jainkoa; eigu-
zu, zure Semearen jaiotzaren aintza pozez beterik
itxaron dagigula. Zugaz eta...

Salmu-atala

B. Gure Jainkoa aginpidez dator.

Abestu egiozue Jaunari kanta barri bat,
abestu Jaunari, lur guzti orrek;
abestu Jaunari, bedeinkatu Aren izena,
iragarri egunoro Aren garaipena.

Azaldu erriai Aren aintza.

atzerri guztiak Aren mirariak.

Esan egiezue erriai: «Jauna da errege,
Bera da errien agintari zuzena».

Poztu bedi lurra, alaitu lurra,
asi bedi burrundaraka itsasoa ta bertako dana;
asi bediz goraka landak eta bertan dagoan guztia,
poztu daitezala basoko zugatzak,
Jaunaren aurrean, ba-dator-eta,
ba-dator lurrean agintzera.

Opari-otoitza.—Gure txirotasunaren erregu
ta opari oneik bigundu zagiezala, Jauna; eta, gu-
re buruak laguntza ta geure irabazi bagarik ikus-
tean, zatoz, errukitsu, guri laguntza ekartera.

Azken-otoitza.—Eukaristi onen bidez janari-
tuta, apalik eskatzen dautsugu, Jauna: zure sakra-
mentuan alkartzearen bidez, zeruko ondasunak
bizi maite izanik, lurreko ondasunak negurriz
pisatzeko jakituria emon daiskuzula.

BIGARREN ASTEKO EGUASTENA

Otoitza.—Kristo Jaunari bidea zabaltzea agin-
tzen dauskuzun Jainko Jaun guztiaalduna: gure
gaitz guztietatik osatzera datorkigunaren etorrera
osasungarria itxaroten dogunoi, geure argalkeri-
tan makaltzen ez eiguzu itzi.

Salmu-atala

B. Bedeinkatu egizu Jauna, ene arima orrek.
Bedeinkatu egizu Jauna, ene arima orrek,

eta nazan guzti onek Aren izen santua.
Bedeinkatu egizu Jauna, ene arima orrek,
eta ez zaitez aaztu Aren on-egiñakaz.

Berak parkatzen dauz zure erru guztiak,
eta osatzen zure geiso guztiak;
Berak askatzen dau illobitik zure bizi-
a, eta graziz eta errukiz beteten zaitu.

Jauna biozpera ta errukiorra da,
asarrerako geldia eta parkamenerako aberatsa.
Ez garabiz gure pekatuen negurriz,
ezta ordaindu be gure erruai dagokienez.

Opari-otoitza.—Gure oparigaiok Zeuri eskin-
tzean, Jauna, sakramentu onen bidez egin nai izan
dozun salbamen-egintza burutu dagizula gudan,
eskatzen dautsugu.

Azken-otoitza.—Zeure errukia eskatzen dogu,
Jauna, artu dogun zure janari onek laster dato-
zan jaietarako gertatu gagizan, gu pekatu guztietatik
garbitzen gaituala.

BIGARREN ASTEKO EGUENA

Otoitza.—Iratzartu, Jauna, gure biotzak, eta
eragiezu zure Semearen bideak atondu dagiezan;
zure maitasunak eta parkamenak, gure pekatuak
atzeratzen dabon salbamina ariñagotu dagiela.

Salmu-atala

B. Jauna biozpera ta errukiorra da,
asarrerako geldia eta parkamenerako

[aberatsa.

Goratuko zaitut, nire Jainko ta errege ori,
zeure izena bedeinkatuko dot beti ta beti.

Jauna ona da guztientzat,
maitekorra da bere izaki guztientzat.

Emon dagituezala eskerrak, Jauna, zure izaki

[guztiak,

bedeinkatu zagiezala zure zintzoak;
iragarri dagiela zure erregetzaren aintza,
esan dagiezala zure arrigarriak;
gizonari zure arrigarriak

eta zure erregetzaren aintza ta aundi izatea

[azalduaz.

Opari-otoitza.—Onartu egizuz, Jauna, Zeu-
gandik artu doguzan ondasunok; eta, ogi ta ardao
au ekartearen bidez, eiguzu: orain gure bizitza il-
kor onetan ospatzen dogun egintza santu au, sal-
bamen-agiri izan dakigula.

Azken - otoitza. — Sakramentuok ospatzeak,
Jauna, gudan frutuak emon dagizala: gure bizitza
ilkor onetan be betiko ondasunen balioa jakiten
eta, sakramentuen bidez, ondasunotan geure bizi-
tza ezarten irakasten dausku-ta.

BIGARREN ASTEKO BARIKUA

Otoitza.—Morroia bere ugazabaren zain ego-

ten danez, zure erriak be zure Semearen etorrerea
itxaroten iratzarririk iraun dagiala, Jauna.

Salmu-atala

B. Zuri jarraitzen dautsunak, Jauna,
betiko bizitzako argia izango dau.

Zoriontsua, gaiztoen asmoari
jarraitzen ez dautsan gizona,
pekatarien bidetik sartzen ez dana,
irrilarien batzarrean jesarten ez dana!
Aren atsegina, ostera, Jaunaren legea da,
eta gau ta egun Aren legea ausnartzen dau.

Ur-ertzean landatutako
zugatzaren antzeko izango da:
aldi egokian frutua dakar,
eta aren orriak ez dira zimeltzen;
eta egiten dauan edozer ondo jazoten da.

Ez orrela gaiztoak, ez orixe!
aizeak daroan lastoa lez izango dira.
Jaunak zintzoen bidea zaindu egiten dau-ta;
gaiztoen bidea, barriz, ondatu egiten da.

Opari-otoitza.—Gure txirotasunaren erregu
ta opari oneik bigundu zagiezala, Jauna; eta, gure
buruak laguntza ta geure irabazi bagarik ikustean,
zatoz, errukitsu, guri laguntza ekartera.

Azken-otoitza.—Eukaristi onen bidez janari-
tuta, apalik eskatzen dautsugu, Jauna: zure sakra-
mentuan alkartzearen bidez, zeruko ondasunak
bizi maite izanik, lurreko ondasunak negurritz
pisatzeko jakituria emon daiskuzula.

BIGARREN ASTEKO LARUNBATA

Otoitza.—Agertzen asi daitela gure biotzetan,
Jaungoiko guztiaaldun, zeure aintzaren ditzira
dan zure Seme bakarra: Beronen etorrereak peka-
tuen illunpeak uxatu dagizan eta argiaren seme
biurtu gagizan.

Salmu-atala

B. Biztu gagizuz barriro, Jainko,
egin dagiala dizdiz zure arpegiak
eta onik atara gagizala.

Israel'en Artzain,
Jose artaldea lez eroaten dozun orrek:
egizu dizdiz Efrain'en, Benjamin'en eta
[Manases'en aurrean.

Biurtu zaitetz, Gudarozteen Jainko ori:
begira zerutik, ezarri begiok,
zatoz zure maastia ikustera,
zeure eskumeak landatu eban maatsondoa
eta Zuk indarra emon zeutsana.

Gorde dagiala zure eskuak zure aukeratua,
Zuk indartu zenduan gizona.
Ez gara Zugandik urrunduko;
emoiguzu bizia, zure izenari dei egin dagiogun.

Opari-otoitza.—Gure oparigaiok Zeuri eskin-
tzean, Jauna, sakramentu onen bidez egin nai izan
dozun salbamen-egintza burutu dagizula gudan,
eskatzen dautsugu.

Azken-otoitza.—Iratzartu, Jauna, gure bio-
tzak eta eragiezu zure Semearen bideak atondu
dagiezan; zure maitasunak eta parkamenak, gure
pekatuak atzeratzen daben salbamena ariñagotu
dagiela.

IRUGARREN ASTEKO ASTELEENA

Otoitza.—Entzun, Jauna, gure eskaria eta
argitu egizuz gure espirituaren illunpeak zure Se-
mearen etorrerearen graziaz.

Salmu-atala

B. Erakutsi egidazuz, Jauna, zure bideak.
Erakutsi egidazuz zure bideak,
adierazo egidazuz zure bide-zidorrak,
zuzendu nagizu zure egi-bidean;
irakatsi nagizu, nire Jainko ta Salbatzaille Zeu

[zara-ta.

Gogoratu egizuz, Jauna, zure maitasuna ta
betikoak dira-ta; [errukia,

gomuta zaitetz nitzaz errukiz,
zeure maitasunarren, Jauna.

Jauna ona ta zuzena da,
eta pekatariak bidea erakusten dautse;
apalak artez daroaz,
apalai Bere bidea erakusten dautse.

Opari-otoitza.—Onartu egizuz, Jauna, Zeu-
gandik artu doguzan ondasunok; eta, ogi ta ar-
dao au ekartearen bidez, eiguzu: orain gure bizi-
tza ilkor onetan ospatzen dogun egintza santu au,
salbamen-agiri izan dakigula.

Azken - otoitza.—Sakramentuok ospatzeak,
Jauna, gudan frutuak emon dagizala: gure bizitza
ilkor onetan be betiko ondasunen balioa jakiten
eta, sakramentuen bidez, ondasunotan geure bio-
tza ezarten irakasten dauskuzu-ta.

IRUGARREN ASTEKO ASTARTEA

Otoitza.—Zure Semearen bitartez gizaki ba-
rri biurtu gaituzun gure Jaun eta Jainkoa: begira-
tu maitasunez zure eskuen egintza au; eta, Kristo
zure Seme bakarraren etorreraz, garbitu gagizuz
antxiñako gure pekatu-bizitzaren lorratzetatik.

Salmu-atala

B. Saminduak Jaunari egiten ba'dautso dei,
Arek entzun egiten dau.
Aldi oro bedeinkatzen dot Jauna,
Aren gorapena beti agoan izango dot;
Jaunagan poztuten da nire arimea:
entzun dagiela ori apalak eta poztu daitetzala.
Begiratu egiozue, eta dizdiz egingo dozue,
ez da zuen arpegia lotsatuko.

Saminduak Jaunari egiten ba'dautso dei,
 Arek entzun eta estualdi guztietatik ataraten dau.
 Jaunaren aurpegia gaizkilleen kontra,
 arein gomutapena lurretik garbitzeko.
 Norbaitek deadar egiten dauanean,
 Jaunak entzun
 eta aren larrietatik onik ataraten dau.
 Saminduakandik urr dago Jauna,
 gogo-ausiak onik ataraten dauz.
 Jaunak bere otseñiak askatu egiten dauz;
 Aregana joten dauana ez da zigortua izango.

Opari-otoitza.—Gure txirotasunaren erregu
 ta oparigai oneik bigundu zagiezala, Jauna; eta,
 gure buruak laguntza ta geure irabazi bagarik
 ikustean, zatoz, errukitsu, guri laguntza ekartera.

Azken-otoitza.—Eukaristi onen bidez janari-
 tuta, apalik eskatzen dautsugu, Jauna: zure sakra-
 mentuan alkartzearen bidez, zeruko ondasunak
 biziro maite izanik, lurreko ondasunak negurriz
 pisatzeko jakituria emon daiskuzula.

IRUGARREN ASTEKO EGUASTENA

Otoitza.—E i g u z u, Jaungoiko guztiaaldun
 orrek: laster datorkigun zure Semearen jaiotzaren
 jaiak, bizkortu gagizala bizitza onetan eta betiko
 saria lortu daiskula.

Salmu-atala

B. Isuri, zeruok, iruntza;
 bialdu, odeiok, garaipena.
 Jaunak diñoana entzungo dot:
 «Bere erriari ta bere adiskideak
 Jaunak bakea irakarten dautse».
 Onezkero, urr dauke Aren zintzoak osasuna,
 eta aintza geure lurrean bizi izango da.
 Errukia ta zuzentasuna alkarregaz datoz,
 zuzentasunak eta bakeak mun egiten dautsoe
 [alkarri;

zintzotasuna erneten da lurretik,
 eta zerutik zuzentasuna dago begira.
 Jaunak euria emongo dauku,
 eta lurak bere frutua ekarriko dau.
 Zuzentasuna ibilliko da Aren aurrean,
 osasunak jarraituko dautse Aren lorratzai.

Opari-otoitza.—Gure oparigaiok Zeuri eskin-
 tzean, Jauna, sakramentu onen bidez egin nai izan
 dozun salbamen-egintza burutu dagizula guban,
 eskatzen dautsugu.

Azken-otoitza.—Zeure errukia eskatzen dogu,
 Jauna, artu dogun zure janari onek laster datoza
 jaietarako gertatu gagizan, gu pekatu guztietatik
 garbitzen gaituala.

IRUGARREN ASTEKO EGUENA

Otoitza.—Poztu gagizuz, Jauna, zure Semea-
 ren etorrera salbatzailleaz gure pekatuetatik atse-

kabetuta zure menpeko izateko gauza ez garanok.

Salmu-atala

B. Goratu egingo zaitut, Jauna,
 askatu egin nozu-ta.
 Goratu egingo zaitut, Jauna, askatu egin nozu-ta,
 ez dautsezu itzi nire arerioai
 nire lepotik barre egiten-eta.
 Jauna, zeuk atara zenduan nire arimea lezatic,
 illobira jatsiten nintzala biztu nenduzun barriro.
 Jo soñua Jaunarentzat, Beronen zintzook,
 emon eskerrak Aren izen santuari;
 Aren asarrea une batekoa da,
 eta Aren ontasuna bizi guztikoa;
 arratsaldean negarra datorkigu,
 goizean, poza.
 Entzun, Jauna, eta erruki zakidaz;
 izan zakidaz laguntza, Jauna.
 Nire negarra dantza biurtu zenduan;
 Jauna, nire Jainko, beti emongo dautsudaz
 [eskerrak!

Opari-otoitza.—Onartu egizuz, Jauna, Zeu-
 gandik artu doguzan ondasunok; eta, ogi ta ardao
 au ekartearen bidez, eiguzu: orain gure bizitza
 ilkor onetan ospatzen dogun egintza santu au, sal-
 bamen-agiri izan dakigula.

Azken-otoitza.—Sakramentuok ospatzeak,
 Jauna, guban frutuak emon dagizala: gure bizitza
 ilkor onetan be betiko ondasunen balioa jakiten
 eta, sakramentuen bidez, ondasunotan geure bio-
 tza ezarten irakasten-dauskuzu-ta.

IRUGARREN ASTEKO BARIKUA

Otoitza.—Zure graziak, Jauna, atondu ta la-
 gundu gagizala beti; orrela, zure Semearen etorre-
 rea biziro opa dogunok, Bera etorri daitenean,
 dogu oraingo ta geroko bizitzarako laguntza aur-
 kituko dogu.

Salmu-otoitza

B. Goratu zagiezala erriak, Jauna,
 goratu zagiezala erri guztiak.
 Erruki bekigu Jauna ta Berak bedeinkatu gagizala,
 argitu daiskula bere arpegia:
 ezagutu begiz lurak zure bideak,
 erri guztiak Zugandiko osasuna.
 Abestu begie pozez beterik atzerriak,
 lurrean zuzentasunez agintzen dozu-ta;
 erriak artez zuzentzen dozuz,
 lurreko atzerrien agintari zara.
 Lurak bere frutua ekarri dau,
 gure Jainko Jaunak bedeinkatu egin gaitu.
 Bedeinkatu gagizala Jainkoak;
 lurreko bazterralde guztiak be bildur izan dagioela.

Opari-otoitza.—Gure txirotasunaren erregu ta
 oparigai oneik bigundu zagiezala, Jauna; eta, gure

buruak laguntza ta geure irabazi bagarik ikustean, zatoz, errukitsu, guri laguntza ekartera.

Azken-otoitza.—Eukaristi doaiaz janarituta, apalik eskatzen dautsugu, Jauna: zure sakramentuan alkartzearen bidez, zeruko ondasunak biziro maite izanik, lurreko ondasunak negurriz pisatzeko jakituria emon daiskuzula.

ABENDUKO LAUGARREN ASTEA LOTAZILLAREN 17

Otoitza.—Gizonaren egille ta barrizaille zaran Jaungoikoa; betiko Itza dan zure Semeak Mari beti Birjiñaren sabelean aragia artzea nai izan dozu: entzun gure eskariak eta gugaitik gizon egin zan Kristo'k, zure Seme bakarrak, bere antzera, oso-osorik bere seme biurtzeko mesedea egin daiskula.

Salmu-atala

B. Aren egunetan zuzentasuna loratu daitela, eta bakea oparo izan daitela betiko.
Emoiozu zure auzia erregeari, ene Jainko orrek, zure erriai zuzentasunez eta zure apalai artez agindu dagitsen.
Mendiak bakea ekarri dagiela eta muruak zuzentasuna.
Berak zaindu dagizala erriko apalak, eta beartsuaren semeai laguntza emon dagitsela.
Aren egunetan zuzentasuna loratu daitela, baita bakea be, illargia itzungi arte; itsasotik itsarora nagusi izan daitela, Ibai Aunditik legor-mugaragiño.
Aren izena betiko izan daitela, eta aren izen onak eguzkiak aña iraun dagiala; bera izan daitela erri guztien bedeinkapena, eta lurreko enda guztiak zorionsutsat autortu [dagiela.

Opari-otoitza.—Santutu egizuz, Jauna, zure Elizearen oparigaiok, eta eiguzu, eukaristia ospatzean, gu bizkortzen eta sendotzen gaituan ogia aurkitu dagigula beti.

Azken-otoitza.—Eukaristi onen bidez janarituta, apalik eskatzen dautsugu, Jauna: zure sakramentuan alkartzearen bidez, zeruko ondasunak biziro maite izanik, lurreko ondasunak negurriz pisatzeko jakituria emon daiskuzula.

LOTAZILLAREN 18

Otoitza.—Eiguzu, Jauna: pekatuaren antxiñako buztarpean estututa bizi ganarok, zure Semearen jaiotzaren misterio barriztuaz gure buruak azkenean be askatuak ikusi dagiguzala.

Salmu-atala

B. Aren egunetan zuzentasuna loratu daitela, eta bakea oparo izan daitela betiko.

Emoiozu zure auzia erregeari, ene Jainko orrek, zure erriai zuzentasunez eta zure apalai artez agindu dagitsen.

Deadarka ziarduan beartsua, Berak atarako dau [onik,

baita laguntzaillerik ez eukan errukarria be; Bera izango yako erruki beartsu ta eskekoari, Berak zainduko dau beartsuen bizia.

Bedeinkatua izan daitela Jauna, Israel'go Jainkoa, mirariak egiten bakarra dana; bedeinkatua betiko Aren izen ospatsua; bete dagiala lurra Aren aintzak.
Amen, amen!

Opari-otoitza.—Begiko egin gagizala zure aurrean, Jauna, misterio au ospatzeak; eta, beronen bidez, Jesukristo zure Semearen betiko bizitzan eskuartu dagigula: gure izadi ilkorra, Berak beragan beraganatuaz, onik atara ta jaso egin eban-eta.

Azken-otoitza.—Lagun egiozu errukiz, Jauna, zure Elizeari, laster datozen gure erospenaren jaiak ospatzeko egoki gertatu daiten.

LOTAZILLAREN 19

Otoitza.—Andra Maria'ren seingintzan gizadi guztiari zeure aintzaren ditzira agertu izan dautsazun gure Jaun eta Jaungoikoa; lagun eiguzu zure graziaz, zure Semearen Gizakundearen misterio arrigarria fede beteaz iragarri eta oneraspen zintzoz ospatu dagigun.

Salmu-atala

B. Beterik egoan nire agoa zure gorapenaz eta aintzaz egun guztian.
Izan zakidaz Zeu igesleku-arkatxa, ni gordeteko gaztelua, nire aitz eta gaztelu Zeu zara-ta.
Askatu nagizu, ene Jainko orrek, esku gaiztotik.
Nire itxaropena Zeu izan zintzazan, ene Jainko, baita nire uste ona be, Jauna, nire gaztarotik.
Amaren sabelean ezkerro, Zeu zendudazan eusgarri, sabelean Zeuk eusten zeustan.

Zeure arrigarriak azalduko dodaz, ene Jauna, zeure garaipena adierazoko dot, zeurea oso-osorik. Gaztatarik irakatsi zeustan, ene Jainko orrek, eta gaur arte iragarten dodaz zure miragarriak.

Opari-otoitza.—Onartu biotz biotz onez, Jauna, oparigaiok, eta sagaratu egizu zure aal-izateaz gure urritasunak dakartzuna.

Azken-otoitza.—Artutako doaiakaitik Zuri eskerrak emotean, apalik eskatzen dautsugu Aita guztiaaldun orri: onezkero urr dagoan Kristo'ri bidera urteteko gogoa biztu dagizula gudan: orrela, espiritu garbiz, zeure Semearen jaiotza ospatu aal dagigun. Zugaz eta...

LOTAZILLAREN 20

Otoitza.—Gure Jaun eta Jaungoikoa: Birjiña Garbia, beronen sabelean zure Semea gizon egingo zala aingeruak iragartean eta ori Maria'k onarturik, zeure asmoari menpetu yakon: emoiguzu, ba, Espiritu Santuaren egiñez, Maria zeure jaungoikotasunaren jauretze biurtu dozun Orrek, guk Maria'ren ikasbideari jarraiturik, biotz apalez zeure asmoak onartzeko grazia.

Salmu-atala

B. Ba-dator Jauna,

Bera da zeruko Erregea.

Jaunarena da lurra ta an dagoan guztia,
lurbira ta an bizi diran guztiak;
Berak jarri eban lurra itsasoen gaiñean,
Berak sendotu eban ibaien gaiñean.

Nor igoko da Jaunaren mendira?
nor egon daiteke toki santuan?

Eskuak erru bagarik
eta biotza garbi daukazana.

Alakoak, Jaunagandiko bedeinkapena artuko dau,
osasan-Jainkoak zuzenbidea egingo dautso.
Orixe da Jaunaren billa dabillen taldea,
Jakob'en Jainko orren aurrera datorrena.

Opari-otoitza.—Onartu egizuz, Jauna, opari-gaiok, euron bidez barriztuko da-ta gudan Kristo'ren opari bakarra; eta egizu, misterio oneitan eskuartzean, fedeak eskintzen dauskuzan ondasunak benetan artu dagiguzala, gu ondasunok itxaroten gagozan artean.

Azken-otoitza.—Zaindu zure aal-izateaz, Jauna, eukaristiaz janaritu dozuzanak, eta sakramentu onetan pozaren eta benetako bakearen iturria aurkitu dagigula.

LOTAZILLAREN 21

Otoitza.—Entzun, Jauna, zure erriaren otoitza, zure Seme gizon egiñaren etorreraz poz-pozik dago-ta; eta egizu, bere aintzaz etorri daitenean, azken-aldietan betiko erreñuaren jabe egiteko deia bere ezpaneaz entzunaz poztu aal gaitzala.

Salmu-atala

B. Goratu egizue Jauna, zintzook,
abestu egiozue kanta barri bat.

Emon egiozue eskerrak Jaunari zitaraz,
jo egizue amar ariko arpa Aren omenez;
abestu egiozue kanta barri bat,
bordoien laguntzaz goratuez.

Jaunaren egitamuak betiko irauten dabe,
Aren biotzeko asmoak gizaldiz-gizaldi.
Zorionsua, Jauna Jainkotzat daukan erria,
bere oiñordetzat aukeratu eban erria!

Gu Jaunaren zain gagoz:

Bera da gure laguntza ta babeskin;

Arexegan poztuten da gure biotza,
Arexen izen santuan dogu ustea.

Opari-otoitza.—Onartu egizuz, Jauna, Elizeak Zuri ekarri ta eskintzeko Zeuk emon zeutsazan doaiok; zure jaungoikozko indarrak, zure erriarentzat salbamen-sakramentu biurtzeko mesedea egizu.

Azken - otoitza.—Jaungoikozko misterioetan eskuartzekak, zeure erriaren laguntzarako balio dagiala, Jauna: zeure serbitzaritzari ekiñik, gorputz-arimako salbamena bete-beteen lortu dagian.

LOTAZILLAREN 22

Otoitza.—Zure Semearen etorreraz, eriotzara galduta egoan gizona erosi nai izan dozun Jainko Jauna: egizu, Belen'en ume eginda, Bera gurtuko dabenak Aren erospenaren ondasunetan eskuartu dagiela.

Salmu-atala

B. Poz-bitsetan daukat biotza Jaunagaitik,
nire Salbatzailleagaitik.

Poz-bitsetan daukat biotza Jaunagaitik,
gora egiten dau nire indarrak Jaunagaitik;
barre egiten dau nire agoak nire arerioai buruz,
Zugandiko osasunak poztu egiten nau-ta.

Adoretsuen uztaiak ausi egiten dira;
makalak, ostera, adorez jazten dira;
aseak ogiagaitik ituntzen dira lanerako,
gose diranak, ostera, gizendu egiten dira;
andra sabel-agorrrak zazpi seme dakaz argitara;
askoren ama, ostera, agor geratzen da.

Jaunak emoten dauz eriotza ta bizia,
lezan amildu ta andik atara egiten dau;
Berak emoten dauz txirotasuna ta aberastasuna,
beeratu ta gora jasoten dau.

Berak jasoten dau gaisoa autsetik,
eta txiroa satsetik,

nagusien artean jesarri daiten
eta oiñordetzat aulki goragarria artu dagian;
izan be, Jaunarenak dira lurraren zutarriak,
eta arein gaiñean sendotu eban lurbira osoa.

Opari-otoitza.—Maite gaituzula dakigun ezkerro, opariokaz zeure altara-aurrean aurkezten gara, Jauna; egiguzu, orain ospatzen doguzan misterio santuak gure pekatuetatik garbitu gagezala.

Azken-otoitza.—Egin dogun jaunartze au, sendotasun-iturri izan dakigula, Jauna; olan geure egintza onez aberastuta, Kristo'ren aurrera urtenda, egunen baten Aren eskuetatik saritzat betiko atsegiñak artu aal izango doguz.

LOTAZILLAREN 23

Otoitza.—Jaungoiko guztiaaldun eta betikoa!
Gabon-jaietara urreratzean, apalik eskatzen dau-

tsugu: Birjiña Maria'ren erraietan gizon eginda geure artean bizi nai izan eban zure Semeak, bere errukiaren ugaritasunean eskuartzeko mesedea egin daiskula.

Salmu-atala

B. Begiratu ta jaso zuen buruak:
zuen erospena urr dago.

Erakutsi egidazuz, Jauna, zure bideak,
zuzendu nagizu zure egi-bidean;
irakatsi nagizu, nire Jainko ta Salbatzaille Zeu
Jauna ona ta zuzena da, [zara-ta.
eta pekatariak bidea erakusten dautse;
apalak artez daroaz,
apalai bere bidea erakusten dautse.
Jaunaren bide-zidorrak errukia ta zintzotasuna

[dira,

Aren alkartasuna ta aginduak beteten
[dabeanentzat.

Zabaldu egiten yake Jauna bere zintzoai,
eta bere alkartasuna jakiferaizoten dautse.

Opari-otoitza.—Zuri, Jaun orri, gizakiak eskintza onetan emoten dautsun gurtza goren-gorenera eltzen da; eskintza onek gure adiskidetasuna Zugaz barriztu dagiala: olan, grazitan barriztuta, geure Eroslearen jaiotza ospatuko dogu.

Azken-otoitza.—Zeruko doaiak janaritu dozu-zanoi, Jauna, emon egiezu bakea eta baretu egizu euron barrua: argi-ontziak iziotuta, bildur bagarik, orain datorren Kristo'ri bidera urten dakioen.

LOTAZILLAREN 24

GOIZEKO MEZA

Otoitza.—Zatoz, Jesus Jauna, eta ez luzatu geiago: zure maitasunetik guztia itxaroten dauan edonor, zure etorrereak adoretu ta sendotu dagian. Aitagaz eta Espiritu Santuagaz batera Errege bizi...

Salmu-atala

B. Beti abestuko dodaz Jaunaren errukiak.

Beti abestuko dodaz Jaunaren errukiak,
gizaldiz-gizaldi zeure zintzotasuna iragarriko dot.
Auxe esan neban-eta: «Zure errukia beti-betiko
[etxea da,
zerua baiño geiago sendotu dozu zure
[zintzotasuna».

Nire aukeratuagaz alkartasuna egin neban,
Dabid nire otseñari zin au egiñik:
«Azi bat sortuko dautsut betiko,
gizaldi guztietarako ezarriko dot zure errege-
[alukia».

«Zeu zara nire aita —egingo daust dei—,
nire Jainko, nire Arkaitz salbatzaillea».
Neure laguntza gordeko dautsat beti,
eta zintzo iraungo dau aregaz egin neban
[alkartasunak.

Opari-otoitza.—Onartu biotz onez, Jauna, eskintza onetako doaiok, eta, eurok artzean, gure pekatuetatik garbitu gagezala, zure Semearen etorrera goragarriaren zain egoki egon aal gaitzean.

Azken-otoitza.—Emoiguzu laguntza, Jauna, Eukaristiaz barriztu gaituzanoi: zure Semearen jaiotzarako gertu egon gaitzean eta Aren betiko doaien ugaritasuna pozik artu dagigun.

GABON - ALDIA

LOTAZILLAREN 29 GARRENETIK URTARRILLAREN 5 GARRENERARTEKO ASTEA

LOTAZILLAREN 29

Otoitza.—Zu, Jaungoiko guztiaaldun ori, ez zaitu iñok iñoiz be ikusi: munduko illunpeak benetako Argia dan Kristo'ren etorreraz ezereztu dozuzan ezker, begiratu gagizuz atsegiñez, zure Semearen jaiotzaren aintza egoki abestu aal dagin. Zugaz eta...

Salmu-atala

B. Poztu bedi zerua, alaitu bedi lurra. Abestu egiozue Jaunari kanta barri bat, abestu Jaunari, lur guzti orrek; abestu Jaunari, bedeinkatu Aren izena. Iragarri egunoro Aren garaipena. Azaldu erriai Aren aintza, atzerri guztiai Aren mirariak. Jaunak zerua egin dau; aintza ta andi-izatea doaz Aren aurrean, indarra ta edertasuna dagoz Aren jauretxean.

Opari-otoitza.—Onartu egizuz, Jauna, opari-gaiok, eurotan gugaz artu-emon arrigarria burutu-ko dozu-ta; izan be, Zeuk emon dauskuzuzan do-aiok guk Zeuri eskintzean, saritzat Zeu artzea itxaroten dogu.

Azken-otoitza.—Misterio santuon eragiñak, Jauna, sendotu egizu geroago ta grazi geiagoaz gure kristau-bizitza.

LOTAZILLAREN 30

Otoitza.—Gure aragian Zure Semea barriro jaiotz, atara gagizuz, Jaungoiko guztiaaldun orrek, pekatuaren antxiñako morroitzak menpean gaudu buztarpetik.

Salmu-atala

B. Poztu bedi zerua, alaitu bedi lurra. Goratu Jauna, errietako sendiok, goratu Jaunaren aintza ta indarra, goratu Jaunaren izenaren aintza. Sartu Aren aterpeetan opariak ekarriez; auspazu zaitezte Aren aurrean aterpe santuan, jarri daitela ikaraka lur osoa Aren aurrean. Esan egiezue erriai: «Jauna da errege, Berak sendotu eban lurra, eta ez dau zirkiñik Bera da errien agintari zuzena». [egingo;

Opari-otoitza.—Onartu egizu, Jauna, zure erriaren eskintza au; eta egizu, fedearen bidez sinisten dogun guztia, sakramentu onen bidez gudan bizitza egin daitela.

Azken-otoitza.—Saritzat Eukaristian eskuar-tzea emon dauskuzun Jauna: eiguzu, sakramentu

onen eragiña be lortu dagigula, eta, sakramentu au artzean, orain egiten dauskuzun doai onen dui-ñago egin gaitezala egunoro.

LOTAZILLAREN 31

Otoitza.—Edozein erlejiñoren asiera ta osotasuna Jesukristo zure Semearen jaiotzan ezarri dozun Jaungoiko guztiaaldun eta betikoa: egiguzu, Aren gorputzaren atal bizien artean zenbatuak izateko mesedea, munduaren salbamena Aregan soillik zustraitzen da-ta.

Salmu-atala

B. Poztu bedi zerua, poztu bedi lurra. Abestu egiozue Jaunari kanta barri bat, abestu Jaunari, lur guzti orrek; abestu Jaunari, bedeinkatu Aren izena, iragarri egunoro Aren garaipena. Poztu bedi zerua, alaitu bedi lurra, asi bedi burrundaraka itsasoa ta bertako dana; asi bediz goraka landak eta bertan dagoan guztia, poztu daitezala basoko zugatzak. Jaunaren aurrean, ba-dator-eta; lurreko nagusi izatera dator.

Opari-otoitza.—Erruki zintzoaren eta anai-arteko maitasunaren iturri zaran gure Jainko Jauna: eskintza onek zure izena goratu dagiala eta, sakramentu onetan eskuartzearen bidez, gure batasuna indartsua izan daitela.

Azken-otoitza.—Zure erriak, beti zeure babes-pean eroana izanda, artu dagizala, Jauna, Zeuk bialtzen dautsazuzan oraingo ta geroko laguntzak, eta, lur onetako pozbideak eusten dautsoela —bearreko yako-ta—, lagun egiozu betiko ondasunetara uste on geiagoz joten.

GABON-ALDIKO ASTEGUNETAN

*Urtarrillaren 2 garrenetik Jaunaren
Bateo-egun aurreko larunbatera.*

ASTELENA

Agerkunde-aurrean

Otoitza.—Emon egiozu zure erriari, Jauna, fedean iraupena ta sendotasuna; eta Zeu lez betiko aintzazko Jaungoiko dan zure Semea Ama Birjiña-gandik geuk dogun lako gorputzaz autortzen daben guztiak, atara egizuz bizitza onetako gaitz guztie-tatik eta betiko atsegiñak lortzen lagundu.

Agerkunde-ostean

Zure jaungoikozko argiak gure biotza argitu dagiala eskatzen dautsugu, Jauna; argi orregaz munduko illunpeen artean aurrera egingo dogu, beti argitasun etenbagea dan errira eldu arte.

Opari-otoitza.—Onartu egizuz, Jauna, opari-gaiok, eurotan gugaz artu-emon arrigarria burutu-ko dozu-ta; izan be, Zeuk emon dauskuzuzan do-

aiok guk Zeuri eskintzean, saritzat Zeu artzea itxaroten dogu.

Azken-otoitza.—Misterio santuon eragiñaz. Jauna, sendotu egizu geroago ta grazi geiagoaz gure kristau-bizitza.

ASTARTEA

Agerkunde-aurrean

Otoitza.—Zure Semearen jaiotza garbiaren bidez, Aren gizatasuna jatorrizko pekatupean ez geratzea erabagi dozun Jaungoiko guztiaalduna; misterio arrigarri onegaitik, apal-apalik eskatzen dautsugu: Kristo'gan bizitza barri batera barriro jaiotzearen, ez gaitzala atara genduzuzan bizitza galkorrera biurtu.

Agerkunde-ostean

Gure Jainko Jauna: zure Semeak, Bera geuri agertzeko, geure aragiaren izatea artu eban bereztat; eiguzu, arren, bere gizatasunean geu lako bardiña zan Aren irudira biurtu aal gaitzala.

Opari-otoitza.—Onartu egizu, Jauna, zure erriaren eskintza au; eta egizu, fedearen bidez sinisten dogun guztia, sakramentu onen bidez gudan bizitza egin daitela. Zugaz eta...

Azken-otoitza.—Saritzat Eukaristian eskuartztea emon dauskuzun Jauna: eiguzu, sakramentu onen eragiña be lortu dagigula, eta, sakramentu au artzean, orain egiten dauskuzun doai onen duiñago egin gaitzala egunoro.

EGUASTENA

Agerkunde-aurrean

Otoitza.—Jaungoiko guztiaaldun ori: zure Salbatzailleak, zeruan jagiten dan erospen-argiak, geure biotzetan be argi eginda, beti barriztu gaitzala.

Agerkunde-ostean

Erri guztien argi ditziratsu zaran Jauna: emon egiezu lurreko erriak bake iraunkorra, eta argitu egizuz gure biotzak, Aztiak zeure Semea ezagutzera eroan ebazan argi ikusgarriaz.

Opari-otoitza.—Erruki zintzoaren eta anai-arteko maitasunaren iturri zaran gure Jainko Jauna: eskintza onek zure izena goratu dagiala eta, sakramentu onetan eskuartzearen bidez, gure batasuna indartsua izan daitela.

Azken-otoitza.—Zure erriak, beti zeure babespean eroana izanda, artu dagizala, Jauna, Zeuk bialtzen dautsazuzan oraingo ta geroko laguntzak, eta, lur onetako pozbideak eusten dautsoela —bearezko yako-ta—, lagun egiozu betiko ondasunetara uste on geiagoz joten.

EGUENA

Agerkunde-aurrean

Otoitza.—Zure Semearen jaiotzaz gizonen erospen-lana era miragarriz asi dozun Jauna; emoi-guzu, arren, fede sendoa: guk, Jesukristo'k berak eroanda, agintzariz eskiñi dauskuzuzan betiko sariak lortu aal dagiguzan.

Agerkunde-ostean

Jaungoiko guztiaalduna: zure Semearen bidez, erri guztiai Zu Jauna zarala agertu dautsezu; egizu, zure erriak, Kristo salbatzaillearen misterio sakona ezagututa gero, misterio onen indarrez, zeruko argiaren zoriona lortu dagiala.

Opari-otoitza.—Onartu egizuz, Jauna, opari-gaiok, eurotan gugaz artu-emon arrigarria burutuko dozu-ta; izan be, Zeuk emon dauskuzuzan doaiok guk Zeuri eskintzean, saritzat Zeu artzea itxaroten dogu.

Azken-otoitza.—Misterio santuon eragiñak, Jauna, sendotu egizu geroago ta grazi geiagoaz gure kristau-bizitza.

BARIKUA

Agerkunde-aurrean

Otoitza.—Argitu, Jauna, zure zintzook; argitu euron biotzak zure aintzaren argiaz: euren Salbatzaillea beti autortu eta euren bizitzako goieneko egia lez bizi dagiela.

Opari-otoitza.—Onartu egizu, Jauna, zure erriaren eskintza au; eta egizu, fedearen bidez sinisten dogun guztia, sakramentu onen bidez gudan bizitza egin daitela.

Azken-otoitza.—Saritzat Eukaristian eskuartztea emon dauskuzun Jauna: eiguzu, sakramentu onen eragiña be lortu dagigula, eta, sakramentu au artzean, orain egiten dauskuzun doai onen duiñago egin gaitzala egunoro.

LARUNBATA

Agerkunde-aurrean

Otoitza.—Jesukristo zure Semearen jaiotzan argitasun barriz agertu nai izan dozun Jaungoiko guztiaaldun eta betikoa: eiguzu, Berak, Birjiñagandik jaiotzeaz, giza-maillan geugaz eskuartzen dauanez, geuk be egunen baten Aren erreiñuan Aren jaungoikotasunaren aintzan eskuartzea lortu dagigula.

Agerkunde-ostean

Zure Seme bakarraren bidez, bizitza barri batera etorrerazo gaituzun Jaungoiko guztiaaldun eta betikoa: eiguzu, Kristo'gan gure gizatasun ilkorra zeure jaungoikozko izateari bat egiten yakonez, geu be graziak Kristo'ren erudutara eratu gaitzala.

GARIZUMA - ALDIA

AUTS-EGUNA

Opari-otoitza.—Erruki zintzoaren eta anai-arteke maitasunaren iturri zaran gure Jainko Jauna: eskintza onek zure izena goratu dagiala eta, sakramentu onetan eskuartzearen bidez, gure batasuna indartsua izan daitela.

Azken-otoitza.—Züre erriak, beti zeure babespean eroana izanda, artu dagizala, Jauna, Zeuk bialtzen dautsazuzan oraingo ta geroko kaguntzak, eta, lur onetako pozbideak eusten dautsoela —bearrezko yako-ta—, lagun egiozu betiko ondatsunetara uste on geiagoz joten.

Otoitza.—Garizuma au astean, sendotu gaginguz, Jauna, zure laguntzaz, damu-espirituan iraun dagigun; aldi onetako damu-neke latz onek lagun egin daiskula kristau-burrukan gaiztakeriaren indarren aurka.

Salmu-atala

B. Erruki, Jauna: pekatu egin dogu.

Erruki zakidaz, ene Jainko, zure ontasunagaitik, garbitu nire errua zure erruki aundiagaitik. Kendu zearo nire dongakeria, garbitu nire pekatua.

Ezagutzen dot, bai, nire gaiztakeria, nire pekatua beti neure aurrean daukat. Zeure kontra, zeure kontra bakarrik egin dot Egin nigan, Jainko, biotz garbi bat, [pekatu. barriztu nire barruan gogo sendo bat; ez nagizu jaurti zure arpegitik urrun, ez egidazu kendu zure arnasa santua.

Biurtu egidazu zure osasun-poza, sendotu nagizu zintzotasun-arnasaz. Jauna, nire ezpanok zabaldu egingo dozuz, eta nire agoak zeure gorapena iragarriko dau.

Autsa bedeinkatzean.

Gure barrua apal-apalik dogula, otoitz egin daiogun, anai-arrebok, gure Jainko Jaunari: bedeinkatu dagizala bere graziaz damu-neke-ezaugarritz gure buruan ezarriko dogun auts au.

ixilik une baten; gero:

Apaltasunaz biguntzen eta bere pekatuen damuaz atsegintzen zaran Jaungoikoa: entzun biotz onez gure eskariak eta isuri egizu autsa artuko daben zure seme-alabon gafiñera zure bedeinkapenaren grazia: Garizumako egintzai zintzo eutsirik, zure Semearen Pazko-misterioa ospatzera biotz garbiz eldu daitezana. Zugaz eta... bizi da-ta gizaldien gizaldietan.

Orain abadeak, ixillean ur bedeinkatuaz autsa iru aldiz txipristinduta gero, eliztarrai bekokietan autsa ezarten dautse, esanez:

Autsa zara eta auts biurtuko zara.

Opari-otoitza.—Garizuma onen asieran opari au eskintzean, apalik eskatzen dautsugu, Jauna: gure maitasun-egintzak eta gure damu-nekeak geure buruak eziteko laguntza emon daiskuela; onela, pekatutik garbi, zure Semearen Nekaldi-misterioak ospatzeko gai izan gaitezana. Zugaz eta...

Azken-otoitza.—Artu doguzan sakramentuok, Jauna, gure baraualdia atsegingarri egin dagitzuela eta gure ezbear guztien osasungarri biurtu daitezala.

AUTS-EGUN OSTEKO EGUENA

Otoitza.—Gure egintzak zure graziak biztu, sendotu ta lagundu dagizala, Jauna: gure lanak Zeugan, bere iturburu zaran Orregan, asirik, beti Zeugana, bere elburu zaran Orregana, jo dagian.

Salmu-atala

B. Zorionsua, bere ustea
Jaunagan jarten dauana!

Zoriontsu, gaiztoen asmoari
jarraitzen ez dautsan gizona,
pekatarien bidetik sartzen ez dana,
irrilarien batzarrean jesarten ez dana!
Aren atsegiña, ostera, Jaunaren legea da,
eta gau ta egun Aren legea ausnartzen dau.
Ur-ertzean landatutako
zugatzaren antzeko izango da:
aldi egokian frutua dakar,
eta aren orriak ez dira zimeltzen;
eta egiten dauan edozer ondo jazoten da.
Ez orrela gaiztoak, ez orixel!
aizeak daroan lastoa lez izango dira.
Ez dira gaiztoak Auzian zutunduko,
ezta pekatariak be zintzoen batzarrean:
Jainkoak zintzoen bidea zaindu egiten dau-ta;
gaiztoen bidea, barriz, ondatu egiten dau.

Opari-otoitza.—Begiratu samurkiro, Jauna, zure altarara dakartzuguzan oparigaiok: pekatuen parkamena lortu daiskuen eta zure izenaren aintza iragarri dagien.

Azken-otoitza.—Zeruko doaia emon dauskuzun ezkerro, apalik eskatzen dautsugu, Jaun guztiaaldun orri: eukaristi onek, gure egintzetan eraginkorra izanik, salbamena lortu daiskula.

AUTS-EGUN OSTEKO BARIKUA

Otoitza.—Sendotu gagizuz, Jauna, Garizuma au asi dogun damu-neke-espirtuan; eta, agiriz egiten dogun laztasan au, beti biotz zintzoz lagunduta joan daitela.

Salmu-atala

B. Biotz ausi ta beeratua
Zuk ez dozu iguintzen.

Erruki zakidaz, Jauna, zure ontasunagaitik,
garbitu nire errua zure erruki aundiagaitik.
Kendu zearo nire dongakeria,
garbitu nire pekatua.
Autortzen dot, bai, nire gaiztakeria,
nire pekatua beti neure aurrean daukat.
Zeure kontra, zeure kontra bakarrik egin dot
Ez dozu oparirik atsegiñez ikusten; [pekatu.
erre-oparirik eskifiñ ba'negizu be,
ez zeukean onartuko.
Nire oparia espirtu damutua da;
biotz damutua ta apala ez dozu baztartzan Zuk.

Opari-otoitza. — Geure Garizuma-egintzen oparia eskintzen dautsugu, Jauna; zure aurrean atsegingarriagoak eta damu-nekea egiten ardurasuagoak egin gagizala.

Azken-otoitza.—Apalik eskatzen dautsugu, Jaun guztiaaldun orri: zure sakramentuetan eskuartzeak pekatu guztietatik garbitu eta zure ontasunaren doaiak artzeko gertatu gagizala.

AUTS-EGUN OSTEKO LARUNBATA

Otoitza.—Jaungoiko guztiaaldun eta betikoa: begiratu errukior gure argaltasuna eta zabaldu gure gaiñera zure esku aaltsua.

Salmu-atala

B. Erakutsi egidazu, Jauna, zure bidea,
zure egiari jarraitu dagiodan.

Makurtu, Jauna, zure belarria, entzun nagizu,
laguntza bagarik nagoan txiroa naz-ta;
gorde egizu nire bizia, zure zintzo bat naz-ta;
onik atara egizu Zeugan itxaroten dauan morroi
[au.

Zeuren zara nire Jainko, erruki zakidaz, Jauna,
egun osoan Zeuri deika diardut-eta;
poztu egizu zure morroi onen arimean,
nire arimean Zeugana jasoten dot-eta.
Izan be, Zu, Jauna, ona ta biotz-biguna zara,
Zuri dei egiten dautsuenentzat errukiz aberatsa.
Entzun, Jauna, nire otoitza,
egon adi-adi nire eskariaren berbotsera.

Opari-otoitza.—Onartu, Jauna, zeure adiskide egiten dauan gorapenezko opari au; bere eragiñak gure pekatuetatik garbitu gagizala, zure aurrean opari atsegingarri lez aurkeztu gaitzean.

Azken-otoitza.—Bizi-ogiaz janarituta, apalik eskatzen dautsugu, Jauna: eukaristi onetan misterio lez bizi ta ospatu doguna, zeruan salbamen bete-betea lez artu dagigula.

GARIZUMAKO LEENENGO ASTELENA

Otoitza.—Biurtu gagizuz Zeugana, gure Jaungoiko Salbatzaille orrek; argitu gagizuz zure itzaren argiaz: Garizuma au ospatzeak, gudan bere fruturik onenak sortu dagizan.

Salmu-atala

B. Zure berbak, Jauna, espirtu ta bizia dira.

Jaunaren Legea bikaiñia da,
eta arimearen atsedeen;
Jaunaren erabagia zintzoa da,
eta ez-ikasiaren jakituri.
Jaunaren aginduak zuzenak dira,
eta biotzaren pozgarri;
Jaunaren agindua gardena da,
eta begien argi.
Jaunaren naia garbia da,

eta iraunkor beti;
Jaunaren aginduak egia dira
eta guztiz zuzenak.

Izan dakizuzala atsegingarri nire agoko berbak,
eta eldu daitela zure aurrera nire biotzeko aus-
Jauna, nire Arkaitz, nire Erosle! [nartzea,

Opari-otoitza.—Onartu egizuz, Jauna, opari-
gaiok, zeure serbitzaritzan diardugunon ezaugarri
dira-ta; santutu dagiela eurok gure bizitza zure
graziaren eragiñez eta lortu daiskuela gure erruen
parkamena.

Azken-otoitza.—Zure eukaristia artzean, so-
matu dagigula, Jauna, gorputz-arimako laguntza;
eta olan, gure burua osorik Kristo'gan barriztuta,
zure salbamenaren osotasunean poztu aal izango
gara.

GARIZUMAKO LEENENGO ASTARTEA

Otoitza.—Begiratu maitasunez zure etxekook,
Jauna; eta, gure gorputz-nekeen saritzat, biztu
egizu gugan Zeu artzeko gogoia.

Salmu-atala

B. Norbaitek deadar egiten dauanean,
Jaunak entzun eta aren larrietatik onik
ataraten dau.

Iragarri egizue nigaz batera Jaunaren andi-izatea,
goratu daigun Aren izena guztiok batera.
Jaunari itandu neutsan, eta erantzun egin eustan,
neure larri guztietatik atara nenduan.

Begiratu egiozue, eta dizdiz egingo dozue,
ez da zuen arpegia lotsatuko.
Saminduak Jaunari egiten ba'dautso dei,
Arek entzun eta estualdi gustietatik ataraten dau.

Jaunaren begiak zintzoen gaiñean,
eta Aren belarriak arein deadarretara;
Jaunaren arpegia, barriz, gaizkilleen kontra,
arein gomutapena lurretik garbitzeko.

Opari-otoitza.—Gure Jaun eta Jaungoikoa,
gure Egille guztiaalduna: onartu Zeuk emondako
doaiok; eta, gizonen bizitza onetarako janari egin
dozuzan ogi ta ardaoa, betiko bizitza diran sakra-
mentu biurtu egizuz.

Azken-otoitza.—Eukaristi onek, Jauna, lurre-
ko ondasunetarako gure guraria atzamatzen eta
zeruko ondasunak gura izaten lagun egin daiskula.

GARIZUMAKO LEENENGO EGUASTENA

Otoitza.—Begiratu gogo onez, Jauna, zure
erria, bizitza on baten bidez zeure menpean egon
nai dau-ta; eta, euren gorputza damu-nekeaz negu-
rritzen dabenak, barriztu egizuz barruz egintza
onen frutuaren bidez.

Salmu-atala: Autsegun osteko barikuan
lez: 14 orri.

Opari-otoitza.—Zeuri eskintzeko emon zeus-
kuzan doaiok ekarten dautsuguz, Jauna; eta Zuk,
ogi ta ardao onein bidez salbamen-misterioa egin
dozun ezkerro, salbamen-misterio orretan betiko
bizitzako iturria aurkitu dagigula egizu.

Azken-otoitza.—Beti zeure maira etorteko dei
egiten dauskuzun Jauna: egiguzu, janaldi onetan
eskuartu dogun ezkerro, betiko bizi-iturri izan
dakigula.

GARIZUMAKO LEENENGO EGUENA

Otoitza.—Emoiguzu, Jauna, beti ona dana
buruan erabilteko ta egiteko grazia; eta, Zeugaz
izan ezik, ez bizi ez onak izan ezin izan gaiteke-
zan ezkerro, beti zeure naitara bizi gaitetzala egizu.

Salmu-atala

B. Dei egin neutsunean, entzun egin zeustan.
Biotz-biotzez emoten dautsudaz eskerrak, Jauna;
aingeruen aurrean joko dodaz eresiak Zuretzat.
Zeure jauretzerantz auspaztuko naz.

Eskerrak emongo dautsadaz zure izenari:
zeure erruki ta zintzotasunagaitik.

Dei egin neutsunean, entzun egin zeustan,
geitu egin zenduan adorea nire ariman.

Nire arerioaren asarrearen kontra zeure besoa
[zabaltzen dozu.

Beteko dauz Jaunak bere mesedeak nigan:
betikoa da, Jauna, zure errukia,
ez itzi bertan-beera zure eskuak egindakoa.

Opari-otoitza.—Adi-adi egon zaitetz, Jauna,
zure erriaren gurarietara, entzun beronen eskariak,
onartu beronen oparigaiok eta erakarri Zeuga-
nuntz gure biotzak.

Azken-otoitza.—Eiguzu, Jainko Jaun orrek,
sakramentu onek, geure salbamen-agiri dan ezke-
ro, bizitza onetan geure laguntza izanik, betiko
bizitzarako ondasunak jadetsi daiskuzala.

GARIZUMAKO LEENENGO BARIKUA

Otoitza.—Zure erria, Jauna, Pazko-jaietarako
Garizumako gorputz-nekeen bidez gertatu daitela,
eta gure lagunarteko laztasunak zure eliztarren
espiritua barritzeko balio dagiala.

Salmu-atala

B. Gaiztakeriak gogoan ba'daukazuz, Jauna,
nor egon aal izango da zutik?

Barru-barrutik egiten dautsut deadar, Jauna:
entzun, Jauna, nire deia;
begoz adi-adi zure belarriak
nire otoi-deira.

Gaiztakeriak gogoan ba'daukazuz, Jauna,
nor egon aal izango da zutik?
Baiña Zeugandik dator parkatzea,
eta olan begirunea sartzen dozu.

Nire arimeak Jaunagan itxaroten dau,
Aren Berban dauko ustea;
nire arimea Jaunaren zain dago,
zaintzaillea egunsentiaren zain baiño geiago.

Opari-otoitza.—Onartu egizuz, Jauna, opari-gaiok: euron bidez izan dozu nai gizonak Zu bare-tzea, baita maitasun eraginkorrez guri betiko sal-bamena biurtzea be.

Azken-otoitza.—Eukaristi onek barriztu gagi-zala, Jauna: pekatuaren frutu dan gure bizitza galkor au gaindurik, erospenaren ondasunetan eskuartzera eldu gaitezan.

GARIZUMAKO LEENENGO LARUNBATA

Otoitza.—Jainko Aita betikoa: eroan egizuz Zeuganuntz gure biotzak: zeure morroitza jar-dunaz, bear-bearrezko bakarra zaran Orren billa ibilli gaitezan, eta eruki-lanetan jardun dagigun.

Salmu-atala

B. Zorionsua Jaunaren naian dabillena!
Bai zorionsu, bizitza errugabeaz,
Jaunaren naian dabillena!
bai zorionsu, Aren aginduak gorderik,
biotz-biotzez Aren billa dabillena!
Zeuk emon dozuz zure erabagiak,
zeatz-meatz bete daitezcan;
egongo al-da sendo nire bidea
zeure erabagiak beteteko!
Biotz zintzoz goratuko zaitut
zure agindu zuzenak ikasi dagidazanean;
zure legeak zeatz-meatz nai dodaz bete:
ez nagizu Zuk bertan-beera itzi.

Opari-otoitza.—Misterio santuok ospatzeak, Jauna, geure pekatuetatik garbitu eta euskaristian eskuartzeko gai egin gagizala.

Azken-otoitza.—Zure laguntza etenbageaz la-gun egiezu, Jauna, eukaristiaz janaritzen dozuz-a-nok; eta, zure itzaren doaiaz argitu dozuzan guz-tioi, lagun egiezu beti zure graziaren pozaz.

GARIZUMAKO BIGARREN ASTELENA

Otoitza.—Jauna, Aita santu, gure espiritua-ren onerako gure gorputza laztasunaren bidez ezitea agindu zeuskun Ori!: lagundu gagizuz peka-tuaren lillurakeritik askatzen eta zure lege santua beteten.

Salmu-atala

B. Ez dagizuz erabilli, Jauna,
gure pekatuak merezi dabenez.
Ez gogoratu gure kontra
gure gurasoen erruak;
etorri dakigula laster zure errukia,
indar bagarik gagoz-ta.
Lagun zakiguz, Jainko gure salbatzaille,

zure izenari dagokion aintzagaitik;
askatu gagizuz eta parkatu gure pekatuak,
zure izenagaitik.

Eldu bedi zure aurrera katiguaren antzia:
askatu zure beso indartsuaz eriotzarako galduak.
Bitartean, guk, zeure erri
eta zeure artaldeko ardi garanok,
eskerrak emongo dautsuguz beti,
zeure gorapenak iragarriko doguz gizaldiz-gizaldi.

Opari-otoitza.—Entzun, Jauna, gure otoitza, eta askatu munduaren lillurakeritik misterio santu oneitan zeure serbitzari izateko dei egin dautse-zunok.

Azken-otoitza.—Jaunartze onek garbitu gagi-zala, Jauna, pekatutik, eta zeruko pozen erdikide egin gagizala.

GARIZUMAKO BIGARREN ASTARTEA

Otoitza.—Zaindu egizu, Jauna, zure Elizea maitasun etenbageaz; eta, zeure laguntzaz izan ezik, giza-makaltasunean oiñarrituta dagoan ezek be ezin iraun daiken ezkerok, gorde egizu zure Elizea arriskueta eta eutsi egiozu salbamen-bidean.

Salmu-atala

B. Bide onari jarraitzen dautsanari
Jainkoagandiko osasuna erakutsiko dau-sat.

Ez dirautsut ezer zure opariak buruz,
zure erre-opariak beti daukadaz aurrean-eta.
Baiña ez dot zure etxeko txaltxorik onartuko,
ezta zure artaldeko akerrik be.

«Zetan diarduzu zuk nire aginduak esaten,
eta zure agoan nire alkartasuna artzen?,
nire irakaspena baztartzan
eta nire berbak lepora jaurtitan dozuzan orrek?»
Orixe egiten dozu zuk;
eta ixillik egon bear ete-dot?
Ni zeu lakoxea nazala uste dozu, ala?
Salatu ta aurrez-aurre erantzungo dautsut.
Esker-opariak eskintzen daustazanak
goratu egiten nau;
bide onari jarraitzen dautsanari
Jainkoagandiko osasuna erakutsiko dautsat.

Opari-otoitza.—Orain ospatzen doguzan mis-terio onein bidez, santutu gagizuz, arren, Jauna; garbitu gagizuz lurreko geurekerietatik eta eroan zeruko ondasunetara.

Azken-otoitza.—Apalik eskatzen dautsugu, Jauna: eukaristi onek geroago ta santuago bizi izaten lagun egin eta zeure laguntza etenbagea lortu daiskula.

GARIZUMAKO BIGARREN EGUASTENA

Otoitza.—Gorde, Jauna, zure etxeakoak Zeuk izentatu zeutsen onbidean; eta egizu, zeure eskuak zainduta, bizitza onetako euren bearrizetan, askatasun geiagoz betiko ondasunetara jo dagiela.

Salmu-atala

B. Onik atara nagizu, Jauna, zure errukia-gaitik.

Atara nagizu zabaldu dausten saretik, nire gordelekua Zeu zara-ta.

Zeure eskuetan izten dot nire espiritua: Zeuk askatuko nozu, Jainko zintzo orrek.

Laguntaldearen zurrumurrua entzuten dot, eta danak emoten daust bildur;

neure kontra batzen dira

eta niri bizia kentzeko asmotan diardue.

Nik, barriz, Jauna, Zeugan dot ustea;

«Zeu zara nire Jainko!», dirautsut.

Zeure eskuetan dago nire zoria:

askatu nagizu aurrean narabilen arerioakandik.

Opari-otoitza.—Begiratu biotz onez, Jauna, ekarri dautsugun eskintza au; eta, alkarri emondako doaion bidez, askatu gagizuz pekatuaren lokarrietatik.

Azken-otoitza.—Apal-apalik eskatzen dautsugu, Jauna: ezilkortasun-agiria dan eukaristi au betiko salbamen-eraginkor izan dakigula.

GARIZUMAKO BIGARREN EGUENA

Otoitza.—Errubagetasuna maite eta berau galdu dauanari barrero emoten dautsazun Jauna: erakarri Zeuganuntz gure biotzak eta kiskaldu egizuz zure Espirituaren sutan, fedean sendo eta ona egiten eragille iraun dagigun.

Salmu-atala: Auts-egun osteko eguenean
lez: 14 orri.

Opari-otoitza.—Santutu egizuz, Jauna, opari onen bidez gure Garizuma-egintzak, gorputz-nekeak gure espiritua barriztu dagien.

Azken-otoitza.—Apalik eskatzen dautsugu, Jauna: opari onen frutua, geugan iraunik, beti geure egintzetan agertu daitela.

GARIZUMAKO BIGARREN BARIKUA

Otoitza.—Eiguzu Jaungoiko guztiaaldun orrek: gu Garizumako damu-nekeaz garbituta, Pazko-jaietara onbideratze-espiritu bikaiñez eldu gaitetzala.

Salmu-atala

B. Gogoratu egizuez Jaunak egin ebazan mi-ragarriak.

Gosea bialdu eban lurralde aretara: ogi bagarik itzi ebazan;

aurretik gizon bat bialdu izan eban, Jose, morroitzat saldua.

Oiñak burdin-estunez lotu eutsoezan, samea txirindolan sartu eutsoen, arek iragarritakoa bete zan arte, eta Jaunaren Itzak egin eban autor aren alde.

Askatu egiela agindu eban erregeak, errien Jaunak atara egin eban giltzapetik, bere etxeko etxezain izentatu eban, bere ondasun guztien buru.

Opari-otoitza.—Gertatu egizuz, Jauna, gure biotzak misteriook egoki ospatzeko; eta eiguzu, misterio onein frutua gure bizitzan izate iraunkor izan daitela.

Azken-otoitza.—Betiko salbamen-agiria artuta gero, egizu, Jauna: geure salbamena billatu ta nai dogunok, zure errukiz lortu aal izan dagizula.

GARIZUMAKO BIGARREN LARUNBATA

Otoitza.—Zure sakramentuen bidez, geure bizitza ilkor onetan be zure erreñuko ondasunetan eskuartzen izten dauskuzun gure Jainko Jauna: Zeuk eroan gagizuz bizitzako bidean, zeure santuakaz bizi zaran argia lortu dagigun.

Salmu-atala

B. Jauna biozpera ta errukiorra da. Bedeinkatu egizu Jauna, ene arima orrek, eta nazan guzti onek Aren izen santua. Bedeinkatu egizu Jauna, ene arima orrek, eta ez zaitetz aaztu Aren on-egiñakaz.

Berak parkatzen dauz zure erru guztiak, eta osatzen zure geiso gutiak;

Berak askatzen dau illobitik zure bizia, eta graziz eta errukiz beteten zaitu.

Ez diardu beti salatzen, ez da betiko asarratzen.

Ez garabiz gure pekatuen negurriz, ezta ordaindu be gure erruai dagokienez.

Zerua lurretik goi dagoanez,

alantxe jagiten da bere ontasuna be bildur dau-

[tsoenen gaiñean;

Sartzaldetik Sortzaldea urrun dagoanez,

alantxe urruntzen dauz gugandik gure dongake-
[riak.

Opari-otoitza.—Emon eiguzuz, Jauna, erospen-frutuak sakramentu onen bidez: gure bizitza Zugandik iñoiz be okertu ez daiten eta guk zeruko ondasunak jadetsi aal izan dagiguzan.

Azken-otoitza.—Zure sakramentuen grazia eldu daitela, Jauna, gure biotzeko barruragiño, eta grazi orrek bere jaungoikozko indarra emon daiskula.

GARIZUMAKO IRUGARREN ASTELENA

Otoitza.—Garbitu ta zaindu zure Elizea, Jauna, etenbagariko errukiz; eta, zeure laguntza bagarik ezin sendo iraun daiken ezkerro, zure laguntzak beti eroan ta gogortu dagiala.

Salmu-atala

B. Jainko biziaren egarri naz:
noiz joango ete-naz Jainkoaren aurpegia ikustera?

Orein-emea ur-bizien billa dabillenez,
alantxe dabil, ene Jainko, zure billa nire arimea.
Jainkoaren egarri da, Jainko biziaren egarri:
noiz joango ete-naz Jainkoaren aurpegia ikustera?
«Ausi dagiguzan Aren lokarriak,
jaurti dagigun Aren buztarria!»
Zeruetan bizi dan Arek irri-barre egiten dau,
Jaunak arein lepotik barre egiten dau.

Opari-otoitza.—Zu geure Jaungoikoa zaralako dakartzugu, Jauna, eskintza au; eta doaiok salbamen-sakramentu biurtu dagizuzala eskatzen dautsugu.

Azken-otoitza.—Zure sakramentuan alkartzeak, Jauna, geure erruetatik garbitu gagizala eta emon daiskula batasuna zure Elizan.

GARIZUMAKO IRUGARREN ASTARTEA

Otoitza.—Zure graziak ez gagizala bertan-beera itzi, Jauna: zure serbitzaritzan oso-osorik jardunik, gure gaitzean laguntza etenbagea somatu dagigun.

Salmu-atala: Abenduko irugarren asteko asteleanean lez: 6 orri.

Opari-otoitza.—Eiguzu, Jauna: gure erospengomutagarri dan opari onek pekatuetatik garbitu gagizala eta erakarri dagiala gure gaitzean zure indarraren laguntza.

Azken-otoitza.—Sakramentu onetan eskuartzeak, Jauna, gure kristau-bizitza berotu, gure pekatuak ordaindu eta zeure laguntza emon daiskula.

GARIZUMAKO IRUGARREN EGUASTENA

Otoitza.—Garizumearen kristau-zentzunaz jabetuta eta zeure itzaz janarituta, apalik eskatzen dautsugu, Jauna: gure gorputz-nekeen bidez zintzoro otseindu zagiguzala eta otoitzean alkartuta iraun dagigula.

Salmu-atala

B. Jerusalem, goratu egizu Jauna.
Jerusalem, goratu egizu Jauna;
Sion, goratu egizu zure Jainkoa:
zure ateetako morroilloak indartu
eta zure semeak zeure barruan bedeinkatu dauz.
Berak bialtzen dau bere deia lurrera, [ta.

eta Aren Itza arin doa;
Berak bialtzen dau edurra artulea lez,
zurdaia autsa lez zabaltzen dau.

Berak iragarten dautso bere Itza Jakob'i,
bere erabagiak eta aginduak Israel'i;
ez eutsan egin olakorik beste erriri,
ezta arei bere aginduak jakitserazo be.

Opari-otoitza.—Onartu egizuz, Jauna, zure erriaren eskariak doai onein eskintzakaz batera; eta orain zeure misterioak ospatzen doguzanok, zaindu gagizuz arrisku guztitik.

Azken-otoitza.—Santutu gagizuz, Jauna, artu dogun zeruko ogi oneaz: gure uts-egitietatik askatuta, betiko agintzariak lortu aal dagiguzan.

GARIZUMAKO IRUGARREN EGUENA

Otoitza.—Pazko-jaiak urreratzen diran artean, apalik eskatzen dautsugu, Jauna: Pazko-misterioa egoki ospatzeko gure eskintza geroago ta biziagoa izan daitela.

Salmu-atala

B. Entzungo al-dozue gaur Aren berbotsa!
ez egizue gogortu zuen biotza.
Etorri zaitze, goratu dagigun Jauna,
txalo egin daogun gu onik ataraten gaituan Arka-
[txari;

sartu gaitzean Aren aurrera eskerrak emonez,
ospatu dagigun soifü-otsez.

Sartu zaitze, auspaztu gaitzean,
gure Egille dan Jauna bedeinkatuez.

Gure Jainkoa bera da-ta;

gu, arriz, Aren erria,
Berak zaintzen dauan artaldea.

«Ez egizue gogortu biotza Meriba'n lez,
Masa'ko egunean basamortuan lez:

an, nire egintzak ikusi izanarren,
zuen gurasoak arakatu ta zirikatu egin nenduen».

Opari-otoitza.—Gorde egizu, Jauna, zure erria gaiztakeri guztitik, opari au zure aurrean gogoko izan dakizun; eta, saritzat zure egiaren jabetza osoa eskintzen dauskuzun ezkerro, ez gagizuz guzurrezko atseginkerien menpean itzi.

Azken-otoitza.—Argitu egizuz, Jauna, zure graziaz zeure misterioak ospatu dabezanok, bizi-tzaren gora-beeren eta zure sakramentuen bidez Zeuk eroaten dozuzala ulertu dagien.

GARIZUMAKO IRUGARREN BARIKUA

Otoitza.—Isuri egizu, Jauna, zure grazia gure biotzetara, geurekeria eziten eta zerutik datorkiguzan argitasunak ondo artzen ikasi dagigun.

Salmu-atala

B. Neu naz Jauna, zure Jaungoikoa:
entzun nire berbotsa.

Berbakera ez-ezagun bat entzuten dot:
Kendu egin neutsan sortea lepotik,
eta aren eskuak itzi egin eben otzarea.
Samiñaldian deadar egin zenduan,
eta askatu egin zendudazan.

Trumoi-artean gordeta erantzun neutsun,
Meriba'ko iturri-ondoan negurtu zendudazan.
Entzun, ene erri orrek, zeure kontra egiten dot
Entzungo al-nozu, Israel! [autor.]

Ez dozu izango jainko arrotzik,
ez dozu gurtuko erbesteko jainkorik.
Neu naz zure Jainko Jauna,
Ejipto'ko lurraldetik atara zendudazana.
Entzungo al-nau nire erriak,
ibilliko al-da Israel nire bidean zear!
gari-mamiña emongo neuskizu janaritzat,
baso-eztiaz aseko zendukedaz.

Opari-otoitza.—Begira biotz onez, Jauna,
ekarri dautsuguzan doaiok: zure aurrean gogoko
dirala, salbamena jaritsi daiskuen.

Azken-otoitza.—Zure indarraren eragiña geure
izate barru-barruragiño sartu daitela, Jauna,
orain eukaristian artzen dogunaren jabe egunen
baten oso-osorik egin gaitzezan.

GARIZUMAKO IRUGARREN LARUNBATA

Otoitza.—Emoiguzu, Jauna, Garizuma au
poz-pezik ospatzeko eta Pazko-sakramentuen zen-
tzunean sartzeko grazia, beronen eragiña oso-
osorik lortu aal dagigun.

Salmu-atala

B. Errukia nai dot, eta ez oparirik.
Erruki zadikaz, Jauna, zure ontasunagaitik,
garbitu nire errua zure erruki aundiagaitik.
Kendu zearo nire dongakeria,
garbitu nire pekatua.
Ez dozu oparirik atsegiñez ikusten;
erre-oparirik eskiñi ba'negizu be,
ez zeukean onartuko.
Nire oparia espiritu damutua da;
biotz damutua ta apala ez dozu baztartzen Zuk.
Lagun zakioz Sion'i, Jauna, zure ontasunagaitik,
barriztu egizuz Jerusalem'go arresiak:
orduante onartuko dozuz opari jatorrak,
eskintzak eta erre-opariak.

Opari-otoitza.—Zure misterio santuetara ego-
ki urreratzeko, zeure graziaz garbitzen gaituzu,
Jauna; eiguzu, misteriook ospatuaz, gorapen bikai-
ña egin aal dagitzugula.

Azken-otoitza.—Eiguzu, Jaun errukitsu orrek,
janaritzen gaituan eukaristi santua begirune zin-
tzoz gurtu eta beti sinismen-espíritu sakonez artu
dagigula.

GARIZUMAKO LAUGARREN ASTELENA

Otoitza.—Gizartea zeure sakramentu zeruta-
rrez barritzen dozun Jaungoikoa: egizu, zure
Elizeak sakramentuok beti etenbagako frutuz
ospatu dagizala.

Salmu-atala: Abenduko irugarren eguenean
lez: 7 orri.

Opari-otoitza.—Eskintzen dautsuguzan opari-
gaion frutu guztia artu dagigula eiguzu, Jauna,
gugan pekatuaren antxiñako indarra il daiten eta
zure jaungoikozko bizitzan eskuartzeaz barriztu
gaitzezan.

Azken-otoitza.—Apalik eskatzen dautsugu,
Jauna: misterio santu oneik gu barriztu, bizi-
az bete ta santutu gagezala, euron bidez betiko
sariak lortu dagiguzan.

GARIZUMAKO LAUGARREN ASTARTEA

Otoitza.—Apalik eskatzen dautsugu, Jauna:
Garizuma onetako egintza santuak, Pazko-miste-
ria egoki ospatzeko eta gizon guztiai zeure salba-
menaren misterioa iragarteko, zuen zintzoen bio-
tza gertatu dagiela.

Salmu-atala

B. Gudarozteen Jainkoa gugaz,
Jakob'en Jainkoa dogu gaztelu.
Jainkoa da gure gordeleku ta indar,
arriskueta laguntzaille aaltsua.
Orregaitik, ez gara bildurtzen
lurra ikaraka asi ba'daite be,
mendiak itsasora jausi ba'daitez be.
Ibai-besoak poztu egiten dabe Jainkoaren uria,
Gorengoak santutu egiten dau bere bizitokia.
Erdian Jainkoa izanik, ez dau zirkiñik egiten,
Jainkoak eroaten dautso laguntza egunsentia el-
Gudarozteen Jainkoa gugaz, [tzean.]
Jakob'en Jainkoa dogu gaztelu.
Etorri Jaunaren lanak ikustera,
lurrean egiten dauzan mirariak ikustera.

Opari-otoitza.—Gure bizitza ilkorri buruz-
ko zeure arduratasunaren agerbidetzat, Zeuk egin
dozuzan eta orain emoten dauskuzuzan doaiok
eskintzen dautsuguz, Jauna; betiko bizitza emo-
ten dauan janaria izan dakigula egizu.

Azken-otoitza.—Garbitu ta barriztu gagezuz,
Jauna, zure sakramentuen bidez; gure gorputzak
euretan oraingo bizitzarako indarrak eta euren
bizi ezilkorren azia aurkitu dagizala.

GARIZUMAKO LAUGARREN EGUASTENA

Otoitza.—Zintzoai euren irabazien saria eta
damu-nekea egiten daben pekatariak euren peka-
tuen parkamena emoten dautsezuzan gure Jainko
Jauna: erruki zakiguz eta, gure erruak apalik

autortzeagaitik, emoiguzuz zure bakea ta parka-
mena.

Salmu-atala

B. Jauna biotz-bigun errukiorra da.

Jauna biotz-bigun eta errukiorra da,
asarrerako geldia ta errukiz aberatsa;
Jauna ona da guztientzat,
maitekorra da bere izaki guztientzat.

Jaunak zintzo eusten dautse bere berbai,
biotz-onekoa da bere egitada guztietan.
Jaunak eutsi egiten dautse jausi-zorian dagozan
[guztiai,
zuzen jarten dauz makurtu-zorian dagozanak.

Jauna zuzena da bere bide guztietan,
biotz-onekoa da bere egitada guztietan;
dei egiten dautsoenakandik ur dago Jauna,
benetan dei egiten dautsoenakandik.

Opari-otoitza.—Opari onen indarrak, Jauna,
gugan pekatuaren lorratzak kendu dagizala, gure
bizitza Kristo'ren eratarra barriztu dagiala eta zure
salbamenean osoago parte artuerazo daiskula.

Azken-otoitza.—Ez itzi, Jauna, artu doguzan
sakramentu oneik guretzat galbide izaten, geure
salbamenaren lagungarritzat egin zenduzan-eta.

GARIZUMAKO LAUGARREN EGUENA

Otoitza.—Maitasunez beteriko Aita ori! Gor-
puz-nekeaz garbituta eta geure egintza onez lagun-
duta, zeure aginduetan sendo iraun dagigula eska-
tzen dautsugu, Pazko-jaietara ondo gertatuta eldu
gaitezan.

Salmu-atala

B. Gomuta zaitez gutzaz,
zeure erriaganako maitasunarren.

Oreb'en, txal bat egin eben,
burdin-urtuaz egindako irudi bat gurtu eben;
euren Aintza, bedarra jaten dauan
zezenaren irudiagaitik aldatu eben.

Aaztu egin ziran euren salbatzaille zan Jainkoaz,
Ejipto'n miragarriak,
Kam-lurraldean arrigarriak,
Itsaso Gorri ondoan egintza ikaragarriak egin izan
[ebazanaz.

Areik ondatzeko be ba-egoala esan eban Jainkoak;
baña Moises, Aren aukeratua,
jarri zan bitarteko Aren aurrean,
Aren asarrea ondamentitik aldentzeko.

Opari-otoitza.—Eiguzu, Jaungoiko guztiaal-
dun orrek, opari onen eskintzak sendotu ta zaindu
dagiala gure argaltsasuna gaitz guztien aurka.

Azken-otoitza.—Eukaristi onek, Jauna, gure
erru guztietatik garbitu gagizala: euren barruaren
(kontzientziaren) sortaz nekatuta dagozanak, zeu-
re laguntzaren osotasunean poztu daitezan.

GARIMUZAKO LAUGARREN BARIKUA

Otoitza.—Gure makaltasunean bide ugariz
lagun egiten dauskuzun Jauna: eiguzu, emoten
dauskuzun salbamena pozik artu dagigula, eta
salbamen ori guztiai geure bizikeraz agertu dagie-
gula.

Salmu-atala

B. Saminduakandik ur dago Jauna.

Jaunaren arpegia gaizkilleen kontra,
arein gomutapena lurretik garbitzeko.
Norbaitek deadar egiten dauanean,
Jaunak entzun eta aren larrietatik onik ataraten
Saminduakandik urr dago Jauna, [dau.
gogo-ausiak onik ataraten dauz.
Zintzoaren ezbearrak ugari izanarren,
Jaunak guztietatik askatzen dau.
Aren azur guztiak zaintzen dauz,
eta aren azur bat be ez da ausiko.
Jaunak bere otseñak askatu egiten dauz;
Aregana joten dauana ez da zigortua izango.

Opari-otoitza.—Opari onen iturri zaran Jau-
na: garbitu gagizuz beronen eragiñez, Zugana
garbiago eldu gaitezan.

Azken-otoitza.—Giza-bizitzan etenbagarik ba-
rrizten garanez, Jauna, egizu: gure espiritua zaar-
tzen dauan pekatua bertan-beera itzirik, orain
zeure graziaz be barriztu gaitezala.

GARIMUZAKO LAUGARREN LARUNBATA

Otoitza.—Zeure maitasunak eta errukiak zu-
zendu dagiela gure biotza, Jauna: zure laguntza
bagarik ezin gogoko izan gakizuz-ta.

Salmu-atala

B. Ene Jainko Jauna, Zeugana joten dot.
Ene Jainko Jauna, Zeugana joten dot,
askatu nagizu aurrean narabillenakandik
eta onik atara nagizu;
leoiak lez, iñok ez daistala eskurik ezarri
eta noraezean ni urratu.
Ebatzi nagizu, Jauna, nire zuzentasunaren negu-
nigan dagoan errurik-ezari dagokionez. [rriz,
Atertu bedi errudunen dongakeria,
eta sendotu egizu errubagea,
biotzak eta erriak aztertzen dozuzan Orrek,
Jainko zuzen Orrek.
Jainkoa da nire babeskiña,
biotz-zuzenak onik ataraten dauzana.
Jainkoa ebazle zuzena da,
Jainkoak egunoro eskua jasorik dauko.

Opari-otoitza.—Onartu biotz onez, Jauna,
gure oparigaiok, eta azpiratu gure naimen biurri-
ak zure naimen santutara.

Azken-otoitza.—Zure misterio santuak garbi-

tu gagiezala, Jauna; eta, euren egintza eraginko-
rrez, zure aurrean gogoko biurtu gagiezala.

GARIZUMAKO BOSGARREN ASTELENA

Otoitza.—Gure Jainko Jauna! Zure maitasu-
nak bedeinkapen osoz negurri bagarik aberasten
gaitu; egizu, pekatuaren frutua dan gure bizitza
galkorra bertan-beera itzirik, gizaki barri lez zeure
erreinuko aintzan eskuartzeko gertatu gaitzala.

Salmu-atala

B. Ibar illunetan zear joanarren be,
ez dot bildurrik izango, Zu neugaz zoaz-ta.

Jainkoa da nire artzain,
ez dot ezeren bearrik.
bedar bizia dagoan zelaietan etzun-azoten nau.

Iturri geldietaruntz naroa,
eta bizkortu egiten dauz nire indarrak.
Bide zuzenetik naroa,
bere izenaren maitasunarren.

Mai bat atontzen dozu nire aurrean,
nire arerioen kontra;
orior igurtziten daustazu burua,
eta gainezka dago nire edontzia.
Zeure ontasunak eta errukiak egiten dauste lagun
nire bizitzako egun guztietan,
eta Jaunaren etxea izango da nire bizitokia
amaibagako urteetan.

Opari-otoitza.—Apalik eskatzen dautsugu,
Jauna: misterio santuak ospatzeko gertu gagoza-
nok, zearo barriztutako espiritua gure gorputz-
nekearen frutu lez, Zeuri eskini aal izateko poza
izan dagigula.

Azken-otoitza.—Apalik eskatzen dautsugu,
Jauna: gu sendotzen gaituen sakramentu oneik,
parkamen-iturri izan dakiguzala eta, Kristo'ren
lorratzai jarraiturik, Zeugana, geure bizia zaran
Oregana, coan gagiezala.

GARIZUMAKO BOSGARREN ASTARTEA

Otoitza.—Eiguzu, Jauna, zure nai santua zin-
tzo beteten iraun dagigula: gure egunotan, zeure
serbitzaritzan diarduan erria santutasunean eta
ugariago izatean azi daiten.

Salmu-atala

B. Entzun, Jauna, nire otoitza,
eldu daitela Zuganagiño nire deadarra.

Entzun, Jauna, nire otoitza,
eldu daitela Zuganagiño nire deadarra;
ez egidazu ezkutatu zure aurpegia
larrialdi-egunean.

Makurtu zure belarri ori nigana;
dei egin dagitsudanean, entzun egidazu bereala.
Bildur izango dautsoe jentillak zure izenari,
lurreko erregeak zure aintzari.

Jaunak Sion barriztu dagianean
eta bere aintza erakutsi,
eta gaisoen erregetara biurtu daitenean,
eta arein eskariak baztatu ez dagizanean.
Idatzita geratu bedi au urrengo gizaldiarentzat,
eta sortua izango dan erriak Jauna goratuko dau:
Jaunak bere goiko jauretzetik begiratu egin dau,
zerutik lurrera begiratu dau,
lotuta dagozanen antziak entzuteko
eta eriotzarako galduak askatzeko.

Opari-otoitza.—Bake-opari au eskintzen dau-
tsugu, Jauna: zure biotz onez, gure utsegiñak
parkatu dagizuzan eta gure biotz aldakorra zuzen-
du dagizun.

Azken-otoitza.—Eiguzu, Jaungoiko guztiaal-
dun orrek: zure jaungoikozko misterioetan beti
eskuarturik, zeruko doaiak jaristeko duin izan
gaitzala.

GARIZUMAKO BOSGARREN EGUASTENA

Otoitza.—Argitu egizu, Jauna, zure zintzoen
biotza, Garizumako gorputz-nekeaz garbituta da-
go-ta; eta, zeure menpeko izateko gogo ona
isurten dauskuzun ezkerro, entzun egizuz, aita lez,
gure eskariak.

Salmu-atala

B. Zeuri aintza ta gorapena gizaldiz-gizaldi.

Bedeinkatua gure gurasoen Jainko Jauna,
goratua ta ospatua betiraun guztian!
Bedeinkatua zure izen santu ta goragarria,
goratua ta ospatua betiraun guztian!
Bedeinkatua Zeu zure aintza santuaren jauretxean!
Bedeinkatua Zeu zure erreinuko aulkian!
Bedeinkatua Zeu, kerubiñen gainean jesarrita,
lezak begien aurrean dozuzan Ori!
Bedeinkatua Zeu zeruko izartegian!

Opari-otoitza.—Onartu egizuz, Jauna, gure
oparigaio; eta egizu, zeure izenaren omenez da-
karguzan doai oneik geure argaltasunaren osagarri
izan daitezala.

Azken-otoitza.—Jaungoiko guztiaaldun ori!
Oraintxe artu dogun sakramentu onek, gure argal-
tasunerako osabide izanaz batera, gure espirituko
geisoak osatu dagizala eta zure laguntza etenbagea
baieztu daiskula.

GARIZUMAKO BOSGARREN EGUENA

Otoitza.—Entzun gure eskariak, Jauna, eta
begiratu egizuz maitasunez euren itzaropena zeure
errukian jarri dabenak; garbitu egizuz pekatu
guztietatik, bizikera santuan iraun dagien eta olan
oiñordekotasantzat zeure agintzariak jadetsi da-
giezan.

Salmu-atala

B. Jaunak gogoan dau beti bere alkartasuna.

Jo Jaunagana ta Aren indarrera,
ibilli beti Aren aurpegiaren billa.
Erabilli gogoan Arek egin ebazan mirariak,
Aren arrigarriak, Aren agoko erabagiak.
Aren morroi Abraham'en jatorrikoak,
Aren aukeratu Jakob'en semeak!
Jauna da gure Jainkoa,
Bera da luŕ guztian nagusi.
Gogoan dau beti bere alkartasuna,
milla gizaldirentzat emon eban itza;
Abraham'egaz egin eban alkartasuna,
Isaak'i egin eutsan ziña.

Opari-otoitza.—Begiratu begi onez, Jauna,
ona ekarri dautsuguzan doaiok; eta eiguzu, geure
onbiderako balio dagiela eta gizarte guztiari sal-
bamena jadetsi dagioela.

Azken-otoitza.—Geure salbamen-doaiak artu-
ta gero, apalik eskatzen dautsugu, Aita errukitsu
orri: orain janaritzat emoten dauskuzun sakra-
mentu onek betiko bizitzaren erdikide egin gagi-
zala.

GARIZUMAKO BOSGARREN BARIKUA

Otoitza.—Parkatu, Jauna, zure erriaren peka-
tuak; eta, gure makaltasunak pekatupean itzi gai-
tuan ezkerro, zeure maitasunak eta ontasunak
atara gagiezala pekatuaren menpetik.

Salmu-atala

B. Arriskuan Jaunari egin neutsan dei,
eta entzun egin nenduan.

Maite zaitut, Jauna, Zeu zara nire indar,
Jaun, nire arkaitz, gaztelu, askatzaille.
Nire Jainko, aitz, aterpe, babeskin,
nire indar askatzaille ta gordeleku.
Goragarri yatan Jaunari egiten dausat dei,
eta nire arerioakandik askatuta geratzen naz.
Eriotz-olatuak batzen nenduen,
erreka ondatzailleak ikaratzen nenduen,
lezako sareak inguratzen nenduen,
eriotz-lakioak oratzen eusten.
Arriskuan Jaunari egin neutsan dei,
neure Jainkoari egin neutsan deadar:
entzun egin eban nire deia bere jauretшетик,
eta nire deadarra Aren belarrietara eldu zan.

Opari-otoitza.—Eiguzu, Jaungoiko errukitsu
orrek, zure altarako eginkizunetan beti egoki
jardun dagigula; eta, altara onetan sarritan eskuar-
turik, emoiguzu salbamena.

Azken-otoitza.—Artu dogun doai onek, Jau-
na, zaindu gagizala beti eta urrundu dagiala gugan-
dik edozein gaitz.

GARIZUMAKO BOSGARREN LARUNBATA

Otoitza.—Jauna: gizonen salbamena etenba-
garik burutzen dozu eta Garizumaldian zure erri-
ri grazi ugariagoak emoten dautsazuz; begiratu
maitasunez zure aukeratuak eta emon egiezu zure
laguntza gordetzaillea kristau-gai ta bateatuai.

Salmu-atala

B. Artzaiñak bere artaldea zaintzen dauanez
zainduko gaitu Jaunak.

Entzun, erriok, Jaunaren Itza,
iragarri urrungo ugarteetan:
«Israel sakabanatu ebanak Berak batuko dau,
artzaiñak bere artaldea zaintzen dauanez zainduko
Jaunak Jakob erosi [dau].
eta esku indartsuagotik atara eban-eta.
Poz-oiuka etorriko dira Sion'go tontorrera,
Jaunaren ondasunetarantz etorriko dira pilloka.
Orduan, poztu egingo da neskatillea dantzan,
gazteak eta zaarrak alaitu egingo dira;
arein negarraldia pozaldi biurtuko dot,
poztu ta arindu egingo dodaz arein naigabeak.

Opari-otoitza.—Zure izena autortzeaz eta ba-
teo-sakramentuaren bidez, betiko bizitzarako jai-
otza barria emoten dauskuzun Jaun guztiaalduna!
Onartu egizuz gure doaiok eta entzun gure eska-
riok: euren uste ona Zeugan dabenak, euren gura-
riak beteta eta euren eruak parkatuta ikusi aal
dagiezan.

Azken-otoitza.—Apal-apalik eskatzen dautsu-
gu, Jauna: zure Semearen Gorputz-Odolaz janari-
tzen gaituzunez, bere jaungoikozko izatean be
eskuartu dagigula.

ASTELEN SANTU

Otoitza.—Begiratu egizu, Jaungoiko guztiaal-
dun orrek, gure gizatasunaren argaltasuna, eta,
zure Semearen Nekaldiaren indarraz, jaso egizu
gure itxaropen makala.

Salmu-atala

B. Jauna da nire argi ta osasun.

Jauna da nire argi ta osasun,
nori nik bildurrik?
Jauna da nire biziaren laguntza,
nok ikaratu ni?
Nire aragia jateko
gaiztoak neure kontra datozanean,
eurak dira, nire kontrako ta arerioak,
laban eginda jausten diranak.
Gudarozte batek nire kontra txabolak jarten ba'-
nire biotza ez da ikaratzen; [dauz be,
nire kontra gudaketan asten ba'dira be,
nasai nago.
Jaunaren poza izango dodala uste dot
bizidunen errian.

Izan ustea Jaunagan; izan adoretua,
izan kemena, jarri Jaunagan zure ustea.

Opari-otoitza.—Begiratu biotz onez, Jauna,
orain ospatzen diardugun sakramentu au eta beti-
raunerako balio dagiala beronek, zure maitasun
arduratsua pekatuen parkamenerako sortu eban,
eta.

Azken-otoitza.—Zatoz, Jauna, eta zaindu egi-
zu maitasun arduratsuz Meza-emote onetan san-
tutu dozun erri au, zure errukiz artu dauzan
doaiak beti gorde dagizan.

ASTARTE SANTU

Otoitza.—Jaungoiko guztiaaldun eta betikoa!
Eiguzu, Jaunaren Nekaldiko eginkizunetan biziro
eskuartu dagigula, zeure parkamena jadetsi da-
gigun.

Salmu-atala

B. Nire agoak zeure laguntza abestuko dau.
Zeugana joten dot, Jauna:
ez nadilla betiko zapalduta geratu;
zuzena zaran ezkerro, askatu ta onik atara nagizu,
makurtu nigana zure belarria, eta onik atara na-
Izan zakidaz Zeu igesleku-arkatxa, [gizu.
ni gordeteko gaztelua,
nire aitz eta gaztelu Zeu zara-ta.
Askatu nagizu, ene Jainko orrek, esku gaiztotik.
Nire itzaropena Zeu izan zintzazan-eta, ene Jainko,
baita nire uste ona be, Jauna, nire gaztarotik.
Amaren sabelean ezkerro, Zeu zendudazan eusgarri,
sabelean Zeuk eusten zeustan.

Opari-otoitza.—Begiratu egizu biotz onez,
Jauna, zure sakramentuetan eskuartzeko dei egin
dautsazun sendi au; eta sakramentu oneik adie-
razoten eta barruan artzen dabenaren osotasuna
jadetsi egiozu.

Azken-otoitza.—Zeure Semearen Gorputz-
Odolaz janaritu gaituzun Jauna! Eiguzu, lurreko
gure bizitza oni eusten dautsan sakramentu beronek
eroan gagizala betiko bizitzaren erdikide iza-
tera.

EGUASTEN SANTU

Otoitza.—Gu arerioaren menpetik atarateko,
zure Semea gurutzeko eriotzara eroan nai izan
zenduan Jaungoikoa: biztuerako grazia jadetsi da-
gigula eiguzu.

Salmu-atala

B. Entzun nagiala zure ontasunak, Jauna,
zure mesede-egunean.
Zeugaitik eroan dodaz iraiñak,
nire aurpegia lotseak estaldu eban.
Arrotz nakie nire senideai,
atzeritar nire amaren semeai;

zure jauretzerako leiak iruntsi egiten nau-ta,
eta Zu iraintzen zaituen iraiñak gaiñera
[datorkidaz.

Iraiñak biotza zatitu egiten daust,
eta makal nago.
Erruki-zain nago, eta errukirik ez;
pozkilde-zain, eta ez dodaz aurkitzen.
Nire janarian beztuna bota eusten,
nire egarriarentzat ozpiña emon eusten.
Jainkoaren izena kantuz goratuko dot,
eskerrak emonez zabalduko dot Aren aundi-izatea.
Begira A, apalok, eta poztu zaiteze,
billatu egizue Jauna,
eta bizi izango da zuen biotza.
Izan be, Jaunak bere beartsua entzun egiten dau,
ez dauz baztartzan bere lotuak.

Opari-otoitza.—Onartu, Jauna, ekarri dau-
tsuguzan oparigaiok, eta erakutsi egizu zure inda-
raren eragiña: sakramentu oneitan Kristo'ren Ne-
kaldia gogoratzean, beronen frutu guztiak jadetsi
dagiguzan.

Azken-otoitza.—Eiguzu, Jaungoiko guztiaal-
dun orrek, misterio santu oneik zure Semearen
aldiko eriotza adierazoten dautsuen ezkerro, Zuk
betiko bizitza emon dautsuzula sinistu ta aditu
dagigula sakon-sakon.

PAZKO - ALDIA

PAZKO-ASTELENA

Otoitza.—Zure Elizea Bateoan seme-alaba barien jaiotzaz beti ugaritzen dozun Jaungoikoa: sakramentuan artu dabene fedean euren bizitzaldian zintzo iraun dagiela egiezu.

Salmu-atala

B. Zaindu nagizu, ene Jainko,
nire gordelekua Zeugan dago-ta.

[*edo Aleluia*].

Zaindu nagizu, ene Jainko,
nire gordelekua Zeugan dago-ta;
auxe dirautsat Jaunari:

«Zeu zara nire ondasuna».

Jauna da nire oiñordetzaren sailla ta nire edontzia,
zeure eskuan dago nire zoria.

Onulari yatan Jauna bedeinkatuko dot,
gabez be irakatsi egiten nau barruz.

Jauna daukat beti nire aurrean;
nire eskumaldean Bera dodala,
ez dot zirkiñik egingo.

Orregaitik, poztu egiten yat biotza,
alaitu egiten yataz erraiak,
eta nire aragia nasai-nasai dago:

ez nozu eriotzara eroango-ta,
zure adiskideari usteltzea ezgutzen be ez dautsazu
Bizitza-bidea erakutsiko daustazu, [itziko].
atsegiñez beteko nozu zure aurrean,
betiko pozez zure eskumaldean.

Aleluia. Egun onetan ekin eutsan Jaunak;
izan daitela gure poz eta atsegiña.
Aleluia.

Opari-otoitza.—Onartu biotz onez, Jauna, zure erriaren oparigaiok: fedeaz eta bateoaz barriz-tuta, betiko zoriona jadetsi dagigun.

Azken-otoitza.—Apalik eskatzen dautsugu, Jauna: Pazko-misterioaren graziak bete dagiala zeuro gure espiritua: salbamen-bidean gagozanok, zeure ondasunen duin izan gaitezana.

PAZKO-ASTARTEA

Otoitza.—Pazko-misterioaren bidez onik atara gaituzun Jauna: emon aurrerantzean be zure erriari zeruko doaiak, benetako askatasuna jadetsi eta zeruko poza beraganatu dagian, poz ori onez-kero lur onetan be dastaten asi da-ta.

Salmu-atala

B. Jaunaren errukiak lur guztia beteten dau
[*edo Aleluia*].

Jaunaren Itza zuzena da,
eta Aren egintzak zintzoak dira;
zuzen eta bidezko dana maite dau Arek;
eta Aren errukiz lurra beterik dago.

Jaunaren egiak bere zintzoen gainean dagoz,
euren ustea Aren errukian dabenen gainean:
arein biziak eriotzatik askatzeko
eta gosetean areik bizkortzeko.

Gu Jaunaren zain gagoz:

Bera da gure laguntza ta babeskin.

Etorri dakigula gainera, Jauna, zure errukia,
Zeugandik itxaroten dogunez!

Aleluia. Egun onetan ekin eutsan Jaunak;
izan daitela gure poz eta atsegiña.
Aleluia.

Opari-otoitza.—Onartu biotz onez, Jauna, zure ondasunetarik bat bera be galdu ez dagian eta betiko irauten dabene ondasunak aurkitu dagizan.

Azken-otoitza.—Entzun gagizuz, Jaungoiko guztiaaldun orrek; eta bateoko grazi bardinbagea artu dabene zure seme oneik, egunen baten betiko zoriona lortu aal-dagiela egizu.

PAZKO-EGUASTENA

Otoitza.—Jaunaren biztuera urteoro aundikiro ospatuaz pozten gaituzun Jaungoikoa: eiguzu, orain egiten doguzan jaion bidez, egunen baten betiko pozetara eldu gaitezala.

Salmu-atala

B. Jaunaren errukiak lur guztia beteten dau
[*edo Aleluia*].

Emon egiozuez eskerrak Jaunari, egin dei Aren jakinera zo erriai Aren egintzak; [izenari,
abestu egiozue ereskin-otsez,
zabaldu egiozuez Aren mirariak.

Arrotu zaitzeze Aren izen zantuz,
poztu daitezala Jaunaren billa dabizanak.

Jo Jaunagana ta Aren indarrera,
ibilli beti Aren aurpegiaren billa.

Aren morroi Abraham'en jatorrikoak,
Aren aukeratu Jakob'en semeak!

Jauna da gure Jainkoa,
Bera da luz guztian nagusi.

Gogoan dau beti bere alkartasuna,
milla gizaldirentzat emon eban itza;
Abraham'egaz egin eban alkartasuna,
Isaak'i egin eutsan ziña.

Aleluia. Egun onetan ekin eutsan Jaunak;
izan daitela gure poz eta atsegiña.
Aleluia.

Opari-otoitza.—Onartu egizu, Jauna, opari oneaz erosi dozuz-ta; eta emon egiguzu biotz onez gorputz-arimako osasuna.

Azken-otoitza.—Apalik eskatzen dautsugu, Jauna: zure Semearen sakramentuetan eskuartze-ak, antxiñako gure pekatuetatik atara eta gizaki barri biurtu gaitzala.

PAZKO-EGUENA

Otoitza.—Zeure izena autortzeko, erri ez-bar-diñak bat egin dozuzan Jaungoikoa: emon egiezu bateo-uretan jaiotza barria artu dabena sinismen bera euren aspirituan eta maitasun bera euren bi-zikeran.

Salmu-atala

B. Gure Jainko Jauna:
bai arrigarria zure izena lur guztian!
[edo Aleluia].

Zer da gizona, onetzaz Zu gomutatzeke?
zer gizakia, oni aal-izatea emoteko?

Aingeruak baiño ozta-ozta txikiagoa egin zenduan,
ospez eta argitasunez emon zeutsan koroia;
zure eskuak egindakoen jaun egin zenduan,
dana jarri zenduan aren oiñazpian.

Ardi ta zezen,
baita basabereak be,
eguratseko egaztiak, itsasoko arraiñak,
itsasoan zear bide-zidorrak egiten dabezanak.

Aleluia. Egun onetan ekin eutsan Jaunak;
izan daitela gure poz eta atsegiña.
Aleluia.

Opari-otoitza.—Onartu biotz onez, Jauna,
bateatu barriakaitik eskerrak emoteko ekarri dau-
tsuguzan oparigaiok, euren gaiñera zeruko lagun-
tza eldu daiten.

Azken-otoitza. — Entzun, Jauna, gure otoi-
tzak: gure erospena burutu nai izan dozun artu-
emon santu onek bizitzaldi onetan iraunerazo ga-
gizan eta betiko poza emon daiskun.

PAZKO-BARIKUA

Otoitza.—Jaungoiko guztiaaldun eta betikoa:
Pazko-misterioaren bidez gizarteagaz zure alkarta-
suna barriztu egin dozu; eiguzu, fedez ospatzen
doguna, bizitzan be agertu dagigula.

Salmu-atala

B. Etxegilleak baztartutako arria
orain giltzarri da
[edo Aleluia].

Emon egiozue eskerrak Jaunari, ona da-ta,
Aren errukia beti-betikoa da-ta.

Esan begi Israel'en etxeak:
betikoa da Aren errukia.

Esan begie Jaunaren zintzoak:
betikoa da Aren errukia.

Etxegilleak baztartutako arria
orain giltzarri da.

Jauna da ori egin dauana,
mirari argia da.

Egun onetan ekin eutsan Jaunak:
izan daitela gure poz eta atsegiña.

Emoiguzu salbamena, Jauna,

emoiguzu zoriona, Jauna.

Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena,
Jaunaren etxetik bedeinkatzen zaituegu;
Jauna Jainko da; Berak argitzen gaitu.

Aleluia. Egun onetan ekin eutsan Jaunak;
izan daitela gure poz eta atsegiña.
Aleluia.

Opari-otoitza.—Burutu gudan, Jauna, Pazko-
oparigai onek adierazoten dauan artu-emon, lu-
rreko gauzetarako maitasuna zeruko ondasuneta-
rako antz-aldatu daiten.

Azken-otoitza.—Ez itzi maitasunez zaindu ba-
garik, Jauna, Zeuk salbatu dozuzanak: zeure Se-
mearen Nekaldiaz erosiak izan garanok, Beronen
biztueran poztu aal gaitezana.

PAZKO-LARUNBATA

Otoitza.—Zure grazi ugariak zure semeen ko-
purua beti ugaritzen dozun Jaungoikoa; begiratu
maitasunez zeure Elizearen laguntzat aukeratu do-
zuzanak: bateoaren bidez bizibarritu diranak, biz-
tuera aintzatsua be lortu dagien.

Salmu-atala

B. Eskerrak emoten dautsudaz, Jauna,
entzun nozulako
[edo Aleluia].

Emon egiozue eskerrak Jaunari, ona da-ta,
Aren errukia beti-betikoa da-ta.

Jauna da nire indarra ta adorea,
Bera da nire osasuna.

Entzun egizue: garaipen-abestiak dira
zintzoen txaboletan:

Aaltsua da Jaunaren eskumea.

Ez, ez naz ilgo, bizi baiño,
eta Jaunaren arrigarriak azalduko dodaz.

Zigortu, bai, Jaunak zigortu egin nenduan,
baiña ez nenduan eriotzaratu.

Zabaldu egidazue garaipenaren atea,
eta Jaunari eskerrak emoteko sartuko naz.

Auxe da Jaunaren atea:

andixek sartuko dira irabazleak.

Eskerrak emoten dautsudaz, entzun nozulako
eta neure osasun izan zaralako.

Aleluia. Egun onetan ekin eutsan Jaunak;
izan daitela gure poz eta atsegiña.
Aleluia.

Opari-otoitza. — Pazko-misterio onein bidez
beti eskerrak emon dagitzuguzala egizu, Jauna;
eta, misterio oneik gudan zeure erospenaren egin-
tza iraunerazoten dabena ezkerro, poz etenbagea be
izan dakiguzala.

Azken-otoitza.—Begiratu biotz onez, Jauna,
zure erria; eta, betiko bizia emoten dabena sakra-
mentu onein bidez barriztu nai izan dozun ezkerro,
emon egiozu biztuera aintzatsua be.

PAZKO-ALDIKO BIGARREN ASTELENA

Otoitza.—Aita deitzen izten dauskuzun Jaungoiko guztiaaldun eta betikoa: geitu gudan seme-espirtua, agintzaritzat eskiñi dauskuzun oiñorde-tza egunen baten jadetsi dagigun.

Salmu-atala

B. Zorionsuak Jaunagan batzen diranak!
[edo Aleluia].

Zetan diardue atzerriak zaratotsez,
eta erriak alperreko zurrumurrutan?
Lurreko erregeak alkartu egiten dira,
buruzagiak be Jaunaren
eta Onek Igurtzitakoaren kontra jagiten dira:
«Ausi dagiguzan Aren lokarriak,
jaurti dagigun Aren buztarria!»
Zeruetan bizi dan Arek irri-barre egiten dau,
Jaunak arein leptik barre egiten dau.
Gero, asarratuta egiten dautse berba,
sumiñez ikaratzen dauz:
«Neuk jarri dot nire erregea
Sion'en, nire mendi santuan».
Jaunaren erabagia iragarriko dot:
Berak esan daust:
«Zu neure Semea zara; Neuk sortu zaitut gaur;
eskatu egidazu:
erriak oiñordetzat emongo dautsudaz,
eta lurreko mugak zeuretzat.
Burdinazko agintza-makillaz aginduko dautsezu,
eta buztin-ontzia lez ausiko dozuz».

Opari-otoitza.—Onartu egizuz, Jauna, pozez
beterik dagoan zure Elizearen oparigaiok; eta, zu-
re Semearen biztueran onenbesteko pozbidea emon
zeuskun ezkeru, betiko atsegin orretan eskuartzea
eiguzu.

Azken-otoitza. — Begiratu biotz onez, Jauna,
zure erria; eta, betiko bizia daben sakramentu
onein bidez barriztu nai izan dozun ezkeru, emon
egiozu biztuera goragarria be.

PAZKO-ALDIKO BIGARREN ASTARTEA

Otoitza.—Apalik eskatzen dautsugu, Jauna:
Kristo berbiztuaren garaipena iragarriko gai egin
gagizuz; eta, zeure graziaren agiria emon dausku-
zun ezkeru, egunen baten zure doaien jabe egin
gaitetzala argiro.

Salmu-atala

B. Jauna da errege, aundi-izatez jantzita
[edo Aleluia].

Jauna da errege, aundi-izatez jantzita,
Jauna, jantzizat eta gerrikotzat indarrez beterik.
Alantxe dago sendo lurbira, alboraka egin
[bagarik].
Sendo dago betidanik zure errege-aulkia,
eta Zu beti-betikoa zara.

Zure aginduak zintzoak eta zigurrak dira;
zure etxearen edertasuna, Jauna, edertasuna da
amaibagako egunetan.

Opari-otoitza.—Eiguzu, Jauna, Pazko-miste-
rio onein bidez beti eskerrak emon dagitzuguzala;
eta, misterio oneik gudan zeure erospenaren egin-
tza iraunerazoten daben ezkeru, poz etenbagea be
izan dakiguzala.

Azken-otoitza. — Entzun, Jauna, gure otoi-
tzak; eta, gure erospena artu-emon onetan burutu
nai izan dozun ezkeru, artu-emon onek bizitzaldi
onetan guri eutsi eta betiko poza emon daiskula.

PAZKO-ALDIKO BIGARREN EGUASTENA

Otoitza.—Aurten be Pazko-misterioa barriro
biztutean, galdutako duintasuna barriro artu eta
geroko biztueraren itxaropena eskuratzen dau
gizadiak; apalik eskatzen dautsugu, Jaun errukitsu
orri: fedean ospatutako misterioa, beti maitasu-
nean oraingotu daitela.

Salmu-atala

B. Saminduak Jaunari egiten ba'dautso dei,
Arek entzun egiten dautso
[edo Aleluia].

Aldi oro bedeinkatzen dot Jauna,
Aren gorapena beti agoan izango dot;
Jaunagan poztuten da nire arimea:
entzun dagiela ori apalak eta poztu daitezala.
Iragarri egizue nigaz batera Jaunaren aundi-izatea,
goratu daigun Aren izena guztiok batera.
Jaunari itandu neutsan, eta erantzun egin eustan,
neure larri guztietatik atara nenduan.
Begiratu egiozue, eta dizdiz egingo dozue,
ez da zuen arpegia lotsatuko.
Saminduak Jaunari egiten ba'dautso dei,
Arek entzun eta estualdi guztietatik ataraten dau.
Jaunaren aingeruak, Aren zintzoen inguruan
guda-txabolak jarri eta zaindu egiten dauz.
Dastatu ta ikusi egizue Jauna dan ona:
zorionsu, Aren aterpean jarten dana!

Opari-otoitza.—Opari onen truk miragarria-
ren bidez, zeure jaungoikotasunaren erdikide egi-
ten gaituzun Jaungoikoa; eiguzu, ezagutzen dogun
egi(a) onen agiri ta autorpen izan daitela gure bi-
zitza.

Azken-otoitza.—Zatoz, Jauna, zure erriari la-
guntza ekartera; eta, zeure erreñuko misterioen
barri emon dauskuzun ezkeru, antxiñako gure pe-
katu-bizikerea bertan-beera itzi eta, oraindixek,
betiko bizitzarako barrikuntza bizi dagigula egizu.

PAZKO-ALDIKO BIGARREN EGUENA

Otoitza.—Apalik eskatzen dautsugu, Jauna:
Pazko onetan artutako doaiak, gure bizitza guz-
tian frutu ugari ekarri dagiela.

Salmu-atala

B. Saminduak Jaunari egiten ba'dautso dei,
Arek entzun egiten dautso
[edo Aleluia].

Aldi oro bedekintzen dot Jauna,
Aren gorapena beti agoan izango dot.
Dastatu ta ikusi egizue Jauna dan ona:
Zoriontsu, Aren aterpean jarten dana!
Jaunaren arpegia gaizkilleen kontra,
arein gomutapena lurretik garbitzeko.
Norbaitek deadar egiten dauanean,
Jaunak entzun
eta aren larrietatik onik ataraten dau.
Saminduakandik urr dago Jauna,
gogo-ausiak onik ataraten dauz.
Zintzoaren ezbeirak ugari izanarren,
Jaunak guztietatik askatzen dau.

Opari-otoitza.—Gure otoitza ta oparigai
oneik gogoko izan dakizuzala zure aurrean, Jauna;
orrela, gu zeure graziak garbituta, zure maitasunaren
sakramentuetan egokiago eskuartu aal dagigun.

Azken-otoitza.—Jesukristo'ren biztueran betiko
bizitzarako bizibarritu gaituzun Jaungoiko guztiaaldun
eta betikoa; egizu, Pazko-sakramentuak gudan
frutu ugari ekarri dagiela, eta orain artu dogun
salbamen-janariak gure bizia sendotu dagiala.

PAZKO-ALDIKO BIGARREN BARIKUA

Otoitza.—Gure arerioaren menpetik atarateko,
zure Semea gurutzeko eriotzara eroan nai izan
zenduan Jaungoikoa: Aren biztuerako grazia jade-
tsi dagigula eiguzu.

Salmu-atala

B. Gauza bat eskatzen dautsat Jaunari:
Beronen Etxean bizi izatea
[edo Aleluia].

Jauna da nire argi ta osasun,
nori nik bildurrik?

Gauza bat eskatzen dautsat Jaunari,
eta onexen billa ibilliko naz:
nire bizitzako egun guztietan
Jaunaren Etxean bizi nadilla;
Jaunaren jauretxera begira,
Aren samurtasuna artuez poztu nadilla.
Jaunaren poza izango dodala uste dot
bizidunen errian.
Izan ustea Jaunagan; izan adoretua,
izan kemena, jarri Jaunagan zure ustea.

Opari-otoitza.—Onartu biotz onez, Jauna,
erriaren oparigaiok: zure erriak, zure babespean,
zure ondasunetariko bat bera be galdu ez dagian
eta betiko irauten daben ondasunak aurkitu dagan.

Azken-otoitza.—Gorde maitasunez eta eten-
bagarik, Jauna, Zeuk salbatu dozuzanak; olan,
zure Semearen Nekaldiaren bidez erosiak izan ga-
ranok, Aren biztueran poztu aal gaitzezan.

PAZKO-ALDIKO BIGARREN LARUNBATA

Otoitza.—Jauna: gu erosteko mesedea egin
dauskuzu eta zeure seme egin nai gaituzu; begiratu
gagizuz beti aita-maitasunez eta, Kristo zure Seme-
agan sinisten dogunok, benetako askatasuna ta
betiko oifordetza lortu dagigula egizu.

Salmu-atala

B. Etorri dakigula gaiñera, Jauna, zure erru-
Zeugandik itxaroten dogunez! [kia,
[edo Aleluia].

Goratu egizue, Jauna, zintzook,
zuzenen gorapena bidezko yako-ta;
emon egiozue eskerrak Jaunari zitaraz,
jo egizue amar ariko arpa Aren omenez.
Jaunaren itza zuzena da,
eta Aren egintza guztiak zintzoak;
zuzen eta bidezko dana maite dau Arek,
eta Aren errukiz lurra beterik dago.

Jaunaren begiak bere zintzoen gaiñean dagoz,
euren ustea Aren errukian dabenen gaiñean:
arein biziak eriotzatik askatzeko
eta goseteen areik bizkortzeko.

Opari-otoitza.—Santutu biotz onez, Jauna,
aurreko oparigaiok; onartu espirituzko opari onen
eskintza, eta gu etenbagako oparigai biurtu gagi-
zuz.

Azken-otoitza.—Misterio santuok artuta, apal-
apalik eskatzen dautsugu, Jauna: eukaristi onek,
zeure Semearen gomutagarritzat ospatuta, maita-
sunean aurrera egitera eragin daiskula.

PAZKO-ALDIKO IRUGARREN ASTELENA

Otoitza.—Zuzendu dagiala, Jauna, zure egia-
ren argiak bidea galduta dabillena, santutasun-bi-
dera biurtu aal daiten; eta egizu, kristau-izenari ez
dagokion guztia kristau guztiak igundu eta izen
orretan adierazoten dan guztia bete dagiela.

Salmu-atala

B. Bai zoriontsu, bizikera errubageaz dabi-
llena!
[edo Aleluia].

Aundikiak nire kontra mormoxetan egiteko jesar-
[ten diranean,
zure menpeko onek zeure legeak ausnartzen dauz;
zeure aginduak dira nire atsegin,
zeure erabagiak dira nire onulari.
Azaldu neutsun nire bidea, eta entzun egin
irakatsi egidazuz zure legeak; [nenduzun;
irakatsi nagizu zure aginduen bidean,
eta zeure arrigarriak ausnartuko dodaz.

Aldendu nagizu okerreko bidetik,
eta emoidazu zure naiaren grazia;
egiazko bidea aukeratu neban,
zeure aginduak gura izan nebazan.

Opari-otoitza.—Gure otoitza ta oparigai oneik
gogoko izan dakizuzala zure aurrean, Jauna: olan,
gu zeure graziak garbituta, zure maitasunaren sa-
kramentuetan egokiago eskuartu aal dagigun.

Azken-otoitza.—Jesukristo'ren biztueran beti-
ko bizitzarako bizibarritu gaituzun Jaungoiko guz-
tiaaldun eta betikoa; egizu, Pazko-sakramentuak
gugan frutu ugari ekarri dagiela, eta orain artu
dogun salbamen-janariak gure bizia sendotu da-
giala.

PAZKO-ALDIKO IRUGARREN ASTARTEA

Otoitza.—Uraren eta Espirituaren bidez bizi
barria artu dabenai zeure erreinuko ateak zabal-
tzen dautsezuzan Jauna; geiagotu egizu zure se-
meai emon dautsezun grazia: euren pekatuetatik
garbituta, zeure agintzari guztiak lortu dagiezan.

Salmu-atala

B. Zeure eskuetan izten dot, Jauna,
nire espiritua.

[*edo Aleluia*].

Izan zakidaz, Jauna, aterpe-arkaitz,
ni onik atarako nauan gaztelua,
nire arkaitz eta gaztelu Zeu zara-ta;
zure izenagaitik, zuzendu ta eroan nagizu.
Zeure eskuetan izten dot, Jauna, nire espiritua:
Zeuk askatuko nozu, Jainko zintzo orrek;
nik Jaunagan dot ustea.

Izan bedi zure errukia nire poza ta alaitasuna.
Zure arpegiak zure morroi oni argi egin dagiola;
zure maitasunarren, onik atara nagizu.
Zeure arpegiaren ezkutuan gordeten gaituzu
gizonen maltzurkerietatik.

Opari-otoitza.—Onartu, Jauna, pozez beterik
dagoan zure Elizearen oparigaiok; eta, zure Seme-
aren biztueran onenbesteko pozbidea emon zeus-
kun ezkeru, betiko atsegin orretan eskuartzea eigu-
zu.

Azken-otoitza.—Begiratu biotz onez, Jauna,
zure erria; eta, betiko bizia daben sakramentu
onein bidez barriztu nai izan dozun eskeru, emon
egiozu biztuera goragarria be.

PAZKO-ALDIKO IRUGARREN EGUASTENA

Otoitza.—Zatoz, Jauna, zure etxeakoai laguntza
ekartera; eta, fede-doaia artu dogun guztioi, zeure
Seme berbiztuaren betiko oiñordetzan eskuartu
dagiola eiguazu. Zugaz eta...

Salmu-atala

B. Goratu Jauna, lur guzti orrek!
[*edo Aleluia*].

Goratu Jauna, lur guzti orrek;
jo soñua Aren izenaren omenez;
abestu ereserkiak Aren izenari;
esan Jaungoikoari: «Zure lanak bai arrigarriak!»
Auspaztu bedi zure aurrean lur osoa,
jo dagiela soñua zure omenez,
jo dagiela zure izenarentzat.
Etorri Jainkoaren lanak ikustera,
gizakien alde egin dauzan lan bildurgarriak.
Itsasoa legor biurtu eban,
ibaitik oiñez igaro ziran.
Poztu gaitzezan Jainkoagan,
bere aal-izatez nagusitza dauko betiko-ta.

Opari-otoitza.—Eiguzu, Jauna, Pazko-misterio
onein bidez beti eskerrak emon dagitzuguzala; eta,
misterio oneik gugan zeure erospenaren egintza
iraunerazoten daben exkero, poz etenbagea be izan
dakiguzala.

Azken-otoitza.—Entzun, Jauna, gure otoitzak;
eta, gure erospena artu-emon onetan burutu nai
izan dozun ezkeru, artu-emon onek bizitzaldi one-
tan guri eutsi eta betiko poza emon daiskula.

PAZKO-ALDIKO IRUGARREN EGUENA

Otoitza.—Jaungoiko guztiaaldun eta betikoa!
Pazko-egun oneitan argiro agertu dauskuzu zure
maitasuna, eta berau sakonago ezagutzen itzi daus-
kuzu; egizu, fede-errakuntzaren illunpeetatik atara
gaituzunok, zeure egiaren irakatsiai sendo lotuta
egon gaitzala.

Salmu-atala

B. Goratu Jauna, lur guzti orrek!
[*edo Aleluia*].

Bedeinkatu egizue Jauna, erriok:
iragarri egizuez Areganako gorapenak:
Berak biurtu dausku bizia,
eta gure oiñak laban egin dagian izten ez dauana,
Etorri entzutera, Jainkoaren zintzook, [Bera da.
neure alde egin dauana azalduko dautsuet:
Arexeri egin eutsan deadar nire agoak,
Axe goratu eban nire miiñak.
Bedeinkatua Jaungoikoa!,
nire eskaria ez eban bazartu-ta,
ezta bere errukia nigandik urrundu be.

Opari-otoitza.—Opari onen truk miragarria-
ren bidez, zeure jaungoikotasunaren erdikide egi-
ten gaituzun Jaungoikoa; eiguzu, ezagutzen dogun
egi(a) onen agiri ta autorpen izan dakigula gure
bizitza.

Azken-otoitza.—Zatoz, Jauna, zure erriari la-
guntza ekartera; eta, zeure erreinuko misterioen
barri emon dauskuzun ezkeru, antxiñako gure
pekatu-bizikerea bertan-beera itzi eta, oraíndixek,
betiko bizitzarako barrikuntza bizi dagigula egizu.

PAZKO-ALDIKO IRUGARREN BARIKUA

Otoitza.—Apalik eskatzen dautsugu, Jauna: zure Semearen biztuera ezagutzeko grazia emon dauskuzun ezker, Espiritu Santuak be, bere maitasunaz, bizitza barri batera biztuerazo gagizala eiguzu.

Salmu-atala

B. Zoaze mundu guztian zear
Barri Ona iragartera.
[edo Aleluia].

Goratu egizue Jauna, atzerri guztiok,
ospatu egizue, erri guztiok.

Guganako Aren errukia sendoa da,
Aren zintzotasunak beti irauten dau.

Opari-otoitza.—Santutu biotz onez, Jauna, aurreko oparigaiok; onartu espirituzko opari onen eskintza, eta gu etenbagako oparigai biurtu gaginguz.

Azken-otoitza.—Misterio santuak artuta, apalalik eskatzen dautsugu, Jauna: eukaristi onek, zeure Semearen gomutagarritzat ospatuta, maitasunean aurrera egitera eragin daiskula.

PAZKO-ALDIKO IRUGARREN LARUNBATA

Otoitza.—Zugan sinisten dabena bateo-uren bidez barriztu dozuzan Jaungoikoa; emon egiezu zure laguntza Kristo'gan jaiotza barria artu dabena: pekatuaren buztarpetik askatuak izan diranak, betiko zoriona be lortu dagien.

Salmu-atala

B. Zelan ordainduko dautsat Jaunari
egin daustan on guztia?
[edo Aleluia].

Zelan ordainduko dautsat Jaunari
egin daustan on guztia?

Edontzi osasungarria jasoko dot,

Aren izenari dei egifnez.

Beteko dautsada Jaunari nire zin-eskintzak,
erri guztiaren aurrean.

Balio aundikoa da Jaunaren aurrean

Aren zintzoen eriotza.

Zeure otsein naz ni, Jauna,

zeure morroi, zure mirabearen semea:

ausi zenduzan nire kateak.

Gorapen-opari bat eskiñiko dautsut, Jauna,

zeure izenari dei egifnez.

Opari-otoitza.—Onartu biotz onez, Jauna, zure erriaren oparigaiok: zure magalpean, zure ondasunetarik bat bera be galdu ez dagian eta betiko irauten dabena ondasunak aurkitu dagizan.

Azken-otoitza.—Ez itzi maitasunez zaindu bagarik, Jaungoiko guztiaaldun orrek, Zeuk salbatu dozuzanok: zeure Semearen Nekaldiaz erosiak

izan garanok, Beronen biztueran poztu aal gaitazan.

PAZKO-ALDIKO LAUGARREN ASTELENA

Otoitza.—Zure Semea beeratuaz, pekatuan jausitako gizadia gora jaso zenduan Jaungoikoa: emon egiezu zure zintzoai benetako poza: pekatuaren buztarpetik askatuak izan diranak, betiko zoriona be lortu dagien.

Salmu-atala

B. Nire arimea Jainkoaren egarri da,
Jainko biziaren egarri.

[edo Aleluia].

Orein-emea ur-bizien billa dabillenez,
alantxe dabil, ene Jainko, zure billa nire arimea.
Jainkoaren egarri da, Jainko biziaren egarri:
noiz joango ete-naz Jainkoaren aurpegia ikustera?
Bialdu zure argia ta egia:
eurak zuzendu ta eroan nagia
zure mendi santura,
zure bizitokira.

Urreratu naitela ni Jainkoaren altarara,
neure poza dan Jainkoagana;
emon dagitzudazala eskerrak zitara-otsez,
Jainko, nire Jainko!

Opari-otoitza.—Onartu egizuz, Jauna, pozez beterik dagoan zure Elizearen oparigaiok; eta, zure Semearen biztueran onenbesteko pozbidea emon zeuskun ezker, betiko atsegin orretan eskuartzea eiguzu.

Azken-otoitza.—Begiratu biotz onez, Jauna, zure erria; eta, betiko bizia dabena sakramentu onein bidez barriztu nai izan dozun ezker, emon egiozu biztuera goragarria be.

PAZKO-ALDIKO LAUGARREN ASTARTEA

Otoitza.—Apalik eskatzen dautsugu, Jaun guztiaaldun orri: Kristo berbiztuaren jaiak ospatzeak, geitu dagiala gugan gu salbatuak izan garaneko poza.

Salmu-atala

B. Goratu egizue Jauna, erri guztiok
[edo Aleluia].

Jaunak ezarri dautsaz oiñarriak Sion'i mendi
[santuan,

eta Jaunak Jakob'en bizitoki guztiak baiño
naiago dauz Sion'go ateark.

Zutzaz diñoena bai ospatsu, Jainkoaren uri!

«Ejipto ta Babilonia

neure zintzoen artean zenbatuko dodaz;

filistarrak, tirotarrak eta etiopiarrak

antxe jaio dira».

Sion'i buruz auxe esango da: «Bakotxean bat
antxe jaio dira guztiak:

Gorengoak Berak sortu dau».

«Au antxe jaio da»,
idatziko dau Jaunak errien liburuan.
Eta, «Nire iturri guztiak zeugan dagoz»,
abestuko dabe dantzan diarduen artean.

Opari-otoitza.—Eiguzu, Jauna, Pazko-misterio onein bidez beti eskerrak emon dagitzuguzala; eta, misterio oneik gugan zeure erospeneren egin-tza iraunerazoten daben ezkerro, poz etenbagea be izan dakiguzala.

Azken-otoitza.—Entzun, Jauna, gure otoitzak; eta, gure erospena artu-emon onetan burutu nai izan dozun ezkerro, artu-emon onek bizitzaldi onetan guri eutsi eta betiko poza emon daiskula.

PAZKO-ALDIKO LAUGARREN EGUASTENA

Otoitza.—Zintzoen bizia, beeratuen aintza eta santuen zoriona zaran Jauna: entzun gure eskariak eta ase zure doai ugarien bidez zeure agintzarien egarri diranak.

Salmu-atala

B. Goratu zagiezala erriak, ene Jainko,
goratu zagiezala erri guztiak!
[edo Aleluia].

Erruki bekigu Jauna ta Berak bedeinkatu gagizala,
argitu daiskula bere arpegia:
ezagutu begiz lurak zure bideak,
erri guztiak Zugandiko osasuna.

Abestu begie pozez beterik atzerriak,
lurrean zuzentasunez agintzen dozu-ta;
erriak artez zuzentzen dozuz,
lurreko atzerrien agintari zara.

Goratu zagiezala erriak, ene Jainko,
goratu zagiezala erri guztiak!
Bedeinkatu gagizala Jainkoak;
lurreko bazterralde guztiak be
bildur izan dagioela.

Opari-otoitza.—Opari onen truk miragarriaren bidez, zeure jaungoikotasunaren erdikide egiten gaituzun Jaungoikoa; eiguzu, ezagutzen dogun egi(a) onen, agiri ta autorpen izan daitela gure bizitza.

Azken-otoitza.—Zatoz, Jauna, zure erriari laguntza ekartera; eta, zeure erreñuko misterioen barri emon dauskuzun eskero, antxiñako gure pekatu-bizikerea bertan-beera itzi eta, oraindik, betiko bizitzarako barrikuntza bizi dagigula egizu.

PAZKO-ALDIKO LAUGARREN EGUENA

Otoitza.—Gizadia, jatorrizko bere egoeratik gora jasoaz, barriztu dozun Jaungoikoa: ez aaztu zure ezin-esan alako maitasun-asmoak eta, bateoaren bidez bizi barria artu dabenakan, iraunerazo egizu ain eskuzabalez artu dabezan doaiak.

Salmu-atala

B. Zeure zintzotasuna iragarriko dot
gizaldiz-gizaldi
[edo Aleluia].

Beti abestuko dodaz Jaunaren errukiak,
gizaldiz-gizaldi zeure zintzotasuna iragarriko dot.
Auxe esan neban-eta: «Zure errukia beti-betiko
[etxea da,
zerua baiño geiago sendotu dozu zure
[zintzotasuna]].»

Dabid nire morroia aurkitu dot
eta orio santuz igurtzi dot;
nire eskua beti aregaz egon daiten
eta nire besoak adoretu dagian.

Nire zintzotasunak eta errukiak lagun egingo
[dautsoe,
aundi egingo da nire izenaz aren indarra.
«Zeu zara nire aita —egingo dautsudei—,
nire Jainko, nire Arkaitz salbatzaillea».

Opari-otoitza.—Gure otoitza ta oparigai oneik gogoko izan dakizuzala zure aurrean, Jauna: olan, gu zeure graziak garbituta, zure maitasunaren sakramentuetan egokiago eskuartu aal dagigun.

Azken-otoitza.—Jesukristo'ren biztueran betiko bizitzarako bizibarritu gaituzun Jaungoiko guztiaaldun eta betikoa; egizu, Pazko-sakramentuak gugan frutu ugari ekarri dagiela, eta orain artu dogun salbamen-janariak gure bizia sendotu dagiela eta Zeugan aurkitu dagigula betiko zoriona.

PAZKO-ALDIKO LAUGARREN BARIKUA

Otoitza.—Geure askatasunaren eta salbame-naren iturburu zaran Jainko Jauna: entzun dei egiten dautsugunon eskariak; eta, zure Semearen Odolaren bidez salbatu gaituzunok, beti Zeugandik bizi gaitetzala.

Salmu-atala

B. Zu neure Semea zara:
Neuk sortu zaitut gaur
[edo Aleluia].

«Neuk jarri dot nire erregea
Sion'en, nire mendi santuan».
Jaunaren erabagia iragarriko dot:
Berak esan daust:
«Zu neure Semea zara:
Neuk sortu zaitut gaur».

Eskatu egidazu: erriak oiñordekotzat emongo
eta lurreko mugak zeuretzat. [dautsudaz,
Burdinazko agintza-makillaz aginduko dautsezu,
eta buztin-ontzia lez ausiko dozuz.

Eta orain, erregeok, izan zaitetze sen oneko;
lurreko ebazleok, zeuen lepotik ikasi egizue:
otseindu egizue Jauna bildurrez.

Opari-otoitza.—Onartu biotz onez, Jauna, erriaren oparigaiok: zure erriak, zure babespean, zure ondasunetariko bat bera be galdu ez dagian eta betiko irauten daben ondasunak aurkitu dagizan.

Azken-otoitza.—Gorde maitasunez eta etenbagarik, Jauna, Zeuk salbatu dozuzanok; olan, zure Semearen Nekaldiaren bidez erosiak izan garanok, Aren biztueran poztu aal gaitzezan.

PAZKO-ALDIKO LAUGARREN LARUNBATA

Otoitza.—Eiguzu, Jaungoiko guztiaaldun eta betiko orrek, Pazko-misterioa beti bete-betean bizi dagigula: bateoan bizi barria artuta, kristau-bizitzako frutu ugari ekarri eta, azkenean, betiko poza jadetsi dagigun.

Salmu-atala

B. Ikusi dabe lurreko mugak
gure Jainkoaren garaipena
[edo Aleluia].

Abestu egiozue Jaunari kanta barri bat,
miragarriak egin dauz-ta.
Bere eskumeak emon dautso garaipena,
bere esku santuak.

Jaunak bere garaipena jakifierazoten dau,
atzerriai bere zuzentasuna agertzen dautse:
Israel'en etxearen alde izan ebazan errukia ta
ekarri ebazan gogora. [zintzotasuna]

Ikusi dabe lurreko mugak
gure Jainkoaren garaipena.
Goratu Jauna, lur guzti orrek,
egin deadar, jo txaloak, jo eresiak.

Opari-otoitza.—Santutu biotz onez, Jauna, aurreko oparigaiok; onartu espirituzko opari onen eskintza, eta gu etenbagako oparigai biurtu gaginguz.

Azken-otoitza.—Misterio santuok artuta, apalalik eskatzen dautsugu, Jauna: eukaristi onek, zeure Semearen gomutagarritzat ospatuta, maitasunean aurrera egitera eragin daiskula.

PAZKO-ALDIKO BOSGARREN ASTELENA

Otoitza.—Zure zintzoen biotzak gogo batez alkartzen dozuzan Jaungoikoa: biztu egiozuz zure erriari zure aginduetarako maitasuna eta zure agintzarietarako itzaropena: gizarteko gora-beeren artean, gure biotzak benetako pozetan sendo egon daitezcan.

Salmu-atala

B. Ez guri, Jauna, ez guri,
zeure izenari emon aintza
[edo Aleluia].

Ez guri, Jauna, ez guri,
zeure izenari emon aintza:
zeure ontasunagaitik, zeure zintzotasunagaitik.

Zegaitik esan bear dabe atzerriak:

«Nun dago orrein Jainkoa?»

Gure Jaungoikoa zeruan dago;
nai dauana egiten dau.

Arein jainko-irudiak, ostera, zidar eta urre dira,
gizonen eskuak egindakoak.

Bedeinkatu zagiezala Jaunak,
zeru-lurrak egin ebazanak.

Zerua Jaunarena da,
lurra gizonai emon dautse.

Opari-otoitza.—Gure otoitza ta oparigai oneik gogoko izan dakizuzala zure aurrean, Jauna; olan, gu zeure graziak garbituta, zure maitasunaren sakramentuetan egokiago eskuartu aal dagigun.

Azken-otoitza.—Jesukristo'ren biztueran betiko bizitzarako bizibarritu gaituzun Jaungoiko guztiaaldun eta betikoa; egizu, Pazko-sakramentuak gudan frutu ugari ekarri dagiela, eta orain artu dogun salbamen-janariak gure bizia sendotu dagiala.

PAZKO-ALDIKO BOSGARREN ASTARTEA

Otoitza.—Zuk, Jauna, Jesukristo'ren biztueran, gu betiko bizitzara biztuteko, barriro sortu gaituzu; sendotu egizu zure erriaren fedea eta indartu beronen itzaropena: guretzako zure agintzaria burutuko daneko ezpairik iñoiz be izan ez dagigun.

Salmu-atala

B. Zure adiskideak, Jauna,
zeure Erreñiko aintza iragarriko dabe
[edo Aleluia].

Emon dagitzuezala eskerrak, Jauna, zure izaki bedeinkatu zagiezala zure zintzoak, [guztiak,
iragarri dagiela zure erregetzaren aintza,
esan dagiezala zure arrigarriak:
gizonai zure arrigarriak
eta zure erregetzaren aintza ta aundi-izatea
[azalduz.

Zure erregetza beti-betiko erregetza da,
zure agintaritzak gizaldiz-gizaldi irauten dau.
Nire agoak esan begi Jaunaren gorapena,
bedeinkatu begie bizidun guztiak Aren izen
beti ta beti. [santua,

Opari-otoitza.—Onartu egizuz, Jauna, pozez beterik dagoan zure Elizearen oparigaiok; eta, zure Semearen biztueran onenbesteko pozbidea emon zeuskun ezkerok, betiko atsegin orretan eskuartzea eiguzu.

Azken-oparia.—Begiratu biotz onez, Jauna, zure erria; eta, betiko bizia daben sakramentu onein bidez barriztu nai izan dozun ezkerok, emon egiozu biztuera goragarria be.

PAZKO-ALDIKO BOSGARREN EGUASTENA

Otoitza.—Errubagetasuna maite eta berau galdu dabena! barriro emoten dautsezun Jaungoikoa; erakarri egizu Zeugana zure zintzoen biotza; fede-errakuntzaren illunpetatik askatuak izan diranak, beti zeure egiaren argitan bizi daitezcan.

Salmu-atala

B. Bai poztu nintzala ni,
«Jaunaren etxera goaz» esan eustenean!
[edo Aleluia].

Bai poztu nintzala ni,
«Jaunaren etxera goaz» esan eustenean!
Eldu dira gure oiñiak
zure ataurrera, Jerusalem.
Jerusalen lodi ta batuta egindako
uria lez dago jaso.
Araxe igoten dira leiñuak,
Jaunaren leiñuak.
Israel'go oitura danez,
Jaunaren izena ospatzera.
Antxe dagoz auzi-maiak,
Dabid'en jauregian.

Opari-otoitza.—Eiguzu, Jauna, Pazko-misterio onein bidez beti eskerrak emon dagitzuguzala; eta, misterio oneik zeure erospnaren egintza irau-nerazoten daben ezkerro, poz etenbagea be izan dakiguzala.

Azken-otoitza.—Entzun, Jauna, gure otoitzak; eta, gure erospna artu-emon onetan burutu nai izan dozun ezkerro, artu-emon onek bizitzaldi onetan guri eutsi eta betiko poza emon daiskula.

PAZKO-ALDIKO BOSGARREN EGUENA

Otoitza.—Guk ezetariko irabazirik ez genduala, eriotzatik bizira eta itunalditik (*tristuratik*) pozetara aldatu gaituzun Jainko Jaun guztiaalduna; ez emon azkenik zure doaiari eta ez itzi guban zure miragarriak egiteari be; eta, fedearen bidez zintzotuak izan garanoi, fede orretan beti irauteko bear dan indarra emon egiguzu.

Salmu-atala

B. Azaldu erriai Jaunaren aintza
[edo Aleluia].

Abestu egiozue Jaunari kanta barri bat,
abestu Jaunari, lur guzti orrek;
abestu Jaunari, bedeinkatu Aren izena.
Iragarri egunoro Aren garaipena.
Azaldu erriai Aren aintza,
atzerri guztiai Aren mirariak.
Esan egiezue erriai: «Jauna da errege,
Berak sendotu eban lurra, eta ez dau zirkiñik
Bera da errien agintari zuzena». [egingo;

Opari-otoitza.—Opari onen truk miragarriaren bidez zeure jaungoikotasunaren erdikide egiten

gaituzun Jaungoikoa; eiguzu, ezagutzen dogun egi(a) onen agiri ta autorpen izan daitela gure bizitza.

Azken-otoitza.—Zatoz, Jauna, zure erriari laguntza ekartera; eta, zeure erreñuko misterioen barri emon dauskuzun ezkerro, antxiñako gure pekatu-bizikerea bertan-beera itzi eta, oraingek, betiko bizitzarako barrikuntza bizi dagigula egizu.

PAZKO-ALDIKO BOSGARREN BARIKUA

Otoitza.—Emoiguzu, Jauna, Pazko-misterioa bete-betean bizi izateko grazia; jai oneitan somatzen dogun poza, geure indar eta salbamen izan daiten.

Salmu-atala

B. Eskerrak emongo dautsudaz, Jauna,
errien artean.

[edo Aleluia].

Gertu daukat biotza, Jauna,
gertu daukat biotza.
Abestu ta soifua jo bear dot:
iratzartu zaitez, nire gorapen ori!,
iratzartu, arpa ta zitara ori!
egunsentia iratzartuko dot.
Eskerrak emongo dautsudaz, Jauna, errien artean,
Zeuretzat joko dot soifua atzerrien aurrean:
zeure ontasunagaitik,
zeruak baiño aundiagoa da-ta;
zeure zintzotasunagaitik,
odeiai oratzen dautse-ta.
Igo, ene Jainko, zeru-gaiñera,
eta bete begi lurra zure aintzak.

Opari-otoitza.—Santutu biotz onez, Jauna, aurreko oparigaiok; onartu espirituzko opari onen eskintza, eta gu etenbagako oparigai biurtu gaginguz.

Azken-otoitza.—Misterio santuok artuta, apalalik eskatzen dautsugu, Jauna: eukaristi onek, zeure Semearen gomutagarritzat ospatuta, maitasunean aurrera egitera eragin daiskula.

PAZKO-ALDIKO BOSGARREN LARUNBATA

Otoitza.—Bateo-uren bidez betiko bizitzara sortu gaituzun Jainko Jaun guztiaalduna: bizitza ezilkorrerako gai egin nai izan gaituzun ezkerro, ez eiguzu orain ukatu betiko ondasunak lortzeko zure laguntza.

Salmu-atala

B. Goratu egizue Jauna, lurtar guztiok
[edo Aleluia].

Goratu egizue Jauna, lurtar guztiok,
otseindu egizue Jauna poz-pozik,
sartu zaitez goraka baten Aren aurrean.
Jakin egizue Jauna dana Jainko:
Berak egin gaituala ta Bereak garala,

Beraren erri ta artaldeko ardi.

Jauna ona da,
Aren errukiak beti irauten dau,
Aren zintzotasunak gizaldien-gizaldietan.

Opari-otoitza.—Onartu biotz onez, Jauna, erriaren oparigaiok: zure erriak, zure babespean, zure ondasunetariko bat bera be galdu ez dagian eta betiko irauten daben ondasunak aurkitu dagizan.

Azken-otoitza.—Gorde maitasunez eta etenbagarik, Jauna, Zeuk salbatu dozuzanok; olan, zure Semearen Nekaldiaren bidez erosiak izan garanok, Aren biztueran poztu aal gaitez.

PAZKO-ALDIKO SEIGARREN ASTELENA

Otoitza.—Apalik eskatzen dautsugu, Jauna: Pazko onetan artutako doaiak, gure bizitza guztian frutu ugari ekarri dagiela.

Salmu-atala

B. Jaunak bere erria maite dau
[edo Aleluia].

Abestu egiozue Jaunari kanta barri bat, entzun bedi gorapena Arentzat zintzoen batza-poztu bedi Israel bere Egilleagaitik, [rrean; eta Sion'go semeak euren Erregeagaitik.

Goratu egizue Aren izena dantzaketaz, abestu egiozue danboliniez ta zitaraz: Jaunak bere erria maite dau-ta. eta apalak garaipenaz apaintzen dauz. Ospatu dagiela zintzoak Aren aintza eta abestu dagiela pozik erreskadan: Jainkoari goraka agoaz.

Opari-otoitza.—Onartu egizuz, Jauna, pozez beterik dagoan zure Elizearen oparigaiok; eta, zure Semearen biztueran onenbesteko pozbidea emon zeuskun ezkerro, betiko atsegin orretan eskuartzea eiguzu.

Azken-otoitza.—Begiratu biotz onez, Jauna, zure erria; eta, betiko bizia daben sakramentu onein bidez barriztu nai izan dozun ezkerro, emon egiozu biztuerara goragarria be.

PAZKO-ALDIKO SEIGARREN ASTARTEA

Otoitza.—Poztu daitela beti zure erria, Jauna, bere burua espirituz barriztuta eta gaztetuta ikusirik; eta bere semetzakoa barriro artu dauaneko pozak, aintzatsu berbiztuteko bere itxaropena sendotu dagiela.

Salmu-atala

B. Jauna, zure eskumeak onik ataraten nau
[edo Aleluia].

Biotz-biotzez emoten dautsudaz eskerrak, Jauna; aingeruen aurrean joko dodaz eresiak Zuretzat. Zeure jauretzenrantz auspaztuko naz.

Eskerrak emongo dautsadaz zure izenari: zeure erruki ta zintzotasunagaitik, zure agintzaria zure izen ona baiño gorago dago-ta. Dei egin neutsunean, entzun egin zeustan, geitu egin zenduan adorea nire ariman.

Jauna, zure eskumeak onik ataraten nau. Beteko dauz Jaunak bere mesedeak nigan: betikoa da, Jauna, zure errukia, ez itzi bertan-beera zure eskuak egingakoa.

Opari-otoitza.—Eiguzu, Jauna, Pazko-misterio onein bidez beti eskerrak emon dagitzuguzala; eta, misterio oneik gudan zeure erospenaren eging-tza iraunerazoten daben ezkerro, poz etenbagea be izan dakiguzala.

Azken-otoitza.—Entzun, Jauna, gure otoitzak; eta, gure erospena artu-emon onetan burutu nai izan dozun ezkerro, artu-emon onek bizitzaldi onetan guri eutsi eta betiko poza emon daiskula.

PAZKO-ALDIKO SEIGARREN EGUASTENA

Otoitza.—Entzun, Jauna, gure otoitza eta eiguzu, Jesukristo'ren biztuerara goragarria fedez ospatzen dogunez, Bera santu guztiakaz etorri daitenean be, bere garaipenaz poztu aal gaitezala.

Salmu-atala

B. Zeru-lurrak beterik dagoz zure aintzaz
[edo Aleluia].

Goratu egizue Jauna zeruan, goratu egizue Jauna goian; goratu egizue, Aren aingeru guztiok, goratu egizue, Aren gudarozte guztiok.

Lurreko errege ta erri guztiok, lurreko nagusi ta buruzagi guztiok; mutillok, baita neskok be, zaarrok umeakaz batera. Goratu begie Jaunaren izena, Aren izena bakarrik aundia. Aren aundi-izatea zeru-lurren gaiñetik. Berak aunditzen dau bere erriaren indarra. Bere zintzo guztien gorapena, bere erri aukeratua dan Israel'ena.

Opari-otoitza.—Opari onentruk miragarriaren bidez, zeure jangoikotasunaren erdikide egiten gaituzun Jaungoikoa; eiguzu, ezagutzen dogun egia onen agiri ta autorpen izan daitela gure bizitza.

Azken-otoitza.—Zatoz, Jauna, zure erriari laguntza ekartera; eta, zeure erreñuko misterioen barri emon dauskuzun ezkerro, antxiñako gure pekatu-bizikerea bertan-beera itzi eta, oraindik, betiko bizitzarako barrikuntza bizi dagigula egizu.

PAZKO-ALDIKO SEIGARREN EGUENA

Jaunaren zerura Igokundea.

PAZKO-ALDIKO SEIGARREN BARIKUA

Otoitza.—Zure Semearen biztureraren bidez betiko bizitzara bizibarritu gaituzun Jaungoikoa; jaso egizuz gure biotzak Salbatzailleagana, zeure eskumaldean jesarrita dago-ta: barriro etorri daitenean, bateoan bizi barria artu dogunok ezilkortasun goragarriaz jantziak izan gaitezcan.

Salmu-atala

B. Jaungoikoa da munduko erregea
[edo Aleluia].

Jo txaloak, erri guztiok;
goratu Jainkoa poz-deadarka!

Jauna garaitsu ta ikaragarria da-ta,
lur guztian Errege aundi.

Berak ekarten dauz erriak gure menpera,
eta atzerriak gure oiñazpira;
Berak aukeratu genduzan bere oiñordetzat:
maite dauan Jakob'en aintza.

Oiu-artean igoten da Jainkoa,
Jauna turuta-otsez:
jo Jainkoarentzat, jo eresiak,
jo gure Erregearentzat, jo eresiak!

Opari-otoitza.—Onartu biotz onez, Jauna,
zure erriaren oparigaiok: zure magalpean, zure
ondasunetarik bat bera be galdu ez dagian eta
betiko irauten daben ondasunak aurkitu dagizan.

Azken-otoitza.—Ez itzi maitasunez zaindu
bagarik, Jaun guztiaaldun orrek, Zeuk salbatu do-
zuzanak: zeure Semearen Nekaldiaz erosiak izan
garanok, Beronen biztueran poztu aal gaitezcan.

PAZKO-ALDIKO SEIGARREN LARUNBATA

Otoitza.—Zure Semeak, Jauna, zerura igota
gero, agindu izan eban Espiritu Santua bialdu
eban apostoluen gaiñera, erreñuko misterioetan
sartu zeitezcan; geure artean be Espiritu beronen
doaiak banatu dagizuzala eskatzen dautsugu.

Salmu-atala

B. Jaungoikoa da munduko erregea
[edo Aleluia].

Jo txaloak, erri guztiok;
goratu Jainkoa poz-deadarka!

Jauna garaitsu ta ikaragarria da-ta,
lur guztian Errege aundi.

Jaungoikoa da munduko erregea;
jo eresiak ganoraz.

Erregea da Jainkoa atzerrietan,
Jainkoa bere errege-aulki santuan jesarten da.

Jentillen nagusiak Abraham'en Jainkoaren erriagaz
batzen dira.

Lurreko aundikiak Jaungoikoarenak dira-ta;
goren-gorengoa da A!

Opari-otoitza.—Santutu biotz onez, Jauna,
aurreko oparigaiok; onartu espirituzko opari onen

eskintza, eta gu etenbagako oparigai biurtu ga-
gizuz.

Azken-otoitza.—Misterio santuok artuta, apal-
apalik eskatzen dautsugu, Jauna: eukaristi onek,
zeure Semearen gomutagarritzat ospatuta, maita-
sunean aurrera egitera eragin daiskula.

PAZKO-ALDIKO ZAZPIGARREN ASTELENA

Otoitza.—Isuri egizu gure gaiñera, Jauna,
Espiritu Santuaren indarra, zure naia zintzoro
bete aal dagigun eta, gure egintzen bidez, zeure
autorpena emon dagigun.

Salmu-atala

B. Abestu egiozue Jaunari, lurreko erregeok
[edo Aleluia].

Jainkoa jagi ta Aren arerioak sakabanatu egiten
[dira

iges egiten dabe Aren aurretik Ari gorroto dau-
kea ezerezten danez ezerezten dira; [tsoenak;
argizaria sutan urtzen danez
ondatzen dira gaiztoak Jainkoaren aurrean.

Zintzoak, barriz, poztu egiten dira,
alaitu egiten dira Jainkoaren aurrean,
poz-bitsetan gaiñezka.

Abestu egiozue Jainkoari, jo soñua Aren omenez;
izena Jauna dau;
poztu zaiteze Aren aurrean.

Umezurtzen aita, alargunen zaintzaille,
Jauna bere bizitoki santuan bizi da.

Jainkoak etxea gertatzen dautse bazartuai,
atxillotuak askatu ta aberastu egiten dauz.

Opari-otoitza.—Opari santu onek garbitu
gagizala, Jauna, eta isuri dagiala gure arimetara
zure graziaren jaungoikozko indarra.

Azken-otoitza.—Zatoz, Jauna, zure erriari
laguntza ekartera; eta, zeure erreñuko misterioen
barri emon dauskuzun ezkerro, antxiñako gure
pekatu-bizikerea bertan-beera itzi eta, orañdixek,
betiko bizitzarako barrikuntza bizi dagigula egizu.

PAZKO-ALDI ZAZPIGARREN ASTELENA

Otoitza.—Zeure Espiritu Santua bialdu dagi-
zula eskatzen dautsugu, Jauna: bere bizitokia
geugan jarririk, bere aintzaren jauretze (*eliza*)
biurtu gagizan.

Salmu-atala

B. Abestu egiozue Jaunari, lurreko erregeok
[edo Aleluia].

Euria isuri zenduan ugari, Jauna, zure solora,
bizkortu egin zenduan lur makaldua;
zure artaldeak lurrean egin eban bere bizitokia,
zure ontasunak, Jainko, beartsuai atondu eutsen
Bedeinkatua Jauna egunoro! [lurrean.
Jainkoak daroaz gure sortak, Bera da gure osasuna.

Jainko salbatzaillea da gure Jainkoa,
Jainko Jaunak eragiten dausku iges eriotzatik.

Opari-otoitza.—Onartu, Jauna, zure semeen eskariak oparigaiokaz batera: eukaristi onek, maitasunez ospatuta, zeruko aintzara eroan gagizan.

Azken-otoitza.—Misterio santuok artuta, apalalik eskatzen dautsugu, Jauna: eukaristi onek, zeure Semearen gomutagarritzat ospatuta, maitasunean aurrera egitera eragin daiskula.

PAZKO-ALDIKO ZAZPIGARREN EGUASTENA

Otoitza.—Maitasunez beterik zagozan Aita! Egizu, Espiritu Santuak batuta dagoan zure Elizea, zure serbitzaritzan bete-betea jardunik eta maitasunean alkartuta, Zeuk nai dozunez bizi daitela.

Salmu-atala

B. Abestu egiozue Jaunari, lurreko erregeok
[edo Aleluia].

Agertu egizu zure indarra, Jainko,
gure alde darabizun aal-izatea, Jainko.
Ekarri dagiela erregeak euren ordain-saria
Jerusalen'go zure jauretzea.

Abestu Jainkoari, lurreko erregeok,
jo soifua Jaunarentzat,
zeruetan, antxiñako zeruetan, dabillen Arentzat,
bere berbots au, berbots indartsu au
jaurtiten dauan Arentzat:
«Ezagutu egizue Jainkoaren aal-izatea».

Israel'en gaiñean egiten dau dizdiz Aren aundi-
eta Aren aal-izateak laifio-gaiñean. [izateak,
Badeinkatua Jaungoikoa!

Opari-otoitza.—Onartu egizu opari au, Jauna,
Zeuk nai izan dozu-ta Zeuri eskintzea; eta, Zeu
goratzeko ospatzen dogun eukaristi onen bidez,
gu santutu ta zeure salbamera emoguzu.

Azken-otoitza.—Zure misterioetan eskuartze-
ak, Jauna, geitu dagiala gure santutasuna eta,
geure pekatuetatik gu garbitzean, zure doaiak
artzeko geroago ta gaiagoak egin gagizala.

PAZKO-ALDIKO ZAZPIGARREN EGUENA

Otoitza.—Zure Espiritua, Jauna, sartu daitela
gure barruan bere indarrak: gure pentzakerea
gogoko izan dakizun eta gure jokabidea zure nai-
gaz bat etorri daiten.

Salmu-atala

B. Zaindu nagizu, ene Jainko,
nire gordelekua Zeugan dago-ta
[edo Aleluia].

Zaindu nagizu, ene Jainko,
nire gordelekua Zeugan dago-ta;
auxe dirautsat Jaunari:
«Zeu zara nire ondasuna».

Jauna da nire oiñordetzaren saila ta nire edontzia,
zeure eskuan dago nire zoria.

Onulari yatan Jauna bedeinkatu dot,
gabez be irakatsi egiten nau barruz.

Jauna daukat beti nire aurrean,
nire eskumaldean Bera dodala,
ez dot zirkiñik egingo.

Orregaitik, poztu egiten yat biotza,
alaitu egiten yataz erraiak,
eta nire aragia nasai-nasai dago:
ez nozu eriotzara eroango-ta,
zure adiskideari usteltzea ezagutzen be
ez dautsazu itziko.

Bizitza-bidea erakutsiko daustazu,
atsegiñez beteko nozu zure aurrean,
betiko pozez zure eskumaldean.

Opari-otoitza.—Santutu biotz onez, Jauna,
aurreko oparigaiok; onartu espirituzko opari onen
eskintza, eta gu etenbagako oparigai biurtu ga-
gizuz.

Azken-otoitza.—Apalik eskatzen dautsugu,
Jauna: misterio santuak zeure asmoak ulerterazo
eta zeure jaungoikozko bizitza be emon daiskuela.

PAZKO-ALDIKO ZAZPIGARREN BARIKUA

Otoitza.—Jesukristo'ren gorapenaren eta Espi-
ritu Santuaren etorreraren bidez zeure erreifñuko
ateak zabaldu dauskuzuzan Jaungoikoa: egizu,
orrelako doai andiak artzeak zure serbitzaritzan
aalegin andiangoaz jardutera eta gure fedearan
aberastasunak beteago bizi izatera eragin daiskula.

Salmu-atala

B. Jaunak zeruan ipiñi eban bere errege-
aulkia
[edo Aleluia].

Bedeinkatu egizu Jauna, ene arima orrek,
eta nazan guzti onek Aren izen santua.
Bedeinkatu egizu Jauna, ene arima orrek,
eta ez zaitez aaztu Aren on-egiñakaz.

Zerua lurretik goi dagoanez,
alantxe jagiten da Bere ontasuna be
bildur dautsoenen gaiñean;
sartzaldetik sortzaldea urrun dagoanez,
alantxe urruntzen dauz gugandik gure dongake-
[riak.

Jaunak zeruan ipiñi eban bere errege-aulkia,
bere erregetzak zaintzen dau izadia.
Bedeinkatu egizue Jauna, Aren aingeruok:
Aren aginduak beteteko aaltsuak zareenok!

Opari-otoitza.—Begiratu begi onez, Jauna,
zure erriaren oparigaiok; eta egizu, Espiritu San-
tuak garbitu gagizala, Zuri opari gogokoa ekarri
aal dagitzugun.

Azken-otoitza.—Zure sakramentuak, Jauna,

garbitu ta janaritu egin gaitue; egizu, ba, eukaristian dogun gure eskuartzeak zeure erreñuaz jabetzera be eroan gagizala.

PAZKO-ALDIKO ZAZPIGARREN LARUNBATA

Otoitza.—Eiguzu, Jaungoiko guztiaaldun orrek, gorde dagigula beti gure bizitzan eta ekanduetan orain amaituko doguzan Pazko-jai oneitako poza.

Salmu-atala

B. Zintzoak ikusiko dabe zure aurpegia,
Jauna
[*edo Aleluia*].

Jauna bere jauretze santuan dago,
Jaunak zeruetan dauko bere errege-aulkia:
ikusten dabe bere begiak,
betazalaz arakutzen dauz gizakiak.

Jaunak errubagea ta erruduna arakatu egiten dauz,
eta gorroto dautso indarkeria maite dauanari.
Jauna, izan be, zuzena da, eta Arek zuzenbidea

[maite dau;

eta Aren aurpegia zintzoak ikusiko dabe.

Opari-otoitza.—Espiritu Santuaren etorrereak gertatu gagizala, Jauna, zure sakramentuetan onuraz eskuartzen, gure pekatuen parkamena Bera da-ta.

Azken-otoitza.—Entzun gure eskariak, Jaun errukitsu orrek; eta, arau zaarretatik alkartasun barriko sakramentuetara igaroerazo gaituzun ezkerro, pekatuaren frutu dan bizitza galkorretik Espirituaren bizitza barrira igaroten lagun egiguzu.

SANTUEN ATALA

ELIZEA ESKINTZEAN

2. ESKINTZA-URTEURRENEAN

A) Eskiñitako elizan bertan

Otoitza.—Eliza onen eskintza-eguna urteoro gogora ekarten dauskuzun Jauna: entzun zure erriaren eskariak eta egizu, toki onetan beti elizkizun egokia eskiñi dakizula eta zure zintzoak, orregaitik, erospen osoaren frutuak lortu dagiezala.

Opari-otoitza.—Zure Etxea aintzaz eta santutasunez bete nai izan zenduan eguna gogora ekartean, apalik eskatzen dautsugu, Jauna: gu, zure sintzook, Jaungoiko andi orrentzat oparigai egokiak egin gagizuzala.

Salmu-atala

B. Auxe da Jaungoikoak gizonakaz daukan bizitokia.

Arimea makalduta daukat
eta Jaunaren aterpeak gura dodaz gartsu,
nire biotzak eta aragiak
saltoka diardue Jainko biziaganako leiaz.

Kurloiak be etxea aurkitu dau,
elaiak be bai bere umeak ipinteko apia:
zeure altarak, Gudarozteen Jauna,
nire errege ta Jainko orrenak!

Bai zorientsu zure etxean bizi diranak,
beti Zeu goratzen diarduenak!
Zorientsuak benetan, euren ibiltaldia gertatzean,
euren indarra Zeugan aurkitzen dabenak!

Nire etxean milla egun baiño
zure aterpeetan egun bat obe da,
eta gaiztoakaz bizi baiño
Jainkoaren etxeko atartea naiago dot.

Kanon-aurrea

...Jesukristo gure Jaunaren bitartez.

Guk jaso dogun agirizko etxe onetan, Zuganuntz erromes doan sendi au etenbagarik batzen eta zaintzen dozu, eta gugaz dozun zure alkartzearen misterioa era miragarritz agertzen eta burutzen dozu.

Toki onetan, Jauna, geu garan jauretzea diarduzu jasoten, eta olan, lur guztian zabaldua dagoan Elizea, bat eginda azten da, Kristo'ren Gorputz lez, egiazko bake-ikuspen dan Jerusalem barria izatera eltzeragiño.

Orregaitik...

Azken-otoitza.—Zure erri santuak zeure be-deinkapenaren frutu ta pozak artu dagizala eskatzen dautsugu, Jauna; olantxe ezagutuko dau gaur, agiriz ospatzen dauana —eliza au eskiñi zan urteurrena— Espiritu Santuaren isurpenak saga-

ratutako bere espirituan izate ezkututsua egin dala.

B) Eskiñitako elizatik kanpo

Otoitza.—Zure erria batu eta beroni izena Eliza ezarri dautsazun gure Jainko Jauna; zeure izenean batzen diran guztiok Zeu gurtu ta maitatu zagiezala eta Zeuri jarraitu dagitzuela, eta, Zeuk zuzenduta, agintzariz eskiñi dautsezun erreñua lortu dagiela.

Salmu-atala: ikusi 36 orri.

Opari-otoitza.—Onartu egizuz, Jauna, gure oparigaiok; eta egizu, otoitzeak alkartuta dagoan erri onek sakramentu onein grazia eta euron erregu ta gurarien frutua artu dagizala.

Kanon-aurrea

... betiko orri.

Otoitz egiteko dan edozein etxe zeure bizitoki izatea ontzat artu dozu: zure graziaren laguntza etenbageaz, gu Espiritu Santuaren jauretze biurtzeko.

Zure eragin etenbageaz, santu egizu, Jauna, Kristo'ren Emazte da Elizea, agirizko etxeetan iruditua: olan, seme-alaba pilloagaitik ama alaitsu lez, zeure erreñuaren aintzan aurkeztua izan aal daiten.

Orregaitik...

Azken-otoitza.—Elizeaz zeruko Jerusalem'en oraingo ezaugarri egin nai izan dozun gure Jaun eta Jaungoikoa: egiezu zure serbitzarioi, sakramentu onetan eskuarteagaitik, Espirituaren jauretze aldatuak izatea eta zeure aintzaren erreñuan sartzea.

ANDRA MARIA'RENAK

1. URTE-BARRUAN

I

Otoitza.—Emoiguzu, Jauna, zure serbitzarioi gorputz-arimako osasuna; eta, Andra Mari birjiñaren bitartez, atara gagizuz lur onetako illunalditik eta emon egiguzu zeruko poza.

Koru-kanta

B. Aaltsuak nire alde arrigarriak egin dauz:
Santua da Aren izena.

Zorionsua zara, Maria Birjiña,
zure sabelean Aita betikoaren Semea eroan zen-
Nire arimeak Jauna goratzen dau, [duan-eta.
eta nire espiritua Jaungoiko nire Salbatzailleagan
[pozten da.

Bere mirabe onen apaltasuna begiratu dau;
aurrerantzean gizaldi guztiak zorion-agurrak emon-
[go daustez,

Aaltsuak nire alde arrigarriak egin dauz-ta:

Santua da Aren izena.

Eta Aren errukiak gizaldiz-gizaldi artzen dauz
bildur dautsoenak.

Bere besoaren indarra erabilli dau;
sakabanatu egin dauz biotz-arro diranak.

Aundikiak aukietatik jaurti,
eta apalak jaso egiten dauz;
Gose diranak ondasunez bete,
eta aberatsak esku-utsik bialtzen dauz.

Opari-otoitza.—Gugaitik gizon egin zan zure Semearen maitasuna ta grazia izan bedi gure lagun-tza, Jauna; eta, Birjiñagandik jaiotean, bere Amaren garbitasuna gutxitu bearrean santutu egin eban Arek atara gagizala gure pekatuen pisutik eta, olan, gure eskintza zure aurrean gogoko biurtu dakizula.

Kanon-aurrea

... betiko orri.

Eta Andra Mari beti Birjiña doatsuaren...
egunean Zeu goratzea, bedeinkatzea ta iragartea.

Zure Seme bakarra Arexek sortu eban Espiritu Santuaren egiñez, eta, neskatasun (*birjintasun*) ederra galdu bagarik, betiko argia isuri euskun mundu onetara.

Orregaitik...

Azken-otoitza.—Sakramentuok artzean, Jauna, zeure errukiagaitik eskatzen dautsugu: Maria beti Birjiñaren jaiegunean pozten garanok, berak lez andra-gizonai buruz zeure salbamen-asmoaren eginkizunean jardun dagigula.

II

Otoitza.—Sendotu egizu, Jaungoiko errukitsu orrek, gure izaera makala; eta, egun onetan zeure Semearen Ama gogora ekartean, eiguzu beronen bitartez, gure erru guztietatik urten gaitzezala.

Opari-otoitza.—Zure Semearen Amaren gomutapena goratzean, apalik eskatzen dautsugu, Jauna: orain dakartzugun eskintza onek, zure graziaren bidez, oparigai bizi ta betiko biurtu gagizala.

Azken-otoitza.—Betiko erospenaren erdikide garan ezkerro, apalik eskatzen dautsugu, Jauna: zure Semearen Amaren gomutapena ospatzean, zeure graziaren ugaritasunean poztu gaitzezala eta salbamenaren geitze etenbagea somatu dagigula.

2. ABENDUAN

Otoitza.—Aingeruaren bidez iragarri zenduanez, zure Semea Maria Birjiñaren sabelean aragia artzea nai izan dozun Jaungoiko guztiaalduna: entzun gure eskariak eta egizu, Maria benetan Jaungoikoaren Ama dala autortzen dogunok, Maria beraren laguntza somatu dagigula.

Salmu-atala: aurreko Mezakoa.

Opari-otoitza.—Espiritu Santuak, bere aal-izatez Maria'ren sabela seindun egin ebanak, san-

tutu dagizala, Jauna, altara gaiñera dakartzuguzan oparigaiok.

Kanon-aurrera: ikusi 37 orri.

Azken-otoitza.—Artu doguzan sakramentuak, Jauna, emon daiskuela beti zure errukia; eta, Jesukristo zure Semearen gizakundeagaitik, gure seme-gomutapen etenbageaz Aren Ama Birjiña goratzen dogunok onik atara gagizuz.

3. GABON-ALDIAN

Otoitza.—Maria'ren amatasun garbiaren bidez gizakiai salbamen-ondasunak emon zeutsezan Jaungoiko guztiaalduna: biziaren egille dan Jesukristo zure Semea emon dauskunaren ama-laguntza somatu dagigula eiguzu. Zugaz eta...

Salmu-atala: ikusi 37 orri.

Opari-otoitza.—Onartu egizuz, Jauna, ona dakartzuguzan doaiok; eta gure biotzak, Espiritu Santuaren argiak iziotuta, eta Maria'ren antzera, zeure naia ta itza billatu ta iraunerazo dagiezala.

Kanon-aurrera: ikusi 37 orri.

Azken-otoitza.—Zure Semearen Gorputz-Odolaz janarituta, apalik eskatzen dautsugu, Jauna: Maria Birjiñaren egunean artutako sakramentu oneik, zeure Semearen jaungoikotasunean eskuartzeko mesedea egin daiskuela.

4. PAZKO-ALDIAN

Otoitza.—Jesukristo zure Seme ta gure Jaunaren biztueraren bidez, mundua pozez bete dozun Jaungoiko; eiguzu, Aren Ama Maria Birjiñaren bitartez, geuk be betiko atsegiñak lortu aal dagiguzala.

Salmu-atala: ikusi 37 orri.

Opari-otoitza.—Andra Mari beti Birjiñaren jaia ospatzean, geure oparigaiok dakartzuguz, Jauna; eta apalik eskatzen dautsugu: gurutzeko altaran abade ta eskingai dan Jesukristo zure Semeak laguntza emon daiskula beti zure graziaz. Zugaz eta...

Kanon-aurrera: ikusi 37 orri.

Azken-otoitza.—Sendotu gagizuz, Jaungoiko guztiaaldun orrek, ospatu doguzan misterio onein fedean; eta, Birjiñagandik jaio eta egiazko Jaungoiko ta gizon dan Jesukristo zure Semea autoritzen dogun ezkerro, apalik eskatzen dautsugu: Aren biztueraren indar salbatzaillaren bidez, betiko pozetara eltzeko gai izan gaitezala.

MARTIRIENAK

MARTIRI ASKORENAK

1. PAZKO-ALDIZ KANPO

Otoitza.—Eiguzu, Jauna, gure otoitzak poz eta laguntza izan dakiguzala; eta I. ta I. zure martiri santuen urteoroko jaia ospatzean, fedean izan eben iraupenari jarraitu dagiogula.

Salmu-atala

B. Negarrez ereiten ebenak
kantaka batuko dabe.

Jaunak Sion'en zoria aldatu ebanean,
amesa zala geritxagun:
agoa barrez beteten yakun,
miiña abestiz.

Jentillak be auxe iñoen:

«Jaunak errime jokatu dau arein alde».

—Jaunak errime jokatu dau gure alde,
eta pozik gagoz.

Aldatu dagiala Jaunak gure zoria,
Negeb'eko errekek lez.

Negarrez ereiten ebenak
kantaka batuko dabe.

Joatean, negarrez yoiazan,
azia eroanez;

biurtzean, kantaka biurtzen dira,
euren gari-eskutadak ekarriez.

Opari-otoitza.—Onartu egizuz, Aita Santu orrek, I. ta I. zure martirien egunean dakartzuguzan oparigaiok, eta zeure izena autortzen beti sendo irauteko grazia emoiguzu.

Azken-otoitza.—Zure martirien eriotza goragarriaz munduaren aurrean gurutzeko misterioa argitu zenduan gure Jaun eta Jaungoiko: entzun gure eskaria eta egizu, gu opari onek sendotuta, Kristo'ri zintzoro batu gakiozala eta Elizan andragizon guztiak salbatzen lan egin dagigula.

2. MARTIRI ASKORENAK PAZKO-ALDIZ

Otoitza.—Eiguzu, Jauna, I. ta I zure martirien eguna ospatzean, pozez bete gaitezala: eriotza goragarria eroan eta zure Semearen eriotza ta biztuera autortzearen, euren odola adoretzu isuri eben-eta.

Salmu-atala: *aurreko Mezakoa.*

Opari-otoitza.—Begiratu biotz onez, Jauna, eskintza au; Espiritu Santuak isuri dagiala oparo beronen gaiñera bere bedinkapena eta erneazo dagiala gure biotzetan zure martiriak oiñazeak garaitzeko izan eben maitasun indartsua.

Azken-otoitza.—I. ta I. zure martirien egunean ogi bera janda gero, apal-apalik eskatzen dautsugu, Jauna: zeure maitasunean iraunerazo dagizuzala eta bizitza barri baten andra-gizon barri lez ibilli gaitezala beti.

3. MARTIRI BATENAK PAZKO-ALDIZ KANPO

Otoitza.—Oiñazeak ondo eroateko, I. martiri santuari zeure indarra isuri zeutsan Jaungoiko aalstu ta errukiorra: egizu, gaur aren garaipena ospatzen dogunok, zure laguntza maitatsupean areriorearen maltzurkerietatik gordeta bizi gaitezala.

Salmu -atala: ikusi 38 orri.

Opari-otoitza.—Onartu egizuz, Jauna, I. martiri santuaren omenez dakartzuguzan doaiok, eta aren odola isurtea baizen oparigai bikaiña izan daitezala zure aurrean.

Azken-otoitza.—Artu dogun sakramentuak I. martiri santuarena lako sendotasuna emon daiskula, Jauna; indar aren bidez agertu zan beti zintzo zure serbitzaritzan, baita martiri irabazle oiñazetan be.

4. MARTIRI BATENAK PAZKO-ALDIZ

Otoitza.—I. martiri santuaren odol-isurte goragarriaz Elizea ederragoa egin dozun Jauna; eiguzu, bere eriotzaz Kristo'ren Nekaldiari jarraitzeko grazia emon zeutsanez, geuk be, zeure martiriaren lorratzai jarraiturik, betiko sariak lortu dagiguzala.

Salmu -atala: ikusi 38 orri.

Opari-otoitza.—Onartu egizu, Jauna, I. zure martiri santuaren egunean eskintzen dautsugun pekatu-ordain eta gorapenezko opari au, zeure parkamena lortu eta beti eskerrak emoteko balio izan daiskun.

Azken-otoitza.—Jain onen pozaz jabetuta, zeruko doaiak artu doguz, Jauna; eta eiguzu, jaungoikozko janaldi oneaz Kristo'ren eriotza iragarren dogunok, zure martiriakaz batera Kristo'ren biztueraren aintzan eskuartu dagigula.

ELIZTARREN ARDURADUNENAK

1. AITA SANTU EDO GOTZAINAK

Otoitza.—Jaungoiko guztiaaldun eta betikoa! Zure erriaren burutzat I. Aita Santua jarri zenduan, beronen ereduz eta berbaz santutasunean aurrera egiten lagun egion; zaindu egizuz, aren bitartez, Elizearen arduradunak eta onei emon dautsezuzan eliztarrak, beti salbamen-bideetan zear ibilli daitezkan.

Salmu-atala

B. Zoaze mundu guztian zear eta Barri Ona iragarri egizue
[edo Aleluia].

Goratu egizue Jauna, atzerri guztiok, ospatu egizue, erri guztiok.

Guganako Aren errukia sendoa da, Aren zintzotasunak beti irauten dau.

Edo beste Salmu-atal au:

B. Jauna da nire artzain,
ez dot ezeren bearrik.

Jauna da nire artzain,
ez dot ezeren bearrik:

bedar bizia dagoan zelaietan etzun-azoten nau;
iturri geldietaruntz naroa,
eta bizkortu egiten dauz nire indarrak.

Bide zuzenetik naroa,

bere izenaren maitasunarren.

Ibar illunetan zear joanarren be,

ez dot bildurrik izango, Zu neugaz zoaz-ta;

zure zigorrak eta artzain-makilleak baretu egiten
[nabe-ta.

Zeure ontasunak eta errukiak egiten dauste lagun nire bizitzako egun guztietan;

eta Jaunaren etxea izango da nire bizitokia amaibagako urteetan.

Opari-otoitza.—Zeure santuen omenez eskintzen dautsugu, Jauna, gorapenezko opari au; arein laguntza indartsuak oraingo ta geroko gaitz guztietatik zaindu gagizala.

Azken-otoitza.—Sakramentu oneik, Jauna, iziotu dagiela gugan I. santuaren biotza kiskaldu eban maitasun-sua, su onek egin eutsan bultza Elizearen eginkizunetan zabal-zabal jarduteko-ta.

2. GOTZAINAK

Otoitza.—Zure erriaren burutzat I. gotzain santua jarri dozun Jaungoiko guztiaaldun eta betikoa; aren irabazien indarraren bidez, zure erriari zeure maitasuna ta parkamena emon dagiozuzala eskatzen dautsugu.

Salmu-atala: aurreko Mezakoa.

Opari-otoitza.—Begiratu samurkiro, Jauna, I. santuaren egunean dakartzuguzan oparigaiok; guri parkamena lortu daiskuela eta zure biotz biguna ta izena goratu dagiela.

Azken-otoitza.—Zeure Gozputz-Odolaz janarituta, apalik eskatzen dautsugu, Jauna: benetako oneraspenaz ospatu dogunak, erospen bete-betaren frutuak ekarri dagizala gugan.

3. ZAINZAILLEENAK (edo ARTZAINENAK)

Otoitza.—Zure erria zaintzeko, I. ta I. (gotzain) santuai egia ta maitasun-espirtua isuri zeutsen gure Jainko Jauna: eiguzu, arein gomutapena ospatzen dogunok, arein ereduz, santutasunean aurrera egin eta arein bitartekotasun indartsuaren laguntza artu dagigula.

Salmu-atala: aurreko Mezakoa.

Opari-otoitza.—Onartu egizu, Jauna, zure erriaren opari au; eta, I. ta I. zure santuen aintzarako eskintzen doguna, salbamen-grazi izan daki-gula.

Azken-otoitza.—I. ta I. santuen gomutapena ospaturik artu doguz, Jauna, zure sakramentuak; eiguzu arein bitartez, orain lurrean ospatzen dogunak, zeruko poza lortzen lagun egin daiskula.

4. ELIZ-SORTZAILLEENAK

Otoitza.—I. santuaren iragarteaz, gure gura-soak Ebanjelioaren argitara eroan dozuzan Jauna: eiguzu arein bitartez, kristau-izena pozik daroa-

gunok, guk autortzen dogun fedea egintzen bidez agertu dagigula.

Salmu -atala: ikusi 38 orri.

Opari-otoitza.—Jaun guztiaalduna! Zure erriak I. santuaren egunean eskintzen dautsun opari onek, zeure errukiaren bidez itxaroten doguzan zeruko doaiak ekarri dagizala beragaz batera.

Azken-otoitza.—I. santuaren jaia pozik ospaturik artu dogu, Jauna, betiko salbamenaren agiria; agiri ori izan dakigula laguntza bizitza onetan, baita geroko bizitzaren asikin be.

5. MISIOLARIENAK

Otoitza.—I. zure (gotzain) santuaren bidez erri sinisbageak illunpeetatik argitara atara dozuzan Jaungoikoa: eiguzu aren bitartez, fedean sendo eta berak iragarri eban Ebanjelioaren itxaropenean gogor iraun dagigula.

Salmu-atala: ikusi 39 orri.

Opari-otoitza.—Onartu egizu, Jauna, I. santuaren egunean dakartzugun eskintza au, eta eiguzu, zure Semearen Nekaldia ospatzen dogun guztiok, orain ospatzen doguna geure bizikeran burutu dagigula.

Azken-otoitza.—Sakramentu onen eragiñez, sendotu egizu, Jauna, zure erria egiazko fedean: I. santuaren antzera, fede ori berbaz eta egitez iragarri dagian, I. santuak be fedea zabaltzen eriotzararte lan egin eban-eta.

ELIZ-IRAKASLEENAK

Otoitza.—I. santuagaz zure Elizeari irkasle bat emon dautsazun Jaungoiko guztiaaldun eta betikoa: egizu, Espirituaren argitasunpean berak irakatsi eban guztia, beti geure biotzetan zustraitu daitela; eta, Zeuri esker, geure zaintzaille dana, geure bitarteko be izan daitela eta ekarri dagiala berak gure gaiñera zure errukia.

Salmu-atala

B. Irakatsi egidazuz, Jauna, zure legeak.

Zelan ibilli aal izango ete-da gaztea garbi?

Zeure erbak beteaz.

Biotz-biotzez billatzen zaitut,

ez egidazu itzi zure aginduetatik okertzen.

Zure erabagiak neure biotzean gordeten dodaz,

ez dot olan zure kontra pekaturik egingo.

Bedeinkatua zara, Jauna;

irakatsi egidazuz zure legeak.

Nire ezpanak zure agoko aginduak

azaltzen diardue.

Zeure erabagien bidea da nire poza,

aberastasun guztiak baiño andiagoa.

Opari-otoitza.—Gogoko izan bekizu zure aurrean, Jauna, I. santuaren egunean pozik eskintzen dautsugun opari au: aren bizitzak eta irakas-

penak gure indar guztiaz Zeu goratzera egiten dauskue bultza-ta.

Azken-otoitza.—Bizi-ogia dan Kristo emonda janaritu dozuzanak, Jauna, argitu egizuz Irakasle dan Kristo'ren irakatsiz: I. santuaren egunean zeure egia ezagutu eta egia ori maitasun-egintzetan euren bizitza egin dagien.

BIRJINENAK

Otoitza.—Entzun gagizuz, gure Jaungoiko Salbatzaille orrek: I. zure birjiña santuaren pozegunean Zure serbitzari maitasunez izaten ikasi dagigun.

Salmu-atala

B. Aleluia.

Goratu egizue Jauna zeruan,

goratu egizue Jauna goian;

goratu egizue, Aren aingeru guztiok,

goratu egizue, Aren gudarozte guztiok.

Lurreko errege ta erri guztiok,

lurreko nagusi ta buruzagi guztiok;

mutillok, baita neskok be,

zaarrok umeakaz batera.

Goratu begie Jaunaren izena,

Aren izena bakarrik aundia.

Aren Aundi-izatea zeru-lurren gaiñetik,

Berak aunditzen dau bere erriaren indarra.

Bere zintzo guztien gorapena,

bere erri aukeratua dan Israel'ena.

Opari-otoitza.—Arrigarria zarala autortzen dogu, Jauna, I. zure birjiña doatsuagan; eta apalalik eskatzen dautsugu Jaungoiko andi orri: birjiña onen irabaziak atsegin yatzuzanez, zeure erriak egiten dautsun guztia be atsegiñez onartu dagizula.

Azken-otoitza.—Eukaristi oneaz sendotuta, apalik eskatzen dautsugu, Jauna: I. doatsuaren antzera, gudan Kristo'ren eriotz-ezaugarriak eroan dagiguzala eta gure bizitza Zugaz geroago ta batuago egiteko aalegin etenbagea izan daitela.

BESTE SANTUENAK

Otoitza.—Zure santuen gorapenean, Jaungoiko guztiaaldun eta betiko ori, zeure maitasunaren agiri gorengo bat emon nai izan dauskuzu; eiguzu orain, aren bitartekotasuna laguntza izan dakigula eta aren ikasbideak Jesukristo zure Semearen ereduz zintzo jardutera eragin daiskula.

Salmu-atala

B. Zintzoa zeure mendi santuan bizi izango da, Jauna.

Orban bagarik bizi dana,

eta zuzentasuna egiten dauana,

asmo zintzoak daukazana,

eta bere miñaz guzur-baltzik ez diñoana.

Bere lagun-urkoari kalterik egiten ez daušana,
 baita auzokoa lotsagarri izten ez dauana be;
 gaiztoa gutxitzat artzen dauana,
 eta Jaunaren bildur diranak aintzat artzen dauza-
 Dirua irabazitan emoten ez dauana, [na.
 eta errubagearen kontra eskupekorik artzen ez
 [dauana.

Opari-otoitza.—Entzun biotz onez, Jauna,
 gure eskariak eta gorde gagizuz zure santuen
 laguntzaz: Zu, Jaun Andi ori, beti ta egoki gurtu
 zagiguzan.

Azken-otoitza.—Jaungoiko guztiaaldun eta
 betikoa, atsegiñaren eta bakearen Aita: egizu,
 zeure izena goratzeko santuen egunean batuta
 dagoan zure erri onek, oraintxe ospatu dauan
 Kristo'ren misterioaren bidez eta zeure errukiz,
 betiko erospenaren agiria artu dagiala.

MOJA TA PRAILLEENAK

Otoitza.—Gauza guztien gaiñetik eta goi-
 maitasun betearen bidetik zure bidea billatzeko,
 I. santuari dei egin dautsazun Jaungoikoa: eiguzu,
 aren bitartekotasunaz sendoturik, poz-espirituz
 maitasun-bidean aurrera egin dagigula.

Salmu-atala: aurreko Mezakoa.

Opari-otoitza.—Onartu egizuz, Jauna, aurre-
 ko doaiok, zure serbitzari lez, I. santuaren jaia
 ospatzeko dakarguz zure altarara-ta; eta eiguzu,
 lurreko eragozpenetatik askatuta, gure aberasta-
 sun bakarra Zeu izan zaitezala.

Azken-otoitza.—Apalik eskatzen dautsugu,
 Jauna: sakramentu onen graziaren bidez eta I.
 santuaren ikasbidez, beti zeure maitasunean irau-
 nerazo gagizuzala, eta gugan asi dozun egintza,
 Kristo etorri arte, osotu dagizula.

URTE-BARRUKO
 SANTUAK

URTARRILLA

URTARRILLAREN 2

BASILIO ta NAZIANZO'KO GREGORIO SANTUAK,
 gotzain eta Eliz-irakasleak
 Gomutapena

Otoitza.—Basilio Andiaren eta Nazianzo'ko
 Gregorio santuen bizitza ta ikasbidez zure Eli-
 zeari irakatsia emon zeutsan Jaunko Jauna: egizu,
 zure egia apal-apalik billatu eta egia ori maitasu-
 nean zintzoro bizi dagigula.

URTARRILLAREN 7

PEÑAFORT'EKO ERRAIMUNDO SANTUA, abadea

Otoitza.—Peñafort'eko Erraimundo santuari
 katigu ta pekatariakanako errukizko gogoia emon
 zeutsan Jaungoikoa: eiguzu aren bitartez, peka-
 tuaren kateak etenda, zure jaungoikozko naia
 beteteko, gure barruak askatuta somatu daiguzala.

URTARRILLAREN 9

CORDOBA'KO EULOJIO SANTUA,
 abade ta martiria

Otoitza.—Mozarabe-Elizearen egoera larrian,
 fedea bildur bagarik autortzeko, Euljio santua-
 gan arrigarrizko espiritua biztu zenduan gure Jaun
 eta Jaungoikoa: eiguzu, espiritu berorren bidez
 sendotuta, gure kontrako egoera guztiak pozik eta
 adoretu garaitu dagiguzala.

URTARRILLAREN 13

ILARIO SANTUA,
 gotzain eta Eliz-irakaslea

Otoitza.—Eiguzu, Jaungoiko guztiaaldun
 orrek, zure Semearen jaungoikotasunaren ezague-
 ran egunean-egunean aurrera egin eta jaungoiko-
 tasun ori adoretu iragarri dagigula, zure gotzain
 eta irakasle Ilario santuak ardura asperbageaz
 egin ebanez.

URTARRILLAREN 17

ANDONI SANTUA, abata
 Gomutapena

Otoitza.—Zure serbitzari bizikera santuaz iza-
 teko, Andoni abata santuari basamortura dei egin
 zeutsan gure Jaun eta Jaungoikoa: eiguzu aren
 bitartez, gauza guztien gaiñetik beti Zeu maite
 izateko, gure buruari uko egiten jakin dagigula.

Opari-otoitza.—Onartu egizuz, Jauna, Andoni
 abata santuaren gomutapen-egunean zeure altarara
 dakartzuguzan oparigaiok; eta egizu, zure erriak,
 lurreko lokarri ta sareetatik askatuta, bere burua
 beti aberats somatu dagiala, zeure jabe izanik.

Azken-otoitza.—Andoni santuari deabruaren
 eraso guztietatik irabazle urteteko grazia emon zeu-
 tsan Jauna: eiguzu, zure sakramentuen bidez jana-

rituta, gure arerioaren tentaldietatik beti irabazle urten gaitezala.

URTARRILLAREN 20

FRUKTUOSO, gotzaiña, eta onen laguntzaille
EULOGIO ta AUGURIO, martiri santuak

Otoitza.—Jauna: Fruktuoso gotzaiñari, Eguzki-sortzaldetik sartzaldera zabaltzen dan Elizearen alde bere bizia emoteko grazia emon zeutsan, eta Eulogio ta Augurio, aren laguntzailleak, pozez beterik ari martiriora lagun egitea nai izan zenduan; egizu, zure Elizeak, itxaropenean beti pozik bizi izanik, kikildu bagarik, erri guztien onari ekin dagiola.

Opari-otoitza.—Onartu egizuz, Jauna, Fruktuoso, Eulogio ta Augurio zure santuen egunean dakartzuguzan oparigaiok; eta egizu, misterio oneik, erasoaldian martiriai sendotasuna emon eutsen ezkeru, zoritxarretan ez kikiltzeko laguntza emon daiskuela.

Azken-otoitza.—Oraintxe artu doguzan sakramentuak, Jaunak, andra-gizonen salbamenerako zeure Semearen Nekaldiaren gomutagarri diran ezkeru, biztu dagiela gure goi-maitasunaren sua; eta olan, Fruktuoso, Eulogio ta Augurio'ren antzera, ez dogu erri guztien onerako bizia emoteko ezpairik izango.

FABIAN SANTUA, Aita Santu ta martiria

Otoitza.—Zeure abadeak goratzen dozuzan Jaungoiko guztiaalduna: eiguzu, Fabian Aita Santua ta martiri doatsuaren bitartez, beronen fedearen alkartzean eta zure serbitzaritzan geroago ta geiago jarduteko gogoan egunoro aurrera egin dagigula.

SEBASTIAN SANTUA, martiria

Otoitza.—Sendotasun-espirtua emon dagiguzula eskatzen dautsugu, Jauna: Sebastian zure martiriaren ikasbide goragarriaz adoretuta, gizonen menpean baiño leenago zeure menpean egoten ikasi dagigun.

URTARRILLAREN 21

INES SANTUA, birjiña ta martiria

Otoitza.—Lur onetako indartsuak lotsatzeko, makalak aukeratzen dozuzan Jaungoiko guztiaaldun eta betikoa: eiguzu, Ines martiri doatsuaren garaipena ospatzen dogun guztiok, aren sinismenaren sendotasunari jarraitu daiogula.

URTARRILLAREN 22

BIZENTE SANTUA, laguntzaille ta martiria

Otoitza.—Isuri eiguzu zure Espiritua, Jaungoiko guztiaaldun eta betiko orrek: Bizente santuari oiñazeak ondo eroaten lagun egin eutsan maitasun gartsuan gure biotzak kiskaldu daitezana.

Opari-otoitza.—Pozez beterik, gorapenezko

opari au eskintzen dautsugu, Jauna, opari onen bidez ospatzen dogu Bizente martiri santuaren garaipena-ta; eta, Zuri opari au eskintzean, poz andia artzen dogu aren laguntza goragarria merezi aal izateaz.

Azken-otoitza.—Apalik eskatzen dautsugu, Jauna: artu doguzan zeru-janariak, Bizente santua zure serbitzaritzan morroi zintzo eta odol-isurtean irabazle adoretu egin eban espirtu-sendotasun berbera emon daiskula.

URTARRILLAREN 23

ILDEPONTSO SANTUA, gotzaiña

Otoitza.—Ildepontso santua Maria'ren birjintasanaren alde egiteko izen aundiko egin zenduan Jaungoiko guztiaalduna: eiguzu, zure Semearen Amaren berarizko lege onetan sinisten dogunok, aren ama-bitartekotasun aaltsuaren babespean gagozala somatu dagigula.

URTARRILLAREN 24

SALES'KO PRANTZISKO SANTUA,
gotzain eta Eliz-irakasle
Gomutapena

Otoitza.—Gure Jainko Jauna: Zeuk nai izan dozu Sales'ko Prantzisko gotzain santuak andra-gizonen salbamenerako bere burua guztiai biotz-zabalez emotea; eiguzu, aren eredu, geuk be gure anai-arreben serbitzari izatean zeure maitasunaren gozotasuna agertu dagigula.

Opari-otoitza.—Orain eskintzen dautsugun salbamen-opari onen bidez, iziotu egizuz, Jauna, gure biotzak Espiritu Santuaren sutan: Sales'ko Prantzisko santuaren arima guztiz samurra be su orren bidez iziotu zenduan-eta.

Azken-otoitza.—Ospatu doguzan sakramentun bidez, eiguzu, Jauna: Prantzisko santuaren apaltasunari ta maitasunari jarraitu dagiegula, zerruko aintza lortu aal dagigun.

URTARRILLAREN 25

PAULO SANTUAREN ONBIDERATZEA
Jaia

Otoitza.—Paulo apostolu santuaren iragartean erri guztiai irakatsia emon zeutsen gure Jainko Jauna: egizu, gaur aren onbideratzea ospatzen dogun guztiok, bera izan zan antzera, munduaren aurrean zeure egiaren testigu izan gaitezala.

Salmu-atala

B. Zoaze mundu guztian zear
eta iragarri egizue Barri Ona
[edo Aleluia].

Goratu egizue Jauna, atzerri guztiok,
ospatu egizue, erri guztiok.

Guganako Aren errukia sendoa da,
Aren zintzotasunak beti irauten dau.

Opari-otoitza.—Opari santu au ospatzean, zure Ebanjelioa sabaltzen Paulo apostolu santuari beti bultza egin eutsan fedearen argiaz Espiritu Santuak argitu gagingala.

Azken-otoitza.—Apalik eskatzen dautsugu, gure Jainko. Jaun orri: orain artu doguzan sakramentuak maitasun-sutan iziotu gagingala: Paulo santuaren biotza be su orrek kiskaltzen eban-eta, baita ari arduratsu bultza egin be eliza guztien serbitzaritzan jarduteko.

URTARRILLAREN 26

TIMOTEO ta TITO SANTUAK, gotzainak
Gomutapena

Otoitza.—Timoteo ta Tito santuai apostolunoimenez dizdiz eragin zeutsen Jaungoikoa: eigu-zu aren bitartez, lur onetan zuzentasunez eta santutasunez bizi izanda gero, zeruetako Erreiñura eltzea merezi dagigula.

URTARRILLAREN 27

MERIZI'TAR ANJELA SANTUA, birjiña

Otoitza.—Merizi'tar Anjela birjiña doatsuak beti zeure errukiaren ardurapean jarri gagingala, Jauna: aren goi-maitasun eta zuurtasun-ikasbideai jarraiturik, zure irakatsia gordeten eta gure bizikeran egiten bidez beteten jakin dagigun.

URTARRILLAREN 28

AKINO'TAR TOMAS SANTUA,
abade ta Eliz-irakasle
Gomutapena

Otoitza.—Tomas santua, beronen santutasun-gogoagaitik eta Jainko-jakintzak jakiteagaitik, gizon ospatsua egin zenduan Jaungoikoa; aren irakatsia ulertzeko eta aren bizikereari jarraitzeko grazia emon dagiguzula eskatzen dautsugu apalalik.

URTARRILLAREN 31

YON BOSKO SANTUA, abadea
Gomutapena

Otoitza.—Yon Bosko santuagan gaztediarentzat aita ta irakasle bat sortu dozun Jauna: emoguzu geuri be, anai-arrebai ona dana egiten jardutera eta arekan zintzoro Zeu serbitzera bultza egin daiskun ardura aspergabea ta maitasun sutsua.

ZEZEILLA

ZEZEILLAREN 2

JAUNAREN AURKEZKUNDEA
Jaia

Argizariak bedeinkatzean:
Eliz-bira asi baino leen:

Jauna, gure Jaungoikoa, aginpidez etorriko da. Argitu egingo ditu bere serbitzarien begiak. Aleluia.

Otoitza Benetako argi, betiko argiaren egille ta emolle zaran Jaungoikoa: isuri egizu zintzoen biotzetara iñoiz be atzamatzen ez dan argia: zure

elizan argizarion argiaz argituak izan diran guzti-tiok, zure aintzaren diztirara pozik eldu aal dai-tezan.

Bakez urten gakiozan bidera Jaunari.

Kanta-gaia. Jentillak argitzeko argia
eta zure erri Israel'en aintza.

Orain, Jauna, itzi daikeozu zure morroi oni bakean joaten itza emon zeutsanez.

Ikusi dabe nire begiak zure Salbatzaillea, erri guztian aurrean gertatu dozuna.

Mezatan:

Otoitza.—Apal-apalik eskatzen dautsugu, Jaungoiko guztiaaldun eta betiko orri: zure Seme bakarra gaurko egunez, geuk dogun aragiz jantzita jauretxean aurkeztua izan zanez, geu be zure aurrean arima garbiaz aurkeztuak izateko grazia emon daiskuzula egizu.

Salmu-atala

B. Nor da Zeruko Errege ori?
Jauna da.

Ateok: jaso egizuez ateburuok;
jagi daitezala antxiñako ateak,
Zeruko Erregea sartu daiten!

Nor da Zeruko Errege ori?

—Jauna, indartsua ta aaltsua.

Ateok: jaso egizuez ateburuok;
jagi daitezala antxiñako ateak,
Zeruko Erregea sartu daiten!

Nor da Zeruko Errege ori?

—Jauna, Gudarozteen Jainkoa:

Bera da Zeruko Erregea.

Opari-otoitza.—Gogoko izan dakizula, Jauna, Elizeak pozez beterik dakartzun eskintza au: zure Seme bakarrak gizartearen salbamenerako, bildots errubage lez, bere burua eskiñi egiala nai izan zenduan-eta.

Kanon-aurrea.

... betiko orri.

Gaur zure Semea jauretxean izan da aurkeztua, eta Espirituak «Israel'en aintza ta atzerrien argi» dala iragarri dau. Orregaitik, guk pozez beterik, Salbatzailleari bidera urten dautsagu, aingeru ta santu guztiakaz goratzen zaitugula, biotz batez kantari: Santu...

Azken-otoitza.—Simon zintzoaren itzaropena oso-osorik bete dozun ezker, Jauna, orain artu dogun sakramentuon bidez, bete gaginguz zure graziaz; eta, Kristo bere eskuetan euki izan arte, ari eriotza bialdu ez zeutsanez, eiguzu, geuk be, Jaunari bidera urtetera goazanok, betiko bizitzaren saria merezi dagigula.

ZEZEILLAREN 3

BLAS SANTUA, gotzain eta martiri

Otoitza.—Entzun egizuz, Jauna, zure erriaren eskariak, gaur Blas zure martiri santuaren bitartekotasunari oratuta dei egiten dautsugu-ta; emoiguzu, aren irabazien bidez, bakea bizitza onetan eta saria betikoan.

OSKAR SANTUA, gotzain

Otoitza.—Oskar gotzain santua erri askori Ebanjelioa iragartera bialdu nai izan dozun gure Jainko Jauna: eiguzu aren bitartez, beti zeure egiaren argitan ibilli gaitetzala.

ZEZEILLAREN 5

AGATA SANTUA, birjiña ta martiri
Gomutapena

Otoitza.—Apalik eskatzen dautsugu, Jauna: Agata birjiña doatsuak zeure parkamena lortu daiskula: bere odol-isurtean eta bere kastidatearen irabaziaz agertu eban sendotasunez zure aurrean gogoko izan zan-eta.

ZEZEILLAREN 6

PAULO MIKI eta lagun santuak, martiriak
Gomutapena

Otoitza.—Santuen sendotasuna zaran Jaungoikoa: Paulo Miki santuari ta onen lagunai gurutzearen bidez betiko bizitzara dei egin zeutsen; eiguzu, arein bitartez, guk autortzen dogun fedeari, eriotzararte, adoretzu eutsi dagiogula.

ZEZEILLAREN 8

JERONIMO EMILIANO SANTUA

Otoitza.—Jauna, errukien Jaungoikoa: Jeronimo Emiliano santua umezurtzen aita ta zaintzaille egin zenduan; emoiguzu, aren bitartez, benetan zeure seme egiten gaituan semekuntza-espirtuan beti zintzo irauteko grazia.

ZEZEILLAREN 10

ESKOLASTIKA SANTUA
Gomutapena

Otoitza.—Eskolastika birjiña doatsuaren eguna ospatzean, apalik eskatzen dautsugu, Jauna: aren ikasbideari jarraiturik, Zu biotz garbiz otseindu zagiguzala eta olan zeure maitasununaren ondoren osasungarriak lortu dagiguzala.

ZEZEILLAREN 11

LURDES'KO ANDRA MARI

Otoitza.—Zaindu egizu, Jauna, zeruko laguntasunaz gure babesgabetasuna: Maria Birjiña garbia ta Jaungoikoaren Amaren gomutapena ospatzen dogunok, beronen bitartez, gure pekatueta-tik askatuta egon gaitzean.

ZEZEILLAREN 14

ZIRILO SANTUA, bakarzalea, eta
METODIO SANTUA, gotzaiña
Gomutapena

Otoitza.—Zirilo ta Metodio anai santuen

apostolu-lanen bidez, Eslabutararak argitu zenduzan Jaungoikoa: zeure itza onartzeko eta egiazko fedearen autortze ta aldezpidearen bidez erri al-kartu bat eratzeko grazia emoiguzu.

ZEZEILLAREN 17

ANDRA MARI'REN MORROIEN ORDENA
SORTU EBEN ZAZPI AUTORLE SANTUAK

Otoitza.—Isuri eiguzu, Jauna, maitasun-espirtua: onexek eroan ebazan anai santuok Jaungoikoaren Ama gartsu ospatzera, baita zure erria zeure izenaren ezaguerara ta maitasunera zuzentzen bultza egin be.

ZEZEILLAREN 21

PEDRO DAMIAN SANTUA, gotzain eta
Eliz-irakasle

Otoitza.—E i g u z u, Jaungoiko guztiaaldun orrek, Pedro zure gotzain santuaren burubide ta ikasbideai zintzoro jarraitu dagiegula: gauza guztien gaiñetik Kristo maite izanik eta Elizearen eginkizunetan jardunik, betiko atsegiñetara eltzea merezi dagibun.

ZEZEILLAREN 22

PEDRO APOSTOLU SANTUAREN IRAKASTEGIA
Jaia

Otoitza.—A r r e n, Jaungoiko guztiaaldun: arrisku batek be ez gagizala artegatu, apostolu-fedearen aitz-gaiñean sendotu gaituzu-ta.

Salmu-atala

B. Jauna da nire artzaiña,
ez dot ezeren bearrik.

Jauna da nire artzain,
ez dot ezeren bearrik:
bedar bizia dagoan zelaietan etzun-azoten nau;
iturri geldietaruntz naroa,
eta bizkortu egiten dauz nire indarrak.
Bide zuzenean zear naroa,
bere izenaren maitasunarren.
Ibar illunetan zear joanarren be,
ez dot bildurrik izango, Zu neugaz zoaz-ta:
zure zigorrak eta artzain-makilleak baretu egiten
Mai bat atontzen dozu nire aurrean [nabe.
nire arerioen kontra;
orioz igurtziten daustazu burua,
eta gaiñezka dago nire edontzia.
Zeure ontasunak eta errukiak egiten dauste lagun
nire bizitzako egun guztietan;
eta Jaunaren etxea izango da nire bizitokia
amaibagako urteetan.

Opari-otoitza.—Onartu egizuz, Jauna, zure Elizearen otoitz eta oparigaiok; eta, Pedro santuaren irakatsi ta zainpean, fedea oso-osorik gorde dagiala eta olan betiko bizitzara eldu daitela egizu.

Kanon-aurrea: ikusi 47 orri.

Azken-otoitza.—Pedro santuaren irakastegia-
ren jaia ospatzean, Kristo'ren Gorputz-Odolaz ja-

naritu gaituzun gure Jainko Jauna: eiguzu, erospen-misterio au batasun eta bake-sakramentu izan dakigula.

ZEZEILLAREN 23

POLIKARPO SANTUA, gotzain eta martiri
Gomutapena

Otoitza.—Izaki guztien Aita, Polikarpo gotzain santua martirien lerroan ezarri dozuna: eiguzu, beronen bitartez, Kristo'ren Nekaldian eskuartu dagigula eta betiko bizitzara biztu gagizala.

EPAILLA

EPAILLAREN 4

KASIMIRO SANTUA

Otoitza.—Ba-dakigu, Jaungoiko guztiaaldun, zure serbitzari izatea errege izatea dana; orregaitik, Kasimiro santuaren bitartez, santutasunean eta zuzentasunean zeure naiari menperatuta bizi gaitzala eiguzu.

EPAILLAREN 7

PERPETUA TA FELIZITAS SANTUAK, martiriak
Gomutapena

Otoitza.—Perpetua ta Felizitas zure martiri doatsuak, Jauna, zeure maitasunak eskatuta, aurrean erabilten ebazana bazartu ta eriotz-oiñazea garaitu aal izan eben; eiguzu, arein bitartez, Zugandiko gure maitasunean etenbagarik azi gaitzala.

EPAILLAREN 8

JAUNGOIKOAREN YON SANTUA, praillea

Otoitza.—Jaungoikoaren Yon santuari erruki-espirtua isuri zeutsan Jauna: eiguzu, geuk be, erruki-egintzak egiñik, egunen baten zeure erreñuko aukeratuen artean egotea merezi dagigula.

EPAILLAREN 9

ERROMA'KO PRANTZISKA SANTUA, moja

Otoitza.—Prantziska doatsuagan ezkonduen eta monjen bizitza-eredu apartekoa emon zeuskun Jaungoikoa: eiguzu, zure serbitzaritzan iraupentsu bizi gaitzala, bizitzako gora-beera guztietan Zeu ezagutu zagiguzan eta Zeuri jarraitu dagitzugun.

EPAILLAREN 17

PATRIZIO SANTUA, gotzaiña

Otoitza.—Irlanda'ko erriai zeure aintza iragarteko, Patrizio zure gotzain santua aukeratu zenduan Jaungoikoa: egizu, aren bitartez eta irabaziz, kristau-izena eroanaz pozten diran guztiak, gizonen aurrean zeure arrigarriak iragarteko grazia izan dagiela.

EPAILLAREN 18

JERUSALEN'GO ZIRILO SANTUA, gotzain
eta Eliz-irakaslea

Otoitza.—Jerusalen'go gotzain Zirilo santua-

ren iragartez, zure Elizeari salbamen-sakramentuetan sakonago sartzen itzi dautsazun gure Jaungoiko Jauna: eiguzu, aren bitartez, zure Semea ondo ezagutu dagigula, Beronen jaungoikozko bizitzan ugariago eskuartu aal dagigun.

EPAILLAREN 23

MOGROBEJO'TAR TORIBIO SANTUA, gotzaiña

Otoitza.—Egiaren alde egiteko, Toribio zure gotzain santuaren ardura ta apostolu-lanen bidez Elizea geitu nai izan dozun Jauna: egizu, Zeuri eskiñita dagoan erria fedean eta santutasunean etenbagarik azi daitela.

EPAILLAREN 25

JAUNAREN GIZAKUNDEA IRAGARTEA
Jaieguna

Otoitza.—Itzak (Jesukristo'k) Andra Maria'ren sabelean aragia artu nai izan zenduan Jauna: eiguzu biotz onez, gure Eroslea Jaungoiko ta benetako gizontzat autortzen dogun guztiok, Aren jaungoikozko izatean Aren antzeko egitea lortu dagigula.

Salmu-atala

B. Ona emen ni, Jauna,
zeure naia egiteko.

Zuk ez dozu oparirik ez eskintzarik nai, baiña belarriak zabaldu zeustazan; ez zenduan erre-oparirik nai. Orduan, auxe diñot: «Ona emen ni —neure liburuan idatzita dagoanez— zeure naia egiteko».

Ene Jainko, nai dot eta erraietan daroat zure legea. Zeure salbamera iragarri dot batzar nagusian; ez dot ezpanik itxi: ba-dakizu Zuk, Jauna.

Ez dot itzi gordeta zure laguntza nire bularrean, zeure legea ta salbamera iragarri dodaz; ez dodaz ukatu zure errukia ta egia batzar nagusian.

Opari-otoitza.—Onartu egizuz, Jauna, zure Elizearen doaiok; eta, euron iturburua zeure Seme bakarraren Gizakundean izan dauala autortzen dauan ezker, bete egizu zure pozaren doaiaz misterio au ospatzean.

Kanon-aurrea

... Jesukristo gure Jaunaren bitartez.

Aldien osotasuna bete zanean, Jaungoikoak lurrera bere mandatua bialdu eta Maria Birjiñak aingeruaren iragartea sinistu egin eban: Kristo, Espiritu Santuaren egiñez, aren sabelean aragia artuta, gizona salbatzearren gizon egingo zala.

Olan, Jaungoikoak Israel'go erriari egin eutsazan agintzariak burutu eta gaitetiko errien itxaro-

pena somatu-eziñeko eratara bete eban.

Orregaitik...

Azken-otoitza.—Orain artu doguzan sakramentuen bidez, Jauna, sendotu egizu guban benetakoko fedea: Maria Birjiñaren Semea Jaungoiko ta benetakoko gizontzat autortzen dogun guztiok, biztuera-indarrez Erreiñuko pozetara eldu aal gaitetzan.

JORRAILLA

JORRAILLAREN 2

PAULA'KO PRANTZISKO SANTUA, eremu-zalea

Otoitza.—Apalen gorapena zaran gure Jainko Jauna, eta Paula'ko Prantzisko doatsua zure santuen aintzara jaso dozuna; eiguzu, beronen bitartez, beronen ikasbideai jarraitu dagiegula: zeure errukiz, apalai agintzariz eskiñitako zeure saria jadetsi dagigun.

JORRAILLAREN 5

BIZENTE FERRER SANTUA, abadea

Otoitza.—Bizente Ferrer santua zure Ebanjelioaren zabaltzailletzat aukeratu zenduan Jaungoiko guztiaalduna: Jesukristo gure Jauna zeruan aintzatsu ikusteko grazia emoiguzu, Bizente santuak Jesukristo mundu onetara auzi-ebazle lez etorriko zala iragarri eban-eta.

JORRAILLAREN 7

SALLE'TAR YON BAUTISTA SANTUA, abadea
Gomutapena

Otoitza.—Gazteai kristau-bizitzan azibidea emoteko, Salle'tar Yon Bautista santua aukeratu dozun Jauna: sortu egizuz zure Elizan gaztediaren kristau ta giza-azibideari oparo ekin dagioen irakasleak.

JORRAILLAREN 11

ESTANISLAO SANTUA, gotzain eta martiria

Otoitza.—Estanislao santuari, zure aintzaren omenez, erasotailleen ezpatapean jausteko grazia emon zeutsan Jauna: eiguzu, aren bitartez, erioztzararte fedean sendo iraun dagigula.

JORRAILLAREN 13

I MARTIN, Aita Santu ta martiria

Otoitza.—Martin Aita Santu ta martiria ez zenduan oiñazeen ez zemaizen bidez azpiratua izatea nai izan; emoiguzu, aren bitartez, mundu onetako burrukai gogor egiteko arek izan eban espiritu-sendotasuna.

ERMENEJILDO SANTUA, martiria

Otoitza.—Zure Elizan Ermenejildo martiri santua fedearen zaintzaille adoretutzat sortu zenduan Jaungoikoa: emoiguzu, gaur aren odol-isurtearen gomutapena ospatzen dogunoi, batasuna zure izena autortzean eta iraupena zure maitasunean.

JORRAILLAREN 21

ANSELMO SANTUA, gotzain eta Eliz-irakaslea

Otoitza.—Anselmo zure gotzain santuari zeure jakituariaren sakona arakatzeko ta irakasteko doia emon dautsazun Jainko Jauna: egizu, gure fedeak lagun egin dagiola gure adimenari, sinisteko agintzen dauskuzuna gure biotzarentzat gozo izan daiten.

JORRAILLAREN 23

JORJE SANTUA, martiria

Otoitza.—Zure aal-izatea goratzen dogula, apalik eskatzen dautsugu, Jauna: Jorje santua, zure Semearen Nekaldiaren jarraitzaille zintzoa, gure makaltasunaren zaintzaille biotz-zabala izan dakigula.

JORRAILLAREN 24

SIGMARINGA'KO FIDEL SANTUA,
abade ta martiria

Otoitza.—Sigmaringa'ko Fidel santuari, zeure maitasunean sututa, fedea zabaltzeari ekiten eutsanean, martiri-abarra emon zeutsan Jainko Jauna: eiguzu, arren, berak lez maitasunean zusterak eginda, Jesukristo'ren biztueraren aal-izatea ezagutu dagigula.

JORRAILLAREN 25

MARKOS SANTUA, ebanjelaria
Jaia

Otoitza.—Markos zure Ebanjelari santua, Barri Ona zabalduaz, gora jaso zenduan gure Jainko Jauna: eiguzu, aren irakatsiak on izan dakiguzala, Kristo'ren lorratzai beti zintzoro jarraitu dagigun.

Salmu-atala

B. Beti abestuko dodaz Jaunaren errukiak
[edo Aleluia].

Beti abestuko dodaz Jaunaren errukiak, gizaldiz-gizaldi zeure zintzotasuna iragarriko dot. Auxe esan neban-eta: «Zure errukia beti-betiko

[etxea da,

zerua baiño geiago sendotu dozu zure

[zintzotasuna».

Zeruak zeure mirariak iragarten dauz, Jauna, eta zeure zintzotasuna aingeruen atzarrak.

Nor da, odeien gaiñetik, Jainkoagaz

[bardintzekorik?

Nor jaungoikozko izakien artean Jauna lakorik?

Bai zoriontsu, Zu goratzen dakian erria!

zeure arpegiaren argitan ibilliko da, Jauna;

zeure izenaz pozten dira egunoro,

zeure zuzentasunaz arrotzen dira.

Opari-otoitza.—Markos zure ebanjelari santuaren aintza ospaturik, gorapenezko opari au eskintzen dautsugu, Jauna; eta apal-apalik eskatzen

dautsugu: zure Elizeak Ebanjelioa iragarteko egin-
kizunean beti zintzo iraun dagiala.

Kanon-aurrea

... Jesukristo gure Jaunaren bitartez.

Zure Elizea apostoluen aitz-gaiñean oiñarritu
dozu, Elizeak munduan zeure santutasunaren
ezaugarri lez iraun dagian eta andra-gizon guztiai
Zeugana eroaten gaituan bidea erakutsi dagitsen.

Orregaitik...

Azken-otoitza.—Sakramentu onek, Jaun guz-
tiaaldun, santutu gagizala eta Markos santuak itzi
dauskun Ebanjelioan sendoro sinisteko grazia
emon daiskula.

JORRAILLAREN 26

ISIDORO SANTUA, gotzain eta Eliz-irakaslea
Jaia

Otoitza.—Goztzen eta Eliz-irakasle dan Isi-
doro santua giza-jakintzaren autorpen eta iturri
izateko aukeratu dozun Jainko Jaun guztiaaldu-
na: eiguzu, aren bitartez, zure betiko egia ardu-
ratsu billatu eta biotz-zabalez onartu dagigula.

Opari-otoitza.—Gizonaren lanaren frutu di-
ran oparigai oneik, Jauna, zeure bedeinkapenak
erakarri daiskuezala eta Egi-Espirituari esaneko
egin gagezala.

JORRAILLAREN 28

PEDRO CHANEL SANTUA, abade ta martiria

Otoitza.—Pedro Chanel santuari, zeure Eli-
zea zabaltzen ziarduan, martiri-abarra emon
zeutsan Jauna: eiguzu, Pazko-pozen artean, Kristo
il eta berbiztuaren misterioa egoki ospatu dagigula,
bizitza barri baten testigu izan gaitzean benetan.

JORRAILLAREN 29

SIENA'KO KATALIN SANTUA,
birjiña ta Eliz-irakaslea
Gomutapena

Otoitza.—Jainko Jauna, Katalin doatsua zure
Semearen Nekaldia ausnartzen eta bere burua Eli-
zearen eginkizunetan jarten jaungoikozko maita-
sunean sutu zenduana: eiguzu, aren bitartez,
Kristo'ren misterioari batuta bizi gaitzezala, Aren
aintzaren agertaldiaz pozez bete aal gaitzean.

Opari-otoitza.—Onartu egizu, Jauna, Kata-
lin doatsuaren egunean eskintzen dautsugun sal-
bamen-opari au; berak emon daiskugula irakatsia,
gartsuago eskerrak emon aal dagitzuguzan.

Azken-otoitza.—Artu dogun zeruko janari au,
Katalin doatsuaren lurreko bizitza janaritu ebana,
betiko aintzaren agiri izan dakigula, Jauna.

JORRAILLAREN 30

V'GARREN PIO SANTUA, Aita Santua

Otoitza.—Sinismena zaintzeko ta gurtza dui-

ñagotzeko, Elizan Aita santu Pio Bosgarrena zo-
rionez sortu dozun Jauna: eiguzu, aren bitartez,
zure misterio santuetan fede biziareta eta maitasun
emonkorraz eskuartu dagigula.

O R R I L L A

ORRILLAREN 1

JOSE SANTUA, langillea

Otoitza.—Munduaren egille zaran Jaungoiko
guztiaalduna! Gizon guztiai lanaren legea ezarri
dautsezu; eiguzu, Jose santuaren eredu eta bitar-
tez, geure ardurapean jarten dauskuzuzan lanak
ondo bete eta agintzaritzat eskintzen dauskuzuzan
sariak lortu dagiguzala.

Salmu-atala

B. Gora eragiezu, Jauna, gure eskuen lanai
[edo *Aleluia*].

Mendiak jaiño baiño leen,
lurbira sortu baiño leen,

Jaungoiko zara Zu betidanik eta betiko.

Auts biurtzen dozu gizona,

«Biurtu zaitze, Adan'en semeok!» esanez.

Zure aurrean milla urte

atzo igaro zan eguna aiña,

gabeko iratzar-aldia aiña.

Erakutsi eiguzu gure egunak zenbatzen,

biotz zuurra irabazi dagigun.

Biurtu zaitze, Jauna: noiz arte?

erruki zakiez zure morroioi.

Goizean bete gagizuz zure errukiaz,

eta gure bizitza guztia poz eta alaitasuna izango

Ikusi dagiela zure otseñak zure ekintza, [da.

eta arein semeak zure aintza.

Opari-otoitza.—Gure Jainko Jauna, erruki-
iturri: onartu egizu gure eskintza Jose langille san-
tuaren egunean; eta egizu, doai oneik Zuri dei
egiten dautsuenentzat grazi-iturri biurtu daitezala.

Kanon-aurrea

... betiko orri.

Eta Zu, Jose santuaren jai onetan, bear danez
goratzea, bedeinkatzea ta autortzea. Auxe izan
zan Jaungoikoaren Ama Birjiñari emon zeutsan
senar zuzena, eta zure etxekoen serbitzari zintzo
ta zuurra: zure Seme bakar, Espiritu Santuaren
egieñez sortua, Jesukristo gure Jauna, aitordeko-
tzat zaindu egian.

Orregaitik...

Azken-otoitza.—Zuk, Jauna orrek, Eukaris-
tiaz janaritu gaituzu; orregaitik, Jose santuak lez,
geure biotzetara isurten dozun maitasunaren autor-
pena egiten dogula, benetako bakea eten-bagarik
izan aal dagigula.

ORRILLAREN 2

ATANASIO SANTUA, gotzain eta Eliz-irakaslea
Gomutapena

Otoitza.—Atanasio zure gotzain santua Zeure Semearen jaungoikotasunaren jagole ospatsu egin zenduan Jaungoiko guztiaaldun eta betikoa: eiguzu biotz onez, aren irakatsi ta laguntzaz sendotuta, geroago ta osoago ezagutu ta maitatu zagiguzala.

Opari-otoitza.—Begiratu biotz onez, Jauna, zeure altarara dakartsuguzan doaiok; eta, Atanasio zure gotzain santuaren eguna ospatzen dogun ezkerro, aren fede berbera dogun guztiok zeure egiaaren autorpenak salbamenera eroan gagizala.

Azken-otoitza.—Eiguzu, Jaungoiko guztiaaldun orrek: Atanasio santuak lez, zure Semea benetan Jaungoikoa dala autortzen dogunoi, Jaunartze onen bidez, Aren jaungoikotasunak bearrezkoak doguzan bizia ta indarra emon daiskuzala.

ORRILLAREN 3

FELIPE TA SANTIAGO SANTUAK, apostoluak
Jaia

Otoitza.—Felipe ta Santiago zure apostolu santuen urteoroko jaiaz pozten gaituzun gure Jainko Jauna: eiguzu, arein bitartez, zeure Semearen eriotzan eta biztueran eskuartu dagigula, zeruan zeure aintzaren ditzirari begira egotea merezi dagigun.

Salmu-atala

B. Aren iragarateak lur guztia artzen dau
[edo Aleluia].

Zeruak Jaungoikoaren aintza iragarten dau, izartegiak Aren eskuak egindakoa azaltzen dau: egunak egunari iragarten dautso mandatu, eta gauak gauari emoten dautso albistea.

Berba egin bagarik, itzik esan bagarik, Aren berbotsak durundirik egin bagarik, Aren iragarateak lur guztia artzen dau, eta Aren izkereak lurbiraren mugetaragiño.

Opari-otoitza.—Onartu egizuz, Jauna, Felipe ta Santiago zure apostolu santuen egunean dakartzuguzan oparigaiok; eta eiguzu, gure ekintzetan erlejiño garbi ta zintzoa izan dagigula.

Kanon-aurrera: ikusi 47 orri.

Azken-otoitza.—Artu dogun sakramentu onen bidez, garbitu egizuz gure biotzak, Jauna; eta eiguzu, Felipe ta Santiago zure apostoluak lez, zeure Semeagan Zu ikustea jakin dagigula, betiko bizitza artzea merezi dagigun.

ORRILLAREN 10

AVILA'KO YON SANTUA, abadea
Gomutapena

Otoitza.—Avila'ko Yon santua, beronen bi-

zirta santuaren eta apostolu-ardurearen bidez, zure erriarentzat ereduako irakasle egin zenduan Jaungoikoa: egizu, geure egunetan be, zure elizgizonen ereduako ardurearen bidez, Elizea santutaz sunez geitu daitela.

ORRILLAREN 12

NEREO TA AKILES SANTUAK, martiriak

Otoitza.—Eiguzu, Jaungoiko guztiaaldun orrek, Nereo ta Akiles martiri ospatsuen laguntza errukiorra somatu dagigula, euren odol-isurtean fede-autorpen adoretua emon dauskue-ta.

PANKRAZIO SANTUA, martiria

Otoitza.—Poztu daitela zure Elizea, Jauna, bere ustea Pankrazio santuaren laguntzan ezarrita; eta, zeure martiriaren erreguen bidez, Zugan zintzo iraun dagiala eta benetako bakean sendotu daitela.

ORRILLAREN 14

MATIAS SANTUA, apostolua
Jaia

Otoitza.—Matias santua Apostoluen arteko egin zenduan Jaungoikoa: eiguzu, aren erreguen bidez, gu zeure aukeratuen artean artuak izatean, zeure kutun izateaz poztu aal gaitetzala.

Salmu-atala

B. Bere erriaren nagusiakaz
jesarriko dau Jaunak
[edo Aleluia].

Goratu egizue, Jaunaren otseñok, goratu egizue Jaunaren izena! Bedeinkatua Jaunaren izena, orain eta beti.

Eguzki-agertzetik aren sartzeragiño, bedeinkatua izan dadilla Jaunaren izena. Jauna erri guztien gaiñetik jagiten da; Aren aintza zeruaren gaiñean.

Nor, bere errege-aulkian jesarten dan gure Jainko Jauna lakorik? eta zeru-lurrak begiratzera beeratzen dana lakorik?

Beartsua autsetik gora jasoten dau, txiroa satsetik atara egiten dau, nagusiakaz jesarri dagian, bere erriaren nagusiakaz.

Opari-otoitza.—Onartu egizuz, Jauna, Elizeak Matias santuaren egunean dakartzuzan oparigaiok, eta sendotu gagizuz, eskintza onen bidez, zure graziaren indarraz.

Kanon-aurrean: ikusi 47 orri.

Azken-otoitza.—Emon egiezuz gaiñezka, Jauna, zure etxekoai zeruko doaiak; eta, Matias santuaren bitartez, artu gagizuz zure santuen argitan eta oiñordetzan.

ORRILLAREN 15
ISIDRO SANTUA, nekazaria
Gomutapena

Otoitza.—Gure Jainko Jauna: Isidro nekazari santuaren apaltasun eta bakantasunean, Kristo'gaz, Zeugan ostendutako bizitza-eredua itzi zeuskun; eiguzu, egunoroko lanak bigundu dagiala gure gizartea eta lan ori izan daitela batera zure ize-narentzako gorapen-eskaria.

Opari-otoitza.—Onartu ta santutu egizuz, Jauna, ogi ta ardao-doaiok, Isidro nekazari santuak bere bekokiko izerdiaz bustirik landatutako lurreko frutu dira-ta.

Azken-otoitza.—Apalik eskatzen dautsugu, Jauna: artu dogun janari santua goi-maitasuna ugari batzeko ereintza agintzaillea izan daitela gudan.

ORRILLAREN 17

PASKUAL BAILON SANTUA, praillea

Otoitza.—Paskual santuari zure Gorputz-Odolaren misterioak oso maite izateko grazia emon zeutsan Jaungoikoa: emoiguzu, zure semeai gertatzen dautsezun jataldi santu onetan berak lortu ebazan jaungoikozko aberastasunak jaristeko grazia.

ORRILLAREN 18

I YON SANTUA, Aita Santu ta martiria

Otoitza.—Arima zintzoen sari-emoille zaran Jaungoikoa! Egun au Yon Aita santuaren odol-isurteaz santutu dozu; entzun zure erriaren otoitzak, eta emoiguzu arek fedean izan eban sendotasunari jarraitzeko grazia, arek orretan egin ebazan irabaziak ospatzen doguz-ta.

ORRILLAREN 20

SIENA'KO BERNARDINO SANTUA, abadea

Otoitza.—Bernardo santuaren biotzera Jesus'en izenarentzako maitasun arrigarria isuri zenduan Jainko Jauna: eiguzu, aren bitartez eta irabaziz, beti zeure maitasunaren espirituak bultza eginda bizi gaitzala.

ORRILLAREN 22

BEDRUNA'TAR JOAKINA SANTUA, moja

Otoitza.—Gaztediaren kristau-azibiderako ta geisoen laguntzarako Elizan Bedruna'tar Joakina doatsua sorrerazo dozun Jauna: egizu, aren ikas-bideai jarraitu dagiegula eta gure bizitzaren geure anai-arreben serbitzari izaten jardun dagiegula.

Opari-otoitza.—Onartu egizuz, Jauna, opari-gaiok, zure Semearen maitasunaren gomutagarria oparigaion bidez ospatuko dogu-ta; eta egizu, misterio oneitan eskuartzen dogun guztiok, Bedruna'tar Joakina doatsua eredutzat artutik, gauza guz-

tien gaitetik Zeu maite izaten ikasi dagiegula, baita gizaki guztiak be Zeuganako maitasunagaitik.

Azken-otoitza.—Apalik eskatzen dautsugu, Jauna: eukaristi onek geitu dagiala gudan zure maitasuna, eta, gure berba ta ekintzen bidez inguraten gaituenentzat maitasun eta guri begira dagozanentzat argi izan gaitzala, Bedruna'tar Joakina lez.

ORRILLAREN 25

SAN BEDA AGURGARRIA, abade ta Eliz-irakasle

Otoitza.—Zure Elizea San Beda Agurgarriaren jakituriaz argitu dozun Jainko Jauna: eiguzu zure serbitzariok, zeure abade santuaren irakatsiak etenbagarik zuzendu gagezala eta aren irabaziak lagun egin daiskuela.

VII'GARREN GREGORIO SANTUA, Aita Santua

Otoitza.—Emon zure Elizeari, Jauna, sendotasun-espirtua ta zuzentasun-egarria, onoimenez bidez argitu dozu-ta; eta egizu, aren bitartez, zure Elizeak gatxa beti baztarten eta munduan dauan salbamen-eginkizunean askatasun osoz jarduten ikasi dagiala.

PAZZIS'TAR MARI MADALEN SANTUA, birjiña

Otoitza.—Birjintasuna maite dozun Jainko Jauna! Pazzis'tar Mari Madalen doatsua zerudoaiz aberastu dozu, eta beronen biotza zeure maitasunean kiskaltzen zan; egizu, aren eguna ospatzen dogun guztiok aren goi-maitasun eta garbitasunaren ikasbideai jarraitu dagiegula.

ORRILLAREN 26

NERI'TAR FELIPE SANTUA, abadea
Gomutapena

Otoitza.—Zure serbitzariak beti santutasunaren aintzaz goratzen dozuzan Jainko Jauna: eiguzu, Neri'tar Felipe santuaren biotza kiskaldu eban su berberaz iziotu gagezala Espiritu Santuak.

Opari-otoitza.—Zuri gorapen-opari au eskin-tzean, Jauna, apalik eskatzen dautsugu: Neri'tar Felipe santuaren eredu, zeure izena goratzen eta geure anai-arreben serbitzari izaten jardun dagiegula poz-pozik.

Azken-otoitza.—Zeru-janariak janaritu gaituzun Jauna: eiguzu, Neri'tar Felipe santuaren eredu, egiatzko bizitzako iturrietan edatea gura izan dagiegula.

ORRILLAREN 27

KANTORBERY'KO AGUSTIN SANTUA, gotzaiña

Otoitza.—Kantorbery'ko Agustin zure gotzain santuaren fede-iragar-teaz Ingalterra'ko erriak Ebanjelioaren argitara eroan zenduzan Jainko Jauna: eiguzu, aren apostolu-lanaren frutuak beti emonkorra izaten iraun dagiala zure Elizan.

ORRILLAREN 30
FERNANDO SANTUA

Otoitza.—Fernando errege santua lurtean zeure Elizearen zaintzailletzat aukeratu zenduan Jaungoikoa: entzun zure erriaren eskariak, zeruan laguntzailletzat eukitea eskatzen dautsu-ta.

ORRILLAREN 31
ANDRA MARIA'REN IKUSTALDIA
J a i a

Otoitza.—Maria Birjiñari, bere sabelean zeure Semea eroiala, Isabel bere lengusiñeari ikustaldia egiteko argitu zenduan Jaungoiko guztiaalduna: eiguzu, arren, Espirituaren arnaseari esaneko izanik, gure bizitza guztian, Maria'gaz batera, zeure miragarriak abestu dagiguzala.

Salmu-atala

B. Andia da, benetan, zure erdian
Israel'go Santua!

Jauna da nire Jaungoiko ta Salbatzaillea;
Beragan dot ustea eta ez dot ezeren bildurrik,
nire indar eta kemena Jauna da-ta;
Bera da nire salbamea.
Pozik atarako dozue ura
salbamenaren iturritik.

Eskerrak emon Jaunari,
dei egin Aren izenari,
zabaldu errietan Aren egintza bikaiñak.

Jo soñua Jaunarentzat, arrigarriak egin dauz-ta,
jakin dagiezala lurralde guztian.
Ekin oiuka pozaren pozez,
Sion'en bizi zareenok:
«Andia da, benetan, zure erdian
Israel'go Santua!»

Opari-otoitza.—Atsegin bekizu, Jauna, eskin-tzen dautsugun salbamen-opari au, Maria Birjiñak Isabel bere lengusiñeari ikustaldia egitean, aren maitasun-ezaugarria atsegiñez artu zenduan.

Kanon-aurrea: ikusi 37 orri.

Azken-otoitza.—Zure Elizeak goratu zagizala, Jauna, zure semeai buruz egin dozuzan miragarri guztiakaitik; eta Yon Bateatzaillea, Ama Birjiñaren sabelean Kristo somatu ebanean, pozez beterik jarri zanez, zure Elizeak be sakramentu onetan Kristo beti bizirik somatu dagiala.

PENTEKOSTE-OSTEKO
BIGARREN ASTEKO LARUNBATA

ANDRA MARIA'REN BIOTZ GARBI-GARBIA

Otoitza.—Maria Birjiñaren biotzean Espiritu Santuari bizitoki egokia atondu dautsazun Jaungoikoa: egizu, gu, Ama Birjiñaren bitartez, zure aintzaren jauretze egokiak izatera eldu gaitzala.

Opari-otoitza.—Onartu egizuz, Jauna, Jaun-

goikoaren Ama dan Maria'ren gomutapenean dakartzuguzan oparigai ta eskariok; eta egizu, zure aurrean atsegingarriak izan daitezala eta erakarri dagiela erriaren gaiñera zure bitartekotasunaren laguntza.

Kanon-aurrea: ikusi 37 orri.

Azken-otoitza.—Betiko erospenaren erdikide garanez, apalik eskatzen dautsugu, Jauna: zure Semearen Amaren gomutapena ospatzean, poztu gagizala zure graziaren ugaritasunean eta salbamenaren geitze etenbaga somatu dagigula.

B A G I L L A

BAGILLAREN 1

JUSTINO SANTUA, martiria
Gomutapena

Otoitza.—Justino santuari Kristo'ren jakituri arrigarria Gurutzeke zorakerian aurkitzen irakatsi dautsazun Jauna: eiguzu, zure martiriaren bitartez, inguratzen gaituen fede-errakuntzak uxaturik, sinismenean sendo iraun dagigula.

Opari-otoitza.—Eiguzu, Jauna, Justino zure martiri santuak adoretzu zaindu ebazan misteriook egoki ospatu dagiguzala.

Azken-otoitza.—Zeruko ogiaz bizkortu gaituzun Jauna: eiguzu, Justino martiri santuaren irakatsiai zintzoro jarraiturik, Zugandik artzen doguzan doaiakaitik beti eskerrak emoten iraun dagigula.

BAGILLAREN 2

MARTZELINO TA PEDRO SANTUAK, martiriak

Otoitza.—Martzelino ta Pedro zure martiri santuen autorpen goragarriaz, estalpe ta laguntza egin dautsuzun Jauna: eiguzu, aren ikasbideai jarraitu dagiegula eta aren bitartekotasunak beti eutsita bizi gaitzala.

BAGILLAREN 3

KARLOS LUANGA ETA BERONEN LAGUN SANTUAK,
martiriak

Otoitza.—Martirien odola kristau-barriak sortzeko azi biurtzen dozun gure Jainko Jauna: eiguzu, Elizearen soloak, Karlos Luanga santuaren eta beronen lagunaren odolaz emonkor dan soloak, etenbagarik kristauak ugari sortu dagizala, zeure aintzarako.

Opari-otoitza.—Geure oparigaiok dakartzuguz, Jauna, eta apal-apalik eskatzen dautsugu: zure martiriak pekatu egin baiño eriotza naiago izan ebenez, geuk be, gauza guztien gaiñetik, zeuri eskiniña bizi izanik, altaran zeure serbitzaritzan jardun dagigula.

Azken-otoitza.—Karlos Luanga santuaren eta beronen lagunaren garaipena gogoraturik artu doguz, Jauna, gu salbatzen gaituen sakramentuak; eiguzu

ba, orain: zure martiriak, oiñazeak ondo eroateko, sendotasuna eukaristian aurkitu eben ezkerro, geuk be, mundu onetako larritasunen artean, fedean eta goi-maitasunean bizi izateko bear dogun indarra eukaristian aurkitu dagigula.

BAGILLAREN 5

BONIFACIO SANTUA, gotzain eta martiria
Gomutapena

Otoitza.—Eiguzu, Jauna, Bonifazio zure martiri santua bitarteko izan dakigula: arek bere berbaz irakatsi eta odol-isurteaz burutu eban fedea, guk adoretu zaindu eta geure egintzen bidez sendotu dagigula.

BAGILLAREN 6

NORBERTO SANTUA, gotzaiña

Otoitza.—Norbeto zure gotzain santua, beronen otoitz-espirtua ta apostolu-ardureagaitik, zure Elizareen artzain arrigarri egin zenduan Jauna; apalik eskatzen dautsugu: aren bitartez, salbame-nera eroan dagien eredu-zko artzaiñiak aurkitu dagizala beti zure erriak.

BAGILLAREN 9

EFREN SANTUA,
laguntzaille ta Eliz-irakaslea

Otoitza.—Isuri egizu, Jauna, gure arimetara Espiritu Santua: Efren zure laguntzaille santuari be, zure misterioak pozik abesteko ta bere burua zeure serbitzaritzan jarduteko, Espiritu Santuak egiten eutsan bultza bere argiaz-ta.

BAGILLAREN 11

BERNABE SANTUA, apostolua
Gomutapena

Otoitza.—Zeuk emon zenduan, Jauna, fedez eta Espiritu Santuz betea zan Bernabe santua aukeraturua izateko agindua; eiguzu, ba, arek ain sendoro iragarri eban Kristo'ren Ebanjelioa, berbaz eta egitez, Elizan zintzotasunez izan daitela iragarria beti.

Opari-otoitza.—Santutu egizuz, Jauna, opari-gaiok, eta eurok lortu daiskueta zure graziaren bidez, Bernabe zure Apostolu santua erriai Ebanjelioaren argia eroatera bultzatu eban maitasun sutua.

Kanon-aurrea: ikusi 47 orri.

Azken-otoitza.—Eukaristi onetan betiko bizitzako agiria artuta gero, apalik eskatzen dautsugu, Jauna: gaur Bernabe santuaren eguna ospatzean irudiz ospatu dogun guztia, egunen baten, benetako izate lez, zeruan lortu dagigula.

BAGILLAREN 13

PADUA'KO ANDONI SANTUA,
abadea ta Eliz-irakaslea
Gomutapena

Otoitza.—Jaungoiko guztiaaldun eta betikoa!

Padua'ko Andoni santuagan zure erriari iragarle ospatsu ta bitarteko aaltsua emon dautsazun ezkerro, eiguzu: kristau-bizitzako asierai zintzoro jarraitu dagiegula, gure zoritxar guztietan guk Zu zainzaille lez izatea merezi dagigun.

BAGILLAREN 15

SAKRAMENTU GUZTIZ SANTUAREN
MARI MIKAELA SANTUA, birjiña

Otoitza.—Gizakiak maite dozuzan eta guztiai zeure parkamena emoten dautsezun Jaungoikoa; sortu egizu gugan esku-zabaltasun eta maitasun-espirtua: Mari Mikaela doatsuaren eredua, espirtu orrek beartsuenakan eta zure magalpe-bearra dabenakan Zeu aurkitzera bultza egin daiskun.

BAGILLAREN 19

ERROMUALDO SANTUA, abata

Otoitza.—Erromualdo abata santuaren bidez, zure Elizan eremu-bizitza barriztu dozun Jaungoikoa: egizu, Kristo'ri jarraitzeko gure buruari uko egiñik, zeruetako Erreñura eltzea merezi dagigula.

BAGILLAREN 21

GONZAGA'TAR LUIS SANTUA, praillea

Otoitza.—Zeru-doaiak banatzen dozuzan Jainko Jauna: Gonzaga'tar Luis santuagan arrigarrizko bizitza errubagea ta penitentzi-espirtu latza alkar-tu nai izan dozuz; eiguzu, aren bitartez, errubage-tasunean aren antzeko izaten jakin ez ba'dogu be, domu-nekean aren ikasbideai zintzoro jarraitu dagiegula.

Opari-otoitza.—Egizu, Jauna, zure janaldira beti eztegu-jantziagaz urreratu gaitzezala, Gonzaga'tar Luis'en antzera: misterio onetan eskuartzeak, zeure graziaren aberastasunez bete gagian.

Azken-otoitza.—Aingeruen ogiaz janaritu gaituzun Jauna: eiguzu, bizikera garbiaz otseindu zagiguzala eta, Luis santuaren ikasbideari jarraiturik, beti eskerrak emoten bizi gaitzezala.

BAGILLAREN 22

NOLA'KO PAULINO SANTUA, gotzaiña

Otoitza.—Paulino zure gotzaiña, arimak salbatzeko ardureagaitik eta beartsuai eutsen maitasunagaitik, gora jaso nai izan dozun gure Jainko Jauna: eiguzu, gaur aren irabaziak ospatzen doguzanok, aren goimaitasun-bizitzako ikasbideai jarraitu dagiegula.

YON FISHER SANTUA, gotzaiña, eta
TOMAS MORO SANTUA, martiriak

Otoitza.—Martirioaren autorpena fede-adierezpen osoa izatea nai izan dozun Jauna: eiguzu, arren, Yon Fisher eta Tomas Moro santuen bitartez, berbaz autortzen dogun fedea bizikera santuz baieztu dagigula.

BAGILLAREN 24

YON BATEATZAILLE SANTUAREN JAIOTEGUNA

Aurreguneko arratsaldeko mezatan

Otoitza.—Egizu, Jaungoiko guztiaaldun orrek, zure etxeko oneik salbamen-bidean zear ibilli daitezala: Yon Aurrelari santuaren irakatsiari jarraiturik, arek iragarri eban Jesukristo gure Jaun eta Salbatzailleagana pozik eldu aal daitezana. Zugaz eta...

Salmu-atala

B. Amaren sabelean Zeu zendudazan eusgarri.

Zeugana joten dot, Jauna:
ez nadilla betiko zapalduta geratu;
zuzena zaran ezkerro, askatu ta onik atara nagizu;
makurtu nigana zure bekarria, eta onik atara
Izan zakidaz igesleku-arkatxa, [nagizu.
ni gordeteko gaztelua,
nire aitz eta gaztelu Zeu zara-ta;
askatu nagizu, ene Jainko orrek, esku gaiztotik.

Nire itxaropena Zeu izan zintzazan-eta, ene Jainko

[ori,

baita nire uste ona be, Jauna, nire gaztarotik.
Amaren sabelean ezkerro, Zeu zendudazan eusgarri,
sabelean Zeuk eusten zeustan.

Nire agoak zeure laguntza azalduko dau,
zeure salbamena egun guztian.

Gaztetarik emon zeustan irakatsia, ene Jainko
[orrek,
eta gaur arte iragarten dodaz zure miragarriak.

Opari-otoitza.—Begiratu biotz onez, Jauna,
zure erriak Yon Bateatzaille santuaren egunean
dakartzun eskintza au; eta eiguzu, gure bizitza
zeure serbitzaritzan ezarrita, orain ospatzen dogun
misterioa burutu dagigula.

Kanon-aurrea

... Jesukristo gure Jaunaren bitartez.

Eta gaur zeure Semearen Aurrelari eta emakume-
gandik jaiotakoen artean andiena izan zan Yon
Bateatzaillearen aintza ospatzean, zeure aundi-iza-
tea autortzen dogu.

Gizonen Salbatzaillea eltzean, bere amaren sabele-
an poz-saltoka asi zan, eta aren jaiotza pozbide
izan zan askorentzat.

Bera izan zan aukeratua profeta guztien artean,
erriai munduaren pekatua kentzen dauan Bildotsa
erakusteko.

Berak bateatu eban Jordan'en Bateoaren egillea;
eta ur biziak, arrezkerro, salbamen-indarra dau gi-
zonentzat.

Eta, azkenez, Kristo'ren izena aundikiro autortze-
ko, bere odola isuri eban.

Orregaitik...

Azken-otoitza.—Yon Bateatzaillearen bitarte-
kotasun aaltsuak lagun egin dagitsela beti zeruko

ogiaz janaritu dozuzanoi; eta munduaren pekatua
kenduko eban Bildotsa iragarri ebanak, geuretzat
be Jesukristo gure Jaun eta zure Semearen erru-
kia eskatu dagiala. Zugaz eta...

Egun-argiko mezatan

Otoitza.—Kristo Jaunari, beronen etorreran,
erri bikaiña atontzeko, Yon bateatzaille santua
sortu zenduan Jaungoikoa: emon egiezu zure etxe-
koai barruko poza, eta zure semeen naia salbamen
eta bake-bidean zuzendu egizu.

Salmu-atala

B. Eskerrak emoten dautsudaz, Jauna,
arrigarriro aukeratu nozu-ta.

Zeuk aztertzen eta ezagutzen nozu, Jauna:
ba-dakizu noiz jesarten eta zutuntzen nazan,
urrundik ulertzen dozuz nire bururapenak;
ezagutzen dozuz nire bidea ta atsedena,
nire bide guztiak ezagunak dozuz.

Zeuk egin dozuz nire erraiak,
Zeuk eio nozu amaren sabelean,
zure egintzak arrigarriak dira-ta.

Nire arima barrua be ezagutu egiten zenduan,
nire azurrak ez yatzuzan ezkutua.

Ezkutuan eratzen nintzala
eta lur-barruan eioten.

Opari-otoitza.—Yon Bateatzaillearen jaiote-
guna egoki ospatzeko, zure altarak oparigaiez
beteten doguz, Jauna: munduaren Salbatzaillea
urr egoala berak iragarri euskun-eta, baita andra-
gizonen artean zala erakutsi be.

Kanon-aurrea: aurreko Mezakoa.

Azken-otoitza.—Gure indarrak janaritzat zeru-
Bildotsa emonda barriztu dozuzan ezkerro, egizu,
Jauna: zure Elizeak, Yon Bateatzaille santuaren
jaiotegunagaitik pozez beterik, bere Eroslea au-
tortu dagiala Aurrelariak laster etorriko zala ira-
garten ebanegan.

BAGILLAREN 26

PELAIIO SANTUA, martiria

Otoitza.—Biotz-garbiai saritzat zeure aurpegia
ikusteko agintzaria egin zeutsen gure Jaun eta
Aita; emoiguz zure grazia ta indarra: Pelaiio mar-
tiri santuaren ereduz, munduaren lillurakerien
aurrean zeure maitasuna jarri eta biotza pekatu
guztietatik garbi gorde dagigun.

BAGILLAREN 27

ALEXANDRIA'KO ZIRILO SANTUA,
gotzain eta Eliz-irakaslea

Otoitza.—Maria Birjiña Jaungoikoaren Ama
zala garaitsu adierazoteko, Zirilo zure gotzain san-
tua aukeratu zenduan Jauna: eiguzu, Maria Jaun-
goikoaren egiazko Ama dala autortzen dogunok,
zure Seme gizon egiñaren bitartez betiko salbame-
nera eldu gaitetzala.

BAGILLAREN 28

IRENEO SANTUA, gotzain eta martiria
Gomutapena

Otoitza.—Ireneo zure gotzain santuari Elizearen irakatsia ta bakea sendo iraunerazoteko grazia emon zeutsan gure Jainko Jauna: eiguzu, aren bitartez, fedean eta goi-maitasunean barriztu gaitetzala eta andra-gizonen artean adiskidetasuna ta batasuna izateko etenbagarik lan egin dagigula.

Opari-otoitza.—Ireneo santuaren egunean pozik eskintzen dogun opari onek, Jauna, zeure izena goratu dagiala eta egia maite izatera bultza egin daiskula, Elizearen fedea osorik zaindu eta batasuna sendo gorde dagigun.

Azken-otoitza.—Erruki zakiguz, Jauna, ospatu doguzan misterio onekaitik, eta geitu gure fedea; eta egizu, Ireneo zure gotzain santua, bere fedea eriotzararte autortu ebalako, goratzen dozun ezkerro, fede orrek geu be zintzotu gagizala, guk fede ori bene-benetan bizi izanik.

BAGILLAREN 30

ERROMA'KO ELIZA SANTUAREN
LEENENGO MARTIRI SANTUAK

Otoitza.—Erroma'ko Elizearen asierak martirien odol ugaritsuaz santutu zenduzan gure Jainko Jauna: eiguzu, barrukaldean izan eben adoreaak sendotasun-espirtua ta garaipenaren poz santua isuri daiskuzala.

G A R I L L A

GARILLAREN 3

TOMAS SANTUA, apostolua
Jaia

Otoitza.—Eiguzu, Jaungoiko guztiaaldun orrek, Tomas zure apostolu santuaren eguna pozik ospatu dagigula; berak egin daiskula lagun bere laguntzaz: zure apostoluak bere Jauna eta Jainkotzat autortu eban Jesukristo zure Semeagan dogun fedeagaitik, gudan bizitza ugaritsua izan dagigun.

Salmu-atala

B. Zoaze mundu guztian zear
eta iragarri egizue Barri Ona.
Goratu egizue Jauna, atzerri guztiok,
ospatu egizue, erri guztiok.

Guganako Aren errukia sendoa da,
Aren zintzotasunak beti irauten dau.

Opari-otoitza.—Onartu egizu, Jauna, bete bear dautsugun serbitzaritza au, eta gorde gudan doaion frutua: Tomas santuaren egunean gorapenoparitzat eskintzen dautsuguz-ta.

Kanon-aurrean: ikusi 47 orri.

Azken-otoitza.—Sakramentu onetan zure Semearen Gorputza benetan emon dauskuzun Jaungoikoa: eiguzu, zure Semea, fedearen bidez, geure Jaun eta Jaungoiko autortu dogunok —Tomas

santuak lez—, aurrerantzean be geure bizikera ta egintzen bidez autortu dagigula andra-gizonen aurrean.

GARILLAREN 4

(Bizkaia'n)

BERRIO-OTXOA'TAR BALENTIN ZORIONTSUA,
gotzain eta martiria

Otoitza.—Zure izena autortzeko, Balentin martiri ta gotzain goragarria adoretu egin zenduan Jaungoikoa: eiguzu, lurrean aren garaipenaz pozten garanok, zeruan be aregaz batera poztu gaitetzala.

Irakurgaia: Pedro'ren 1.^a, 4, 13-16: «Euskal-Biblia», 1812.

Salmu-atala: ikusi 38 orri.

Ebanjelioa: Mateo 10, 28-32: «Euskal-Biblia», 1467.

Opari-otoitza.—Garbitasuna maite dozun Jesukristo Jauna: garbitu egizuz, arren, gure biotzak zeruko zure graziaren iruntzaz: zure Gorputz-Odolaren oparia geuk be Balentin zoriontzua lako garbitasunaz eskifi dagitzugun.

Azken-otoitza.—Zeruko Ogiuz indarturik eta Odol osangarriaz bizkorturik, apalik eskatzen dautsugu, Jauna: Balentin zoriontsuaren bitartez eta ereduz, sinismenean sendo, itxaropenean pozik eta maitasunean gartsu bizi gaitetzala.

PORTUGAL'GO ISABEL SANTUA

Otoitza.—Bakea sortzen eta goi-maitasuna maite dozun Jaungoikoa: Isabel santuari alkarren aurka egozan gizonak adiskidetzeko grazia emon zeutsan ezkerro, eiguzu, aren bitartez, gure aalegiñak bakearen alde jarri dagiguzala, izentzat «Jaungoikoaren seme» erabiltea merezi dagigun.

GARILLAREN 5

ANTONIO MARI ZAKARIAS SANTUA, abadea

Otoitza.—Eiguzu, Jauna: Jesukristo zure Semearen ezaguera bardinbageaz, Paulo santuren eratara azi gaitetzala: Antonio Mari Zakarias'i zure Elizan salbamen-itza iragartera be Arexek egin utsan bultza-ta.

GARILLAREN 6

GORETTI'TAR MARI SANTUA,
birjiña ta martiria

Otoitza.—Errubagetasunaren iturri eta kastedearen maitatzaille zaran Jauna: gazte zala, Goretti'tar Mari zure serbitzariari martirio-grazia emon zeutsan; emoiguzu, aren bitartez, zure aginduak beteteko indarra: odol-isurtean izan eban sendotasunagaitik, ari sari-koroia emon zeutsan-eta.

GARILLAREN 11

BENITO SANTUA, abata
Gomutapena

Otoitza.—Benito abata santua, jaungoikozko serbitzaritzan irakasle ospatsua egin zenduan gure Jainko Jauna: eiguzu, aren bitartez, gauza guztien gaitetik zeure maitasuna naiago izanik, zure aginduen bidean biotz nasaiz aurrera egin dagigula.

Opari-otoitza.—Begiratu biotz onez, Jauna, Benito santuaren egunean dakartzuguzan oparigaiok; eta egizu, aren antzera zeure billa soillik ibillirik, zure serbitzaritzan batasun eta bake-doaia aurkitzea merezi dagigula.

Azken-otoitza.—Betiko bizitzaren agiria dan eukaristia artuta gero, eiguzu, Jauna, Benito abata santuaren irakatsiai jarraitu dagiegula: zure serbitzaritzan zintzo iraun dagigun eta gure anai-arrebak goi-maitasun gartsuaz maite izan dagiguzan.

GARILLAREN 13

ENRIKE SANTUA

Otoitza.—Enrike santua, zeure grazi ugariak eraginda, lurreko agintaritzako arduetatik betiko gaiak ausnartzera eroan zenduan Jaungoikoa: eiguzu, aren erreguen bidez, lur onetako gora-beeren artean Zugana biotz lauaz joan gaitetzala.

GARILLAREN 14

LELIS'TAR KAMILO SANTUA, abadea

Otoitza.—Lelis'tar Kamilo santua geisoakana-ko aparteko goi-doaiaz gora jaso dozun Jaungoikoa; isuri eiguzu, aren bitartez, zure goimaitasun-espirtua: gure anai-arrebakan zeure serbitzari izanik, eriotz-orduan itxaropen osoaz Zeugana eldu aal gaitezan.

GARILLAREN 15

BONABENTURA SANTUA,
gotzain eta Eliz-irakasle
Gomutapena

Otoitza.—E i g u z u, Jaungoiko guztiaaldun orrek: Bonabentura zure gotzain santuaren eguna ospatzen dogun ezker, aren irakatsi ederra on izan dakigula, eta guk aren goimaitasun sutsuaren ikasbideai jarraitu dagiegula.

GARILLAREN 16

KARMEL-MENDIKO ANDRA MARI
Gomutapena

Otoitza.—Apalik eskatzen dautsugu, Jauna: Karmel-mendiko Andra Mari izenaz ezagutzen dogun Maria Birjiñaren bitartekotasun aaltsuak lagundu eta salbamen-mendia dan Kristo'gana eroan gagizala. Zugaz eta...

GARILLAREN 21

BRINDIS'KO LORENTZO SANTUA,
abadea ta Eliz-irakaslea

Otoitza.—Zure izenaren aintzarako ta arimen salbamenerako, Brindis'ko Lorentzo santuari burubide ta sendotasun-espirtua emon zeutsan Jaungoikoa: eiguzu, aren espirtu berberaz, egin bear doguna ezagutu dagigula eta, ezagutu ondoren, baita egiñez bete be.

GARILLAREN 22

MARI MADALEN SANTUA
Gomutapena

Otoitza.—Gure Jainko Jauna: Kristo'k, zure Seme bakarrak, Mari Madalen'i Bereai Pazko-pozaz iragarteko eginkizuna emon eutsan; eiguzu, gaurko eguna ospatzen dautsagunaren bitartez, beti Kristo berbiztua iragarri eta egunen baten zeruetako Erreñua aintzaz beterik ikusi dagigula.

Salmu-atala

B. Nire arimea zeure egarri da,
ene Jainko Jauna!

Ene Jainko, Zeu zara nire Jaungoikoa;
zeure billa nabil arduratan,
zeure egarri da nire arimea;
zeure gurariz diardu nire aragiak,
lur legorraren, agortuaren, ur bagarikoaren

Ni bai Zuri begira jauretxean, [antzera.
zure indarra ta aintza ikusiez!

Zure graziak biaziaik baiño geiago balio dau,
nire ezpanak goratu egingo zaitue.

Nire bizitza guztian bedeinkatu zaitut,
zure izenari dei egiñez jasoko dodaz eskuak.

Gantzez eta guriñez lez aseko naz,
eta nire ezpanak poz-bitsetan goratuko zaitue.

Zeu izan zintzazan nire laguntza-ta;
pozik abesten dot zure egapean;

nire arimea Zeuri lotuta dago,
eta zeure eskumeak eusten daust.

Opari-otoitza.—Onartu egizuz, Jauna, Mari Madalen doatsuaren egunean dakartsuguzan oparigaiok: aren maitasun-eskintza Jesukristo zure Semeak erruki andiz onartu eban-eta. Zugaz eta...

Azken-otoitza.—Zure misterioetan eskuartze-ak, Jauna, Mari Madalen doatsuari bere burua bere Irakasle zan Kristo'ri betiko eskintzera bultza egin eutsan maitasuna isuri eiguzu. Zugaz eta...

GARILLAREN 23

BRIJIDA SANTUA, moja

Otoitza.—Brijida doatsuari, zure Semearen Nekaldia ausnartzen eban artean, zeruko ezku-tuak agertu zeutsazan gure Jainko Jauna: eiguzu, beti zeure aintza-agertzean poztu gaitetzala.

GARILLAREN 26

JOAKIN ETA ANA SANTUAK,
Andra Maria'ren gurasoak
Gomutapena

Otoitza.—Gure gurasoen Jainko Jauna: Zuk Joakin eta Ana santuai lur onetara Zeure Semearen ama ekarteko grazia emon zeutsen; eiguzu, santuon erreguen bidez, zure erriari agintzariz eskiñi dautsazun salbamina izan dagigula.

Salmu-atala

B. Jainko Jaunak aren aita dan Dabid'en errege-aulkia emongo dautso.
Jaunak Dabid'i zin au egin dautso, ausiko ez dauan agintzari au:
«Zeure jatorriko bat ipifiko dot zure errege-aulkian».
Jaunak Sion aukeratu dau-ta, bertan bizi gura izan dau:
«Auxe da nire bizitokia betiko, ementxe bizi izango naz, auxe gura dot-eta».
«Dabid'en indarra ernerazoko dot, nire Igurtzitakoarentzat argi-ontzi bat iziotzen Lotsaz jantziko dodaz aren arerioak, [dot. dizdiz egingo dau koroiak aren gainean».

Opari-otoitza. — Orain dakartzuguzan opari-gaiok onartu dagizuzala eskatzen dautsugu, Jauna: Abraham'i ta onen ondorengoai agintzariz eskiñi zeutsen bedeinkapenean erdikide egin gagizuzan.

Azken-otoitza.—Zure Seme bakarra gizonakandik jaiotea nai izan dozun, Jauna, gizakumeak, era miragarritz, Zugandik jaiotza barria izan egien; eiguzu, zure errukiz, semeen ogiaz janarituak izan garan guztiok, semetzako espirituaz santutuak be izan gaitetzala.

GARILLAREN 29

MARTA SANTUA
Gomutapena

Otoitza.—Zure semeak, Jaungoiko guztiaaldun ori, Marta doatsuaren abegi ona onarturik, beronen etxea izan eban ostatutzat; eiguzu, emakume doatsu onen bitartez, gure anai-arrebakan Kristo'ren serbitzari zintzo izan eta, saritzat, zeruko zeure etxean onartuak izan gaitetzala.

Opari-otoitza.—Marta doatsuagan burutu dozuzan miragarriak iragarrean, apalik eskatzen dautsugu, Jauna: aren ardura maitatsua atsegiñez onartu zenduanez, gure serbitzaritzaren omenaldia be era berean onartu dagizula.

Azken-otoitza. — Apalik eskatzen dautsugu, Jauna: zure Semearen Gorputz-Odoletan eskuartzeak gauza galkorretatik urrundu gagiczala: Marta doatsuaren eredu, lurrean benetako goimaita-

sunez otseindu zagiguzan eta zeruan beti Zeu ikusiaz poztu gaitzan.

GARILLAREN 30

PEDRO KRISOLOGO SANTUA,
gotzain eta Eliz-irakasle

Otoitza.—Pedro Krisologo zure gotzain santua gizon egindako Itza (*Jesukristo*) iragarten entzutetsu egin zenduan Jainko Jauna: eiguzu, aren bitartez, salbamen-misterioak geure biotzetan gorde ta ausnartu eta egiteetan zintzoro bizi dagiguzala.

AGORRILLA

AGORRILLAREN 1

LIGORIO'TAR ALPONTSO MARI SANTUA,
gotzain eta Eliz-irakaslea
Gomutapena

Otoitza. — Zure Elizan santutasun-eredu barriak etenbagarik sortzen dozuzan Jaungoikoa: emoiguzu apostolu-arazoan Alpontso Mari zure gotzain santuaren antzekoak izateko grazia, zeruan aren saria bera artu aal dagigun.

Opari-otoitza.—Kiskaldu egizuz gure biotzak, Jauna, Espiritu Santuaren sutan: Alpontso Mari santuak be misteriook su orretan eskintzen eban eta, gorapen-opari lez, bere burua eskintzen eban-eta.

Azken-otoitza.—Alpontso Mari santua misterio onein iragarle ta serbitzari zintzo egin zenduan Jainko Jauna: emoiguzu, aren bitartez, misterio santuok sarritan ospatzeko grazia, baita, eurok artuaz, beti Zeu goratzekoa be.

AGORRILLAREN 2

VERCELLI'KO EUSEBIO SANTUA, gotzaina

Otoitza.—Eusebio zure gotzain santuak zure Semearen jaungoikotasunean eban fedea iragarrean agertzen eban sandotasunari jarraitu dagigula, Jauna; eta egizu, arek maisu-antzera irakasten eban fede berean guk iraunik, egunen baten Kristo'ren jaungoikozko bizitzan eskuartzea merzi dagigula.

AGORRILLAREN 4

VIANNEY'TAR YON MARI SANTUA, abadea
Gomutapena

Otoitza.—Vianney'tar Yon Mari santua ari-mazale sutsu izaten miragarria egin zenduan Jaungoiko guztiaaldun eta errukiorra: eiguzu, aren bitartez eta eredu, gure anai-arrebak Kristo'rentzat irabazi eta, arekaz batera, betiko bizitzako sariak lortu dagiguzala.

AGORRILLAREN 5

ANDRA MARIA'REN BASILIKA-ESKINTZA

Otoitza.—Parkatu egizuz, Jauna, zure seme-alabon pekatuak; eta, gure egintzetan atsegiñik

ezin artu daitezun ezker, emoiguzu salbamena zure Semearen Amaren bitartez.

AGORRILLAREN 6

JAUNAREN IRUDI-ALDATZEA
J a i a

Otoitza.—Fedeko misterioak zure Seme bakarraren Irudi-aldatze goragarrian profeten autorpenaz indartu dozuzan Jaungoikoa, eta zure umen semekuntza jatorra arrigarriri adierazo dauskuzuna: eiguzu, arren, zeure Seme kutunaren itzari beti jaramon egiñik, egunen baten Aren aintza-
ren oiñorde-lagun izan gaitzala.

Salmu-atala

B. Jauna errege da goi-goian
lur guztiaren gainean.

Jauna da errege, lurra pozetan,
ugarte guztiak pozez beterik.

Illunak eta Odeiak inguratzen dabe,
Zuzentasunak eta Bidezko danak
eusten dautsoe Aren errege-aulkiari.

Mendiak argizaria lez urtzen dira
lur guztiaren jabearen aurrean.

Zeruak Aren zuzentasuna iragarten dau,
eta erri guztiak ikusten dabe Aren aintza.

Zu, Jauna, erri guztien gainean
gorengoa zara-ta,
jainko guztien gainetik zagozana.

Opari-otoitza.—Santutu egizuz, Jauna, gure oparigaiok zure Seme bakarraren Irudi-aldatze goragarriagaitik, eta, Aren argiaren ditziraz, garbitu gagizuz gure pekatuen orbanetatik.

Kanon-aurrea

... betiko orri.

Kristo gure Jaunak bere aintza testigu maite batzui agertu eta zearo geure antzeko zan bere gorputzean bere jaungoikotasun-diztira ezaguera-
zo eutsen.

Onela, Nekaldia urr egoala, sendotu egin eban apostoluen fedea, Gurutzeko gaizpidea ondo erogan egien, baita Elizearen itxaropena bizkortu be, bere nagusitzat autortzen dauan gorputz guztian egunen baten dizdiz egingo dauan argitasunak bere buruan agertzean.

Orregaitik...

Azken-otoitza.—Orain artu doguzan zeru-janariak, Jauna, zure Semearen Irudi-aldatzean Aren aintza agertu dauskuen ezker, Aren irudiko biurtu gagezala.

AGORRILLAREN 7

II^o GARREN SIXTO, Aita Santua,
eta beronen lagun santuak, martiriak

Otoitza.—Sixto Aita santuari ta beronen lagun martiriai zeure itzagaitik eta Jesus autortzea-

gaitik ilteko grazia emon dautsezun Jaungoiko guztiaalduna: eiguzu, Espiritu Santuak fedearen esaneko egin gagezala, baita fede ori gizonen aurrean autortzeko indartsu be.

KAIETANO SANTUA, abadea

Otoitza.—Kaietano santuari apostoluen bizi-kerearen antzera bizi izateko grazia emon zeutsan Jainko Jauna: eiguzu, aren bitartez eta eredu, gure uste ona Zeugan jarri eta beti zeruetako Erreina billatu dagigula.

AGORRILLAREN 8

DOMINGO SANTUA, abadea

Otoitza.—Apalik eskatzen dautsugu, Jauna: zure itza iragarten entzutetsua izan zan Domingo santuak, lagun egin dagiola zure Elizeari bere irakatsi ta irabazien bidez, baita bitarteko be izan dagigula bera biotz onez.

Opari-otoitza.—Onartu egizuz, Jauna, Domingo santuaren bitartez, guk egiten dautsuguzan eskariok; eta, opari onen eragigaitik, sendotu egizuz fedearen zaintzailleak zure graziaren laguntzaz.

Azken-otoitza.—Domingo santuaren egunean sakramentu onen bidez janaritu gaituzun ezker, Jauna, beronen eragin salbatzaillea oso-osorik artu dagiala zure Elizeak; eta, bere fede-iragartearen bidez, Elizearen aintza izan zana, orain beronen zaintzaille izan daitela zerutik.

AGORRILLAREN 10

LORENTZO SANTUA, laguntzaille ta martiria
J a i a

Otoitza.—Gure Jainko Jauna: zure maitasunean iziotuta, Lorentzo santuak zure serbitzari-tzan zintzo iraun eta odol-isurtean aintza lortu eban; eiguzu, aren bitartez, berak maite izan ebana maite eta berak irakatsi ebana benetan bete dagigula.

Salmu-atala

B. Zorionsua, errukitu ta emon egiten

[dauana.

Zorionsu Jaunaren bildur dana,
eta Aren aginduak biotzez maite dauzana!
Aaltsua izango da lurrean aren jatorrikoa,
zintzoaren ondorengoak bedeinkatuak izango dira.

Zorionsua, errukitu ta emon egiten dauana,
eta bere arazoak artez eroaten dauzana!
Zintzoa ez da iñoiz be alboraka ibilliko,
aren gomutapenak beti iraungo dau.

Barri txarra ez dautse bildurrik izango,
aren biotza sendo dago Jaunagan.

Nasai dauko biotza, bildur bagarik,
bere arerioak ondatuta ikusi arte.

Beartsuai limosnea egiten dautse,

aren goimatasuna beti bat, iraunkor,
eta ospez jasoten dau aurpegia.

Opari-otoitza.—Onartu egizuz, Jauna, Loren-
tzo zure laguntzaille santuaren egunean pozik da-
kartsuguzan doaiok; eta salbamen-agiri izan daki-
guzala.

Azken-otoitza.—Doai santuz janarituta, apa-
lik eskatzen dautsugu, Jauna: zure erriaren serbi-
tzarritza apal dan opari onek, salbamen-frutuak
geitu dagizala gugan.

AGORRILLAREN 11

KLARA SANTUA, birjiña
Gomutapena

Otoitza.—Klara doatsuari Ebanjelioko txiro-
tasunerako maitasun sakona isuri zeutsan Jaun-
goikoa: eiguzu, aren bitartez, Kristo'ri espiritu-
txirotasunean jarraiturik, zure erreñuan Zeu ikus-
tea merezi dagigula.

AGORRILLAREN 13

PONTZIANO, Aita Santua, eta
IPOLITO SANTUA, abadea, martiriak

Otoitza.—Apalik eskatzen dautsugu, Jauna:
zure santuen odol-isurteak, Zeu maite izateko go-
goa geitu eta biotzetan fedea sendotu daiskula.

AGORRILLAREN 16

UNGRIA'KO ESTEBAN SANTUA

Otoitza.—Apalik eskatzen dautsugu, Jaungoi-
ko guztialdun orri: Ungria'ko Esteban santuak,
errege izan zanean, Elizea zabaltzen jardun eba-
nez, orain be Elizeak bitarteko goragarri izan da-
giala zeruan.

AGORRILLAREN 19

YON EUDES SANTUA, abadea

Otoitza.—Munduari Kristo'ren misterioaren
aberastasun sakonak iragarteko, Yon Eudes san-
tua aukeratu zenduan Jaungoikoa: eiguzu, aren
berbaz eta ereduz, zure egia geroago ta geiago eza-
gutuz dagigula eta Ebanjelioren eratara bizi gai-
tezala.

AGORRILLAREN 20

BERNARDO SANTUA, abata eta Eliz-irakaslea
Gomutapena

Otoitza.—Gure Jainko Jauna: zure etxearen
ardureagaitik iziotuta egoan Bernardo abata san-
tua, zure Elizearen erdian argi-ontzi gartsu ta ar-
gitsu egin zenduan; eiguzu, aren bitartez, aren espi-
ritu adoretuan eskuartu dagigula eta beti argia-
ren seme lez ibilli gaitezala.

Opari-otoitza.—Bernardo abata santuaren go-
mutapenez, batasun eta bake-misterio au eskin-
tzen dautsugu, Jauna: bere berbaz eta egiñez diz-
diz egiñik, zure Elizearen alkartasun eta era ona-
ren alde adoretu ekin eutsan-eta.

Azken-otoitza.—Orain artu dogun sakramen-
tuak bere frutua eragin daiskula, Jauna; eta, Ber-
nardo santuaren irakatsiaz argituta eta aren ikas-
bidez bizkortuta, Jesukristo gure Jaun eta zure
Seme bakarraren maitasunak eroan gagingala. Zu-
gaz eta...

AGORRILLAREN 21

X'GARREN PIO, Aita Santua

Otoitza.—Katoliku-fedea zaintzeko ta gauza
guztiak Kristo'gan barrizteko, Aita Santu amar-
garrena zeru-jakituriak eta apostolu-endarrez bete
zenduan gure Jainko Jauna: eiguzu, aren ikasbi-
deari ta irakaspeneri jarraiturik, betiko saria jadetsi
aal dagigula.

Opari-otoitza.—Onartu egizuz, Jauna, gure
oparigaiok eta eiguzu, Aita santu Pio amargarren-
aren irakatsiai esana egiñik, misterio santuok be-
girunez ospatu eta fedez artu dagiguzala.

Azken-otoitza.—Aita santu Pio amargarren
eguna ospatzean, apalik eskatzen dautsugu, gure
Jainko Jauna: eukaristi onen eragiñaz, fedean in-
dartsu izan gaitezala eta maitasunean batasuna bi-
zi dagigula.

AGORRILLAREN 22

ANDRA MARI ERREGIÑA
Gomutapena

Otoitza.—Amatzat eta Erregiñatzat zeure Se-
me bakarraren Ama emon dauskuzun Jaungoiko
guztiaalduna: eiguzu, aren bitartekotasunaz ba-
bestuta, zeruetako Erreñuan zeure semeen aintza
jadetsi dagigula.

Opari-otoitza.—Gure oparigaiok Birjiña Ma-
ria'ren gomutapenez dakartsuguz, Jauna; eta Je-
sukristo zure Semearen laguntza eskatzen dautsu-
gu, bere burua gurutzean opari garbi lez eskifii
eutsun-eta.

Kanon-aurrea: ikusi 37 orri.

Azken-otoitza.—Zeru-sakramentu au artuta
gero, apalik eskatzen dautsugu, Jauna: Maria Bir-
jiña guztiz doatsuaren gomutapena ospatu dogun
guztiok, zeruko janaldian be eskuartu dagigula.

AGORRILLAREN 23

LIMA'KO ERROSA SANTUA, birjiña

Otoitza.—Gure Jainko Jauna: Lima'ko Erro-
sa doatsuak, zeure maitasunean iziotuta eta gizar-
tetik alde egiñik, damu-nekean bere burua Zeuri
eskintzea nai izan zenduan; eiguzu aren bitartez,
lurrean egiazko bizitzaren bideari jarraiturik, ze-
ruan betiko atsegin ugarietara eldu gaitezala.

AGORRILLAREN 24

BARTOLOME SANTUA, apostolua
Jaia

Otoitza.—Sendotu gaginguz, Jauna, Bartolo-

me zure apostolu santuak bere burua benetan Kris-
to'ri eskiñi eutsan fedez; eta egizu, aren erre-
guen bidez, zure Elizea munduaren aurrean an-
dra-gizon guztientzako salbamen-sakramentu lez
aurkeztu daitela.

Salmu-atala

B. Iragarri begie, Jauna, zure adiskideak
zeure erregetzaren aintza.

Emon dagitzuezala eskerrak, Jauna, zure izaki
bedeinkatu zagiezala zure zintzoak; [guztiak;
iragarri dagiela zure erregetzaren aintza,
esan dagiezala zure arrigarriak.

Gizonai zure arrigarriak
eta zure erregetzaren aintza ta andi-izatea
[azalduz.

Zure erregetza beti-betiko erregetza da,
zure agintaritzak gizaldiz-gizaldi irauten dau.

Jauna zuzena da bere bide guztietan,
biotz-onekoa da bere egitada guztietan;
dei egiten dautsoenakandik ur dago Jauna,
benetan dei egiten dautsoenakandik.

Opari-otoitza.—Bartolome apostolu santua-
ren eguna ospatzean, apalik eskatzen dautsugu,
Jauna: aren bitartez, zeure jaungoikozko lagun-
tzak artu dagiguzala, gorapenezko opari au aren
omenez eskintzen dautsugu-ta.

Kanon-aurrean: ikusi 47 orri.

Azken-otoitza.—Bartolome zure apostolu san-
tuaren egunean betiko salbamen-agiria artu dogu,
Jauna; eta egizu, bizitza onetan laguntza eta gero-
ko bizitzaren agiria izan dakigula.

AGORRILLAREN 25

LUIS SANTUA

Otoitza.—Luis santua lurreko aginpide-ardu-
retatik zeure aintzaren erreñura aldatu dozun
Jaungoikoa: eiguzu, aren bitartez, oraingo ara-
zoen artean batez be zeure erreñua billatu dagi-
gula.

KALASANZ'TAR JOSE SANTUA, abadea

Otoitza.—Umeai gizabidea ta kristau-azibidea
emoten etenbagarik jarduteko, Kalasanz'tar Jose
santua goimaitasunaz eta eroapenez aberastu do-
zun gure Jainko Jauna: eiguzu, arren, leen egia-
ren serbitzari izana ta gaur jakituri-irakasletzat
autortzen doguna, eredutzat artu dagigula.

AGORRILLAREN 27

MONIKA SANTUA

Gomutapena

Otoitza.—Atsekabetuen pozkille zaran Jaun-
goikoa, eta Monika doatsuaren negar-malkoak be-
re seme Agustin'en onbideratzean errukitsu artu
zenduzana; emoiguzu, amaren eta semearen bitar-

tez, gure pekatuakaitik negar egin eta zeure erru-
kia ta parkamena jaristeko grazia.

AGORRILLAREN 28

AGUSTIN SANTUA, gotzain eta Eliz-irakaslea
Gomutapena

Otoitza.—Barriztu egizuz zure Elizan, Jauna,
Agustin zure gotzain santuari isuri zeutsan espiri-
tua: espiritu berberaz jabetuta, jakituri-iturri za-
ran orren egarri izan gaitzean eta benetako maita-
sun bakar lez billatu zagiguzan.

Opari-otoitza.—Geure salbamen-gomutagarria
ospatzean, apalik eskatzen dautsugu gure Jaungoi-
ko orri: maitasun-sakramentu au batasun-ezauga-
rri ta goimaitasun-lokarri izan dakigula.

Azken-otoitza.—Zure Semearen maian esku-
artzeak santutu gagizala, Jauna: Aren Gorputz-
atal lez, guk artzen dogun Kristo bera biurtu gai-
tezan.

AGORRILLAREN 29

YON BATEATZAILLE SANTUAREN ODOL-ISURTEA
Gomutapena

Otoitza.—Yon Bateatzaille santua zeure Se-
mearen jaiotzaren eta eriotzaren Aurrelari izatea
nai izan dozun gure Jainko Jauna: eiguzu, aren
bitartez, a egiaren eta zuzentasunaren martiri il
zanez, geuk be geure fedea autortzen adoretu egin
dagigula burrukan.

Salmu-atala

B. Nire agoak zeure salbamena abestuko dau.

Zeugana joten dot, Jauna:
ez nadilla betiko zapalduta geratu;
zuzena zaran ezkerro, askatu ta onik atara nagizu,
makurtu nigana zure belarria, eta onik atara
Izan zakidaz Zeu igesleku-arkaitz, [nagizu.
ni gordeteko gaztelua,
nire aitz eta gaztelu Zeu zara-ta.
Askatu nagizu, nire Jainko orrek, esku gaiztotik.
Nire itzaropena Zeu izan zintzazan-eta, ene

[Jainko,

baita nire uste ona be, Jauna, nire gaztarotik.
Amaren sabelean ezkerro, Zeu zendudazan
sabelean Zeuk eusten zeustan. [eusgarri;
Nire agoak zeure laguntza iragarriko dau,
eta zeure salbabidea egun guztian.
Gaztetarik emon zeustan irakatsia, ene Jauna,
eta gaur arte iragarten dodaz zure miragarriak.

Opari-otoitza.—Ona dakartzuguzan oparion
bidez, eiguzu, Jauna: zure bideai artez jarraitu da-
giegula, basamortuan deadarka ziarduan berbotsa
zan Yon Bateatzaille santuak berbaz erakutsi ta
bere odolaz autortu euskunez.

Kanon-aurrea: ikusi 52 orri.

Azken-otoitza.—Eiguzu, Jauna: Yon Bateatzaillle santuaren odol-isurtea ospatzean, artu doguzan sakramentuok ulertu ta ospatu daiguzala eta euron frutu ugaria zomatu dagigula gudan.

IRAILLA

IRAILLAREN 3

GREGORIA AUNDIA, Aita Santu ta Eliz-irakaslea
Gomutapena

Otoitza.—Zure erria errukiaz zaindu eta maitasunaz zuzentzen dozun Jaungoikoa: Gregorio Aita santuaren bitartez, emon egiezu jakituridoaia zure Elizea zuzentzeko eginkizuna emon dautsezunai, eliztarren obekuntza euren ardura-dunen betiko atsegiña izan daiten.

Opari-otoitza.—Lagun zakiguz zure graziaz, Jauna, Gregorio santuaren eguna ospatzean, eskintza au on izan dakigun: eskintza au egiñaz, munduaren pekatu guztiak parkatzen dira-ta.

Azken-otoitza.—Benetako Bizi-ogi ta gizonen irakasle bakarra dan Kristo'ren bidez indartuak izan garan guztiok, Gregorio santuaren egun onetan, zeure egia ezagutzen eta maitasunaz bizi izaten ikasi dagigula.

IRAILLAREN 8

ANDRA MARIA'REN JAIOTEGUNA
Jaia

Otoitza.—Emon eiguzu zure semeoi, Jauna zeure graziaren doaia: Maria Birjiñaren Amatasunaren bidez asikiñak artu doguzan guztiok, beronen jaiotegunean bake geiago lortu dagigun.

Salmu-atala

B. Pozik gaiñezka nago Jaunagaz.
Nik zeure errukian dot ustea:
poztu egidazu biotza zure laguntzaz.
Eta Jaunari abestuko dautsat
egin daustan onagaitik!

Opari-otoitza.—Gugaitik gizon egin zan zure Semearen maitasuna ta grazia izan daitezala gure laguntza, Jauna; eta, Birjiñagandik jaiotean, bere Amaren garbitasuna galdu bagarik santutu egin eban Arek, gure pekatuak garbiturik, gure eskintza Zuri gogoko egin dagitzula.

Kanon-aurrea: ikusi 37 orri.

Azken-otoitza.—Poztu daitela, Jauna, zure Elizea sakramentuon bidez indartuta, baita alaitu be Maria Birjiñaren jaiotzan: Maria munduarentzat salbamen-itxaropen eta egunsenti izan zan-eta.

IRAILLAREN 13

YON KRISOSTOMO SANTUA,
gotzain eta Eliz-irakaslea
Gomutapena

Otoitza.—Zeugan itxaroten dabenen indarra zaran Jaungoikoa: zure Elizan Yon Krisostomo santuari beronen itz-etorri arrigarri ta buru-ukatzte andiagaitik dizdiz eragin dautsazu; eiguzu, aren irakatsiz argiturik, aren eroapen baliotsuaren ikasbideak indarrez bete gagizala.

Opari-otoitza.—Onartu egizu atsegiñez, Jauna, Yon Krisostomo santuaren egunean pozik eskintzen dautsugun opari au: santuaren irakatsiak gure buruak Zeuri emotera eta biotz-biotzez Zeu goratzera egiten daskue bultza-ta.

Azken-otoitza.—Eiguzu, Jaun errukitsu orrek: Yon Krisostomo santuaren egunean artutako sakramentu oneik, zeure maitasunean sendotu eta zeure egiaren testigu zintzo biurtu gagiezala.

IRAILLAREN 14

GURUTZE SANTUAREN GORAPENA

Otoitza.—Gizaki guztien salbamena Gurutzean ildako zeure Semearen bitartez burutu nai izan dozun gure Jainko Jauna: eiguzu, arren, lurrean misterio au ezagutu dogunok, zeruan erospensariak lortu dagiguzala.

Salmu-atala

B. Ez aaztu Jaunaren ekintzak.
Entzun, nire erri orrek, nire irakaspena,
makurtu belarria nire agoko berbetara:
esakera zaarrai ekingo dautse nire agoak-eta,
antxiñako ezkutua agertu daitezana.
Eta il-zorian eukazanean, Aren billa asten ziran,
eta Jainkoagana biurtzeko arduratzen ziran;
Jainkoa euren aitz zala ekarri eben gogora,
Jainko Gorengoa, euren askatzailllea.
Agoz berba labanak esaten eutsoezan,
baiña arein miñiak guzorra esaten eben:
arein biotzak ez eben Areganako zintzotasunik,
ezta Aren alkartasuna sinisten be.
Arek, ostera, arei erruki izanik,
eta errua parkatuta, ez ebazan ondatzen:
takean-takean atzeratu eban bere asarrea,
eta ez eban bere sumin guztia biztuten.

Opari-otoitza.—Opari onek erru guztitik garbitu gagizala, Jauna: Gurutzeko altaran eskiñiaz, opari berberonek kendu eban munduaren pekatua-ta.

Kanon-aurrea

... betiko orri.

Gizadiaren salbamena Gurutzeko zugatzean ezarri dozu, eriotza sortu zan tokian bizitza be sortu zedin; eta zugatzean garaille urten zan eri-

otza, zugatzean azpiratua izan zedin.

Orregaitik...

Azken-otoitza.—Eukaristi onen bidez indartuta, apalik eskatzen dautsugu, Jesukristo Jauna: Gurutzeko egur salbatzaillean erosi dozuzanok, biztuera goragarrira eroan dagizuzala. Aitagaz eta...

IRAILLAREN 15

NAIGABEETAKO ANDRA MARI
Gomutapena

Otoitza.—Zure Semearen oiñazetan Gurutzetandoan Amak parte-artzea nai izan zenduan Jauna: egizu, Elizeak, Kristo'ren Nekaldian Maria'gaz eskuarturik, Kristo'ren biztueran parte-artzea merezi dagiala.

Salmu-atala

B. Onik atara nagizu, Jauna,
zure errukiagaitik.

Zeugana egiten dot iges, Jauna:
ez nadilla iñoiz be lotsatuta geratu;
zuzena zara-ta, onik atara nagizu,
biurtu nigana zure belarria.

Zatoz arin ni askatzera,
izan zakidaz aterpe-arkaitz,
ni onik atara nagian gaztelua,
nire arkaitz eta gaztelu Zeu zara-ta;
zure izenagaitik, zuzendu ta eroan nagizu:
Atara nagizu zabaldu dausten saretik,
nire gordelekua Zeu zara-ta.
Zeure eskuetan izten dot nire espirituia:
Zeuk askatuko nozu, Jainko zintzo orrek.
Nik, barriz, Zeugan dot ustea, Jauna;
«Zeu zara nire Jainko!», dirautsut.
Zeure eskuetan dago nire zoria:
askatu nagizu aurrean narabillen arerioakandik.
Zure zintzoentzat gordeta daukazun ontasuna,
bai dala aundia, Jauna!,
guztien aurrean
Zeugana joten dabena emoten dautsezuna!

Opari-otoitza.—O n a r t u egizuz, Jaungoiko errukitsu orrek, Maria Birjiñaren egun onetan zeure izenaren omenez eskintzen doguzan doai ta otoitзок: Jesukristo gure Jauna ta zure Semea Gurutze-ondoan egoala, Maria ama maitetsutzat emon zeuskun-eta. Zugaz eta...

Kanon-aurrea: ikusi 37 orri.

Azken-otoitza. — Betiko erospen-sakramentua artuta gero, apalik eskatzen dautsugu, Jauna: Maria Birjiñaren oiñazeak gogora ekartean, osotu dagigula gudan, Elizearen alde, Jesukristo'ren Nekaldiari falta yakona. Zugaz eta...

IRAILLAREN 16

KORNELIO, Aita Santua, eta
ZIPRIANO SANTUA, gotzaiña, martiriak
Gomutapena

Otoitza.—Zipriano ta Kornelio santuak, arduradun nekezale ta martiri adoretzu lez, zeure erriaren buru jarri dozuzan Jaungoikoa: emoigu, arein bitartez, gogo ta fede-sendotasuna, zure Elizearen batasunaren alde ekiteko.

Opari-otoitza. — Onartu egizu, Jauna, zure erriaren eskintza au zure santuen odol-isurtea ospatzean; eta Kornelio ta Zipriano martiriai azteraldian sendotasuna emon eutseen doai oneik, geuk be indartsu egin gagiezala zoritxar guztien aurrean.

Azken-otoitza.—Orain artu dogun sakramentu onen bidez, eiguzu, Jauna: Zipriano ta Kornelio santuen eredu eta espiritu-sendotasunez beterik, Ebanjelioko egiaren autorpen zintzoa emon dagigula.

IRAILLAREN 17

ERROBERTO BELARMINO SANTUA,
gotzain eta Eliz-irakaslea

Otoitza.—Zure Elizearen fedearen alde egiteko, Erroberto Belarmino santuari santutasuna ta jakituri arrigarria emon zeutsazan Jauna: egizu, aren bitartez, zure erria benetako fedea oso-osorik autortzen daualako, poz-pozik bizi daitela.

IRAILLAREN 19

JENARO SANTUA, gotzain eta martiria

Otoitza.—Jenaro martiri santuaren gomutapena ospatzeko mesedea egiten dauskuzun ezkerro, Jauna, emoiguzu zeruan aregaz batera poztu gaitetzala.

IRAILLAREN 21

MATEO SANTUA, apostolu ta ebanjelaria
Jaia

Otoitza.—Zure erruki azkenbageaz, zerga-batzaille izatetik zeure Semearen apostolu biurtzeko, Mateo santua aukeratu dozun Jaungoikoa: eiguzu, aren ikasbidez sendotuta eta aren bitartez, beti Zeuri jarraitu dagitzugula eta Zudan zintzoro bat eginda iraun dagigula.

Salmu-atala

B. Aren iragarteak lur guztia artzen dau.
Zeruak Jainkoaren aintza iragarten dau,
izartegiak Aren eskuak egindakoa azaltzen dau:
egunak egunari iragarten dautso mandatua,
eta gauak gauari emoten dautso albistea.
Berba egin bagarik, itzik esan bagarik,
Aren berbotsak durundirik egin bagarik,
Aren iragarteak lur guztia artzen dau,
eta Aren izkereak lurbiraren mugetaragiño.

Opari-otoitza.—Mateo santuaren gomutapena ospatzean, geure otoitza ta eskintza dakartzuguz, Jauna; eta zure Elizea maitasunez zaindu dagizula eskatzen dautsugu, aren fedea apostoluen iragarpenaz janaritu zenduan-eta.

Azken-otoitza.—Mateo apostolu santuak, bazkaltzera dei eginda, Salbatzaillea bera bere etxean eukitean izan eban poz osasungarrian eskuartu dogu, Jauna; eiguzu, ba, beti Kristo'ren Gorputz-Odolaz janaritu gaitezala: zintzoak salbatzera etorri bagarik, pekatariak salbatzera etorri zan-eta.

IRAILLAREN 26

KOSME TA DAMIAN SANTUAK, martiriak

Otoitza.—Kosme ta Damian zure martiri santuen gomutapena ospatzean, zeure andi-izatea autortzen dogu, Jauna: arei zeruko saria emon eta gu zeure ardura arrigarriaz gordeten gaituzu-ta.

Opari-otoitza.—Zure santuen eriotza baliotsua ospatzean, Jauna, odol-isurte guztien oiñarri ta eredu dan Gurutzeko oparia bera eskintzen dautsugu.

Azken-otoitza.—Iraunerazo egizu guban, Jauna, zure grazia; eta Kosme ta Damian zure martirien egunean Zeugandik artu dogun doaia, salbamen eta bake-agiri izan dakigula.

IRAILLAREN 27

BIZENTE PAUL SANTUA, abadea
Gomutapena

Otoitza.—Bizente Paul zure abade santua, beartsuen serbitzaritzan eta abadetzarako azibidean jarduteko, apostolu-indarrez ornidu zenduan gure Jainko Jauna: eiguzu, aren espirituaz beraz bultzatuta, berak maite izan ebana maite eta aren irakatsiak burutu dagiguzala.

Opari-otoitza.—Bizente Paul'i, misterio santu oneitan ospatzen ebana bere bizitzan burutzeko grazia emon zeutsan Jauna: eiguzu, opari onen eragiñaz zeure gogoko oparigai biurtu gaitezala.

Azken-otoitza.—Zeruko sakramentuen bidez janaritu gaituzun ezkerro, eiguzu, Jauna: Bizente Paul eredu dogula eta aren laguntzaz, Jesukristo zure Semearen antzeko izan gaitezala, beartsuai Barri Ona iragarririk.

IRAILLAREN 28

BENTZESLAO SANTUA, martiria

Otoitza.—Bentzeslao zure martiri santuari, lur onetako erreñua baiño zeruetakoa naiago izaten argi egin dautsazun gure Jainko Jauna: eiguzu, aren erreguen bidez, Zuri biotz-biotzez jarraitzeko, gure buruai uko egin dagiegula.

IRAILLAREN 29

MIKEL, GABIREL eta ERRAPAEL
GOIINGERU SANTUAK
Jaia

Otoitza.—Aingeruen eta gizonen eginkizunak jakituri miragarriak banatzen dozuzan Jaungoikoa: eiguzu, zeruan etenbagarik zeure serbitzaritzan diarduenak, lurrean gure bizitza beti zaindu dagiela.

Salmu-atala

B. Aingeruen aurrean joko dodaz eresiak zuretzat, Jauna.

Biotz-biotzez emoten dautsudaz eskerrak, Jauna; aingeruen aurrean joko dodaz eresiak Zuretzat, zeure jauretzerantz auspaztuko naz.

Eskerrak emongo dautsudaz zure izenari: zure erruki ta zintzotasunagaitik, zure agintzaria zure izen ona baiño gorago dago-Dei egin neutsunean, entzun egin zeustan, [ta; geitu egin zenduan adorea nire ariman.

Lurreko errege guztiak eskerrak emon dagitzuezala, Jauna, zure agoko berbak entzutean; ospatu begiez Jaunaren bideak, Jaunaren aintza aundia da-ta.

Opari-otoitza.—Gorapenezko opari au eskintzen dautsugu, Jauna; eta, zure aingeruen bitartez, biotz onez artu dagizula eta geure salbamenerako izan dakigula eskatzen dautsugu apal-apalik.

Kanon-aurrea

... betiko orri.

Eta, zeure atsegin diran aingeru ta goiangeruak sortu dozuzalako, Zeu goratzea.

Guk emoten dautsegun omenak zeure aintza agertzen dau, eta areik merezi daben ospea zeure izaki guztien gaiñetik dozun negurribagetasun eta bikaintasunaren ezaugarri da.

Orregaitik...

Azken-otoitza.—Indartu gagizala, Jauna, janaritzat emon dauskuzun zeruko ogiak: zure aingeruak zintzoro zainduta, salbamen-bidean sendo ibilli gaitezana.

IRAILLAREN 30

JERONIMO SANTUA, abadea ta Eliz-irakaslea
Gomutapena

Otoitza.—Jeronimo santuari Biblia santua maitatzeko edore samur eta bizia emon zeutsan Jaungoikoa: egizu, zure erriak, zure itzaz ugaria-go janarituta, benetako biziaren iturria aurkitu dagiala itz orretan.

Opari-otoitza.—Eiguzu, Jauna: Jeronimo santuaren eredu, zure itza biotz onez onartuta gero, salbamen-oparian biotz-gartsuagoz eskintzeko gertatu gaitezala.

Azken-otoitza.—Jeronimo santua gogora pozik ekartean ospatu dogun eukaristi onek, Jauna, eragin dagiola zure zintzoen biotzari: jaungoiko-zko itzari adi-adi egonda, jarraitu bear dautsoen bidea ezagutu dagien eta, bide orri jarraiturik, betiko bizitzara eldu daitezana.

URRILLA

URRILLAREN 1

JESUS UMEAREN TERESA SANTUA, birjiña
Gomutapena

Otoitza.—Zure Erreñua apalenzat eta tolesbageentzat atondu dozun Jaungoikoa; emoiguzu Jesus Umearen Teresa doatsuaren bideari uste onez jarraitzeko grazia: aren bitartez, zeure betiko aintza agertu dakigun.

Opari-otoitza.—Jesus Umearen Teresa doatsuagan burutu dozuzan miragarriak autortzean, apalik eskatzen dautsugu, Jauna: aren bizitza gogoko izan yatzunez, egintza santu onen omenaldia be atsegiñez onartu dagizula.

Azken-otoitza.—Artu dogun sakramentu onek maitasun sutsua iziotu daiskula, Jauna; maitasun onen bidez eskiñi eustun bere burua Jesus Umearen Teresa doatsuak, baita zure errukiari andragizon guztientzako parkamena eskatu be.

URRILLAREN 2

AINGERU ZAINDARI SANTUAK
Gomutapena

Otoitza.—Zure arduratasun maitatsuaz, gu zaintzeko, zeure aingeru santuak bialdu dauskuzuzan Jaungoikoa: eiguzu, gure eskariai adi-adi egonda, aren magalpean beti gordeta egon eta aren ondoan zoriontsu izan gaitezala betiko.

Salmu-atala

B. Zure bideetan zaindu zagiezala
agindu dautse bere aingeruai.

Gorengoaren aterpean zagozan orrek,
guztiz Aaltsuaren gerizpean izi zaran orrek,
esaiozu Jaunari: «Nire gordeleku, nire gaztelu,
nire Jainko, Zeugan itxaroten dot».

Berak atarako zaitu eiztariaren saretik,
izurri txarretik.

Bere lumakaz estalduko zaitu,
Aren egoean gordeko zara,
Aren besoa babeskin eta guda-jantzia da.

Ez zaitu ikaratuko gabeko bildurrak,
ezta egunez egaz doan geziak be,
ezta illunpetan ziri-ziri doan izurriak be,
ezta eguerdiko geiso galgarriak be.

Ez yatzu zoritxarrik urreratuko,
ezta gatzik zure txabolaragiño elduko be:
zure bideetan zaindu zagiezala
agindu dautse bere aingeruai-ta.

Opari-otoitza.—Onartu egizuz, Jauna, zeure aingeru santuen omenez dakartzuguzan oparigaiok; eta eiguzu, arein laguntza etenbageak oraingo arriskuetatik atara eta betiko bizitzara eroan gagingala.

Kanon-aurrea: ikusi 60 orri.

Azken-otoitza.—Betiko bizitzara garoezan sakramentuon bidez janaritu gaituzunok, Jauna, zuzendu egizuz aingeruen zainpean salbamenaren eta fedearen bideetan zear.

URRILLAREN 3

BORJA'TAR PRANTZISKO SANTUA, abadea

Otoitza.—Lur onetako ondasunai balioa zeure legearen arautara emotea agintzen dauskuzun gure Jainko Jauna: zure menpeko zintzo zan Borja'tar Prantzizko santuaren eguna ospatzean, bizitza zeure serbitzaritzan emoten artzen dan poztasuna baiño poz andiagorik munduan ez dagoala irakatsi eiguzu ulertzen.

URRILLAREN 4

ASIS'KO PRANTZISKO SANTUA
Gomutapena

Otoitza.—Asis'ko Prantzisko santuari, apaltasunaren eta txirotasunaren bidez, Kristo'ren antzeko izateko grazia emon zeutsan Jaungoiko guztiaalduna: eiguzu, aren lorratzen atzetik ibilli gaitzala, zure Semeari jarraitu aal dagiogun eta gure buruak, maitasun alaitsuz, Zeuri eskiñi dagitzuguzan.

Opari-otoitza.—Gure oparigaiok Zeuri ekartean, Jauna, apalik eskatzen dautsugu: Gurutzeko misterioa egoki ospatzeko gertatu gagizuzala, Asis'ko Prantzisko santuak be, biotza zeure maitasunean kiskalduta ebal, bere burua misterio orri eskiñi eutsan-eta.

Azken-otoitza.—Orain artu dogun sakramentu onen bidez, eiguzu, Jauna: goimaitasunean eta apostolutzan, Asis'ko Prantzisko santuaren antzeko izan gaitezala, zeure maitasunaren frutuak dastatu dagiguzan eta geure anai-arreben salbamenari ekin daigun.

URRILLAREN 5

URTE-ALDIK URRILLAREN 5^oGARREN EGUNEAN
SOILLIK OSPATZEN DIRANETARAKO

Otoitza.—Jainko Jauna, maitasunez beteriko Aita: Israel'go gure gurasoai lur ona ta emonkorra emon zeutsen, lur aretan atsedena ta maitasuna izan egiezan; maitasun berberaz emoten dauskuzu geuri be izadia menperatzeko eta izadi onetatik geure aurrerapidea ta bizigarria atarateko indarra; zure miragarri guztiakaitik Zuri eskerrak emotean, apalik eskatzen dautsugu: lurreko aberastasunak sortzeko indarra emon dauskuna geure indarra

izan bagarik, Zeu izan zarala erakutsi daiskula beti zure argiak.

Salmu-atala

B. Zeureak dira, Jauna, anditasuna ta aal-izatea.

Bedeinkatua zara, Jauna,
gure aita Israel'en Jainko ori,
gizaldiz-gizaldi.

Zeureak dira, Jauna, anditasuna ta aal-izatea,
aintza, edertasuna ta argitasuna,
zeru-lurretan dagoana zeurea da-ta.

Zeu zara danaren errege ta nagusi,
Zeugandik datoz aberastasuna ta aintza.

Zeu zara lurbiraren Jaun,
zeure eskuan aal-izatea ta indarra;
Zeuk jasoten eta sendotzen dozuz guztiak.

Opari-otoitza.—Emon dauskuzuzan doaiakaitik eskerrak emoteko, gorapenezko opari au eskintzen dautsugu, Jauna; eta, merezi bagarik artu doguna, zeure mesede bat izan dala autortzen lagun egiguzu.

Azken-otoitza.—Zure etxekook batasunean eta maitasunean eratzen dozuzan mai onen inguruan batu gaituzun Jauna; emoiguzu zure indarra: gure aalegiñaz, lurreko uria jasoten lagundu eta zure Erreiñua ekarten lan egin dagigun.

URTE-ALDIK URRILLAREN IRU EGUNEAN
OSPAZTEN DIRANETARAKO
Eskerrak emoteko egunean

Otoitza: aurreko Mezakoa.

Salmu-atala: aurreko Mezakoa.

Opari-otoitza: aurreko Mezakoa.

Azken-otoitza.—Guk eskerrak emoteko ekarri dautsugun zure Semearen sakramentua, Zuk, Jauna, espiritu-janari lez biurtu dauskuzu; eiguzu, orain eukaristi-doaiaz sendotuta, egunean-egunean adoretuago otseindu zagiguzala eta olan Zugandik mesede barriak artzeko gertatu gaitezala.

DAMU-NEKE EDO PENITENTZI-EGUNEAN

Otoitza.—Errudun gara, Jauna, eta autortzen doguz, bai, gure pekatuak zure aurrean; erruki zakinguz eta emoiguzu zure bakearen ugaritasuna.

Salmu-atala: *Auts-egunekoa, 13 orri.*

Opari-otoitza.—Zure maitasunaz gure pekatuak parkatu egin dozuzan ezkerre, gorapenezko opari au eskintzen dautsugu, Jauna; gorde gagizuz, arren, zure laguntzaz, gure biotza koloka dago eta Zeu bagarik ezin ezer egin daikegu-ta.

Azken-otoitza.—Guri zeure Semearen maira dei egitean, Aita errukitsu orrek, zeure maitasunaren ezaugarria ta zeure parkamenaren agiria emon dauskuzuz; aurrerantzean be lagun egin dagiguzula

eskatzen dautsugu orain, pekatutik alde egiten eta zure serbitzari pozik izaten ikasi dagigun.

GIZA-EKINTZA ALDEKO EGUNEAN

Otoitza.—Zuk egin dozun gizadia gizonaren ikasteak eta lanak egunean-egunean bikaindu egiela nai izan dozun Jaungoikoa; apalik eskatzen dautsugu: gure lan eta aalegiñak gizadiari on izan dakiozala beti eta munduari buruzko zure asmoak beteteko lagundu dagiela.

Salmu-atala

B. Entzun, Jauna, nire eskarien berbotsa.
Zeuri egiten dautsut dei, Jauna,
ene Arkaitz, ez egin entzungor nire berbotsari.

Entzun nire eskarien berbotsa
laguntza eskatzen dautsudanean,
nire eskuak zeure jauretze santurantz
jasoten dodazanean.

Jauna da nire indar eta babeskin:
Arexegan jarten dau ustea nire biotzak;
laguntza emon eustan, eta nire biotza poztu egin
eta abestu egiten dautso eskerrak emonez. [da,
Jauna da indarra bere erriarentzat,
gordeleku ta osasuna bere igurtzitakoarentzat.
Onik atara egizu zure erria ta bedeinkatu zure
artzain izan zakiez eta eroan egizuz beti. [soloa,

Opari-otoitza.—Ogia ta ardaoa dakartzuguz, Jauna, onein bidez lurrean bizia janaritzen eta betiko bizitza barritzen dauskuzu-ta; eta apalik eskatzen dautsugu: emoiguzu etenbagarik ogi au, geure bizigarri da-ta, baita sakramentu au be, betiko bizi-iturri da-ta.

Azken-otoitza.—Betiko bizia daben sakramentuan bidez indartu gaituzun Jauna: lurreko arazoetan be lagun eiguzu etenbagarik zure graziaz.

URRILLAREN 6

BRUNO SANTUA, abadea

Otoitza.—Bruno santuari Zu bakartasunean otseintzeko dei egin zeutsan gure Jainko Jauna: eiguzu, aren bitartez, lur onetako gora-beeren artean, gure buruak beti Zeuri eskifita bizi gaitezala.

URRILLAREN 7

ERROSARIO'KO ANDRA MARI
Gomutapena

Otoitza.—Isuri egizu, Jauna, gure biotzetara zure grazia: aingeruak iragarrita, Jesukristo zure Semearen Gizakundea ezagutu dogun guztiok, Aren nekaldi ta gurutzearen bidez eta Maria Birjiñaren bitartez, biztuera goragarrira eldu aal gaituzan.

Opari-otoitza.—Opari au egoki ospatzeko,

Zeuk gertatu gagizuzala eskatzen dautsugu, Jauna; eta, zure Seme bakarraren misteriook buruan erabilirik, Aren agintzariak lortzeko duin izan gaitezala eiguzu.

Kanon-aurrea: ikusi 37 orri.

Azken-otoitza.—Arren, Jauna: sakramentu onetan zeure Semearen eriotza ta biztuerea iragarri doguzan guztiok, Aren nekaldiko oiñazeai batuta, Aren aintzaren pozetan eskuartu aal dagigula.

URRILLAREN 9

DIONISIO SANTUA, gotzaiña,
eta lagunak, martiriak

Otoitza.—Zuk, Jaungoiko orrek, Dionisio ta onen lagunak errien aurrean zeure aintza iragartera bialdu zenduzan, eta odol-isurtealdian arei sendotasun miragarria emon zeutsen; eiguzu, munduaren arrokeria iguntzen arein antzeko izan gaitezala, aren erasoai bildurrik iñoiz be izan ez dagiegun.

YON LEONARDI SANTUA, abadea

Otoitza.—On guztien iturri zaran gure Jainko Jauna: Ebanjelioa erri askori Yon Leonardi zure abade santuaren bidez iragarri zeutsen; egizu, aren bitartez, lur guztian egiazko fedea sabaldu daitela beti.

URRILLAREN 10

VILLANUEVA'KO TOMAS SANTUA, gotzaiña

Otoitza.—Villanueva'ko Tomas santua irakatsiz eta maitasunez entzutetsua, zeure Elizearen Zuzentzaille santuen artean sartu zenduan Jaungoikoa: emoiguzu, aren bitartez, beti zeure etxeko santuen artean irauteko grazia.

Opari-otoitza.—Villanueva'ko Tomas santuaren egunean dakartzuguzan oparigai oneik, Jauna, jakintzak argitutako bizitza eta biziak aberastutako jakintza lortu daiskuela.

Azken-otoitza.—Apalik eskatzen dautsugu, Jauna: orain artu doguzan sakramentuak, zure Elizearen alde etenbagarik ekiteko, Villanueva'ko Tomas santuari bultza egin eutsan goimaitasun-espirtua biztu dagiela gudan.

URRILLAREN 11

TORRES ACOSTA'TAR SOLEDA SANTUA, birjiña

Otoitza.—Torres Acosta'tar Soleda doatsuari, beronek ikusten ebazan geisoakan maitasun zabaldez Zeu otseintzeko grazia emon zeutsan Jauna: emoiguzuz zure argia ta grazia, nekeetan dagozanan Zeu zagozala jakin dagigun eta zeruan zeure ondoan egotea merezi dagigun.

URRILLAREN 12

PILAR'GO ANDRA MARI
Jaia

Otoitza.—Antxiña danik Pilar'go izenaz dei egiten dautsoen guztiak, zeure Semearen Ama goragarriagan zeru-laguntza emon dautsezun Jaungoiko guztiaaldun eta betikoa: emoiguzu, aren bitartez, fedean sendotasuna, itzaropenean ziurtasuna eta maitasunean iraupena.

Opari-otoitza.—Gure gaiñean fedearen argiari dizdiz eragin dautsazun Jaungoiko guztiaaldun eta betikoa: egizu, orain dakartzuguzan doaiok eta egiten dautsuguzan eskariok, Pilar'go Andra Maria'ren bitartez, fedean sendo ta maitasunean biotzabal irautea jadetsi daiskula.

Kanon-aurrea: ikusi 37 orri.

Azken-otoitza.—Zu geure artean egotea era miragarritz ugaritzen dozun Jaungoikoa: gu janaritu gaituzun sakramentu onegaitik Zuri eskerrak emotean, eiguzu, Pilar'go Andra Maria'ren bitartez, zeruan betiraun guztian ikusi zagiguzala.

URRILLAREN 14

KALIXTO SANTUA, Aita Santu ta martiria

Otoitza.—Entzun, Jauna, zure erriaren eskariak eta emoiguzu Kalixto Aita Santuaren laguntza, pozez beterik aren odol-isurtea ospatzen dogu-ta.

URRILLAREN 15

AVILA'KO TERESA SANTUA, birjiña
Gomutapena

Otoitza.—Zure Elizeari zintzotasun-bidea erakusteko, Espiritu Santuaren argiz, Teresa doatsua biztu dozun gure Jainko Jauna: eiguzu, aren irakatsiaz bizi gaitezala eta iziotu egizu gudan egiazko santutasunaren gogo.

Opari-otoitza.—Gogoko izan bekizuz, Jaun aundi orri, orain dakartzuguzan doaiok: Teresa doatsua be, bere burua eskiñi eutsunean, gogoko izan yatzunez.

Azken-otoitza.—Gure Jainko Jauna: emon egiozu zeru-ogiaz janaritutako zure erri oni, beti zeure errukiak abestea, Avila'ko Teresa doatsuak egin ebanez.

URRILLAREN 16

EDUBIJIS SANTUA, monja

Otoitza.—Edubijis doatsuaren bizitza, guztientzat apaltasun-ikasbide arrigarri izan zan ezkerro, Jauna, emoiguzu beti, aren bitartez, zeure graziaren laguntza.

ALAKOKE'TAR MARGARITA MARI SANTUA, birjiña

Otoitza.—Isuri egizu gure biotzetara, Jauna, Margarita Mari doatsua aberastu zenduan espirtu bera, Kristo'ren maitasunaren misterio bardinba-

gea sakon ezagutzera eldu gaitazan, eta, Jaungoikoaren osotasun guztiaren eratarra, geure osotasuna lortu dagigun.

URRILLAREN 17

ANTIOKIA'KO IÑAZIO SANTUA,
gotzain eta martiria
Gomutapena

Otoitza.—Martirien autorpenak Kristo'ren Gorputz dan Eliza guztia goratu egiala nai izan dozun Jaungoiko guztiaaldun eta betikoa: eiguzu, gaur gogora dakargun odol-isurteak Antiokia'ko Iñazio santuari betiko aintza lortu eutsanez, geuri be zeure betiko aintza lortu daiskula.

Opari-otoitza.—Jauna: Kristo'ren gari zan Antiokia'ko Iñazio santua piztien agiñak opari egindako ogi lez onartu zenduan, onartu egizu atsegiñez orain dakartzugun eskintza au be.

Azken-otoitza.—Antiokia'ko Iñazio santuaren egunean artu dogun zeruko ogi onek, Jauna, indar barriak emon daiskuzala eta, berbaz eta egitez, kristau lez bizi izaten lagun egin daiskula.

URRILLAREN 18

LUKAS SANTUA, ebanjelaria
Jaia

Otoitza.—Bere iragarteaz eta idazkien bidez, guri beartsuakanako zeure maitasuna agertzeko, Lukas santua aukeratu zenduan gure Jainko Jauna: egizu, Kristo'gan arrotzen diran guztiak biotz batez eta espiritu batez bizi daitezala eta gizon guztiak salbamenera erakarri dagiezala.

Salmu-atala: ikusi 46 orri.

Opari-otoitza.—Zeruko doaion bidez, eiguzu, Jauna, espiritu nasaiz otseindu zagiguzala: Lukas santuaren egunean dakartzugun eskintza onek geure gatxak osatu dagizan eta betiko aintza jadetsi daiskun.

Kanon-aurrean: ikusi 47 orri.

Azken-otoitza.—Eiguzu, Jaungoiko guztiaaldun orrek, zure altaran ospatu dogun eukaristi onek santutu gagizala eta Lukas santuak iragarri eban Ebanjelioa fedez autortzeko sendotasuna emon daiskula.

URRILLAREN 19

ALKANTARA'KO PEDRO SANTUA, abadea

Otoitza.—Alkantara'ko Pedro santuari, beronen damu-neke arrigarriagaitik eta Jainko-ikuste gartsuagaitik, dizdiz eragin zeutsan gure Jainko Jauna: eiguzu, aren irabazien bidez, bizitza onetan laztasun-bidean zear ibillirik, zeruko ondasunak errazago lortu daiguzala.

YON BREBEUF eta ISAAC JOGUES SANTUAK,
abadeak eta lagun martiriak

Otoitza.—Zure Elizearen asierak Ipar-Ameri-

ka'n Isaak santuaren eta onen lagun martirien iragarteaz eta odolaz santutuak izatea nai izan zenduan Jaungoikoa: egizu, arein bitartez, egunean-egunean lureko bazter guztietan kristau barriak eurrez ugaritu daitezala.

GURUTZEKO PAULO SANTUA, abadea

Otoitza.—Gurutzeko Paulo santuaren maitasun bakarra Kristo gurutzetua izan zan ezker, eiguzu, Jauna, zeure grazia jadetsi daiskula: aren ikasbideak zirikatuta, egunoroko gurutzea sendo artu dagigun.

Opari-otoitza.—Begiratu atsegiñez, Jaungoiko guztiaaldun orrek, Gurutzeko Paulo santuaren egunean dakartzugun eskintza au; eta eiguzu, zure Semearen nekaldiaren gomutapena ospatzen dogun guztiok, gomutapen au izate egin dagigula.

Azken-otoitza.—Paulo zure abade santuaren bizitzan gurutzeko misterioa era miragarritz argitu zenduan Jaungoikoa: eiguzu, opari onen bidez indartuta, Kristo'ri beti zintzo eutsi dagiogula eta Elizan guztien salbamenean lan egiten jardun dagigula.

URRILLAREN 23

KAPISTRANO'KO YON SANTUA, abadea

Otoitza.—Zure erria zoritxarretan adoretzeko, Kapistrano'ko Yon santua sortu zenduan Jaungoikoa; apalik eskatzen dautsugu: gure uste ona zeure magalpean autortu dagigula barriro eta zure Elizea baketan iraunerazo dagigula.

URRILLAREN 24

KLARETTAR ANDONI MARI SANTUA, gotzaña

Otoitza.—Erriai Ebanjelioa iragarteko, Andoni Mari zure gotzain santuari goimaitasun eta adore arrigarriak emon zeutsazan Jaungoikoa: eiguzu, aren bitartez, gauza guztietan beti zeure naia billaturik, Kristo'rentzat anai-arreba barriak lortzen biotz zabalez lan egin dagigula.

URRILLAREN 29

SIMON ETA JUDAS SANTUAK, apostoluak
Jaia

Otoitza.—Apostoluen iragartearen bidez zeure izenaren ezaguerara eroan genduzun gure Jainko Jauna; apalik eskatzen dautsugu: Simon eta Judas santuen bitartez, errien onbideratze etenbageaz zure Elizea beti geitu daitela.

Salmu-atala

B. Aren iragarteak lur guztia artzen dau.

Zeruak Jaungoikoaren aintza iragarten dau, izartegiak Aren eskuak egindakoa azaltzen dau; egunak egunari iragarten dautso mandatu, eta gauak gauari emoten dautso albistea.

Berba egin bagarik, itzik esan bagarik,

Aren berbotsak durundirik egin bagarik,
Aren iragarteak lur guztia artzen dau,
eta Aren izkerek lurbiraren mugetaragiño.

Opari-otoitza.—Simon eta Judas zure Aposto-
luen aintza zimeldu-eziña ospatzean, Jauna, artu
dagizuzala gure eskariak eta, misterio santuok
egoki ospatzeko, Zeuk gertatu gagizuzala eskatzen
dautsugu.

Kanon-aurrean: ikusi 47 orri.

Azken-otoitza.—Eukaristian eskuartu eta Es-
piritu Santuak eraginda gero, apalik eskatzen dau-
tsugu, Jauna: Simon eta Judas'en omenez ospatu-
tako zure Semearen nekaldiaren gomutapen onek,
zeure maitasunean irauten lagun egin daiskula.

ZEMENDIA (AZILLA)

ZEMENDIAREN 2

ZINTZO ILDAKO GUZTIEN EGUNA

I

Otoitza.—Entzun egizuz, Jauna, gure eska-
riak: Jesukristo zure Semearen biztuerea autor-
tzean, zure seme-alaba guztiak biztuko diraneko
gure itxaropena be sendotu daiten.

Salmu-atala

B. Zeugana jasoten dot nire arimea, Jauna.
Gogoratu egizuz, Jauna, zure maitasuna ta
betikoak dira-ta; [errukia;
gomuta zaitetz nitzaz errukiz,
zeure maitasunarren, Jauna.
Zabaldtu egidazu nire biotz estu au,
eta atara nagizu nire larrialdietatik.
Beguiratu nire nekeak eta miñak,
eta parkatu nire pekatu guztiak.
Gorde egizu nire bizia ta askatu nagizu,
ez naitela lotsatuta geratu Zugana joaten.
Errubagetasunak eta zuzentasunak zainduko nabe,
Zeugan dot ustea-ta.

Opari-otoitza.—Beguiratu biotz onez, Jauna,
zintzo ildakoen alde dakartzuguzan oparigaiok, eta
artu egizuz areik zeruan Jesukristo zure Semeagaz,
Beronegaz alkartzen gara-ta, Beronen maitasuna-
ren gomutapena ospatzean.

Kanon-aurrea

... Jesukristo gure Jaunaren bitartez. Gure
biztuera zoriontsuaren itxaropenak Kristo'gan diz-
diz egin dau; eta olan, eriotza jakifiñak naigabetu
egiten gaituanarren, geroko betiko bizitza-agintza-
riak poztu egiten gaitu.
Izan be, Zeugan sinisten dogunon bizia, Jauna, ez
da amaitzen, aldatu baiño; eta, lurreko bizitoki au
jaustean, zeruan betikoa jaristen dogu.
Orregaitik...

Azken-otoitza.—Pazko-misterio au geure anai-
arreben salbamenerako ospatu dogun ezkerro, ar-
giaren eta bakearen bizitokiara eldu daitezala eska-
tzen dautsugu, Jaungoiko guztiaaldun orri.

II

Otoitza.—Zintzoen aintza eta zuzenen bizia
zaran Jaungoikoa: guk, zure Semearen eriotzaz
eta biztuerez erositakook, zure menpeko ildakoak
biotz onez artu dagizuzala eskatzen dautsugu; eta,
geroko biztuerea sinistu eben ezkerro, betiko zorion-
naren atsegiñak lortzea merezi dagiela.

Opari-otoitza.—Jaungoiko zuzen eta erruki-
orra: garbitu egizuz Kristo'ren Odoletan, opari
onen bidez, zintzo ildakoen pekatuak; eta, bateoko
uraz garbitu izan zenduzanak, garbitu egizuz orain
maitasun biozpera berberaz.

Azken-otoitza.—Geugaitik il eta biztu zan
Kristo'ren Gorputz-Odolaz janarituta, zintzo ilda-
koen alde eskatzen dautsugu, Jauna: Pazko-miste-
rioaren bidez garbituta, onezkero betiko biztuerez
poztu daitezala.

III

Otoitza.—Eriotza aspiraturik zeure Erreiñuan
sartzeko, zeure Semea berbiztu zenduan Jaungoi-
koa: egizu, zure serbitzariok, euron izaera ilkorra
garaituta, euron Egille ta Salbatzaille lez ikusi za-
giezala beti-betiko.

Opari-otoitza.—Onartu egizuz, Jauna, Kristo'-
gan atsedeen artzen dabenen alde dakartzuguzan
oparigaiok: eriotzaren lokarriak opari onen era-
giñaz etenda, betiko bizitza lortzea merezi dagien.

Azken-otoitza.—Orain ospatu dogun opari
onen bidez, isuri egizu eurrez, Jauna, zure errukia
gure anai-arreba ildakoen gaiñera; eta, bateo-grazia
emon zeutsen ezkerro, betiko atsegiñak be oso-oso-
rik emon egiezuz.

ZEMENDIAREN 3

MARTIN PORRES SANTUA, praillea

Otoitza.—Martin Porres santua apaltasun-bi-
detik zeruko aintzara eroan nai izan dozun gure
Jainko Jauna: emoiguzu aren ikasbideai jarraitze-
ko grazia, zeruan aregaz batera koroetuak izatea
merezi dagigun.

ZEMENDIAREN 4

BORROMEO'TAR KARLOS SANTUA, gotzaiña

Otoitza.—Iraunerazo egizu, Jauna, zure errian
Borromeo'tar Karlos santuari isuri zeutsan espiri-
tua: zure Elizeak, etenbagarik barriztuta eta Kris-
to'ren irudi biurtuta, munduaren aurrean zure
Semearen benetako aurpegia erakutsi dagian.

Opari-otoitza.—Onartu egizuz, Jauna, Borro-

meo'tar Karlos santuaren egunean zeure altarara dakartzuguzan doaiok; eta eiguzu, opari onen eragiñez, arimakanako aren ardura ta onoimena-kaitik aintzaz bete zenduanez, geugan be egintza onen frutuak gaiñez egin dagiela.

Azken-otoitza.—Eukaristi onek Borromeo'tar Karlos santua zure eginkizunetan serbitzari zintzo ta goimaitasunaren apostolu egin ebanez, geuri be santu aren espiritu-sendotasuna emon daiskula.

ZEMENDIAREN 9

LETRAN'GO BASILIKA ESKINTZA

Ikusi: 37 orrialdean.

ZEMENDIAREN 10

SAN-LEON AUNDIA, Aita Santu ta Eliz-irakaslea
Gomutapena

Otoitza.—Ez itzi, Jauna, inpernuko indarrak Elizearen aurka garaille urteten, apostoluen arrizko zimenduetan jasota dagoan ezkerok; eta, egizu, Leon Aita Santuaren erreguen bidez, egian beti sendo iraun dagiala, bake iraunkorra izan dagian.

Opari-otoitza.—Ona dakartzuguzan opari-gaion bidez, zure Elizea argitu dagizula eskatzen dautsugu, Jauna: zure artaldea mundu guztian ugaritu daiten eta aren zaintzailleak, Zeuk zuzenduta, beti zeure biotzak diñoanez jardun dagien.

Azken-otoitza.—Zeure menpean zaindu egizu, Jauna, mai onetan janaritzen dozun zure Elizea: zeure esku aaltsuaz zuzenduta, geroago ta askatasun geiago izan eta fedearen serbitzaritzan sendo iraun dagian.

ZEMENDIAREN 11

MARTIN SANTUA, gotzaiña
Gomutapena

Otoitza.—Martin zure gotzain santuaren bizi-tzaz eta eriotzaz goratua izan zintzazan Jaungoikoa: barriztu egizuz gure biotzetan zure graziaren miragarriak, ez bizitzak ez eriotzak zure maitasunetik aldendu ez gagiezan.

Opari-otoitza.—Santutu egizuz, Jauna, Martin santuaren egunean pozik dakartzuguzan doaiok; eurok zuzendu dagiela gure bizitza, zeure naitara, mundu onetako ondasunen eta zoritxarren artean.

Azken-otoitza.—Egizu, Jauna: batasun-sakramentuaz janaritu dozuzanok, gauza guztietan zure naia oso-osorik onartu dagiela: Martin santuak zure serbitzaritzan oso-osorik jardun ebanez, geu be zeure jabetzan soillik eta pozez beterik bizi gaitezana.

ZEMENDIAREN 12

JOSAPAT SANTUA, gotzaiña ta martiria
Gomutapena

Otoitza.—Bizitu egizu zure Elizan, Jauna, Josapat gotzain eta martiri santuari bere bizia bere

zintzoen alde emotera bultza egin eutsan espiritua; eta eiguzu, aren bitartez, espiritu berorrek gure bizia anai-arreben alde emoteko indarra emon daiskula.

Azken-otoitza.—Eukaristi-janari onek bakez eta sendotasunez bete gagizala, Jauna: Josapat santuaren ereduz, gure bizitzan Elizea sabaltzeari ta bat egiteari biotz zabalez ekin daiogun.

ZEMENDIAREN 13

LEANDRO SANTUA, gotzaiña

Otoitza.—Leandro zure gotzain santuaren bidez, fedea elizan oso-osorik iraunerazo zenduan Jaungoikoa: egizu, zure erriak fede-errakuntza guztietatik askatuta iraun dagiala beti.

ZEMENDIAREN 15

SAN ALBERTO AUNDIA,
gotzaiña ta Eliz-irakaslea

Otoitza.—Alberto gotzain santua, Jainko-jakintza giza-jakiturragaz ondo eroaten jakin ebalako, izen aundiko egin zenduan Jauna; eiguzu, geuk be aren irakaskuntza onartu dagigula: jakinkizunen aurrerapenen bidez, obeto ezagutu ta maitatu zagiguzan.

ZEMENDIAREN 16

ESKOZIA'KO MARGARITA SANTUA

Otoitza.—Margarita doatsua, beartsuakanako errukiz eredu miragarri egin zenduan gure Jainko Jauna: eiguzu, aren bitartez eta ereduz, andra-gizonen artean zeure ontasunen ditzira zintzo izan gaitezala.

JERTRUDIZ SANTUA, birjiña

Otoitza.—Jertrudiz zure birjiña doatsuaren biotza Zuretzat pozezko bizitoki egin zenduan Jaungoikoa: aren otoitz eta irabaziz, argitu egizuz gure biotzeko illunpeak eta guk, pozez beterik, gure artean zeure eragiña ta Zu geugaz egotea somatu dagigula.

ZEMENDIAREN 17

UNGRIA'KO ISABEL SANTUA

Otoitza.—Ungria'ko Isabel doatsuari, beartsuakan zeure Semea ezagutzeko ta gurtzeko grazia emon zeutsan Jaungoikoa: eiguzu, aren bitartez, apalen eta atsekabetuen serbitzari asperbageak izan gaitezala.

ZEMENDIAREN 18

PEDRO TA PAULO APOSTOLU SANTUEN
BASILIKAK ESKINTZEA

Otoitza.—Zaindu egizu zure Elizea, Jauna, Apostoluen laguntzaz; eta, Ebanjelioaren leenen-go iragartea arein bidez artu dauan ezkerok, arein bidez eta aldien azkenerarte grazi-geitzea be artu dagiala.

Salmu-atala: ikusi 36 orri.

Opari-otoitza. — Zuri geure menpetasuneko doaiok eskintzean, Jauna, apalik eskatzen dautsugu: Pedro ta Paulo zure apostolu santuen bidez emon izan yakun egia, oso-osorik gorde dagizula gure biotzetan.

Kanon-aurrea: ikusi 47 orri.

Azken-otoitza. — Egizu, Jauna: zure erria, zerruko ogiaz janarituta, pozez bete daiteela Pedro ta Paulo zure apostolu santuak gogora ekartean, euron zainpean nai izan dozu zuzentzea Elizea-ta.

ZEMENDIAREN 21

ANDRA MARIA ELIZAN ESKIÑIA
Gomutapena

Otoitza. — Arren, Jauna: Maria Birjiña guztiz doatsuaren gomutapen aintzatsua goratzen dogun guztioi, aren bitartez eta arek lez, zure graziaren osotasunean eskuartu dagigula.

ZEMENDIAREN 22

ZEZILIA SANTUA, birjiña ta martiria
Gomutapena

Otoitza. — Onartu egizuz, Jauna, gure eska-riak; eta, Zezilia doatsuaren bitartez, entzun ga-gizuz biotz onez.

ZEMENDIAREN 23

KLEMENTE SANTUA, Aita Santua ta martiria

Otoitza. — Zure santuen aintzan miragarri agertzen zaran Jaungoiko guztiaaldun eta betikoa: eiguzu, zure Semearen abade ta martiri izan zan Klemente santuaren eguna pozik ospatu dagigula: berak ospatzen ebazan misterioak bere eriotzaz autortu eta bere berbaz iragarten ebana enpara-duen eredu izanaz baieztu eban-eta.

KOLUNBANO SANTUA, abata

Otoitza. — Kolunbano abata santuagan Eban-jelioa iragartea ta eremu-bizitza era miragarritz al-kartu dozuzan gure Jainko Jauna: eiguzu, aren bitartez eta eredu, gauza guztien gainetik Zeu bi-llatu eta zeure erreñua zabaltzen lan egin dagi-gula.

ZEMENDIAREN 30

ANDER SANTUA, apostolua
Jaia

Otoitza. — Gorde gagizuz, Jauna, Ander zure apostolu santuaren bitartekotasun etenbageaz, zeure Elizearen iragarle ta zaintzaille izateko au-keratu zenduan-eta.

Salmu-atala: ikusi 48 orri.

Opari-otoitza. — Ander santuaren egunean da-kartzuguzan doai oneik, Jaungoiko guztiaaldun, guk Zeuri eskintzean gogoko izan dakizuzala, eta, eurok artzean, grazi-bizitza barriztu daiskuela.

Kanon-aurrea: ikusi 47 orri.

Azken-otoitza. — Apalik eskatzen dautsugu, Jauna: zure sakramentuetan eskuartzeak sendota-suna emon daiskuela: Ander zure apostolu santua-ren eredu Kristo'ren eriotzan erdikide izanik, ze-ruan aregaz bizi izatea merezi dagigun.

LOTAZILLA (GABONILLA)

LOTAZILLAREN 3

XABIER'KO PRANTZISKO SANTUA, abadea

Otoitza. — Gure Jaun eta Jaungoikoa: Xa-bier'ko Prantzisko santuaren iragarterearen bidez erri asko ta asko zeure izenaren ezaguerara eldu zeitezala nai izan dozu; isuri eiguzu, fedea zabal-tzen arek izan eban ardura gartsua, eta egizu, zure Elizeak Ebanjelioa erri guztiai eroaten aurkitu da-giala bere atsegiña.

Opari-otoitza. — Onartu egizuz, Jauna, Xa-bier'ko Prantzisko santuaren egunean dakartzugu-zan doaiok; eta, gizonak salbatzeko ardureak bul-tza eginda, a urruneko lurraldeetara joan zan ez-kero, eiguzu: Ebanjelioa gartsu autorturik, anai-arreba guztiakaz batera aalbait lasterren Zeugana eltzeko gogoia somatu dagigula.

Azken-otoitza. — Artu dogun sakramentu onek biztu dagiala gudan, Jauna, arimen salbamenera-ko arduratan Xabier'ko Prantzisko santua sutu eban maitasun gartsua; olan, geure bizibideak es-katzen dauskunez lan egiñik, biotz zabalez otsein-tzen zaituenai eskiñi dautsezun saria lortuko dogu.

LOTAZILLAREN 4

DAMASKO'KO YON SANTUA, abadea ta Eliz-irakaslea

Otoitza. — Damasko'ko Yon santuaren bitar-tekotasunak une guztietan lagun egin daiskula es-katzen dautsugu, Jauna: arek ain jator irakatsi eban egiazko fedea, beti geure argi ta indar izan daiten.

LOTAZILLAREN 6

NIKOLAS SANTUA, gotzaiña

Otoitza. — Zeure errukia eskatuta, Jauna, apa-lik eskatzen dautsugu: Nikolas gotzain santuaren bitartez, arrisku guztietan gorde gagizuzala, salba-men-bidean zear sendo ibilli gaitezana.

LOTAZILLAREN 7

ANBROSIO SANTUA, gotzain eta Eliz-irakaslea
Gomutapena

Otoitza. — Anbrosio gotzain santua fede kato-likuaren irakasle argitsu ta apostolu-sendotasun-eredu ikusgarri egin zenduan gure Jaun eta jaun-goikoa: sortu egizuz zure erriaren artean, zeure naitara bizi izanik, zure Elizea jakituriz eta sendo-tasunez zaindu dagien gizonak.

Opari-otoitza. — Misterio santuok ospatzean, apalik eskatzen dautsugu, Jauna: zure aintza eten-

bagarik zabaltzeko, Espiritu Santuak Anbrosio santuari isuri eutsan fede berberaz argitu gagizala.

Azken-otoitza. — Orain sakramentu onen indarrak sendotu gaituzun ezker, Jauna, Anbrosio zure gotzain santuaren antzeko izan gaitezala; eta egizu, zure bideai zintzoro jarraiturik, erreñuko janari atsegintsuetan eskuartzeko oraindik ger-tatu gaitezala.

LOTAZILLAREN 10

EULALI SANTUA, birjiña ta martiria

Otoitza. — On guztien iturri zaran Jaungoikoa: gu zeure izena autortzera eroateko, umeen odol-isurtea be erabilli dozu; egizu, zure Elizeak, Eulali martiri doatsuaren ikasbidez adoretuta, ez dagiala Zugaitik nekeak eroateko bildurrik izan eta betiko sariaren aintza adoretu gura izan dagiala.

LOTAZILLAREN 11

DAMASO SANTUA, Aita Santua

Otoitza. — Zure martirien garaipenagaitik beti Zeu goratzeko grazia emon egiguzu, Jauna, Damaso Aita santuak be martiriai oneraspen maitatsua izan eutsen-eta.

LOTAZILLAREN 12

JOANA PRANTZISKA FREMIOT DE CHANTAL
SANTUA, moja

Otoitza. — Joan Prantziska Chantal doatsua, beronen bizibideetan, onoimen bikaiñez apaindu zenduan gure Jainko Jauna: egizu, aren bitartez, kristau-deiaren bideari zintzo jarraitu daigula, andra-gizonak argitu dagizan ereduako bizitzaren autorpena beti emon aal dagigun.

LOTAZILLAREN 13

LUTZIA SANTUA, birjiña ta martiria
Gomutapena

Otoitza. — Lutzia birjiña ta martiri doatsuaren bitartekotasun aaltsua euskarri izan dakigula, Jauna, lurrean aren garaipena ospatu eta zeruan aren aintzan eskuartu dagigun.

LOTAZILLAREN 14

GURUTZEKO YON SANTUA,
abade ta Eliz-irakaslea
Gomutapena

Otoitza. — Gurutzeko Yon abade santua, bere burua ukatzen eta gurutzea maite izaten eredu bikain egin zenduan gure Aita Jaungoikoa: lagun egizu lurrean aren bizikereari jarraitzen, zeruan zeure aintza lortu dagigun.

Opari-otoitza. — Onartu egizuz, Jauna, Gurutzeko Yon santuaren egunean dakartzuguzan oparigaiok; eta egizu, Jaunaren gomutapena ospatzen dogun guztiok, eukaristian ospatzen doguna gure bizitzan zintzoro agertu dagigula.

Azken-otoitza. — Gurutzeko Yon santuaren bizitzan, gurutzeko misterioa era miragarritz argitu dozun gure Jainko Jauna: egizu orain, opari onen bitartez indartuta, fedearen bidez beti Kristo'ri alkartuta iraun eta Elizan gizakume guztiak salbatzen jardun dagigula.

LOTAZILLAREN 21

PEDRO KANISIO SANTUA,
abade ta Eliz-irakaslea

Otoitza. — Fede-batasuna zaintzeko, Pedro Kanisio santua onoimenaz eta jakintzaz indartu zenduan gure Jainko Jauna: egizu, fededun-lagunartekak zeure izena autortzen iraun eta egiaren billa dabizana guztiak Zeu aurkitzeko atsegia izan dagiela.

LOTAZILLAREN 23

KETYKO YON SANTUA, abadea

Otoitza. — Egizu, Jaungoiko guztiaaldun orrek, Kety'ko Yon santuaren eredu, geroago ta geiago santutu gaitezala: lagun-urkoagan maitasuna ta errukia erabillirik, zeure parkamena lortu dagigun.

LOTAZILLAREN 26

ESTEBAN SANTUA, leenengo martiria
Jaia

Otoitza. — Oñazeak emoten eutsoezan borroren alde Esteban zure martiri santuak otoitz egin eban ezker, aren antzekoak izateko grazia emon egiguzu, Jauna, geure arerioak maite izaten ikasi dagigun.

Salmu-atala: Zeure eskuetan: ikusi 28 orri.

Opari-otoitza. — Onartu egizuz, Jauna, egun onetan dakartzuguzan doaiok, Esteban zure martiri santuaren garaipen goragarria gogora ekartean.

Azken-otoitza. — Eskerrak emoten dautsuguz, Jauna, zure erruki ugariakaitik, zure Semearen jaiotzaz onik atara eta Esteban zure martiri santuaren garaipenaz pozez beteten gaituzu-ta.

LOTAZILLAREN 27

YON SANTUA, apostolu ta ebanjelaria
Jaia

Otoitza. — Yon zure apostolu santuaren bidez, aragi egindako zeure Itzaren (*Jesukristo'ren*) misterioa agertu dauskuzun gure Jaun eta Jainkoa: egizu, arren, zure apostoluak ezaguerazo euskuna ulertu ta biotzez maite dagigula.

Salmu-atala

B. Poztu zaiteze, zintzok, Jaunagaz.

Jauna da errege, lurra pozetan,
ugarte guztiak pozez beterik.
Illunak eta Odeiak inguratzen dabe,
Zuzentasunak eta Bidezko danak
eusten dautsoe Aran errege-aulkiari.

Mendiak argizaria lez urtzen dira
 lur guztiaren jabearen aurrean.
 Zeruak Aren zuzentasuna iragarten dau,
 eta erri guztiak ikusten dabe Aren aintza.
 Argia sortzen yako zintzoari,
 eta poza biotz-zuzenai.
 Poztu zaitetze, zintzook, Jaunagaz,
 ospatu egizue Aren izen santua.

Opari-otoitza. — Santutu egizuz, Jauna, zure altarara dakartzuguzan doaiok, eta egizu: Yon santuarentzat agerpen-iturri izan zan *opari* onen bidez, geuk be zure betiko Itzaren misterioan osozorik eskuartzera eldu gaitetzala.

Kanon-aurrea: Gabonetakoa.

Azken-otoitza. — Egizu, arren, Jauna, Yon zure ebanjelariak aitatu euskun aragi egindako Itza, orain ospatu dogun eukaristi onen bidez, beti geure artean bizi daitela.

LOTAZILLAREN 28

UME ERRUBAGE SANTUAK, martiriak
 J a i a

Otoitza. — Martiri errubageak egun onetan zeure aintza iragarten dabe, Jauna, baiña berbaz ez, euren eriotzaz baiña; eiguzu, arein bitartez, berbaz autortzen dogun fedea geure bizikeraz autortu dagigula.

Salmu-atala

B. Gure biziak txoriak lez egin dau iges eiztariaren saretik.

Jauna geure alde egon ez ba'litz,
 gizonak gure kontra erasoka etozanean,
 bizirik iruntsiko gendukiezan,
 gure kontra sumiñez erreten etozan-eta.

Urak narraz eroango gendukiezan,
 erregea samaragiño elduko litzakigun;
 urak, bitsa dariela,
 samaragiño elduko litzakiguzan.
 Sarea ausi egin zan, eta guk iges egin genduan.
 Gure laguntza Jaunaren izena da,
 zeru-lurrak egin ebazanarena.

Opari-otoitza. — Onartu egizuz, Jauna, zure erriaren oparigaiok; eta, Zu ezagutzen ez zaituenak be misterio onein bidez santutzen dozuzan ezkerro, garbitu gagizuz eukaristia maitasunez ospatzera gatozanok.

Azken-otoitza. — Errubageen egunean zeure maian jan dogunok, salbamen osoan eskuartu dagigula, Jauna; zure Semea autortzeko, areik ezin egin eben barbarik; baiña, Gabon-misterioaren indarrez, koroe argitsua artu eben.

LOTAZILLAREN 29

TOMAS BECKET SANTUA, gotzain eta martiria

Otoitza. — Bere bizia zuzentasunaren alde emoteko, Tomas Becket santuari arima andigoiez betea emon dautsazun Jauna: eiguzu, aren bitartez, lurreko gure bizitza au Kristo'ren alde emon dagigula, zeruan barriro geuretu dagigun.

LOTAZILLAREN 31

I SILBESTRE, Aita Santua

Otoitza. — Emon egiozu laguntza, Jauna, Silbestre Aita santuaren bitartekotasunean gordeten dan zure erriari: bizitza au zeure zainpean egiñik, zeruan iñoiz be azkenik ez dauan bizitza lortu dagian.

URTE-BARRUKO OTOITZAK

LEENENGO ASTEA

Otoitza.—Izan zakiez biotz-bigun, Jauna, zure erriaren gurari ta eskariai; emoiguzu zeure naia ezagutzeko argia, baita zure nai ori beteteko bear dogun indarra be.

Opari-otoitza.—Onartu egizu, Jauna, zure erriaren eskintza au; beronek santutu gagizala eta orain eskatzen doguna lortu daiskula.

Azken-otoitza.—Apalik eskatzen dautsugu, Jaungoiko guztiaaldun orri: emon egiguzu zeure sakramentuen bidez janaritzen gaituzunoi zeure serbitzari izateko grazia, guk Zeuk nai dozun bizikerea eroanik.

BIGARREN ASTEA

Otoitza.—Zeru-lurretan bietan batera agintzen dozun Jaungoiko guztiaalduna: entzun, aita lez, zure erriaren otoitza; eta egizu, gure bizitzako egunak bakean oiñarritu daitezala.

Opari-otoitza.—Eiguzu, Jauna, misterio oneitan egoki eskuartu dagigula: Kristo'ren opari-gomutapena ospatzen dogun bakotxean, geure erospenaren egintza burutzen da-ta.

Azken-otoitza.—Isuri gure gaiñera, Jauna, goimaitasun-espirtua: gu zeruko ogiaz berberaz janaritura, maitasun berean bat eginda iraun dagigun.

IRUGARREN ASTEA

Otoitza.—Jaungoiko guztiaaldun eta betikoa: lagun egiguzu Zeuk nai dozun eratako bizikerea erooten; zeure Seme kutunaren izenean, egintza onen frutuak eurrez emon aal dagiguzan. Zugaz eta...

Opari-otoitza.—Onartu biotz onez, Jauna, gure doaiok; eta, Zuk eurok geure onerako santutzean, salbamen-doi izan dakiguzala egizu.

Azken-otoitza.—Apalik eskatzen dautsugu, Jaungoiko guztiaaldun orri: bizitza barria bizi izateko grazia lortu dogun guztiok, poztu gaitetzala beti Zuk egiten dauskuzun doai arrigarri onen bidez.

LAUGARREN ASTEA

Otoitza.—Eiguzu, Jauna, biotz guztiaz maite izan zagiguzala, eta, beraz, gure maitasuna andragizon guztiakana zabaldu daitela.

Opari-otoitza.—Gure serbitzaritzaren ezaugarri lez dakartzuguz oparigaiok zure altarara, Jauna; eta eiguzu, Zuk eurok onartzean, zure erria-

rentzat bizitza ta erospen-sakramentu biurtu daitezala.

Azken-otoitza.—Gure salbamenaren doaien bidez bizkortuta, apalik eskatzen dautsugu, Jauna: betiko bizitza emoten dauan ogiak, benetako fedean etenbagarik azi gagizala.

BOSGARREN ASTEA

Otoitza.—Zaindu egizuz, Jauna, zure etxekok maitasun etenbageaz; gorde ta babestu egizuz beti, euren itzaropena zeugan soillik jarri dabe-ta.

Opari-otoitza.—Geure indarrak barrizteko egin dozuz, gure Jainko Jaun orrek, ogi au ta ardao au; betiraunerako sakramentu be izan dakiguzala eiguzu.

Azken-otoitza.—Ogi berean eta ardao berean guk eskuartzea nai izan dozun Jaungoikoa: eiguzu, Kristo'gaz bat eginda bizi gaitetzala, gizakumeen salbamenaren onerako frutuak poz-pozik eka-ri dagiguzan.

SEIGARREN ASTEA

Otoitza.—Gogoko yatzu, Jauna, zure bizitokia biotzez garbi ta zintzoak diranakan jarrea; eiguzu, grazi-bizitza bizi izan dagigula, Zu beti geugaz eukitea merezi dagigun.

Opari-otoitza.—Gu zeruko bizigarritz janaritura, apalik eskatzen dautsugu, Jauna: benetako bizia dakarren iturriak gura izan dagiguzala beti.

Azken-otoitza.—Eskintza onek garbitu ta barriztu gagizala, Jauna, eta zure mai santua beteten dabeneztat, betiko sari-eragille izan daitela.

ZAZPIGARREN ASTEA

Otoitza.—Jaungoiko guztiaaldun eta betikoa: egiozu zure erriari, zure irakatsi-gogoan erabilteak, beti, berbaz eta egitez, Zeuri gogoko yatzuna beteten irakatsi dagiola.

Opari-otoitza.—Zure misterioak gurtza begirunetsuaz ospatzean, apalik eskatzen dautsugu, Jauna: Zu goratzeko eskiñitako doaiok, Zugandik salbamina lortu daiskuela.

Azken-otoitza.—Egunen baten betiko salbamina jaritea eiguzu, Jauna, salbamen orren asi-kiñak sakramentu oneitan emon dauskuz-ta.

ZORTZIGARREN ASTEA

Otoitza.—Emoiguzu zure laguntza, Jauna: zeure asmoen eratarra, munduak aurrera egin dagian, erriak bake iraunkorra izan dagian eta zure Elizea eskintza ustetsu ta baketsuaz zeure serbitzari aal izanaz poztu daiten.

Opari-otoitza.—Gure Jainko Jauna: Zeuk emoten dauskuzu Zeuri eskintzen dautsuguna eta

eskintza au gure serbitzaritza gogotsuaren ezaugarri bat lez begiraten dozu; uste onez eskatzen dautsugu: Zuk emoten dauskuzunak, geure irabazi biurtu daiten, betiko sariak lortzeko be lagun egin daiskula.

Azken-otoitza. — Salbamen-doaiz janaritura, apalik eskatzen dautsugu, Aita errukitsu orri: emoten dauskuzun sakramentu onen bidez sendotuta, egunen baten betiko bizitzan eskuartu dagigula.

BEDERATZIGARREN ASTEA

Otoitza.—Uste onez jarten gara, Jauna, iñoiz be utsik egiten ez dauan zure ardurapean; eta apalik eskatzen dautsugu: gugandik gaitz guztiak urrundu eta oraingo ta geroko bizitzarako lagun egin daikeguezan irabaziak emon dagiguzuzala.

Opari-otoitza.—Zuk dauskuzun maitasunean uste onez beterik dakartzugu zure altarara, Jauna, eskintza au: gu zeure graziaz garbituta, oraintxe ospatzen doguzan sakramentuok eurok loi guzti-tik garbitu gagiezan.

Azken-otoitza.—Zuzendu egizuz, Jauna, zure Espirituaren bidez, zeure Semearen Gorputz-Odolaz janaritu dozuzanak; eta egizu, berbaz bakarrik ez, baita geure egintzen egiaz be Zeu autorturik, zeruetako Erreñuan sartzea merezi dagigula.

AMARGARREN ASTEA

Otoitza.—On guztiaren iturri zaran Jaungoikoa: entzun etenbagarik gure eskariak; eta eiguzu, Zeuk argituta, zuzena dana buruan erabilli ta, zure laguntzaz, bete dagigula.

Opari-otoitza. — Begiratu gogo onez, Jauna, gure eginkizun apal au: eskintza onek, Zuretzat atsegingarri izanik, maitasunean aurrera eragin daiskun.

Azken-otoitza.—Aita errukitsu ori! Zure eragin osasungarriak gure gaiztakeriak osatu eta onbidetik eroan gagizala.

AMAIKAGARREN ASTEA

Otoitza. — Euren uste ona Zeugan dabenen indarra zaran Jaungoikoa: entzun gure eskariak; eta, gizakiak, makala izanik, Zeu bagarik ezin ezer egin daiken ezkerro, emoiguzu zure graziaren laguntza, zeure aginduak gorde dagiguzan eta gure egitada ta gurarien bidez atsegin gagizuzan.

Opari-otoitza.—Zeuk emon dauskuzu, Jauna, ekarri dautsuguzan doaion bidez, gorputzeko janari au eta gure espiritua barrizten dauan sakramentu au; eiguzu, ba, biotz onez, doaion laguntza beti izan dagigula.

Azken-otoitza.—Zure misterioetan dogun al-

kartze onek, Jauna, Zugaz bat-egitearen adierazpena dan ezkerro, zure Elizan batasuna osotu dagiala.

AMABIGARREN ASTEA

Otoitza.—Eiguzu, Jauna, beti zeure maitasunean eta zeure izen santuari dagokion begirunean bizi gaitetzala: zeure maitasunaren oiñarri sendoan ezarten dozuzanak iñoiz be ez dozuz zuzendu bagarik izten-eta.

Opari-otoitza.—Onartu egizu, Jauna, adiskidezko ta gorapenezko opari au: gu, aren aal-izateaz garbituta, gure maitasunaren eskintzaz gogoko izan gagizuzan.

Azken-otoitza. — Zeure Semearen Gorputz-Odolaz garbituta, zeure biotz onari eskatzen dautsagu, Jauna: eukaristia egiten dogun baktotxean ospatzen dogun guztia, salbamen-ezaugarri izan dakigula.

AMAIRUGARREN ASTEA

Otoitza.—Zure graziaren bidez, argiaren seme egin gaituzun biotz oneko Aita: eiguzu, federrakuntzaren illunpeetatik kanpo bizi gaitetzala eta egiaren diztiratan iraun dagigula.

Opari-otoitza.—Zure sakramentuetan aal-izatez diarduzun Jaungoikoa: eiguzu, gure serbitzaritza doai santuon duin izan daitela.

Azken-otoitza. — Alkartasunez eskifita artu dogun eukaristi-opariak bizkortu gagizala, Jauna: Zeuri lotuta, goimaitasun etenbagean, beti irauteko frutuak ekarri dagiguzan.

AMALAUGARREN ASTEA

Otoitza.—Zure Semearen becratzearen bidez, gizadi jausia gora jaso zenduan Jaungoikoa; emon egiezu zure zintzoai poz santua: pekatuaren buztarpetik askatuta, zeruko atsegiñak lortu aal dagiezan.

Opari-otoitza. — Garbitu gagizala, Jauna, eskintzen dautsugun opari onek, eta egunean-egunean erreñu goragarriaren bizitzaz osoago egin gagizala erdikide.

Azken-otoitza.—Onelako sakramentu arrigarriaz janaritura, emoiguzuz, Jauna beronen salbamen-frutuak eta zeure gorapenak abesten iraun dagigula beti.

AMABOSGARREN ASTEA

Otoitza.—Zeure egiaren argiak zuzendu dadizala, Jauna, bidea galduta dabizanak, santutasun-bidera biurtu aal daitezcan; eta egizu, kristau guztiak izen oni gai ez yakona baztatu eta izen onetan adierazoten dana bete dagiela.

Opari-otoitza. — Begiratu, Jauna, otoitzean

diarduan zure Elizearen oparigaiok; eta egizu, doaiok artuko dabezanak santutasunean etenbagarik azi daitezala.

Azken-otoitza.—Eukaristi onen bidez janarituta, apalik eskatzen dautsugu, Jauna: sakramentu au ospatzen dogun baktotxean, salbamen-frutua geitu daitela gugan.

AMASEIGARREN ASTEA

Otoitza.—Izan zaitez zure semeen aldeko, Jauna, eta ugaritu egiezuz zure graziaren doaiak: fedez, itxaropenez eta goimaitasunez iziotuta, zeure legea beteten sendo iraun dagien.

Opari-otoitza.—Antxiñako Alkartasuneko opariak opari bakar baten bikaindu dozuzan Jaungoikoa; onartu ta santutu egizu zure zintzoen eskintza au, Abel'ena bedeinkatu zenduanez: guretariko baktotxak zeure izenaren omenez eskintzen dauan oparigaiak, guztien salbamenerako balio dagian.

Azken-otoitza.—Izan zaitez zure erriaren aldeko, Jauna; eta erreñuko misterioak irakatsi dautsezuzanai, pekatua alde batera iztea eta bizikera barri batera aldatzea emon egiezu.

AMAZAZPIGARREN ASTEA

Otoitza.—Euren uste ona Zeugan dabenen Jaungoikoa; Zeu bagarik, ezer ez da indartu, ezer be ez da santu. Ugaritu egizuz gugan zure errukiaren ezaugarriak: Zuk arduratsu zuzenduta, ondasun igarokorrak egoki erabillirik, betiko ondasunai lotu aal gakiezan.

Opari-otoitza.—Onartu egizuz, Jauna, zure eskuzabaltasunaren doiai lez dakartzuguzan oparigaiok: misterio santu oneik—eurotan agertzen da zure grazi eragillea—gure bizitzako egunak santutu dagiezala eta betiko pozetara eroan gagezala.

Azken-otoitza.—Zeure Semearen Nekaldia- ren betiko gomutapen dan sakramentu au artu dogun ezkeru, Jauna, egiguzu: zure maitasun bikaiñaren doai au salbamenerako on izan dakigula.

AMAZORTZIGARREN ASTEA

Otoitza.—Zatoz, Jauna, zure semeai laguntza ekartera; isuri egiezu zure ontasun agortu-eziña otoitza egiten dautsuenen gafiñera, eta barriztu ta gorde zure egitea Zu egille ta zuzentzailetzat goratzen zaituenen alde.

Opari-otoitza.—Santutu biotz onez, Jauna, oparigaiok; onartu espirituzko opari onen eskintza au eta gu etenbagako oparigai biurtu gagezuz.

Azken-otoitza.—Gorde egizuz beti zure laguntzaz, Jauna, zeruko ogiaz barriztu dozuzanok;

eta egizu, etenbagarik indartzen dozuzanok, betiko erospenaren duin izan daitezala.

EMERETZIGARREN ASTEA

Otoitza.—Zuri, Jaungoiko guztiaaldun eta betiko orri, izena Aita esan daiketuzgu; geitu gure biotzetan seme-espirtua, agintzariz eskifiitako oiñordetza lortzea merezi dagigun.

Opari-otoitza.—Onartu egizuz, Jauna, zeure Elizeari emon dautsazuzan doaiok, Zeuri eskiñi aal dagitzuzan eta geure salbamen-sakramentu biurtu aal dagizan.

Azken-otoitza.—Zure sakramentuetan dogun alkartzeak, Jauna, onik atara eta zeure egiaren argitan sendotu gagezala.

OGEIGARREN ASTEA

Otoitza.—Zu maite zaituenai ondasun bikaiñak atondu dautsezuzan Jaungoikoa; isuri egizu gure biotzetara zure izenaren maitasuna: Zu edozetan eta gauza guztien gafiñetik maite izanik, gurari guztiak garaitzen dabezan zure agintzariak lortzera eldu gaitzezan.

Opari-otoitza.—Onartu egizuz, Jauna, gure doaiok, eurotan egiten da-ta artu-emon bikain bat: Zuk emon zeuskuna Zeuri eskintzean, Zeu artzea merezi dagigun.

Azken-otoitza.—Sakramentu onetan Kristo artuta gero, zeure errukiaren izenean eskatzen dautsugu, Jauna: lur onetan Aren antzeko biurtuta, Aren aintzaren erdikide izatea merezi dagigula zeruan.

OGETA BATGARREN ASTEA

Otoitza.—Zure zintzoen biotzak gogo batez alkartzen dozuzan Jaungoikoa; biztu egiozuz zure erriari zure aginduetarako maitasuna ta zure agintzarietarako itxaropena: gizarteko gora-beeren artean, gure biotzak benetako pozetan sendo egon daitezcan.

Opari-otoitza.—Zeure Seme bakar dan Kristo'ren opari bakarraren bidez, seme-erri baten jabe egin zara, Jauna; emoiguzuz biotz onez zure Elizan batasun eta bake-doaiak.

Azken-otoitza.—Gugan zeure errukiaren egingtza salbatzaillea osotu dagizula eskatzen dautsugu, Jauna; eroan gagezuz orren bikaintasun garaitara eta berton gogortu gagezuz, edozetan Zuri gogoko izaten jakin dagigun.

OGETA BIGARREN ASTEA

Otoitza.—Zeugandik, Jaungoiko guztiaaldun orregandik, dator edozein doai bikain; isuri egizu gure biotzetara zure izenaren maitasuna: gure bizikerea Jainko-zaleago egiñik, gugan ona dana geitu eta ardura maitekorraz iraunerazo dagizun.

Opari-otoitza.—Eskintza onek beti zeure be-
deinkapen salbatzaillea erakarri daiskula, Jauna:
misterio oneitan ospatzen doguna, zeure aal-iza-
tearen bidez burutu daiten.

Azken-otoitza. — Zeruko ogiaz aseta, apalik
eskatzen dautsugu, Jauna: janaritzat emoten daus-
kuzun maitasunak, gure biotzak sendotu dagizala
eta gure anai-arreben artean Zeure serbitzari izate-
ra eragin daiskula.

OGETA IRUGARREN ASTEA

Otoitza.—Gu erosi ta semetzat artu gaituzun
gure Aita ta Jauna: begiratu biotz onez orrenbes-
te maite dozuzanak; eta, Kristo(gan) sinisten do-
gun ezkerro, emoiguzu benetako askatasuna ta san-
tuen oiñordetza.

Opari-otoitza.—Bakearen eta maitasun zin-
tzoaren iturri zaran Jaungoikoa: egiguzu, opari-
gaion bidez goratu zagiguzala eta eukaristi onetan
eskuartzearen bitartez Zuri zintzoro alkartu daki-
zuzala.

Azken-otoitza.—Zeure itzaz eta zeruko zeure
ogiaz janaritzen eta bizkortzen dozuz, Jauna, zure
zintzoak; eiguzu, zure Semearen doai oneik on
egin daiskuela, beti euron bizitzaren erdikide iza-
tea merezi dagigin.

OGETA LAUGARREN ASTEA

Otoitza.—Begiratu gagizuz, gauza guztien egi-
lle ta jabe zaran Jaungoiko orrek; eta, zeure mai-
tasunaren ondorena somatu dagigin, biotz-bio-
tzez otseindu zagiguzala eiguzu.

Opari-otoitza.—Izan bekizuz gogoko, Jauna,
gure eskariok, eta onartu egizuz biotz onez zure
serbitzarion oparigaiok: bakotzak zeure izenaren
omenez eskintzen dauan opariagaiak, guztien sal-
bamenerako balio dagian.

Azken-otoitza.—Alkartze onen grazia, Jauna,
sartu daitela gure gorputz eta espirituari: gure bi-
zitza eragin dagiana geure sentikizuna izan baga-
rik, aren indarra izan daiten.

OGETA BOSGARREN ASTEA

Otoitza.—Legea oso-osorik Zeuganako ta la-
gun-urkoaganako maitasunean jarri dozun Jaun-
goikoa: eiguzu, zeure aginduak bete dagiguzala,
olan betiko bizitzara eldu gaitezcan.

Opari-otoitza.—Onartu biotz onez, Jauna, zu-
re erriaren oparigaiok, eukaristi-sakramentuan fe-
dearen bidez sinistu dauzan ondasunak lortu da-
gizan.

Azken-otoitza. — Zure laguntzak lagun egin
daiskula beti, Jauna, zeure sakramentuen bidez
janaritzen gaituzunoi: zure misterioetan eta geure
bizitzan erospenaren frutuak artu dagiguzan.

OGETA SEIGARREN ASTEA

Otoitza.—Zure aal-izatea batez be parkame-
naz eta errukiaz agertzen dozun Jaungoikoa; isuri
eiguzu etenbagarik zure grazia: agintzaritzat es-
kintzen dauskuzuna gura izanik, zeruko ondasu-
nak lortu dagiguzan.

Opari-otoitza. — Jaungoiko errukitsua! Gure
eskintza au gogoko izan dakizula, eta edozein be-
deinkapenen iturria zabaldu dagiala gugan berak.

Azken-otoitza.—Eukaristi onek barriztu da-
gizala, Jauna, gure gorputz-espirtuak, zeure Se-
mearen oiñordetza goragarrian eskuartu dagigin,
Aren eriotza iragarri dogu-ta, baita Aren eriotzan
parte artu be.

OGETA ZAZPIGARREN ASTEA

Otoitza.—Zuri eskatzen dautsuezanen iraba-
zi ta gurariak maitasun eskuzabalez gaintzen do-
zuzan Jaungoiko guztiaaldun eta betikoa: isuri
eiguzu zure errukia, gure barrua edozein gaizta-
keritik atara dagizun eta Zuri eskatzeko adorerik
ez daukaguna be emon daiskuzun.

Opari-otoitza.—Onartu egizuz, Jauna, Zeuk
sortu dozun eskintza au; eta, Zuri eskerrak emo-
teko ospatzen doguzan misterio santuon bidez,
santutu egizuz Zeuk erosi dozuzanak.

Azken-otoitza. — Eiguzu, Jauna: sakramentu
oneitan artu doguzan ogi-ardao oneik Kristo'gan
aldatu gagiezala. Zugaz eta...

OGETA ZORTZIGARREN ASTEA

Otoitza.—Apalik eskatzen dautsugu, Jauna:
zure graziak etenbagarik aurea artu ta lagun egin
daiskula, ona dana egiteko beti gertu egon gaite-
zan.

Opari-otoitza. — Onartu egizuz, Jauna, zure
semeen eskariok oparigaiokaz batera: maitasunez
ospatzen dogun eukaristi onek, zeruko aintzara
eroan gagizan.

Azken-otoitza. — Aapal-apalik eskatzen dau-
tsugu Jaungoiko aundi orri: zeure Semearen Gor-
putz-Odolaz janaritzen gaituzunez, Beronen jaun-
goikozko izatearen erdikide be egin gagizuzala.

OGETA BEDERATZIGARREN ASTEA

Otoitza.—Jaungoiko guztiaaldun eta betikoa!
Gure buruak zure eskuetan zintzoro jarrea eta zu-
re serbitzari biotz zintzoz izatea eskatzen dautsu-
gu.

Opari-otoitza.—Eiguzu, J a u n a, oparigaiok
biotz nasaiz eskifii dagitzuguzala, orain ospatzen
doguzan misterio oneitan zeure graziak garbitu
dagizan.

Azken-otoitza.—Eukaristi onetan sarri esku-
artzeak on egin daiskula, Jauna: lurrean zeure me-

sedetan poztu gaitezana eta zeruko ondasunen eza-
guerea geitu daiskun.

OGETA AMARGARREN ASTEA

Otoitza. — Geitu egizuz, Jaungoiko guztiaaldun orrek, gure fedea, itxaropena ta goimaitasuna; eta, zeure agintzariak lortzeko, zeure aginduk maite izatea egiguzu.

Opari-otoitza. — Begiratu egizuz, Jauna, ona dakartzuguzan oparigaiok, gure Meza-ospatze au zeure aintza ta gorapenerako izan daiten.

Azken-otoitza. — Zure sakramentuak, Jauna, eurak adierazten dabena egin dagiela gudan: egunen baten orain egintza santu oneitan ospatzen dogunaren jabe egin gaitezana benetan.

OGETA AMAIKAGARREN ASTEA

Otoitza. — Zeuri esker, zure zintzoen serbitzaritza egoki ta atsegingarri egin nai izan dozun Jaun aaltu ta errukiorra; Zuk agintzaritza eskintzen dauskuzuzan ondasunetaruntz eragozpen bagarik ibilli gaitezala eiguzu.

Azken-otoitza. — Zure aal-izatearen eragiña geitu daitela gudan, eskatzen dautsugu, Jauna: gu sakramentuan bidez janarituta, zure graziak zeure agintzariak artzeko gertatu gagizan, sakramentuk zeure agintzariz aberasten dozuz-ta.

Opari-otoitza. — Opari au, Jauna, zuretzat eskintza garbi eta guretzat zure errukiaren isurte oparotsu izan daitela.

OGETA AMABIGARREN ASTEA

Otoitza. — Urrundu gugandik gaitz guztiak, Jaungoiko guztiaaldun eta errukitsu orrek: gure gorputz-espirtuak ondo gertatuta, zure naia nasainasai bete aal dagigun.

Opari-otoitza. — Begiratu, Jauna, ona dakartzuguzan opariok: zeure Semearen nekaldiaren misterioa ospatzean, gure biotzean aren frutuz poztu gaitezana.

Azken-otoitza. — Eukaristi onen bidez janarituta, aurrean jarten dautsugu, Jauna, gure eskeremotea, eta zeure errukiari eskatzen dautsugu: goitiko indarra artu dabengan, Espiritu Santuak zintzotasunaren grazia beti biztuta iraunerazo dagiala.

OGETA AMAIRUGARREN ASTEA

Otoitza. — Zure serbitzaritza beti pozik bizi gaitezala, gure Jainko Jauna: on guztien egille zaran Orren serbitzari izatean dago atsegin oso ta benetakoa-ta.

Opari-otoitza. — Eiguzu, Jauna: eskintza au gogoko izan daitela zure aurrean, berak lortu dais-

kula maitasunaz sentitzeko grazia eta betiko atsegiñak jadetsi daiskuzala.

Azken-otoitza. — Zure sakramentuaren doai santua artu dogun ezkerok, apalik eskatzen dautsugu, Jauna: zure Semeak ospatzeko agindu euskun gomutagarriak, guztiokan goimaitasuna geitu dagiala.

OGETA AMALAU GARREN ASTEA

Otoitza. — Eragiezu, Jauna, zure semeen biotzai: zure graziari biotz zabalez erantzunik, zure ontasunaren laguntza ugariago artu dagien.

Opari-otoitza. — Onartu egizuz, Jauna, zeure izenari eskintzeko agindu zeuskuzan doai santuk; eta, doai oneik zeure gogoko egin gagiezan, beti zure aginduen esaneko izan gaitezala eiguzu.

Azken-otoitza. — Zure sakramentuan eskuartzeaz poztu gaituzun ezkerok, Jaungoiko guztiaaldun, ez eiguzu itzi Zugandik alde egiten.

JAINKO-ERRIAREN OTOITZA

ZER DAN

Jaungoikoari egiten yakon otoitz bat: abadeak orretarako dei egini, fededunen batzarrak, Eliza osoaren eta mundu guztiaren bearrizan eta premiñetarako, Jaungoikoari egiten dautsan otoitz bat.

Eskatzeko otoitz bat: ez dautso Jaungoikoari gurtzarik egiten, ez eskerronik agertzen, ezta santurik goratzen be; ez dau sinismeneko egia andirik autortzen, ez gure eginbideen barririk aitatzen.

Eskatzeko otoitz bat da, beraz: ez, ostera, bakotzak bere asmoetarako egiten dauan otoitza, Jaungoikoaren erriak guztien alde egiten dauana baiño.

Jaungoikoaren erriak egia: gogoan dauko-ta Santuen Alkartasuna, eta gizon guztien ardurea bere gain daukana.

Gogoan dauko, gaira, Jaungoikoaren erria, Jaungoikoaren beraren eta gizonen artean bitarteko jarria dana, Kristo abade nagusi, abade bakarraren abadetza-barruan jarria dana. Eta Jaungoikoaren erriak ezin obeto erakusten dau abade-erri dana, sakramentuetan eskuarturik eta otoitz onein bidez.

ZELAN EGIN

Otoitz orrek lau zati ditu: 1) Abadearen deia; 2) Asmoak eta eskariak; 3) Erriaren erantzuna; 4) Azken-otoitza.

1) *Abadearen deia*.—Abadeak eskatu bear dautse fededunai otoitz egiteko. Erriari egiten dautso berba abadeak dei orretan, eta ez Jaungoikoari.

Dei ori abadeak berak be asmatu daike bere gogokoa. Baiña, izan au aurrean: ez dagiala or beste itzaldi bat egin, eta aurretiaz idatzita eroan dagiala.

2) *Asmoak edo eskariak*.—Orreik ez ditu abade meza-emoilleak esan bear, zuzendariak baiño.

Asmo orreik lau muetakoak dira: liburu onetan A, B, C, D, izkiz edo letraz izentatuak dagoz. A: Elizaren alde diranak; B: mundu oni dagokiozanak; C: nekepean eta oiñazetan bizi diranen alde; D: elizan batuta dagozanen alde.

Mueta bakotxetik *asmo bat bakarrik* artu bear da. Guztira *lau*, gutxienez.

ZELAN AUKERATU ASMOAK?

Emen domeka bakotxerako ipiñita dagozanak artu daitekez, edo-ta aldi berarizkoetarako ipiñi diranak. Baiña obe litzake, orreitan edo besteetan, itzaldiaren gaiaz ondo datozeanak, edo asteko jazopenen bati ondo datorkiozanak. Nok egin bear

dau aukeratze ori? Abadeak; baiña ederto be ederto litzake aukeratze ori kristauren batzukaz egitea.

Asmo ta eskari orreitan, abadeak berak asmatutakoren bat edo beste be sartu daiteke; alan be, emen ipiñitakoen antzera egia izan daitezala; eta eskari orreik ez dirala bakar baten edo besteren asmotarako egiten. (Besterik da ezkontzako ta illen mezak diranean.)

ASMOAK, IRAKURRI ALA ABESTU?

Ori, norberaren aukeran. Astegunetan, irakurtea obe; domeka ta jaiegunetan, barriz, kantatzea. Baiña eskari guztiak bardin amaitu: «*Eskatu daio-gun Jaunari*». Ori, bear-bearrezkoa da, eliztarrak noiz erantzun jakin dagien.

3) *Erriaren erantzuna*.—Nai-ta-naiezkoa ori, orrelaxe biurtzen da-ta otoitza fededunen otoitz.

Ez da, beraz, naikoa abadeak, naiz laguntzailleak, naiz kantariak erantzutea. Guztiak erantzun bear dabe, *eta abestu be bai*, kantuz erantzuten danean: «*Entzun, arren, Jauna*», edo «*Entzun, Jauna, eskatzen dautsugu*».

4) *Amaitzeko otoitza*.—Otoitz ori beti abadeak esan bear dau, baiña «*Egin daigun otoitz*» esan bagarik. Aukeratu daiteke liburu onetatik nai dagiana, eta beti «*Jesukristo gure Jaunaren bitartez*» amaikera laburrez amaitu. Ondo litzake azken-berba orreik, beintzat, kantatzea, erriak «*Amen*» erantzun dagian.

* * *

Jainko-erriaren otoitza bearrezkoa da domeka ta jaiegun guztietan. Baiña beste egunetan be egin daiteke (eta obe egingo ba'litz), baita Mezaz kanpo be.

ABADEAREN DEIA

1. Kristau maiteok: alkarregaz otoitzean baturik, eskatu daiogun Jaungoiko onari geure alde ta andra-gizon guztien alde.
2. Alkarregaz bat egiñez, Kristau maiteok, eldu-azo dagigun gure otoitza Jaungoikoaganaiño, andra-gizon guztien alde, guztiak bizitza gozo baizen baliotsua eroan dagien, eta betiko zorionera eldu daitezcan.
3. Orain, anai-arreba maiteok, eldu-azo dagigun Jaungoikoagana izaki guztien uste onezko deia.
4. Anai-arrebok: alkarregaz egingo dogun otoitz onetan, ez daiguzan geure burua ta maite ditugunak soillik gogoan izan; izan bedi gure otoitza; Eliza osoaren eta mundu guztiaren alde.
5. Jaungoikoaren graziak esker onez aitatzeko batuta gagozan eskero, eskatu daiogun sorrerazo dagiala gure biotzetan Berak gogoz entzungo dauan otoitza.
6. Eta orain, anai-arreba maiteok, ezagutu dagiezala gure biotzak gure lagun-urkoen bearrizan eta premiñak. Eskatu dagigun arein alde, eurak ez-jakiñez edo nai-ezta, eskatzen ez dabena.
7. Anai-arrebok: ezin maite daikegu Jaungoikoa, lagun-urkoaz gomutatu bagarik. Elizaren umeok, andra-gizon guztien senide garan ezkerok, otoitz egin dagigun mundu guztiaren alde.
8. Eskatu daiogun Jaungoiko errukiz beteari, lagun egin daiskula bear dan lez otoitz egiten.
9. Anai-arrebok: bateoari esker, abade-erri bat gara guztiok, eta eldu-azo daikegu Jaungoikoagana munduaren otoitza. Eskiñi daioguzan, ba, Jaungoikoari gizaki guztien deiak eta eskariak.
10. Kristau anai-arrebok: Jaungoikoa geure ototzen zain dago, bere graziak emoteko. Egin daiogun gure Aitari, mundu guztiaren salbamenerako, otoitz gartsu bat.
11. Eldu dakiola Jaungoikoari gure otoitza, gizaki guztiak lurrean zuzenbidez eta anai lez bizi daitezcan.
12. Entzungo dituala emon eban itza Jaungoikoak, bere Seme Jesukristoren bitartez egiten yakozan otoitzak. Uste on orrezaz egin daiogun otoitz zeruko Aitari.
13. Jaungoiko guztiz aalitsuak nai dau gizaki guztiak zeruratu ta Aren egiara eltzea. Egin daiogun otoitz guztien alde biotz-biotzez.
14. Anai-arreba maiteok: berba egin daiogun Jaungoiko guztiz aaltsuari mundu osoaren alde, apalik otoitz egiñez.
15. Anai-arreba maiteok: Jaungoiko aalitsuak bat egin gaitu bere maitasunean. Egin daiogun otoitz gartsu, bere errukiaren graziak andra-gizon guztiakana isuri dagizan.
16. Anai-arreba maiteok: Aitari bere izenean eskatutakoa emon egingo yakula esan dau Jesus'ek. Kristo'gaz bat egiñez, egin daiogun dei Jaungoiko Aitari.
17. Gure biotz eta fede guztiaz, eskiñi daioguzan, anai-arreba maiteok, apal-apalik gure eskariak Jaungoikoari.
18. Anai-arreba maiteok: gure biotzak Kristo'rena baizen maitetsu egiñik, otoitz egin daiogun Jaungoiko Aitari, senide ditugun andra-gizon guztien asmoetarako.
19. Jaungoikoaren biotz onean uste andiz, eskiñi daioguzan Aita orri, kristau maiteok, munduaren itxaropenezko deiak eta eskariak.
20. Anai-arreba maiteok: guztiok batera deadar egin daiogun Jaungoikoari anai-arreba ditugun guztien alde, gure deia entzungo daukun uste oso-osoaz.

AMAIERAKO OTOITZAK

1. Jaungoiko Jauna, gure igesleku ta indarra! Egiatzko otoitza Zeuk sorrerazoten dozun ezker, entzun, arren, zure Elizaren eskaria: egizu, fede andiz eskatzen doguna, osorik jadetsi dagiguia. Jesukristo gure Jaunaren bitartez. Amen.
2. Jaungoiko guztiz aalitsu ta betikoa! Zeruko ta lurreko guztiak Zeuk darabizuz; entzun biotz onez zure erriaren otoitzak. Jesukristo gure Jaunaren bitartez.
3. Begira, Jauna, zure etxeokak zure maitasun etenbageaz; eta uste oso bakarra zeure grazian dogun ezker, zeure babespean zaindu gagizuz. Jesukristo gure Jaunaren bitartez.
4. Zagoz, Jauna, zure serbitzarien ondoan, eta Zugan uste ona dabena, agertu beti zure Biotz ona; Egille ta Nagusi lez goratzen zaituen ezker, lagundu ta zaindu egizuz Zeugana batu diranak. Jesukristo...
5. Zure maitasun etenbageak zaindu dagiala, Jauna, zure erria; bere zorion bakarra zeure grazia dauan ezker, gorde egizu zeru-gaiñetik. Jesukristo...
6. Jauna! Lagun egiezu, arren, zeruko indarrez, zure serbitzariai; euren biotz guztiaz billatu zagiezan, eta, bear danez eskatzen dabena, Zeugandik jadetsi dagien. Jesukristo...
7. Jaungoiko guztiz aalitsu ta betikoa, naigabetu pozigillea ta jausien indarra! Eldu bekizuz edozein estualditik Zeuri deika dagozanen otoitzak; zure errukiaren laguntza arturik, guztiak poztu daitezana. Jesukristo...
8. Zabaldu, Jauna, zure Biotz biguna zure aurrean otoitzean diarduenai; eta nai dabena jaristeko, egizu, atsegin yatzuna eskatu dagiela. Jesukristo...
9. Jaungoiko guztiz aalitsu ta betikoa! Neurribagea da zure maitasuna, eta merezi ta uste baiño oparoago beteten dituzu gure eskariak: isuri egizu gugana zure Biotz onaren gaiñezkoa, eta emon eskatzen ausartzen ez garana. Jesukristo...
10. Onartu egizuz, Jauna, gure otoitzak, eta zaindu egizu zure Elizea gaitz guztietatik. Jesukristo...
11. Jaungoiko Jauna, Zeu zara gure laguntza ta indarra! Ikusi, arren, Zuri erreguka dagoan Elizea; eta grazi guztien iturri zaran ezker, emoiguzu gure fedeak eskatzen dauana. Jesukristo...
12. Jauna! Zuk gizon guztiak zeruratu nai dozuz, iñor be galdu bagarik. Entzun egizu zure erriaren otoitza, eta emoiozu zoriona. Jesukristo...
13. Zure etxeokak Zeugan dabe uste ona, Jauna! Entzun egizuz arein otoitzak eta bete egizuz zure ondasunez. Jesukristo...
14. Entzun, Jauna, zure erriaren eskariak: merezi daualako ez, Zu ona zaralako baiño. Jesukristo...
15. Begiratu egizu, Jauna, Zugan uste ona dauan erria! Zeu bagarik ezin iraun dauan ezker, lagun egiozu orain, betiko zorionera. Jesukristo...
16. Jauna! Zatoz zure Biotz onean uste ona dauan erriari lagun egitera. Zeure aal-izateak zaindu dagiala bizitza onetan, eta eroan betiko zorionera. Jesukristo...
17. Jauna! Zuk dana dakizu, eta gure bizitza onetako bearrizan guztiak ikusten dituzu. Onartu egizuz Zeugan sinisten dabenen otoitzak, eta erantzun euren eskariak. Jesukristo...
18. Zatoz, Jauna, zure onean, zure erriaren deiari erantzutera: Zugan uste ona dauala eskatzen dauana, zeure Biotz samurretik jadetsi dagian. Jesukristo...
19. Entzun, Jauna, zure erriaren eskariak! Emoiezu guztiai eskatzen dabena, eta bakotxari bear dauana. Jesukristo...
20. Zatoz, arren, Jauna, Zuri erreguka dagozanai lagun egitera! Ez itxi laguntza bagarik lur onetan, zeruko zorionera eroan nai dituzunak. Jesukristo...
21. Biotz oneko Jauna! Entzun Zeugana doan otoitz apala! Gure naiak entzunak izan daitezana, egizu, Zeuk maite dozuna nai izan dagigula beti. Jesukristo...
22. Jaungoiko gure Aita! Entzun zure etxeoen otoitza! Egizu, Zeuk maite dozuna eskatu, eta Zeuk emon dagizuna maite izan dagigula. Jesukristo...
23. Jauna! Egin dautsuguz gure eskariak. Bedeinkatu egizu zure erria ta bete zure graziaz. Jesukristo...
24. Izan egizu, Jauna, zure erriaren ardurea; eta, aren eskariak entzunaz, eroan egizu zure bidean. Jesukristo...
25. Entzun, Jauna, erri oni Zeuk gogora ekarri dautsazuzan otoitzak, eta ez itxi baztarrean gure eskariak. Jesukristo...
26. Jaungoiko guztiz ona! Guk merezi ezarren, entzun egizuz, arren, zure erriaren eskariak, eta batu gagizuz zure maitasunean. Jesukristo...

IGANDEETARAKO

ABENDUA (1)

Anai-arrebok: Jesukristo gure Jaunaren etorrera-zain gagoz gartsu. Otoitz egin daiogun Aren Biotz onari, oraingo munduari salbamena ekarri dagion.

- 1 A Eliza Ama santuaren alde: Jaunaren grazian egunetik egunera erabarritu dadin:
B. — ESKATU DAI OGUN JAUNARI:
E. — ENTZUN, ARREN, JAUNA!, edo ENTZUN, JAUNA, ESKATZEN DAUTSUGU.

- 2 A I... gure Aita Santuaren alde, I... gure Gotzaiñaren alde, (munduko gotzain guztien alde): Jaunak bere Espirituaren doaiez bete dagizan.
3 B Gure erriaren alde: Jaungoikoak zorionean eta bakean gorde dagian.
4 B Gure agintarien alde: guztien ona nai izan eta billatu dagien.
5 C Gure geisoen, gosetien eta neketuen alde: gure maitasunaren bidez, Jaungoikoak lagun egin dagitsen.
6 D Gu guztion alde: oraingo aldi oneitan Jaungoikoaren autorle ta testigu izan gaitezán.
7 D Jesukristo etorri daitenean, bizkor eta iratzarririk aurkitu gagizan.

ABENDUA (2)

Anai-arrebok: eldu-azo dagigun gure biotzen deia zeruko Aitagana, andra-gizon guztiak Aren salbamena ikusi dagien.

- 1 A Mundu zabaleko kristauen alde: Jaungoikoak gertatu dagizan arein biotzak: Jesukristo Aren Semeari, bariro etorri daitenean, ondotorria pozaren-pozez egin dagioen. Eskatu...
2 B Galbide ta arriskueta diranen alde: bide onera biurtu daitezán; munduko atsegin eta ondasunetan biotza daukenen alde: begiak zeru-aldera jaso dagiezan.
3 C Lanez itota dagozanen alde; iñoren eta ezeren laguntza bagarik, bertan-beera itxita dagozanen alde; gosez bizi diran errien alde.
4 D Kristo'ren etorrerari esker, emen batu garanon alde: Kristo'k berak gorde gagizan gure pekatuetatik eta ondo mereziak ditugun zigorraldietatik.

ABENDUKO LENENGO IGANDEA

Anai-arrebok: Alkartu daiguzan gure ototzak, Jaungoikoari eskari bero bat egiteko: gertatu dagizala gure biotzak, Kristo'k iragarten dauskuzan jazoera andietarako.

- 1 A Eliza osoaren alde: bere lanen bidez gertatu dagian bidea egunetik egunera, Salbatzaillearen misteriozko etorrerarentzat. Eskatu...
2 B Agintarien eta zuzenbidearen alde alegintzen diranen alde: etortekoa dan Jaungoikoaren Erreiñua gertatu dagien oraindixek.
3 A Kristau guztien alde: euren griña ta arduren erdian, zerurako itxaropenari sendo oratu dagioen.
4 C Uste ona galduta bizi diranen alde: Espiritu Santuak argitu, bizkortu ta indartu dagian arein biotza.
5 D Gaur emen batu garan guztion alde: Gabonetako jaietarako oraindixek gertatu gaitezán.

ABENDUKO BIGARREN IGANDEA

Anai-arrebok: Otoitz gartsu batáz, eskatu daiogun Jaunari, bere Ebanjelioko argiaz argitu dagizala andra-gizon guztiak.

- 1 A Gaur eguneko Elizaren alde: Elizaren barruan lanean diarduan Jesukristo gure Jauna andra-gizon guztiak ezagutu dagien. Eskatu.
2 B Gure agintarien alde: euren erabagietan, apalaren eta beartsuaren ardurea izan dagien.
3 C Gure anai-arreba diran beartsu guztien alde: Ebanjelioa entzun eta onartu dagien.
4 C Nekepean dagozanen alde; geisoen eta zaarren alde: euren nekeetan Jaungoikoazko indarren batek eutsi dagitsen.
5 C Gabonak zer diran jakin bagarik, Gabonen zain dagozanen alde: areitariko askok, egun ori datorrenean, Kristo ezagutu dagien.
6 D Emen gagozan guztion alde: Kristo'k ekarri dauskun Barri Onaren egiazko entzule ta autorle izan gaitezán.

ABENDUKO IRUGARREN IGANDEA

Anai-arrebok: Alkartu daiguzan gure ototzak, andra-gizon guztiak Kristo'ren etorrerarako gertatu daitezán.

- 1 A Eliza gure Amaren alde: mundu guztiarentzat Kristo'ren erri ta testigu lez agertu daiten. Eskatu...
2 A Elizako Artzain guztien alde: kristau-artaldea ondo erabilteko bear dan eskua ta indarra izan dagien beti.
3 A Bateatutako guztien alde: bateoak sortzen dituan eginbearrak geroago ta obeto jakin dagiezan.
4 B Gizarteko ta erriko gaietan aginpidea dabenen alde: arein lanak eta alegiñak jentea bere estualdietatik atara dagien.
5 C Argiaren ondotik eta aren billa dabizan gure anai-arreben alde: euren bidean, Kristo'gana eroan dagizan Joan Bateatzaillea lako norbait aurkitu dagien.

- 6 D Emen garan guztion alde: guk be sinismena argitzeko gogo bizia izan dagigun.

ABENDUKO LAUGARREN IGANDEA

Anai-arrebok: Gabonak laster doguz. Kristo barriro geugana datorren aldi onetan, eskatu daiogun guztiok batera Jaungoikoari, sartu dadilla gizon guztien biotzean.

- 1 A Oraingoa ta betikoa dan Elizearen alde: aren jokabidean, munduak Kristo aurkitu dagian. Eskatu...
- 2 B Mundu onetako premiña andi guztien alde: gizaki guztiakan maitasun, zuzenbide ta bake geiago izan dadin.
- 3 B Gizaki guztien alde: fededun naiz fede bagarik, Gabonetako poza guzti-guztiak ezagutu dagien; eta guk, Salbatzailleaganako bidea erakutsi daiegun.
- 4 C Salbatzaille baten zain bizi diran ainbeste gizakien alde: Salbatzaille bakarraren izena ezagutu ta biotza Aren maitasunera makurtu dagien.
- 5 D Erriko fededun guztien alde: Gabonetako jaiak, gureztat kristau-jai izan daitezcan...

GABON-ALDIA

Anai-arrebok: Egin daigun otoitz uste osoaz, guztion gain dogun gure Aitari: Berak, mundua maitatuaz, bere Seme bakarra emon dausku-ta.

- 1 A Kristau guztien alde: mundua epaitzera etorriko dan Salbatzaillea poz andiz itxaron dagien. Eskatu...
- 2 B Mundu onen alde: bakeari esker, nasaiago bizi izanik, biotza Ebanjelioari zabaldu dagion.
- 3 C Gosearen, gatxaren eta bakartasunaren menpean bizi diranen alde: Gabonetako misterioak indarbarritu dagizan.
- 4 D Gure familien alde: emen Kristo artzen dogunez, ondo-etorria egin daiogula, Berak ain maite dituan beartsuui lagun egifik.

Onartu egizu, Jauna, Jaungoiko gizon egifiari gorputza emon dautsan Amak gaur zure aurrera gure eskariak eroatea. Arren, bete egiguzuz, zure Seme Jesukristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

GABON-EGUNA

- 1 A Eliza santu katolikuaren alde: Jesus'en Jaiotzak bizibarriturik, isuri dagiala bere seme-alabakana misterio onen grazia. Eskatu...
- 2 B Mundu zabaleko errialdeen alde: Jaungoikoak gizadiari agindu eutsan bakea izan dagien gaur.

- 3 C Zoritzarrekoen alde, espetxean eta erbestean dagozanen alde: arekan Kristo guztiz beartsua bizi izaten eta nekeak igaroten ikusi dagigun, eta areik guban bizi dan munduaren Salbatzaillea ezagutu dagien.

- 4 C Gabonak ospatzen dituen guztien alde: Jaungoikoak nekeetatik, bakartasunetik eta saminiñalditik gorde eta arein biotzak itxaropenez eta zorionez bete dagizan.

- 5 D Gure ildakoen alde: Jaungoikoak arekan bere salbamena burutu dagian, eta betiko bizitzara bizitu dagizan.

- 6 D Emen batuta gagozan guztion alde: Jesus Umeari begira ta besteak maitatuaz, guretariko bakotzak bere burua beartsu egitea zer dan ikusi ta ikasi dagigun.

GABON-GABA

Anai-arrebok: Jaungoikoaren Semea gure artera etorri dan Gau santu onetan, izan bedi gure otoitza iñoiz baiño gartsuagoa. Biotz batez, fede berean, eskatu daiogun Jaungoiko-Semeari, ekarri dagiola munduari beronek bear dauan maitasun guztia.

- 1 A Senitarte andi bat dan Elizearen alde: mundua mundu dan artean abestu dagian benetan: «Bakea lurrian Jaungoikoak maite dituan gizonai». Eskatu...
- 2 B Munduko naziño ta enda (*arraza*) guztien alde: Jaungoikoak gau onetan. Kristo'ren bakean, banantze ta ikusi-ezin guztiak betiko ezereztu dagizan.
- 3 C Gure anai-arreba fedebage, argi-bage ta pekatarien alde: Gabon-jai oneik zerurako bidea erakutsi dagitseen.
- 4 D Gure ume txikien alde: urte batzuetara alkar maitatzeko mundu barri bat sortu dagien.
- 5 D Gaurko batzar eder onen alde: gure guraso, adiskide ta senideen alde: gure artean egiazko poza, zoriona ta bakea sartu daitezcan.

JESUS'EN JAIOTEGUNA

Anai-arrebok: Kristo'ren argiak, Gabonetako pozak, argi egin dau gure biotzetan. Poz orretan, fedean bat eginda, batu dagiguzan gure otoitzak lur onetako arazorik andienerako.

- 1 A Elizearen alde: Kristo'ren iragarle dan ezkerro, munduan obeto ezagutua, maitatua ta bedeinkatua izan daiten. Eskatu...

- 2 B Mundu guztiaren alde, batez be oraindiño Kristo ezagutu bagarik, iñoren menpean gogorrean dagozanen alde: askatasunaz, euren buruaren jabe izatera eldu daitezcan.

- 3 B Gizon guztien alde: Kristo'ren bakean eta Gabonetako argitan eskuartu dagien.
- 4 C Geisoen, elbarrien, zaarren, eta etxetik ezin urten daitekezanen alde: Kristo'k arein biotzai ikustaldia egin dagitsen, eta bakotzak adiskide poz-emoille bat izan dagian.
- 5 D Emen batuta gagozanon alde: kristauok, gure barruan Kristo izan dagigun bere maitasun eta bakeagaz.

GABON-OSTEKO IGANDEA

(Sendi Santua)

Anai-arrebok: Jesukristo'k lurreko bere Sendia (*Familia*) jarten dausku gaur begien aurrean, guretzat ikasbide izan daiten. Egin daiogun guztiok Jaunari otoitz bero bat sendi guztien alde.

- 1 A Kristau guztien alde: Aita beraren seme-alaba garan ezker, anai-arreba lez batasun ederrean bizi gaitez. Eskatu...
- 2 B Errialdeen eta areitako laguntaldean alde: alkar adituaz bizi daitez: orrela, Kristo'ren bakea biotz guztietan nagusi izan daiten.
- 3 B Ezkonduen alde: bakean eta batasunean bizi daitez; ezkontzerakoan, seme-alabak sortzeko eginkizunean zintzo ibili daitez.
- 4 C Bananduta bizi diran familien alde; maitasunean oztuta dagozanen alde: Jaungoikoak arein biotzak barriztu ta alkartu dagizan.
- 5 C Guraso bagariko umeen alde, ume bagariko gurasoen alde, maitasun bagariko biotzak zoriona ezagutu dagien.
- 6 D Gure erriko familien alde: egiazko maitasunean bizi daitez; gero ta geiago santutu daitez.

URTEBARRI-EGUNA

(Andra Mari, Jaungoikoaren Ama)

Anai-arrebok: gaurko eguna urte barri baten leenengoa dogu. Orregaitik, otoitz egin dagigun guztiok batera, Jaungoikoak bere ontasunean, emon dauskuzula mundu onetako ta besteko ondasunak, gorputzarimen onerako.

- 1 A Eliza osoaren alde: urte onek irauten dauan artean, aren lana gero ta andiangoa izan daiten, eta beti Jaungoikoaren naia egin dagian gizakien artean. Eskatu...
- 2 B Lurreko agintaritzaren euren gain dabenen alde: buruzagi, agintari, errietako ta langille-alkartzetako buru diranen alde: beti zuzentasunaren eta bakearen alde lan egin dagien.
- 3 C Joan dan urtean il diranen alde: Jaungoikoaren zorionean, egiazko bizia jadetsi dagien.
- 4 D Guk gaur zoriona opa dautsegunen alde: ur-

te guztian, Jaungoikoak areintzat erabagita daukan bidetik zuzen ibili daitez.

- 5 D Emen batuta gagozan guztion alde: urte barri onetan, Andra Maria'ren laguntzaz, zorionaren zabaltzaille izan gaitez.

GABON-OSTEKO BIGARREN IGANDEA

Anai-arrebok: gu guztion otoitzak dei egin dagiola Jaungoikoari, Kristo gure artera etorri danik oraindiño ez dakien alde.

- 1 A Gizaki guztien ama dan Elizearen alde: bakotxari Jaungoikoaren seme edo alaba izatea zer dan irakatsi dagion. Eskatu...
- 2 B Munduaren alde: gizadiak, bere ikasbideetan eta jakintzan aurreratuaz, egiazko zorionean be aurrera egin dagian.
- 3 B Urritasunean dagozan errien alde: gorputzarimen ondasunak gero ta nasaiago lortu daguezan.
- 4 C Andikiak eta dirudunak oinperatuta daukezan gure anai-arreben alde: gizakiari zor yakon begirunea lortu dagien.
- 5 D Emen alkarregaz batuta gagozanon alde: zoritxarrean bizi diranai buruz mundu onetan dogun eginkizuna, guretariko bakotzak ge-roago ta obeto ezagutu dagian.

JAUNAREN AGERKUNDEA (Urtarrillak 6)

Anai-arrebok: Jesus'ek, lurreko errien agurra, Iru Erregeen bidez, egun onetan artu eban ezker, eskatu daiogun Jaunari Misifioen eta misiolarien alde.

- 1 A Eliza osoaren alde: mundu guztian maitasuna zabaldu dagian. Eskatu...
- 2 B Errietako agintarien alde: Kristo'gana doan bidetik, gizataldea ifioiz be baztatu ez daiten.
- 3 C Oraindiño fedeak argitu ez dituanen alde: areik be Kristo Salbatzaillea ezagutu eta egiazko Jaungoikoa gurtu dagien.
- 4 D Kristau garan guztion alde: fedearen izarra-ri jarraiturik, Kristo'gana doan bidean aurrera egin dagigun, eta Aren argitan ibili gaitez.

Zeure argia erakusten dauskuzula, Jauna, berotzen dauskuzuz biotzak eta sorrerazoten gure otoitzak.

Entzun egizuz orain zure erriaren deiak. Jesukristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

AGERKUNDE-OSTEKO IGANDEA (Jaunaren Bateoa)

Anai-arrebok: egin daiogun otoitz guztien gaineko Izena dauan Jesukristo'ri,

Aregan sinisten edo sinistuko daben guztien alde.

- 1 A Mundu guztian Ebanjelioa zabalduko daben misiolari sutsuak sortu dagizan, Aren Izena gizaki guztiai irakatsi dagitsen. Eskatu...
- 2 B Mundu guztiaren alde: gu zeruratu gaik ezan beste izenik zerupean ez dala autortu dagian.
- 2 C Eriotz-orduan dagozanen alde: Jesus'en Izena agoan dabela il eta zeruratu daitezcan.
- 4 D Geure alde, kristau garanon alde: bearraldietan Jesus'en Izena maitasun berroz esaten jakin dagigun.

Eiguzu, Jesus Jauna, zure erria ez dadilla zure Izenari otoiitz egiten aspertu; orrela, Jaungoikoak entzun dagion, Zuk itz emon zenduan ez. Jaungoiko ta Errege bizi zarata, gizaldien gizaldietan. Amen.

GARIZUMA-ALDIA

Anai-arrebok: Pazko-jai andira garoazan Garizumako aldi onetan, otoiitz egin daigun gartsu, Misterio santu orren aberastusunak mundu guztiari balio izan dagion.

- 1 A Pazkoetan Bateoa artuko daben guztien alde: sinismena ta Bere Misterioaren ezagueria Jaunak arekan anditu dagizan. Eskatu...
- 2 B Laguntza-bearrean dagozan errien alde: erri orreik laguntza izan dagien, eta orrela, munduaren bakea ta bizia obeto zainduta egon daitezcan.
- 3 C Atsekabe ta nekeetan bizi diran guztien alde, edo-ta tentaldian dagozanen alde: bear daben indarra Jaungoikoaren grazian aurkitu dagien.
- 4 D Emen batuta gagozanon alde: ez dabenai geiago emoteko asmoz, guretariko bakotxak gutxiagoaz bizi izaten jakin dagian.

Egizu, Jauna, zure erria Zugana biotzez biurtu daitela: apalik eskatzen dauzuna Zugandik jadetsi dagian. Jesukristo gure Jaunaren bitartez.

AUTS-EGUNA

- 1 A Kristau guztien alde: Garizuma-aldi onetan, otoiitzean eta penitentzian gartsuago jardun dagien. Eskatu...
- 2 A Bateoa artzeko gertatzen diarduen kristaugei nagusien alde: euren egunetan Kristoren testigu egiazkoak aurkitu dagiezan, eurak be benetan onbideratzeko.
- 3 B Gizonen arteko bakearen alde: euren artean dituezan eritziak gora-beera, alkarri zintotasuna ta begirunea izan dagioen.
- 4 C Beartsuen eta gosez bizi diranen alde: Garizumako gure nekeak eta egite onak orrela bizi diranai balio dagitsen.

- 5 D Gu guztion alde: gure isilleko nekeak eta egite onak guztiai agertzetik Jaungoikoak gorde gagizan.

GARIZUMAKO LENENGO IGANDEA

Anai-arrebok: Ba-dabe gizonak ogiaren bearra euren gorputzaren biziari eusteko; baiña, bearragoa dabe Jaungoikoaren agotik urteten dan itza. Garizuma onen asieran Jaungoikoari eskatu bear dauzagu, emon dagiola gizadi osoari egiaren ogigosea.

- 1 A Aita Santuaren eta gotzaiñen alde: Jaungoikoak bere itza adierazoten lagun egin dagitsen. Eskatu...
- 2 A Abadeen eta kristau apostoluen alde: egiten daben apostolu-lanean, euren ederra ta ospea billatzetik Jaungoikoak gorde dagizan.
- 3 A Gure senide gizaki guztien alde: Jaungoikoa egiaz goratzen eta benetan maitatzen ikasi dagien.
- 4 B Erri-agintari guztien alde: mundua euren onerako artu bearrean, munduaren serbitzurako bizi izaten ikasi dagien.
- 5 C Gosez bizi diranen alde: egunean eguneko ogia jadetsi dagien.
- 6 D Emen batuta gagozanon alde: senideai laguntzeko eskua luzatuaz, Garizuma onetan gutxiagoaz bizi izaten jakin dagigun.

GARIZUMAKO BIGARREN IGANDEA

Anai-arrebok: Guztiok, otoiitz berean, eskatu daiogun Jesukristo'ri agertu dagiola mundu guztiari bere andi-izatea, bere edertasuna, bere aintza, eta edegi dagizala bere argitara gizaki guztien begiak.

- 1 A Eliza osoaren alde: aregan eta aren bidez, Kristo'k bere betetasunean eta bere egian dizdiz egin dagian. Eskatu...
- 2 A Abade ta moja-praille-gaien alde: Jaungoikoak beretzat adiskideak aukeratu dagizan, bere m a i t a s u n apartekora deituaz, dana otoiitz eta dana serbitzaritza izango dan bizi-tza batean.
- 3 B Lanean, eta nekean diarduen gizonen alde: arein alegiñak munduari beste itxura bat emon dagioen, betiko zorionerako gertatuaz.
- 4 C Elizearen aurka diarduen alde, ez-jakiñaren eta sinisbagearen illunpean galduen alde: Kristo'k bere argia agertu dagitsen.
- 5 C Emen batuta gagozan guztion alde: Jaungoikoari miraririk eskatu ez daiogun; alegindu gaitezcan, ostera, guztiok Bera billatzen, gure egun guztietako gorabeeretan.

- 6 D Gu guztion alde: Garizumako aldi onetan, egun guztietako gure gurutzea onartu dagi-gun, eta orrela, gure biziak indar barri bat artu dagian.

GARIZUMAKO IRUGARREN IGANDEA

Anai-arrebok: Egon iratzarririk eta egin otoitz —iñoan San Pedro'k—, «deabrua, zuen arerioa, leoi amorratua lez, zuen inguruan dabil-eta, nor iruntsiko.» Kristo'ren eta Satanas'en arteko burrukea da Elizearen eta gaiztakeriaren burrukea. Alkartu daiguzan gure otoitzak, burruka ori erri guztientzat Jaungoikoaren garaipenaz amaitu dadin.

- 1 A Gaurko Elizearen alde: gaiztakeriaren aurka diarduan burrukearen bidez, mundu ohea gertatu dagian biarko. Eskatu...
- 2 A Bateorako gertatzen diarduen alde: euren biotzaren barru-barrutik eta bizitza osorako, deabrua ukatu dagien.
- 3 B Mundu guztiaren alde: bakotzak bere erriari dautsan maitasuna, itsumenez berekoi biurtu ez dadin; sortu dagiala, ostera, alkarrenganako maitasuna, senitarte andi baten, guztion serbitzurako izanaz.
- 4 C Gure anai-arreba zapalduen eta txarto erabilien alde: arein eroapena ta irabaziak kristau barrien azi ta ikasbide izan daitezcan.
- 5 D Emen garan guztion alde: gure egiteetan eta egian, Jaungoikoaren naia gero ta obeto beteten ikasi dagigun.

GARIZUMAKO LAUGARREN IGANDEA

- 1 A Kristo'ren izenean sortua dan Elizearen alde: erri guztiak Gorputz Santuaren ogiaz azteko eskubidea ta aal-izatea izan dagien. Eskatu...
- 2 B Munduko langille guztien alde: euren bizi-bearrak besteen morroitza gogorrean sartu ez dagizan.
- 3 C Goseak menpean daukazan errialdeen alde: kristauen alkar-maitasunak gauza arrigarriak egin dagizan, anai-arreba orrein onerako.
- 4 D Kristau-ikasbidean dabizcan umeen alde: jaunartzeko aalbait ondoen gertatu daitezcan, eta janari orrezaz bizi guztian euren arimak indartzen jakin dagien.
- 5 D Gure alde, jaunartuko dogunon alde: Jesukristo'k emoten dauan indarra ta bizia, geuretzat bakarrik gorde ez dagigun.

GARIZUMAKO BOSGARREN IGANDEA

Anai-arrebok: Nekaldian Jesus'ek Aitari dei egin eutsan otoitz gartsuaz, dei egin daiogun geuk be Jaungoikoari: bere Semearen bitartez, gure otoitzak biotz onez entzun dagizan.

- 1 A Elizearen alde: Jaungoikoak, bere Semearen odolaz, gero-ta geiago garbitu dagian. Eskatu...
- 2 B Errialde guztien arteko bakearen alde: Kristo'ren Gurutzeak batasunean eta alkar-maitasunean batu dagizan.
- 3 C Euren geisoaz eta laneko nekeaz, Kristo'ren Nekaldian eskuartzen dabenen alde: Jaungoikoak biotz ona ta iraupena emon dagitsen.
- 4 D Emen bat egiten dogun guztion alde: Jaunaren Nekaldiaren eta Gurutzearen bidez, biztuera zorionsura eldu gaitezcan.
Emoiozu, Jauna, laguntza zure erriari; berak ezin lortu daikena zure Semearen Nekaldiaz izan dagian.
Jesukristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

JAUNAREN NEKALDIKO ABAR-IGANDEA

Anai-arrebok: zabaldu dagigun guztiakana gure otoitza, Kristo'k Gurutzea lez. Kristo geugaitik il dan ezkerero, egin daigun otoitz gure anai-arreba guztien alde.

- 1 A Aste onetan, Kristo'ri bere Nekaldian otoitz egingo dautsoen kristau guztien alde: euren bizitzan barritu bear dabena barritzen jakin dagien. Eskatu...
- 2 B Aste onetan, Kristo il ez ba'litz lez bizi izango diranen alde: egunen baten, euren begiak egiazko argitara zabaldu daitezcan.
- 3 B Mundu onetan gaur goratuak eta biar aaztuta itziak izango diranen alde: egun bateko garaipenak zoratu ez dagizan, ezta gizon biotz-bageak lotsarazo be.
- 4 C Neke-miñetan bizi diranen alde: Jesus'en nekeak gozotu dagizan eta santutu neke-min guztiak.
- 5 D Ildako gure anai-arreben alde: Jaungoikoak bere zeruan eriotz-egunean bertan artu dagizan.
- 6 D Geure alde: Kristo'k irakatsi ta egin ebanez, geuk be Aitaren naia egin dagigun.

EGUEN SANTU

Anai-arrebok: Arratsalde onetan garbitu eutsezcan Jesus'ek oiñak bere ikasleai, alkar zelan maitatu ta zelan otseindu ikasbidea emoteko. Egin daigun otoitz apa-

lik, mundu guztiaren alde ta gure salba-
biderako.

- 1 A Eliza Santu katolikuaren alde: Gorputz Santuaren Sakramentua sinismenez eta maitasunez erabili dagian, eta orrela batasunean aurerratuaz, munduari Jaungoikoaren maitasuna erakutsi dagion. Eskatu...
- 2 B Mundu guztiko bakearen alde: gudaketak eta banantzeak urrundu daitezkan, eta gizonak alkar biotzez aditu dagien.
- 3 C Geiso ta naigabeturik dagozanen alde: Kristo'gan eta gure maitasunean indarra ta laguntza aurkitu dagien.
- 4 D Gu guztion alde: Kristo'ren mai santura deituak garanok, gure Jaunak itzi dauskun ikasbideari jarraitu daiogun.

Jauna, alkar maite dagigula agindu dauskuzu Zuk.

Entzun, arren, egiten dautsuguzan otoitzak, geure alde lez gizaki guztien alde be. Jesukristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

PAZKO-ALDIA

Anai-arrebok: Pazko-egunez bere Semea goratu eban Jaungoikoari otoitz beroa egin bear dautsagu, gure eskariak entzun dagizan.

- 1 A Eliz-Artzainen alde: Artzain Onak euren gain itzi dautsen artaldea bide zuzenetik eroan dagien. Eskatu...
- 2 B Mundu guztiaren alde: Kristo'k emondako egiazko bakea ezagutu dagien.
- 3 C Eziñean bizi diranen alde: nekeen orde, Jesukristo'k zoriona ta bakea emon dagitsen.
- 4 D Emen batuta gagozanon alde: guztiok, berbizu dan Kristo'ren testigu ta autorle izan gaitzean.

Entzun, Jauna, zure erriaren otoitza, eta emoiozu berari Pazko-zorion betea, bere eskariak erantzunik.

Jesukristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

PAZKO-IGANDEA

(Jaunaren Berbizkundera)

Anai-arrebok: ona emen munduak arduratan itxaron izan dauan salbamen-eguna. Egin daiogun otoitz, guztiok batera, ona baizen indartsua dan Jaungoikoari.

- 1 A Bateoaren edo Autortzaren bidez Elizeak biotz-barritu dituanen alde: Jaungoikoak lotu ta sendotu dagizan artu daben grazian. Eskatu...
- 2 B Mundu guztiaren alde: Pazko-jai onetan bakezko egunak ezagutu dagizan.

3 C Gogo-illun eta miñetan dagozanen alde: egun oneitako zorionez eurak be bete daitezkan, gure alkar-maitasunari esker.

4 D Gu guztion alde: illen artetik biztu dan Kristo'k bere maira dei egin dauskun ezkerro, agiri ez diran ondasunak maitatzera eroan gagizan.

Egizu, Jauna, Elizea poztu dadilla pozezko egun oneitan, bere eskari guztiak jaldetsi ondoren.

Jesukristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

PAZKO-ALDIKO BIGARREN IGANDEA

- 1 A Elizako artzainen alde: itzez eta egitez, Kristo'ren testigu ta autorle agertu daitezkan. Eskatu...
- 2 A Adore andiaren bearrizetan diran abadeen alde: oztasun eta eragozpen guztien erdian be, euren fedean sendo iraun dagien.
- 3 B Maisu ta irakasle guztien alde: ikasleen sinismenari eragozpenik jarri ez dagioen.
- 4 C Geisoen eta nekepean dagozanen alde: euren bizitza gogorrean, Jesus'egaz biztuteko ziurtasunak adorea emon dagitsen.
- 5 D Ona etorri garan guztion alde: gure bearaldietan uste osoa Beragan jarten, Jaungoikoak lagun egin dauskun.

PAZKO-ALDIKO IRUGARREN IGANDEA

- 1 A Gure Aita Santuaren alde: Jaungoikoak, Elizako Artzain eta Buruzagi Nagusiari, artaldea zaintzen lagun egin dagion. Eskatu...
- 2 A Gure Gotzainen alde: Jesukristo'k lez, euren artaldea ezagutu ta maite izan dagien.
- 3 A Gure errietako abadeen alde: euren artalderari guztiz loturik, egiazko artzain izan daitezkan.
- 4 A Gure familien alde: abadegai ta praille-mojagai onak sortzeko lur on izan daitezkan.
- 5 B Naziñotako agintarien alde: euren erriari bizibide obeetara zuzentzen arduraz lagun egin dagitsen.
- 6 C Argiaren eta bidearen erakuslerik ez dabenen alde: euren bizitzan, Kristo'gana eroango dituan norbait aurkitu dagien.
- 7 D Gure eliztar guztien alde: abade ta kristau, guztiok alkarregaz, Elizearen bizia geure gain dagoala jakin dagion.

PAZKO-ALDIKO LAUGARREN IGANDEA

- 1 A Gure Eliza Amaren alde: bere Artzain Nagusiaren irakatsiak arduraz entzun dagizan, eta betiko zelaietara poztatik eldu dadin. Eskatu...

- 2 A Aita Santu ta Gotzaiñen alde: ardi galduaz aaztu bagarik, artaldea samurkiro zaindu dagien.
- 3 A Kristau bananduak alkaturik eta guztien aurrean Eliza bat egiñik, artalde bat eta Artzain bat baiño izan ez dadin.
- 4 C Kristau guztien alde: fededun guztien biotzak, artzain bagako kristauen deia entzun dagien, eta misiolari sutsuak izateko alegiñak egin dagiezan.
- 5 B Indarra eskuetan daben agintaritzak giza-eskubideen alde egiñalak egin dagiezan.
- 6 D Emengo fededun guztion alde: Jesus'ek bere burua geure alde emon ebanez, geuk be gure senideen alde geure bizia emoten jakin dagigun.

PAZKO-ALDIKO LAUGARREN IGANDEA

- 1 A Jaungoikoaren erriaren alde: mundu onen erdian betiko bizitzaren itxaropena izan dagien. Eskatu...
- 2 A Kristau-ikasbidea irakasten dabenen alde: umeai kristau on lez bizi izaten irakatsi dagitsen.
- 3 B Teknika barrien jakintsuen alde: euren lan eta aurrerapenai esker, oraingo jenteari bear dan lako bizikera zoriontsu bat eratu dagioen.
- 4 C Esturetan bizi diranen alde: euren bidean, Kristo'gana eroango dituan lagun bat aurkitu dagien.
- 5 D Emen batu garanon alde: guk izan daikegun zorionaren eta itxaropenaren diztira beste tokietara zabaldu dagigun.

PAZKO-ALDIKO BOSGARREN IGANDEA

- 1 A Eliza gure Amaren alde: Jaungoikoaren Espirituz beterik, mundu zabala barriztu dagian. Eskatu...
- 2 B Erri-agintarien alde: Espiritu Santuak euren lanean argitasuna emon dagitsen, jentearen onerako.
- 3 C Illunpeen erdian egia billatzen diarduen alde: Kristo'ren argitara lenbailen eldu daitezana.
- 4 C Geisoen eta elbarridunen alde: euren neketan Espiritu Santuak lagun egin dagitsen.
- 5 D Sendotzako Sakramentua artuko daben umeen alde: Apostoluen antzeko izan daitezana.
- 6 D Emen batuta gagozanon alde: Jaungoikoaren Espirituak, gauza guztiak zuzentasunaren eta egiaren negurritz erabagiten irakatsi daiskun.

PAZKO-ALDIKO SEIGARREN IGANDEA

- 1 A Jaungoikoaren Eliza Santuaren alde: indar eta santutasun-Espirituari esker, arerioen erasoai gogor egin dagitsen. Eskatu...
- 2 A Sendotzako Sakramentua artuko dabenen alde: Espiritu Santuaren laguntzaz, fedean irauteko eragozpen guztiak azpiratu dagiezan.
- 3 B Lur onetako auziak erabagiten dabezanen alde: Espiritu Santuak, bere argiz, zuzentasun eta Jaungoikoaganako bildurraren bidetik erabili dagizan.
- 4 C Txarto erabiliak diran kristauen alde: Espiritu Santu laguntzailleak fedean indartu ta itxaropenean sendotu dagizan.
- 5 D Gu guztion alde: gure gogo-biotzak Jaungoikoaren Itzari zabaldu, Jaungoikozko bizitzan andi egin gaitezana.

JAUNAREN ZERURA IGOKUNDEA

Anai-arrebok: Zeruko Aitaren ondoan dago Jesukristo, egiazko abade nagusia, beti gure alde otoitz egiten. Orregaitik, uste onez egiten dautsagu dei Jaungoikoari andra-gizon guztien premiña ta bearrizanen alde.

- 1 A Elizearen seme-alaba diran guztien alde: Eliz-Batzar Nagusiak irakatsi dauanez, euren bideak zuzendu dagiezan. Eskatu...
- 2 B Era guztietariko langilleen alde: bizi izateko bear dabena, euren esku-lan naiz buru-lanai esker, guztiak oparo batu dagien.
- 3 C Erlejiñoa dala-ta, estu-artuak diranen alde: Espiritu Santuak fedean indartu dagizan.
- 4 D Gu guztion alde: zeruaren itxaropenak, lur onetan gure eginbearrak ondo beteteko adorea ta poza emon daiskuzan.

PAZKO-ALDIKO ZAZPIGARREN IGANDEA

Anai-arrebok: Jesukristo'k berba au emon euskun: «Aitari neure izenean eskatu dagiozuena, Aitak emon egingo dautsue». Dei egin daiogun, ba, uste onez zeruko gure Aitari.

- 1 A Jaungoikoari eskiñita dagozan abade, praille ta mojen alde: otoitzean, buru-ukatzean eta fedelanean, azken-arnasaraño, Espiritu Santuaz bizi daitezana. Eskatu...
- 2 A Euren etxeokaz batera otoitz egiten dabenen alde: otoitz orrek egunetik egunera biotz-garra berotu dagitsen, eta berba-otsa bakarrik izan ez daiten.

- 3 C Nekepean bizi diranen alde: Jaungoikoagan adorea arturik, poza ta itxaropena aurkitu dagien.
- 4 B Andra-gizon guztien alde: gure otoitzak arein lan eta nekeentzat Jaungoikoaren be-deinkapena jadetsi dagien.
- 5 D Gure eliza onetako batzarraren alde: gure otoitzean beti Elizako premiña ta bearrizanen ardura izan dagigun.

PENTEKOSTE-IGANDEA

Anai-arrebok: Espiritu Santuak Jaungoikoaren seme-alaba egin gaituan ezker, otoitz egin daiogun biotzez zeruko gure Aitari.

- 1 A Jaungoiko biziaren Elizearen alde: munduari maitasunezko Espirituaren indarra agertu dagion. Eskatu...
- 2 B Errien alkarganatzea lortzen diarduen alde: munduko bakeak guztion biotzetan zusterak aurkitu dagizan.
- 3 C Zoritxarren batek lertuta daukazanen alde: arein biotzak Espiritu Santuak sendotu dagizan.
- 4 D Gu guztion alde: eliza onetan batuta gogozanok, Espiritu Santuak gure biotzetan Ba-teoko ta Sendotzako graziz barriztu gagizan. Jauna! Erriak izkuntza guztietan otoitzez goratu zagiezala izan dozu nai. Entzun egizu, arren, Eliza guztiaren eskaria. Jesukristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

JAUNAREN IGOKUNDE-OSTEKO IGANDEA

Anai-arrebok: munduari, Ebanjelioaren testigutza ta autormena eldu dakion, guztiok batean, egin daiogun Jaungoikoari otoitzik beroena.

- 1 A Aita Santuaren, gotzaiñen eta abadeen alde: oraingo mundu oni buruz, egiaren testigu ta autorle zelan izan, Espiritu Santuak irakatsi dagitsen. Eskatu...
- 2 B Oraingo gizaldiaren alde: mundu onen ezku-tuak, Jaungoikoak sortu dauan guztia gizonentzat argiago ta ederrago biurtu dagien.
- 3 B Gazte guztien alde: Espiritu Santuak arein biotzetan bizi eder baten amesa sortu dagian.
- 4 C Fedea dala-ta, nekeak eroan bear dabezanen alde: zuzentasunik eta askatasunik ez dabela, nekeen erdian sendo irauteko bear daben adorea izan dagien.
- 5 C Gure parrokiaren alde: batzar onetan Espiritu Santuaren indarra ta laguntza aurkitu dagian.

PENTEKOSTE-OSTEKO LEENENGO IGANDEA (Irutasun Santua)

Anai-arreba maiteok: otoitz egin daiogun, guztiok batean, Aita Jaungoikoari, Kristo bere Semearen bitartez, Espiritu Santuaren grazian.

- 1 A Kristau guztien alde: arein batasunak Irutasun Santuaren batasuna zelakoa dan erakutsi dagian lur onetan. Eskatu...
- 2 B Andra-gizon guztien alde: Jaungoikoaren antz-irudiko egiñak dirala gogoraturik, euren buruai begirunea ta lotsa izan dagitsen.
- 3 C Laguntza-bearretan diran guztien alde: iñor be ez daigun baztatu ta aztuta itzi gure maitasun eta otoitz bagarik.
- 4 D Gure erriko sendien alde: Irutasunaren antzera, guztiak maitasun-iturburu izan daitezcan.

Jaungoiko Jauna! Zeuk ezarri dozu gure biotzetan Irutasun Santuaren fedea: entzun, arren, biotz onez zure sendiaren eskariak.

Jesukristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

GORPUZTI-EGUNA

Anai-arrebok: Jesukristo'k bere aragia emon dasku janaritzat. Eskatu daiogun Jaunari, otoitz gartsu batatz, emon daskula janari orren gosea. Batu gaitezala guztiok egunen baten Gorputz Santuaren janaldi berean.

- 1 A Mundu guztiko Elizearen alde: Jesus'en Gorputz-Odolak munduari oparo emoteko zoriona izan dagian. Eskatu...
- 2 A Fedearen alde alegintzen diranen alde: euren lanerako griña batasunaren eta maitasunaren Sakramentu onetan azi dagien.
- 3 B Kristau laikoen alde: munduak arein bearrizana dauan ezker, eguneko ogia irabazirik, zeruko ogiaren gogoa galdu ez dagien.
- 4 C Gosez bizi diranen alde: arein goseak eta bearraldiak Jaungoikozko ogiaren gosea il ez dagian.
- 5 D Aurten lenengo Jaunartzea egin dabenen alde: Kristo'ren Gorputz-Odolen gozotasuna ta gogoa biotzean sartu dagiezan betiko.
- 6 D Emen alkartuta gagozan guztion alde: Jauna artu bagarik Mezako oparia oso-oso ez dala konturatu gaitezcan.

URTEKO BIGARREN IGANDEA

Anai-arrebok: janaldi onetan Jesus'ek dei eginda batu garanok, otoitz egin dagigun, ez-jakiñez edo nai ez-ta, Aren deiari erantzuten ez dautsoenen alde.

- 1 A Eliza osoaren alde: kristau bananduak egunen baten mai santu onetara etorri daitezcan. Eskatu...
- 2 A Elizara etorten ez diranen alde: euren lan, atsegin eta bizi-bearraren grifia-artetik Kristo'ren deia entzun dagien.
- 3 B Munduko aberatsen alde: emengo ondasunen jabe izateak, betiko bizitzako ogiaren gosea kendu ez dagitsen.
- 4 C Errialde guztietako beartsuen alde: gure mezetan lenengo tokiak izan dagiezan.
- 5 D Emen gagozan guztion alde: meza onetan batuta gagozanok, Jaungoikoagandik urrun-tzen gaituen eragozpen guztietatik askatuak izan gaitezcan.

URTEKO IRUGARREN IGANDEA

- 1 A Eliza Santuaren alde: bere aberastasun bakarra Kristo izan dadin. Eskatu...
- 2 A Meza bagarik dagozan gure senideen alde: mundu onetako grifiak askaturik, mai santu onetan geugaz eskuartu dagien.
- 3 A Eliz - agintarien alde: gizonak Kristo'gana ekartera munduan zear joango diran misiolari on-jatorrak emon dagiozan Elizari.
- 4 B Gosez bizi diranen alde: mundu onetan zuzentasun geiagok bakotxari bear dauan jatekoa emon dagion.
- 5 C Geisorik eta atsekabetan bizi diranen alde: Jaungoikoak be alakoak maiteen dituala agertzeko, kristau-senideak arrera ona egin dagitseen.
- 6 D Batzar onetan gagozan kristauon alde: emen zeruko ondasunez aberasturik, emendik kanpo be Jaungoikoaren dei guztiai zintzo erantzun dagiegun.

PENTEKOSTE-OSTEKO IRUGARREN BARIKUA (Jesus'en Biotza)

Anai-arrebok: Jaungoikoaren maitasunez emen batuta gagozala, otoitz egin daio-gun apalik Jaungoiko Aita errukiz beteari.

- 1 A Eliza Santu Katolikuaren alde: Gurutzean Jesus'en Biotzetik sortua dan ezkerro, Biotz Santu orrenganako maitasuna mundu guztian zabaldu dagian. Eskatu...
- 2 B Lurreko erri guztien alde: gorrotoak egunetik egunera gutxitu, eta bakerako ibiliak geitu daitezcan.
- 3 C Alkargandik urrunduta dagozanen alde: urrun egonda be, biotzak beti urr izan dagiezan.
- 4 D Lan eta neke-artean bizi garanon alde: Salbatzaillaren Biotzean poza aurkitu dagiun.

Jaungoiko Jauna! Zeure Semearen biotzean agertu dauskuzu zure maitasuna. Era-kutsi eiguzu orain be ezin-obeza zarana, zure erriaren eskariak entzunda.

Jesukristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

URTEKO LAUGARREN IGANDEA

Anai-arrebok: Artzain Onak ardi asko ditu galduak gaurko egunean. Egin daio-gun Jaungoikoari otoitzik beroena, artaldetik urrun dabizan ardiak, Berak batu dagizan.

- 1 A Elizaren Artzaiñen alde: ardi galduakanako ardureak eta grifiak arein lanean indartu dagizan. Eskatu...
- 2 A Eliz-lanetan diarduen alde: fedearen alde lan egiteko sua ta gogoia ezek be gutxitu ez dagitsen.
- 3 B Besteak gaiztakerira eroaten dabezanen alde: Jaungoikoak onbideratu eta arein ibillerak bide onera biurtu dagizan.
- 4 C Biaramonaren arduratan bizi diranen alde, edo-ta, diru apurren bat galdu dabenen alde: bear daben laguntza ta indarra izan dagien.
- 5 D Emen batuta gagozan guztion alde: Artzain Onak ardiak lez, guztiok alkar maite dagiun.

URTEKO BOSGARREN IGANDEA

Anai-arrebok: agertu daio-guzan Jaungoikoari, guztiok batera, gure gogo guztiak, eta dei egin daio-gun gure anai-arreba guztien alde: ba-dakigu gure eskariak entzun egiten dauskuzana-ta.

- 1 A Eliza Santuaren alde: munduari Jaungoikoaren maitasuna agerturik, pekatuak bananduta daukazan gizonak alkartzen alegindu dadin. Eskatu...
- 2 A Eliz-Artzaiñen alde: uste onik bein be galdu bagarik, ardi galduen billa ibili ondoren, beartsuenerdura ta kontua izan dagien.
- 3 A Kristau onen alde: kristaurik sutsuenak, norberekeri arroak sortzen dituan alderdikeriak itzi dagiezan, eta Elizeagandik urrun dagozanai buruz arduraturik, guztien ona dana lortzen alegindu daitezcan.
- 4 B Irakasle ta maisu guztien alde: Jaungoiko-zoko maitasunez eta eroapenez beterik, euren ikaslekan Jaungoiko-graziaren bidea gertatu dagien.
- 5 C Pekatarien alde: damuz beterik, Eliza osoaren pozgarri, Jaungoikoagana biurtu daitezcan.
- 6 D Emen alkartuta gagozan kristauon alde: pekatari garala autortu eta Jaungoiko errukitsuagandik salbamena itxaron dagiun.

URTEKO
SEIGARREN IGANDEA

- 1 A San Pedro'ren ondorengo dan Aita Santua-
ren alde eta Gotzaiñen alde: Elizearen on-
tzia eroateko, beti Kristo'ren gizon izan dai-
tezan. Eskatu...
- 2 A Toki bakarrean bizi diranen eta lanean diar-
duen abadeen alde: bakarrik bizi izateak eta
lanean alperrik diarduen uste okerrak asper-
tu ez dagizan.
- 3 A Gure gaztetxoaren alde: dana itzi ta Kristo'ren
ondotik joateko zeruko deia entzun dagien.
- 4 B Errietako buru egiten dabenen alde: bizi
izateko bear dabena ezin irabaziaz, lanean
nekez diarduenentzat ardura bizia izan da-
gien.
- 5 C Lana gabez egiten dabenen alde: euren lan
neketsuaz ondo baiño obeto irabazia daben
sari ona izan dagien.
- 6 D Gure parrokiaren alde: Ebanjelioko sareak
egoki zabaldurik, galduta dabizian kristauak
batu dagizan.

URTEKO
ZAZPIGARREN IGANDEA

- 1 A Mundu guztian zabaldua dagoan Elizearen
alde: gizaki guztiai Jaungoikoaren seme-alaba
dirala irakatsi dagitsen. Eskatu...
- 2 B Munduko biziaren aurrerapenerako lanean
diarduen alde: Jaungoikoak egindako mun-
dua samur-samur Berak daroala, euren arte-
gatasun eta utsegiteen artetik ezagutu dagien.
- 3 C Geisorik dagozan gure senideen alde: euren
neke-miñak gora-beera, Jaungoikoak zelako
zorionera eroan nai dituan konturatu daite-
zan.
- 5 D Gure batzar onen alde: Jesus'en etorrea
gogoan dogula, guztiai itxaropenik ederrena
irakatsi dagiegun.

URTEKO
ZORTIGARREN IGANDEA

- 1 A Gaur eguneko Elizearen alde: gizakume guz-
tien batzartokia bera dela guztiai irakatsi
dagitsen. Eskatu...
- 2 B Nazioetako agintarien alde: jentearen arte-
ko gozotasuna sortzea ta indartzea, arein
lenengo ardura ta gogo bizia izan dadin.
- 3 B Gure senide diran gizakume guztien alde:
Jaungoikoak arrazen arteko bakea ta andi-
txikien arteko batasuna egin dagian.
- 4 C Neke-artean bizi diran Elizearen gorputz-
atalen alde: Eliz-artzaiñak arein biotza ta
ustea biztu ta indartu dagien.
- 5 D Geure alde: alkarri parkatuta, mezatara iñor-
ganako gorroto bagarik etorri gaitzezan.

- 6 D Gure batasunaren alde: elizatik urtetan gara-
la, guztiak alkar maite dogula ikusi dagien.

URTEKO
BEDERATZIGARREN IGANDEA

- 1 A Kristo'ren Elizearen alde: bere seme-alabai
biziaren ogitik aseteko aña emon dagitsen.
Eskatu...
- 3 A Kristau-erriaren alde: gizonai bere itza ta
ogia emoteko, abade asko bialdu dagiozan.
- 4 B Kristau-erriaren alde: kristauen maitasunak
munduan zear beartsuai ogia emon dagitsen.
- 5 C Ildako gure senideen alde: lurrean Gorputz
Santua janari izan ondoren, zeruko Errei-
ñuan Kristo'ren mai zorientzuan maikide
izan daitezana.
- 6 D Emen batuta gagozanon alde: gure inguruan
gosez dagozanai, ogia erosteko eskupekoa
emon dagiegun.

URTEKO
AMARGARREN IGANDEA

- 1 A Gure parrokiaren alde: eliztarrai, alkarren la-
guntzarako, anaitasunean beti arrera ona egin
dagitsen. Eskatu...
- 2 A Elizearen alde arduratzen diranen alde: arein
lanak eta ibiliak Ebanjeliolari dagokiozan
ondoren onak ekarri dagiezan.
- 3 B Erri-agintaritzan dagozanen alde: beti besteen
onerako egiñalak egin dagiezan.
- 4 C Elizatik biurrituta dagozan gure senideen
alde: siniste oker guztietatik iges egin dagien.
- 5 D Emen alkarregaz gagozan guztion alde: Jaun-
goikoaren Itzak eta Ogiak janaritzen gaitua-
nok, Aren Erreiñurako frutu onak emon
dagiguzan.

URTEKO
AMAIKAGARREN IGANDEA

- 1 A Gure parrokiaren alde: euren eliztarrai, maita-
sunez eta lagundu-naiez, beti arrera gozoa
egin dagitsen. Eskatu...
- 2 A Elizearen alde lanean diarduen alde: egiten
dabezan egiñalak Ebanjeliolari dagokiozan
ondoren onak ekarri dagiezan.
- 3 B Toki ta era guztietako agintarien alde: beti
besteen onerako alegindu daitezana.
- 4 C Elizearen aurka jagi diran senideen alde:
siniste-eritzi okerretatik iges egin dagien.
- 5 D Emen alkarregaz gagozanon alde: Jaungoi-
koaren Itzaz eta Ogiatz azita, Aren Erreiñu-
rako frutu onak emon dagiguzan.

URTEKO
AMABIGARREN IGANDEA

- 1 A Eliza katolikuen alde: gero-ta barriago ta
obeagoa izaten alegindu dadin, eta bere aurre-

lari, Jaungoikoaren Erreñuko etxe-gizon onak izan daitezak. Eskatu...

- 2 B Lantegietako nagusi ta tratularien alde: Jaungoikoaren Erreñuaren alde lana egiteko, munduko arazoetarako baizen arduratsuak izan daitezak.
- 3 B Gazteen alde: euren geroari buruz aleginduz, fedearen mandatari izateko be izan daitezak.
- 4 B Opor eta jaietan dagozanen alde: gorputzeko osasuna billatuaz, Jaungoikoaren Erreñuaz aaztu ez daitezak.
- 5 C Opor eta jaialdirik ez dabenen alde: euren biotzetan gozotasuna ta bakea isurita, Jaungoikoaren graziak ikustaldia egin dagitsen.
- 6 D Gure batzar onen alde: alkarregaz gurutzatuaz, guztiok senide garala konturatu gaitazan.

URTEKO

AMAIRUGARREN IGANDEA

- 1 A Kristau diranen alde: kristauen biotzak Jaungoikoaren graziari beti bizkor eta zintzo erantzun dagioen. Eskatu...
- 2 A Judar-erriaren alde: Jaungoikoak argiturik, Profetak aurrez esandako Salbatzaillea Kristo dala ezagutu dagien.
- 3 A Munduko andra-gizon guztien alde: Eliza Santuan biotzez eta onguraz artuak izan daitezak.
- 4 B Nazifioetako agintarien alde: menpekoak bakeari ta batasunari buruz zuzendu dagiezan.
- 5 D Nekepean bizi diranen alde: euren estualdian sinismenak sendotu dagizan.
- 6 D Gu guztion alde: otoitz-etxe onetan batuta gagozanok, tentaldietatik askatuak izan gaitazan.

URTEKO

AMALUGARREN IGANDEA

- 1 A Gure Eliza Amaren alde: bere Artzaiñen eta fededunen biotz-garrari esker, Jaungoikoaren ondasunak gizonen eskuetara eroan dagizan. Eskatu...
- 2 A Kristau guztien alde: ez arrotzeko, euren pekatuak diran lez ikusi dagiezan.
- 3 B Bizitza au ohea izan dadin alegintzen diranen alde: guztiaren gafiñetik, euren senideen eta Jaungoikoaren alde diarduela gogoratu dagien.
- 4 C Pekatuan bizi diranen alde: Jaungoikoa parkatzaille dala, eta gure damua Arentzat atseingarri dala jakin dagien.
- 5 D Gure parrokiako familien alde: bakotxaren lan apartekoen artetik be, Jaungoikoaganako alkar-maitasunean bizkortzeko egin bear dogun lan bardiñari guztiok ekin daiogun.

- 6 D Kristo'ren Opari au barritzen dogun guztion alde: pekatarien apaltasunez beterik, parkatzaille ta santutzaille izan dagigun.

URTEKO

AMABOSGARREN IGANDEA

Anai-arrebok: Ba-dabe andra-gizon guztiak Jaungoikoaren Itza entzun-bearra. Otoitz egin daigun Itz ori garbia ta bizia izan dadin, guztiak ulertzeko eraz.

- 1 A Gure Eliza katolikuaren alde: Ebanjelioko Itza erri guztiai eldu dakien, eta guztiai berba egiten jakin dagian. Eskatu...
- 2 A Eliz-itzaldiak egiten dabezanen alde: Kristo'ren testigu ta autorle egiazkoak izan daitezak, eta arein berba sarkorrak guztien biotzak ikutu dagizan.
- 3 A Kristau laikoen alde: Jaungoikoaren Itza entzuteko gor iñor be izan ez daiten, ezta Itz ori aitatzeko mutu be.
- 4 B Erriari berba egin bear dautoenen alde: izlari ariñak izan ez daitezak, entzuleentzat beti egi-irakasle baiño.
- 5 C Gure senide gor-mutuen alde: euren ezinbestean Jaungoikoak gozotu dagizan, eta geuk be aal dogun laguntza emon dagiegun.
- 6 D Emen batuta gagozanon alde: Jaungoikoaren Itzari, entzun ondoren, arrera ona egin eta jarraitu dagiogun.

URTEKO

AMASEIGARREN IGANDEA

Anai-arrebok: guztiok otoitz gartsuan bat egiñik, eskatu daiogun Jaungoikoari biotz barri bat bere kristaudentzat, Bera maitatzeko aginduak mundu onetako izaera barriztu dagian.

- 1 A Toki guztietan zabaldurik dagoan Elizearen alde: Aren maitasuna mundu onetako legamin eta jagigarri izan dadin. Eskatu...
- 2 B Errialde guztietako andra-gizonen alde: alkarrentzat ez arerio ez arrotz agertu ez daitezak, senide lez baiño.
- 3 C Geisoen, zaarren, elbarridunen alde: arcintzat ardura izateko astia eta biotz ona dituan norbait guztiak aurkitu dagien.
- 4 D Gure parrokiaren alde: premiñaren baten ondoan egon daitenean, guretariko iñor be biotz guztiaz laguntza emon bagarik igaro ez daiten.
- 5 D Kristau-ikasbidera joango diran gure umeen alde: gauza guztien gafiñetik, Jaungoikoa ta lagun-urkoa maite izaten ikasi dagien.

URTEKO
AMAZAZPIGARREN IGANDEA

- 1 A Mundu guztian zabaldua dagoan Elizearen alde: kristauak aren lege batzui soillik jarraitu bagarik, Kristo'ren maitasunaz, guzti-guztiak beteten alegindu daitezcan. Eskatu...
- 2 B Mundu guztiko andra-gizonen alde: alkarri laguntza emonez, geroago ta adiskideago izan daitezcan.
- 3 B Eskolako urte barriari ekingo dautsoen neska-mutillen alde: geroko etorkizuna ardura andiz eta biotzez artzen alegindu daitezcan.
- 4 C Toki beartsuetako geisoen alde: osatzeko bear dabezan osagilleak eta osagarriak aurkitu dagiezan.
- 5 D Gure eliz-barrutiaren alde: parrokiari diran alkartasunak Jaungoikoaren Erreñuan aurreratzen lagun egin daiskuen.

URTEKO
AMAZORTZIGARREN IGANDEA

- 1 A Eliza katolikuaren alde: diru-indarraren menpetik askatuta egon daiten. Eskatu...
- 2 A Kristau guztien alde: Jaungoikoa ala dirua: bi orreiri arteko aukeratzea bear dan lez egiten ikasi dagien.
- 3 B Mundu onetako aberatsen alde: euren jaungoikoa dirua izan ez dadin.
- 4 C Munduko beartsuen alde: ez euren ezerezak, ez besteen asko-eukiteak fedetik urrundu ez dagizan.
- 5 D Gure ikasbideetako umeen alde: Jaungoikoaren Itza euren biotzetan geroago ta obeto onartu dagien.
- 6 D Gure parrokiaren alde: gure maitasun gartsuari diru-griñak eragozpenik jarri ez dagitsen.

URTEKO
EMERETZIGARREN IGANDEA

- 1 A Gure Eliza santuaren alde: mundu onetako indarren menpeko jarri ez daiten; eta beste ezer baiño len, Jaungoikoaren Erreñuaren gogoa ta maitasuna irakatsi daiskun. Eskatu...
- 2 B Munduko aberatsen alde: eurari emondakoak arduraz erabillirik, senide beartsuai laguntzeko ardurea izan dagien.
- 3 C Bearrizanetan eta neketan bizi diranen alde: diru naiz osasun-bearrean aurkituta be, Jaungoikoa dan ona ta zenbat maite dituan gogoratu dagien.
- 4 D Gu guztion alde: Gorputz Santuan bat garanok, Jaungoikoak munduko zalekeri guztitik erantzi gagizan, eta garbitasunezko ta maitasunezko jantzia emon daiskun.

URTEKO
OGEIGARREN IGANDEA

Anai-arrebok: erraz bildurtzen dan mundu pekatarian bizi gara; eta eskatu dagigun, guztiok batera, Kristo Biziak gizonen biotzetan itxaropena sortu ta indartu dagian.

- 1 A Eliza osoaren alde: negarrez bizi diranai poz-bidea ekarri dagitsen, eta pekatuak ilda daukazanak graziazko bizira barriro biztu dagizan. Eskatu...
- 2 B Jakintsu ta teknika-gizonen alde: euren aurrerapenen bitartez, gizonen geiso ta oiñazeak eragotzi dagiezan.
- 3 C Itxaropena galdu dabenen alde: fedea galdu dabenan, barriro biztu dadin; famili urratuetan maitasuna barriro loratu daiten, eta uste onak eta adoreak biotz-jausiak barriro bizkortu dagizan.
- 4 D Gure ildako guztien alde: bateoan asitako bizi Jaungoikoaren argitan, bere betean ezagutu dagien.
- 5 D Gure batzar onen alde: alkarren nekeak eroaten, batzuek besteai lagun egin dagiegun.

URTEKO
OGETA BATGARREN IGANDEA

- 1 A Eliz-Artzaiñen alde: fedearen argiaz eta Sakramentuen graziaz beti Kristo'ren bizi zabaldu dagien. Eskatu...
- 2 B Jakintsu ta osagilleen alde: euren indarrak eta jakiteak biziaren onerako erabilliez, gaxen aurka diarduen burrukan Jaungoikoak lagun egin dagitsen.
- 3 C Ildako gure senideen alde: Kristo'ren ondoan il diran ezkeri, Aren biztueran be lagun izan dagien.
- 4 D Pekatu egiñaz biotz-damua dogunon alde: gaiztakeria azpiraturik eta pekatuaz damuturik, Jesukristo'k pekatuzko eriotzatik graziazko bizira eroan gagizan.
- 5 D Emen batuta gagozanon alde: biziaren ogia janda, maitasunean sendotu gaitezcan.

URTEKO
OGETA BIGARREN IGANDEA

- 1 A Eliza katolikuaren alde: gizonai gauzak egiten irakatsi dagitsen: ez, ostera, azalez, biotzez baiño. Eskatu...
- 2 B Errietako agintarien alde: lenengo tokien ondolik ibili ez daitezcan, guztien serbitzari izaten baiño.
- 3 C Domeka ta jaietan be guztien serbitzari diranen alde: arein lanak bear dabezanak ondo artu dagiezan eta euren eskerrona agertu dagitseen.

- 4 D Gure kristau-batzar onen alde: otoitzerako ta atsedean artzeko dan egun onek, gure eginbe-arretarako indar barri bat emon daiskun.

URTEKO

OGETA IRUGARREN IGANDEA

- 1 A Gure Aita Santu, Gotzain eta abadeen alde: aspertu bagarik, munduari maitasunezko Barri Ona iragarri dagioen. Eskatu...
- 2 A Gazteen alde: ume-fedetik gizon-fede argi ta zabal batera igaro daitezana.
- 3 B Lur guztiko errien alde: arein arteko bata-suna ta anaitasuna indartu dadin.
- 4 C Kristo ezagutu-naiez dabizanen alde: kris-tauren banantze guztien artetik, bizi dan Jaungoikoa aurkitu dagien.
- 5 D Gure parrokiaren alde: Kristo gure artean obeto ezagutua, maitatua ta otseindua izan dadin.

URTEKO

OGETA LAUGARREN IGANDEA

- 1 A Gotzain eta abadeen alde: Jaungoikoaren parkamena eskuetan dabela, euren arloan zintzo lan egin dagien. Eskatu...
- 2 B Edozein banantzekerak naastuta daukazanen alde: bakera eldu daitezana: ez, ostera, armen eta indarraren bidez, guztiak alkarri parka-tuaz baiño.
- 3 C Pekatu-lokarrietan lotuta dagozanen alde: Jaungoiko parkatzaillagana uste onez biurtu daitezana, eta euren barrua askatu dagien.
- 4 C Gure senide geisoen alde: Jaungoikoak gor-putzeko osasuna, eta Aren parkamenak bio-tzeko bakea emon dagitsen.
- 5 D Mezako Gorputz Santuan eskuartu dogun guztion alde: Salbatzaillak bere Nekaldian lez, geuk be gure kalte-egille guztiai parkatu daiegun.

URTEKO

OGETA BOSGARREN IGANDEA

- 1 A Gure Eliza Ama santuaren alde: Jaungoikoak dei egiten dauksen guztiak, bere Etxeko mai santuan batu dagizan. Eskatu...
- 2 B Lanpean nekatuta dagozanen alde: lan-ardu-rak eta diru-goseak itsutu bagarik, Kristo'ren deia entzun dagien.
- 3 B Nekazarien lanen alde: Jaungoikoak gizonen izerdi ta nekeak soloetako frutu ugariz be-deinkatu dagizan.
- 4 C Baztartuta dagozanen alde: beti norbaiten laguntza izan dagien.
- 5 C Ildako guztien alde: Jesus'ek dei egin dau-tsenak lez, zeruko mai ederra lortu dagien.
- 6 D Emen garan guztion alde: ala-olako atxakiak mai santutik urrundua ez gagiezan.

URTEKO

OGETA SEIGARREN IGANDEA

Anai-arrebok: bat egin dagigun guztiok otoitzean, bere seme-alaben gorputz-ari-mak edonun eta beti zaindu dagizala es-katzeko.

- 1 A Gure Eliza Amaren alde: kezka ta esturetan bizi diran andra-gizonai itzaropena ta fedea ekarri dagitsen. Eskatu...
- 2 A Gotzaiñen eta abadeen alde: kristauak peka-tutik atarata, biotzen osatzaillak izan daitezana; eta gorputzeko oiñazeaz be erruki izaten jakin dagien.
- 3 B Osagilleen, onein laguntzaillak eta geiso-zaintzaillak alde: arein bearrizanean dago-zanen ardurea biotz andiz artu dagien.
- 4 C Aste onetan ilgo diranen alde: azken-orduan Jesukristo ta Maria lagun izan dakiezan.
- 5 D Emen batuta gagozanen alde: Kristo'ren Biotz onean dogun uste onak aste guztian indarra emon daiskun.

URTEKO

OGETA ZAZPIGARREN IGANDEA

Anai-arrebok: Jaungoikoak parkatu egiten dausku, eta geuk be parkatu dagigula nai dau. Otoitz egin daiogun gartsu, bere Elizaren bidez, gizonai alkarri parkatzen irakatsi dagitsen.

- 1 A Eliza bananduen alde: utsegiñak alkarri parkatu dagioezana, eta, batasunari buruz, bide zabalez aurrera egin dagien. Eskatu...
- 2 A Eliza Santuaren, Gotzaiñen eta abadeen alde: Kristo'ren itza esaten dabela, eurak be parka-tzea iñoiz be aaztu ez dakien.
- 3 B Munduko jente ta errialde guztien alde: gorrotoak aazturik, zuzentasuna baiño erru-kia gorago ezarri dagien.
- 4 C Ildakoen alde: eurak egin izan dabena baiño obeto parkatu dagitsen Jaungoikoak.
- 5 D Emen gagozanen alde: gure arerioai adiskide-biotza agertzen jakin dagigun.

URTEKO

OGETA ZORTZIGARREN IGANDEA

- 1 A Elizan eginkizun eta karguren bat dabenen alde: biotz guztiaz senideen serbitzari izan daitezana. Eskatu...
- 2 B Naziño guztietako erritarren alde: euren erriaren alde egin bear dabena aaztu bagarik, Jaungoikoari berea emon dagioen.
- 3 C Gosez edo bearrizanez bizi diranen alde: arein esturak ondo dagozanen biotzak ikutu dagiezan.

- 4 D Emen batasunean gagozanon alde: maitasuna gure biotzetan geroago ta andiagoa izan dadin.

URTEKO

OGETA BEDERATZIGARREN IGANDEA

- 1 A Eliza katolikuaren alde: egiaren eta itxaropenaren ondotik dabizanaiz Jaungoikozko argi bizia erakutsi dagitsen. Eskatu...
- 2 B Atsekabetan bizi diran familien alde: arein biotz-samiña betiko biziaren itxaropenak eztitu dagian.
- 4 C Bertan-beera itzirik ilten diranen alde: arein bakartasuna Kristo'k bete dagian, arei bere Jaungoikozko laguntza emonik.
- 5 C Barriro biztuko diran sinisterik ez dabenen alde: arein begiak mundu oni itxi baiño len, Jaungoikoak arein biotza betiko argiari edegi dagion.
- 6 D Gu guztion alde: geure bearrizana dabena kana joan gaitez, arein ezinbesteari lagun egitera.

URTEKO

OGETA AMARGARREN IGANDEA

- 1 A Elizearen gorputz-atal guztien alde: mundu onen Jaungoikozko barritzean, zeruko erritar lez alegindu gaitez. Eskatu...
- 2 A Abadeen eta Jaungoikoari eskiniña dagozan guztien alde: Elizearen itxaropenak arein bizitzak berak agertu ta zabaldu dagian.
- 3 A Kristau-laikoen alde: giza-egitekoetan alegiñak egiñik, Kristo'ren maitasuna irakatsi ta egin dagien.
- 4 B Mundu guztiko jenteen alde: gerrearen eta zoritxarren bildur bagarik bizi daitez.
- 5 D Geisoen eta nekeetan bizi diranen alde: euren ordu txarretan Jaungoikoak gozotu dagizan.
- 6 D Gaur emen batuta gagozanon alde: barriro biztuko garan ziurtasuna izan dagigun.

URTEKO OGETA

AMAİKAGARREN IGANDEA

- 1 A Eliza gure Amaren alde: Jesukristo'ren emaztea dan ezker, gizaki guztien premiñak ezagutu dagizan. Eskatu...
- 2 B Gure agintarien alde: famili sortu-barriai aalegin guztiaz lagun egin dagitseen.
- 3 B Alkarregaz ezkondu bear dabenen alde: geroko euren seme-alabai buruz, bear dana egin dagien.
- 4 B Ezkonbarrien alde: arein zorionak eta maitasun barriak bizi guztian irauñ dagien.
- 5 C Seme-alabarik sortu ez dabenen alde: inguruan gozotasuna zabalduaz, eurak be zoriona aurkitu dagien.
- 6 D Gure parrokiaren alde: eliza onetako batza-

rretan, alkarrentzat dogun maitasun atsegin-garria agertu daiten.

URTEKO OGETA

AMABIGARREN IGANDEA

- 1 A Eliz-Artzaiñen alde: sinismenaren zaintzailleak eurak diran ezker, Espiritu Santuak agertu dagitsen nun diran kristauen egiazko premiñak. Eskatu...
- 2 B Jakintsuen alde: mundu onen indarrak ondo erabilteko eskua izan dagien, izaki guztiak Kristo Erregearen menpean ezarririk.
- 3 C Sinismen epelekoen alde: bildurtuta bizi ba'dira be, edo pekatuan murgilduta, egiazko kristauen maitasunak Kristo'gana bultza egin dagitsen.
- 4 D Kristau-Ikasbideko umeen alde: euren fedeak zuster sakonak emon dagizan, Jesus'en eta lagun-urkoen maitasunean.
- 5 D Emen batuta gagozanon alde: ikusi-ezin, asarre, indarkeri ta gorroto guztiak alde batera itzirik, gure biotzetan guztientzat gozotasuna, maitasuna, eroapena ta parkamena sartu daitez.

URTEKO OGETA

AMAIRUGARREN IGANDEA

- 1 A Eliza katolikuaren alde: Kristo'gan eta Kristo'ren bidez, egunen baten lurreko andragizon guztiak alkartu daitez. Eskatu...
- 2 B Munduaren bakearen alde: Ebanjelioaren iragarteak eta lurrekoen borondate onak gerra guztiak ezereztu dagiezan.
- 3 B Oraingo barriztu-gurak zoratuta daukazanen alde: arein itxaropena ta indarrak biderdian gelditu bagarik, betiko egunaren argitara eldu daitez.
- 4 C Gogo illun eta txarrez lanean diarduen alde: arein egun guztietako lan neketsu-illunak, otoitz bat lez, betiko bizitza ta zorionerako, Jaungoikoak onartu dagizan.
- 5 D Emengo gure batzar onen alde: gure maitasun gartsuari esker, parrokia onek betiko bat-egitea oraindik izan dagian.

URTEKO OGETA

AMALAU GARREN IGANDEA

- 1 A Eliza Santuaren alde: Jaungoiko-Semea datorrenerako gertatu gagozan. Eskatu...
- 2 A Pekatarien alde: damutu ta biurtu daitez, Kristo'ren etorrerea uste bagarik jazo ez daki.
- 3 A Sinisbageen alde: Kristo'ren Erreiñu-barrura eltzeko, Aren argia aurkitu dagien.
- 4 B Munduko bakearen alde: Jaungoikoak asarre ta gerra guztiak galerazo dagizan.

- 5 C Guztia illun ikusten dabenen alde: areintzat argia ta indarra Jaunaren etorreraren itxaropena izan daiten.
- 6 D Geure alde ta maite ditugunen alde: Jaungoikoak sinismenean azkenerarte i r a u t e a emon daiskun.

JAIEGUNETARAKO

JAUNAREN AURKEZKUNDEA

(Zezeillak 2)

Anai-arrebok: Jesus'ek, Maria'gandik jaiota, Jaunaren Etxean eskiñia izateko, egun au aukeratu eban ezker, eskiñi daiogun geuk be Jaungoiko Aitari otoitzik beroena.

- 1 A Kristau-erri guztiko gotzain eta abadeen alde: arein bizitzak Kristo'ren argiz diz-diz egin dagien. Eskatu...
- 2 B Agintari guztien alde: eurak be gure egiazko agintaria Jaungoikoa dala jakin dagien.
- 3 C Bizitzako azken-orduan dagozanen alde: Jaungoikoaren besoetan atsedena bakean artu dagien.
- 4 D Erriko etxe guztietako gurasoen alde: Maria ta Jose ikasbide dabela, euren lan eta nekeen bidez, etxeko zorion-egille izan daitezcan.

Jaungoiko Jauna! Jauretxean onartu dozu geuretzat eskiñi bear zana. Begiratu egizu gaur emen batuta daukazun familia, eta entzun egizuz gure eskariak. Jesukristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

JOSE SANTUA

(Epaillak 19)

Anai-arrebok: otoitz egin daiogun biotz-biotzez Jaungoikoari. Gizonak, bere lanaz, mundua egiten eta erosten eskuartzea nai izan dauan ezker, entzungo ditu Jaunak gure eskariak.

- 1 A Kristo'ren Elizearen alde: langille-taldeari salbatuak garanako barri ona irakatsi dagion. Eskatu...
- 2 B Munduko lantegietako nagusien alde, baita langille-alkartzeetako buru diranen alde be: lanari bere saria emonaz, guztien artean zuzentasun geiago billatu dagien.
- 3 C Lan gogorretan diarduen alde, lan bagarik dagozanen alde, nekez bizi diran familien alde: euren gurutzea Jesus'enari loturik, anaitasun geiago aurkitu eta obeto bizi izatea lortu dagien.
- 4 D Gu guztion alde: lanean geuretzat bakarrik ez diardugula gogoraturik, geure senideentzat, geure etxekoentzat eta, guztien gainetik, Jaungoikoarentzat baiño, gure lana beti biotzez egin dagigun.

Emoiezu, Jauna, zure fededunai egia ta bakea dan espiritua: zure naia biotz guztiaz egin eta beti zeure laguntza jadetsi dagien.

Jesukristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

JAUNAREN GIZAKUNDEA
IRAGARTEA
(Epaillak 25)

Anai-arrebok: poztu gaitu gure erospenaren barri onak. Eskatu daiogun gure Aita ain onari, entzun dagizala gure eskariak.

- 1 A Ebanjelioko Barri Ona entzun ez dabenen alde: Jaungoikoak bere Itzaren mandatariak bialdu dagitsezan.
- 2 B Umeak ekarri-guraz diran andren alde: gura dabena jadetsi eta arein umeak Bateoko bizi barria izan dagien.
- 3 C Munduko grifietan itota dagozanen alde: Jaungoikoak fedea sendotu dagitsen.
- 4 D Emen batuta gagozanon alde: geuk be, Maria'k lez, Jaungoikoaren deia entzun dagigun eta baietz erantzun daiogun.

SAN JOSE LANGILLEA
(Orrillak 1)

Anai-arrebok: egin daiogun otoitz Aita guztiaaldunari; munduaren etorkizuna Aren eskuan dagoan ezkerero, eskatu daiogun uste osoz, entzun dagizala bere erriaren eskariak.

- 1 A Eliza santuaren Artzaiñen alde: Jaungoikoak Espirituaren ugaritasuna emon dagitsen, euren erria arduraz zaindu eta langille ta bear-tsuai Ebanjelioa iragarri dagitsen. Eskatu...
- 1 B Lan-arazoa ta ekonomia zuzentzen eta eratzten dabezanen alde: gizon guztien eskubi-deak aurrean izanik, beti jakituriaz eta zuzentasunez jokatu dagien.
- 1 C Lan-bagarik edo euren lan gogorragaitik nekepean dagozanen alde; arrisku-artean edo lan-sari bidebageaz lan egiten dabenen alde.
- 1 D Emen gagozanon alde, geure etxekoen eta geure lankideen alde: egunoroko arazoetan poztasuna aurkitu eta beti Jaunaren serbitzari lez egin dagigun lan.

Emon egiozu zure erriari, Jauna, egiazko ta bakezko espiritua: bere adimen osoaz Zeu ezagutu eta biotz-biotzez zeure naia bete dagian.

Jesukristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

SAN JOAN BATEATZAILLEA
(Bagillak 24)

Anai-arrebok: eskatu daiogun Jaungoikoari, Juan Bateatzaillea apostolu-grifiaz bete eban ardura berberaz bete dagizala gure eskariak.

- 1 A Israeldarren alde: Yon Bateatzailleak erakutsi ebanez, munduaren Salbatzaillea Nazaret'eko Jesus dala ezagutu dagien. Eskatu...
- 2 B Errialde guztien alde: bakotzak bere eginbi-

deari jarraituaz, guztien eskubideak gorde dagiezan.

- 3 C Bearrizanean eta txarto erabiliak diranen alde: Jaungoikoak euren zoritxarretik atara dagizan.

- 4 D Gaur elizara etorri garanon alde: Jaungoikoaren naia egiteko gertu gagozan Bere seme-alabak garala ezagutu dagian munduak.

Bedeinkatu egizu, Jauna, zure erria; eta egizu, San Joan'en otoitzetan uste ona dauanak, jadetsi dagiala Zeuk eskatzen dautsazuna.

Jesukristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

PEDRO TA PAULO
APOSTOLU SANTUAK
(Bagillak 29)

Anai-arrebok: Apostoluen jaiak poztuten gaituan egun onetan, otoitz egin daiogun Jaungoikoari, leku guztietan zabaldua dagoan Elizearen alde ta mundu onen bearrizanen alde.

- 1 A Paulo gure Aita Santuaren alde: atxa baizen sendo iraun dagian, eta, aita baten biotzez, Jaungoiko-erriaren ardura ta maitasuna izan dagian. Eskatu...
- 2 B Naziñoetako agintarien alde: gu guztion onerako, Jaungoikoaren serbitzari izan daitezcan.
- 3 C Kristo'gaitik espetxean eta estualdietan dagozanen alde: Elizeak arein alde eten bagarik otoitzean diarduala, aurrean darabilezen eskuetatik urten daitezcan.
- 4 D Emen batuta gagozanon alde: Apostoluen bidez eldu yakun egiari guztiok zintzoak izan gakiozan.

Begiratu egizu, Jauna, otoitzean diarduan erri au, eta emoiozu, Apostoluen bitartez, biotzez eskatzen dauana.

Jesukristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

SANTIAGO APOSTOLUA
(Garillak 25)

Anai-arrebok: Otoitz egin daiogun, guztiok batera, Jaungoikoari, gure ta munduko gizakume guztien gaitiera bere errukiaren bedeinkapenak isuri dagizan.

- 1 A Jaungoikoaren Eliza Santuaren alde: erri guztietan, aurreratuetan eta atzeratuetan, apalik bai baiña bildur bagarik. Kristo'ren Barri Ona iragarri dagian. Eskatu...

- 2 A Gure erriko Gotzaiñen alde: Elizearen iraktsiak eskatzen dituan erabagiak artu dagiezan, eta kristau-erriak, lan nekez orretan, bere otoitzaz lagun egin dagitsen.

- 3 B Erri-agintarien alde: errietan buru diran ezkerro, beste ezeri baiño len, menpekoen ona begiratu dagien.
- 4 B Sinisbageen alde: misiolariak ugaritu daitezana eta alegin guztiaz sinismen-argia eroan dagitseen.
- 5 D Emen batuta gagozanon alde: nekeak-neke, gure erriaren etorkizuna zuzenbidez eta zorionez betea izaten alegindu gaitzezan.
- 6 B Otoitzean bizi diran praille ta mojen alde: euren otoitzak, Jaungoikoaren aurrean, munduarentzat babes eta laguntza izan daitezana. Jaungoiko guztiz aaltsu ta betikoa! Zerura-bidean, lurreko bizitza onetan gabizanoi, emoiguzuz eskatzen dautsuguzan ondasunok: zeure grazia, gorputz-arimetako osasuna, eta, bakegaz batean, bizibide egoki bat.
- Jesukristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

BERRIO-OTXOA'TAR BALENTIN
ZORIONTSUA
(Garillak 4)

Ikusi «Martiri Santuen» egunetarakoa: 98 orri.

LOIOLA'TAR IÑAZIO SANTUA
(Garillak 31)

Ikusi «Abade Santuen» egunetarakoa: 98 orri.

JAUNAREN IRUDI-ALDATZEA
(Agorrillak 6)

Jesukristo'ren Irudi-aldatzearen egun onetan, Jesukristo'k munduari bere Jaungoikotasuna agertzen dautso. Egin daiogun, ba, otoitz zeruko Aitari gizakume guztien onerako.

- A Eguzki-sortzaldeko ta Sartzaldeko Eliza santu agurgarrien alde: gaur Jaungoikoaren Semearen jaia ospatzean, Aren Jaungoikotasunean eskuartzean poztu daitezana. Eskatu...
- B Mundu guztiko bakearen alde: errietatik gogoseak, zoritxarrak eta gerrateak urrundu daitezana.
- C 1 Geisoen alde: osasuna aalbait arifien lortu dagien eta Jaunaren etorrera barria itxaroten pozik bizi daitezana, gure gorputz beartsu au aintzazko gorputz biurtuko dau-ta.
- C 2 Jainko-ukatzailleen, jentillen eta Jesukristo ezagutzen ez dabenen alde: Areganagiño eroaten dauan bidea ezagutu dagien.
- D Emen batuta gagozan guztion alde, geure etxekoen eta parrokia onetako lagunartean alde: Jaungoikoak lur onetan bere serbitzari izateko grazia emon eta betiraunean bere aintza ederra jadetsi daiskun.

Zure bedeinkapenak laguntza emon dagitseta, Jauna, zure zintzoai; eta, bedeinkapen orreez indartuta, ez daitezala zure naitik urrundu, olan poz-pozik mesedez bete daitezana.

ANDRA MARIA'REN
ZERURATZE EGUNA
(Agorrillak 15)

Anai-arrebok: gaur Eliza osoa Maria Birjiñaren aintzaz poz baten dagoan ezkerro, gu guztion otoitza igo dakiola Kristo'ri, Bere ta geure Ama ospaturik.

- 1 A Elizearen alde: Maria zerura jasoari begiraturik, bere gorputz-atal guztiakaz batera, jarraitu bear dautsan zeruko bidea obeto ikusi dagian. Eskatu...
- 2 B Osagilleen alde ta osagarrien ardurea dabenen alde: geisoen gorputzak, zerurako egiñak dirala gogoraturik, begirune andiz zaindu dagiezan.
- 3 C Ildako fededun guztien alde: pekatuen erruetatik garbituta, Andra Maria'ren zeruko aintzaz laster sartu daitezana.
- 4 D Geure erriaren alde: Kristo'gan zeruratzeko ziurtasuna emoten dauskun Gorputz Santuan, geroago-ta gartsuago, bat egin dagigun. Onartu, Jauna, errukiz, Elizearen eskariak: bere seme-alaben jatorria zerura gaur Maria'gan jasoa ikusirik, pozetan dago-ta.
- Jesukristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

ANDRA MARIA'REN
JAIOTEGUNA
(Irailak 8)

Anai-arrebok: Salbatzaillea emon dauskun Amaren eguna ospatzen dogu gaur. Otoitz egin daiogun apalik Aren Seme Jesukristo gure Jaunari.

- 1 A Jaungoikoak, bere erriko seme-alaba guztiak, Elizearen lenengo aldietako berotasunera erakarri dagizan. Eskatu...
- 2 B Senar-emazteen alde: Jaungoikoak emon nai dagitsezana umeak pozik eta maitasunez onartu dagiezan.
- 3 C Umezurtzen eta gurasoak bertan-beera itzitateko umeen alde: Ama Birjiñaren babesak lagun egin dagitsen.
- 4 D Emen batu garanon alde: jai onen gozotasunak zeruko Amaganako maitasuna ta uste ona geitu daiskun.
- Jesus'en Ama Maria Birjiñagaitik, entzun egizuz, Jaungoiko orrek, zure Elizearen eskariak.
- Jesukristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

GURUTZE SANTUAREN
EGUNA
(Irailak 14)

Anai-arrebok: Otoitz egin daigun, lurtar guztien alde, Kristo'ren Gurutzeak zeruratu dagizan.

- 1 A Kristau guztien alde: bateoko Gurutzearen ezaugarria bizitza guztian erakutsi dagien. Eskatu...
- 2 B Munduko bakearen alde: Kristo'k orretarako isuri eban Odolak guztien alkartzea egin dagian.
- 3 C Gurutze aztunak jo dituan guztien alde: geisoaldiak eta zoritxarrak emoten dautseezan neke-miñetan Jesus'egaz bat egiñik, Aren garaipenean be eskuartu dagien.
- 4 D Otoitz au egiten diardugunon alde: gauza guztietan Kristo'ren argi-sume agertu gaitazan.

Entzun, Jauna, Zuri deiez dagoan erria. Zure Semeak Gurutzean erosi dauan ezkerro, emoirozuz bear dituan laguntzak. Jesukristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

KRISTO ERREGAAREN EGUNA

Anai-arrebok: Kristo, mundu zabalaren Erregea goratzen dogu gaur. Egin dagigun gartsu gure fededun-otoitza.

- 1 A Mundu guztiko Elizearen alde: lurtar guztiak Nagusi bakarraren menpean ezarteko, mundu guztian maitasunezko erreñu bat eratu dagian. Eskatu...
- 2 B Munduko agintarien alde: arein lurreko nagusitasunak, bakean eta askatasunean, Kristo'ren Erreñua onartu ta indartu dagian.
- 3 B Famili guztien alde: alkarganako begirunean eta maitasunean, etxeoak ondo-eroan eta bat eginda bizi daitezcan.
- 4 C Txarto erabiliak diranen alde: Kristo Erregeak, arein gafiñean dagozanai, gizonari zor yakon begirunea irakatsi dagitsen.
- 5 D Gaur emen batuta gagozanon parrokiaren alde: lenen, gure artean Jesukristo'ren Erreñua egiten alegindu gaitazan.

Errege izan zaitez, Jauna, fededun guztien biotzetan. Ekarri egizuz zeure naia egitera, zure graziaz Zeuk lagunduta. Jesukristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

SANTU GUZTIEN EGUNA
(Zemendiak 1)

Anai-arrebok: gu baiño leen zerura joan diran guztiakaz, otoitz egin daiogun Jaungoiko Jaunari, Santu guztien jai onetara kristau asko eldu daitezala eskaturik.

- 1 A Eliza osoaren alde: gaurko doatsuen Eban-

jelioa kristau guztientzat bizi-bidea izan dadin. Eskatu...

- 2 B Bakearen alde lanean diarduen alde: arein lanak mundu onen zoriona jadetsi dagien.
- 3 B Baretsu ta bakezale diranen alde: mundu guztian bakea sortzen alegindu daitezcan.
- 4 C Bearrizanean dagozanen alde, edo-ta gose naiz txarto erabiliak diranen alde: Jesus'ek eurai buruz diñoana jakiñik, adorea artu dagien, eta areintzat egun obeak asi daitezcan.
- 5 D Emen batuta gagozanon alde: orain emen lez, egunen baten zeruan santu guztien artean bat egin dagigun.

Entzun, Jauna, zure Elizearen otoitza; eta emoirozu, santu guztien bitartez, gaur eskatzen dautsuna.

Jesukristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

ILDAKO GUZTIEN EGUNA
(Zemendiak 2)

Anai-arrebok: egin daiogun bene-benetan otoitz biziaren eta eriotzaren jauna dan Jaungoikoari, zintzo il diran arima guztien alde, eta oraindiño lurrean bizi diran gizakume guztien alde.

- 1 A Kristau guztien alde: euren fedea munduan betiko biziaren testigutza eder izan dadin. Eskatu...
- 2 B Alde guztietako gizakumeen alde: Jesus'ek, bakearen Erregeak, zuzentasunerako ta batasunerako bidean aurrera eroan dagizan.
- 3 C Ildako guztien alde: Jaungoikoak maitasunez egin zituanak, Beragandik baztatu ez dagizan.
- 4 C Ildako guztien alde: Jesukristo'k bere Olo-laz erosi ta bere biztueraren barruan ezarri dituanak, Jaungoikoak bere seme-alaba lez onartu dagizan.
- 5 C Jaungoikoak bere zeruan, bere bakean eta bere argitan artu dagizan.
- 6 C Ildako guztien alde: guztien pozkille dan Jaungoikoak, bere pozetan eta bere maitasunean sarbidea emon dagitsen.
- 7 D Emen batuta gagozan guztion alde: Kristo'k, biziak eta illak epaitzera etorri daitenean, bere aurrean esku-utsik aurkitu ez gagizan.

ANDRA MARI SORTZEZ GARBIA
(Lotazillak 8)

Anai-arrebok: Maria Birjiña pekatu guztitik garbi gorderik, Jaungoikoak egin eban miraria ospatzen dogu gaur. Otoitz egin daiogun, ba, orain, biotz-biotzez, Jaungoiko Jaunari.

- 1 A Elizearen alde: gizon egindako Itzaren Emaz-

- tea dan ezkeru, bere santutasunak gero ta geiago ditzira egin dagian. Eskatu...
- 2 B Alkarri bear dautsagun lotsa ta begirunearen alde: gazteak onbidean eta santutasunean aurrera egin dagien.
- 3 C Nekepean eta samiñaldian dagozanen alde: Birjiña guztiz Garbiak errukarri orrekana bere begi samurrak biurtu dagizan.
- 4 D Gure erriko neska gazteen alde: Birjiña guztiz Garbiak lez, garbitasuna une guztietan gorde dagien, eta egiazko santutasunera eldu daitezcan.

Izan gogoan, Jauna, zure Elizea. Jesus'en Ama bitarteko arturik, entzun egizuz egiten dautsuguzan otoitz apalok. Jesukristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

ANDRA MARIA'REN ETA SANTUEN EGUNETARAKO

ANDRA MARIA'REN EGUNETAN

- Anai-arrebok: egin daiogun otoitz Aita guztiz aaltsuari, etako Andra Maria'ren bitartez, eskatu dagigun Jainkoaren errukia munduaren bearrizanetarako.
- 1 A Mundu osoan zabaldua dagoan Eliza santuaren alde: Jaungoikoak fede sendoa, itxaropen alaia, maitasun gartsua eta batasun gozoa emon dagion. Eskatu...
- 2 B Jaunak errien artean alkartasun-gogoak geitu dagizan, eta agintariai bakearen eta beartsuen aurrerapenaren alde egiteko biotz-eragiña biztu dagitsen.
- 3 C Erbeste onetan naigabeetan dagozanak, Andra Maria'ren laguntza izan dagien, eta euren neke-samiñetatik askatuak izan daitezcan.
- 4 D Emen batuta gagozanon alde eta gugaz ez diranen alde: Kristo'ren maitasunak bat egin gagizan.

Entzun, Jaungoiko on orrek, zure erriaren otoitzak, eta onartu gure eskariak, gizaldien gizaldietan Zugaz Errege bizi dan Jesukristo zure Seme bakarraren Amaren zainpean jarten doguz-ta. Amen.

APOSTOLU SANTUEN EGUNETAN

Anai-arrebok: Otoitz egin daiogun Jainko Aita guztiz aaltsuari, erriaren eskaria entzun dagian: I..... Apostolu santuaren jaia ospatzean, beronen irabaziz eta bitartez, laguntza izango dauala itxaroten dau-ta.

- 1 A Jainkoaren Eliza santuaren alde: Apostoluen aitz-gaiñean sendo jarrita, bizitza betea izan eta arekandik artutako Ebanjelioa zintzo iragarri dagian. Eskatu...
- 2 B I..... Aita Santuaren, I..... gure Gotzaiñaren eta lurreko gotzain guztien alde: Espiritu Santuz beterik, Apostoluen itza zintzo-zintzo zabaldu dagien.
- 3 C Gure erriko ta mundu guztiko agintarien alde: erri guztien bakearen alde eten-bagarik lan egin dagien.
- 4 D Erasopean dagozan kristauen alde: Apostoluak izan eben indarrak poztuak izan eta Kristo'ren izenagaitik nekeak eroateko lain diralako poztu daitezcan.
- 5 E Parrokia onetako eliztarren alde: Apostoluen irakatsiari zintzo lotuta, gure anai-arreen laguntza izan daitezcan.

Entzun, Jainko guztiz altsu orrek, Zeuri eskiñita dagoan erriaren eskariak; eta, I...

zure Apostolu santuaren bidez, emon egiozu zure laguntza oraingo ta geroko gaian.

Jesukristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

MARTIRI SANTUEN EGUNETAN

Anai-arrebok: Kristo'ganako fedea odolaz autortu eban I.....'ren eguna ospatzen dogun ezkerre, egin daiogun otoitz, apalik eta biotzez, bere graziaz indartu eban zeruko Aitari.

- 1 A Elizearen Artzaiñen eta seme-alaben alde: odolaz izanda be, Kristo autortzeko beti gertu egon daitezcan. Eskatu...
- 2 B Elizea aurrean darabilen alde: martirien odolak onbidera ekarri dagizan, eta betiko erreñuan arekaz batu daitezcan.
- 3 C Erasopean dagozanen alde: martirien iraupe-na sendotu eban Jainkoaren indarrak, eurai be larrialdian adorea emon dagitsen.
- 4 D Emen batuta gagozan guztion alde: Jesus-Bildotsaren odoletan garbituta, aukeratuen artean betiko bizitza zorionsua izan dagigun.

Entzun, Jauna, gure eskariak; eta I..... zure martiriaren bidez, jadetsi eiguzu biotz onez, eskatu dautsugun guztia. Jesukristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

ELIZTARREN ARDURADUNEN EGUNETAN

Anai-arrebok: otoitz egin daiogun santutasunaren asiera ta iturburu dan Jainko Aita guztiz aaltsuari.

- 1 A Aita Santuaren, Gotzaiñen eta abadeen alde: euren zainpean dagozan erriak maitasunez gorde dagiezan. Eskatu...
- 2 B Lurreko ondasunak ugari dabezanen alde: euren ondasunak guztien onerako dirala eza-gutu dagien, eta zekenkeri bagarik erabili dagiezan.
- 3 C Onbidetik okertu diranen alde: Jainkoagana biurtu daitezcan, eta Jaunak, bere etorrera ospatsuan, iratzarririk aurkitu dagizan.
- 4 D Batzar onen alde: gugan fedea, itxaropena ta maitasuna geitu dagian.

Eldu bedi Zugaraiño, Jaungoiko errukior, zure Elizearen otoitza: Zugandik eskatu dauzan ondasunak jadetsi dagizan. Jesukristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

ELIZ-IRAKASLE SANTUEN EGUNETAN

Anai-arrebok: egin daiogun otoitz egiaren iturburu dan Jainko guztiz aaltsuari, gure otoitza berotu dagian.

- 1 A Jainkoaren Eliza santuaren alde: Jaungoikoak Apostoluen fedea iragarteko irakasle jakintsuak biztu dagizan. Eskatu...
- 2 B Ez-jakiñean bizi eta ezer jakiteko aukerarik ez dabenen alde: aziera egokia jaristeko bear diran bideak izan dagiezan.
- 3 C Bide okerrean naiz euren grifien menpean bizi diranen alde: euren buru-biotzak egia-tara zabaldu dagiezan.
- 4 D Geure alde: I.....'ek lez, jakituria ikasirik, besteai oparo emon dagitsegun.

Eldu dakizula, Jainko on orri, zure erriaren maitasuna; fede sutsuz egindako gure eskariak, zure errukiagandik eskatzen dabena jadetsi dagien.

Jesukristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

ABADE SANTUEN EGUNETAN

Anai-arrebok: egin daiogun otoitz, guztio-
k batera, I..... Santu andia goratu, eta gu, aren egun onetan, pozez bete gaituan Jaungoiko Aitari.

- 1 A Jaungoikoaren Elizearen alde: bere abade, praille ta mojen artean santu izan dadin, eta kristau guztiakan, maitasunaren indarrez, dizdiz egin dagian. Eskatu...
- 2 B Sanren laguntzaz, gure erria Kristo'ren menpean beti zintzo gorde dagigun.
- 3 B Langilleen alde: Jainkoak bizitza onetan lurreko ondasunak, eta bestean betiko zoriona emon dagitsen.
- 4 C Ezin-biziak naigabepean daukazanen alde: Jainkoaren laguntza izan dagien.
- 5 C (San Inazio'ren egunean) Gure Patroi andiak lagunduta, egiten dogun guztia, arek lez, geuk be Jainkoaren aintzarik andienerako egin dagigun.
- 6 D Emen batuta gagozanen alde: gure bizia dan Kristo, aintzaz beterik agertu daitenean, gure senitartekoakaz eta lagun-urkoakaz batean, Berak emonda, betiko koroia artu dagigun.

Jaungoiko guztiz aaltsu ta betikoa! Apalik eskatzen dautsugu: I..... doatsua bitarteko dala, somatu dagigula zure biotz onaren laguntza.

Jesukristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

BIRJIÑA SANTUEN EGUNETAN

Anai-arrebok: poztu gaitzean guztio-
k Santa I.....'ren egun onetan, eta eskiñi daiogun Jaungoikoari gure otoitza.

- 1 A Jainkoaren Elizearen alde: bere birjiñen artean apala, umeen artean errubagea, eta senar-emazteen artean santua izan dadin. Eskatu...

- 2 B Gazteen alde: euren begiak edertasunera, euren espiritua egiara, eta euren biotza onbidera zabaldu dagiezan.
- 3 C Aragiaren guraripean bizi diran pekatarien alde: damutu daitezcan, eta euren bizikerea zuzendurik, betiko Erreiñuan Kristo aurkitu dagien.
- 4 D Gure Elizbarrutiko praille ta mojen alde: Jainkoaren laguntzaz, beartsu, gogo-garbi ta esaneko izaten iraun dagien.

Entzun, biotz onez, Jaungoiko orrek, Zuri otoitz egiten dautsuezanen eskariak; eta Santa I..... zure birjiñaren bidez, zabaldu gure gainera zure esku ona.

Jesukristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

BIRJIÑAK EZ DIRAN SANTUEN EGUNETAN

Anai-arrebok: Santa I.....'ren bitartez, dei egin daiogun apalik Jainko guztiz aaltsuaren biotz onari.

- 1 A Jainkoaren Eliza santuaren alde: bere seme-alabak bizibide guztietan bikaiñak izan daitezcan. Eskatu...
- 2 B Amen alde: maitasun betea bizi dagien eta seme-alaben azierari zintzo ekin dagioen.
- 3 C Bakarrean bizi diran alargunen alde: Jainkoak eutsita, bere ardurapean izan dagizan.
- 4 E Gure parrokiako familien alde: lan bagarik naiz edozein nekepean dagozan larrialditik askatuta, barriro bakea ta poza jadetsi dagien.

Jainko guztiz aaltsu ta betikoa, atsekabetu eta makalen indarra: entzun, arren, Zuri dei egiten dautsuezanen eskariak; eta Santa I.....'ren bidez, emon egiezu errukiaren poza.

Jesukristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

BESTE EGUN BATZUETARAKO

ELIZA-ESKINTZA

Anai-arrebok: Otoitz-etxe onetan alkartuta, gogoratu dagigun Kristo'k esan eban au: «Eskatu egizue, eta emon egingo yatzue». Egin daioguzan, ba, uste onez, gure eskariak Jaungoiko guztiaaldunari.

- 1 A Eliza santu katolikuaren alde: arri biziz egin da dagoan ezker, santu biurtzeko bakotzak bere lana egin dagian. Eskatu...
- 2 B Bizitoki txarrean bizi diran familien alde: guztiak etxe egokia izateko bear dana egin daiten.
- 3 C Nekepean bizi diranen alde: Jaungoikoaren Etxe santu onetan eta gugaz batzarrean ego-teak poza ta laguntza emon dagitsen.
- 4 D Orain elizan gagozanon alde: emen batuok eta Espiritu Santuaren etxe egiñok, gauza guztietan gorputz-arimen begirunean ibili gaitезan.

Jaungoiko Jauna, zeru-lurrak Zuretzat nainkoa ez diranarren, zure Izenari otoitz egiteko lur onetan bizitokia nai izan dozu Zuretzat. Entzun eiguzuz Etxe santu onetatik egiten dautsuguzan eskariak.

Jesukristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

MISIÑO-EGUNA

Anai-arrebok: orra mundu guztitik misiolarien eskabideak! Igo dadilla gaur emendik zerura otoitz gartsua: erri guztiak eta enda (*arraza*) guztiak Ebanjelioko Barri Ona izan dagien.

- 1 A Alde guztietako Elizearen alde: bere eginkizunari zintzo ekin dagion, gauza guztietan eta beti Jaungoikoaren mandatari izan daiten. Eskatu...
- 2 A Aita Santuaren, gotzaiñen eta abadeen alde: oraingo gizaldiaren egiazko eginbearrak zeintzuk diran irakatsirik, Espiritu Santuak argi egin dagitsen.
- 3 A Eliza bananduen alde: euren misioño-eginkizunak alkarren arteko batasun-bidean erakutsi dagien.
- 4 B Jentil-errien eta erri atzeratuen alde: oraingo munduaren izaerea aintzat arturik, Ebanjelioren argia be artu dagien.
- 5 C Sinisbageen alde: ezbaian, edo argiaren bila, edo sinistu nai ez-ta dabizanak, euren bidean Kristo'gana ekarri dagiezan mandatarriak aurkitu dagiezan.
- 6 D Gure parrokiaren alde: abade, praille, monja naiz laiku, Jaungoikoak gure familietan

misiolari sutsu ta bizkorrak aukeratu dagizan.

BATASUNAREN ALDE

Anai-arrebok: gure otoitzak eta biotzak bat egin dagiela kristau bananduen dei samina, Jaungoikoari artalde bat eta Artzain bat izan daitezala eskatzeko.

- 1 A Eliza katolikuaren alde: bere fede apal eta zintzoaz, Kristo sinisten daben guztiai ateak zabaldu dagitzezan. Eskatu...
- 2 A Kristau guztien alde: Jesus'en Biotzari min emoten dautsan banantze orrezaz, areik be min artu dagien.
- 3 A Eliza guztietako umeen alde: guztiak bat egiteko biderik onena Jaungoikoaren Itza dan ezkerro, ume guztiak itz orren gose andia izan dagien.
- 4 B Errien arteko artu-emonen alde: banantzen dabezan mugak eta burrukaldiak amaitu daitezcan.
- 5 C Ebanjelioagaitik itzez eta egiñez aurrean erabilien alde: euren fedea askatasunez autoritu dagien.
- 6 D Gu guztion alde: munduari Kristo'ren maitasuna irakasteko, Jaungoikoak gure gorroto ta ikusi-ezifetatik atara gagizan.

Jaungoiko beti guztiz aaltsua! Ume sakanatuak Zeuk alkartzen dozuzan ezkerro, begiratu egizu zure artaldea. Bateo batek santutu dituanak, fede berberak bat egin dagizala eta maitasun berberak alkar lotu. Jesukristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

BATEO-EGUNEAN

- 1 A Elizearen alde: bateatuen familiak, gizon guztiak, senide lez artu dagizan. Eskatu...
- 2 A Gure senide bateatu guztien alde: Jaungoikoak Eliza beraren batasunean batu ta zaindu dagizan.
- 3 A Elizearen aurka dabizanen alde: Jaungoikoak arein begiak zabaldu eta biotzak ikutu dagizan.
- 4 B Munduko naziño guztien alde: bakea ezagutu dagien, eta bakotxari dagokion begirunea ta askatasuna guztiak aurkitu dagien.
- 5 C Argi-billa dabizanen alde: Jaungoikoak, federa daroan bidea erakutsi dagitsen.
- 6 C Itsutuak eta naastuak dagozan kristauen alde: bateoko fedearen argia barrero aurkitu dagien.
- 7 D Bateoko eskintzak gaur barritzen dabezanen alde: azkenerarte zintzo ta sendo iraun dagien.
- 8 D Gurutzearen ezaugarria daroenen alde: Kristo'ri jarraitzeko bizkor eta adoretu izan daitezcan.

9 D Pekatuarentzat il eta Kristo'rentzat biztu diranen alde: zeruko zorionean, Kristo'gaz betiko sartu daitezcan.

9 D Emen batuta gagozanon alde: gure sinismenaz eta gure jarraibide onaz, eskintzak gaur barriztu dabezanentzat eusle ta laguntzaille izan gaitezcan.

Jauna! Zeuk egiten dozu andi Elizea, ume barriak beti emonaz. Egizu, zure kristauak goratu dagiela bizi guztian bateoan artu daben sinismena.

SENDOTZA-EGUNEAN

Anai-arrebok: sinismen berean eta goimaitasun berean eskuartu dogu guztiok; Espiritu ta itxaropen berak bat egiten gaitu. Senide maiteok! Eskiñi be, otoitz bera eskiñi daiogun Jaungoikoari, guztiok alkarregaz.

- 1 A Gure Gotzain jaunaren alde, gure erriko ta auzo-errietako abadeen alde, Kristo'ren ordeko guztien alde: Elizea Espiritu Santuaren argiak argitu ta indartu dagian. Eskatu...
- 2 A Abade, praille, moja ta kristauen Jaungoikoak deiaren alde: euren bizia Kristo'ri eskiñirik, gazte askok zoriona jadetsi dagien.
- 3 B Munduko agintarien alde: bakearen alde egin bear daben lanean Espiritu Santuak indartu dagizan.
- 4 B Familiako aita ta ama guztien alde: Jaungoikoak, bere seme-alabak, arein bidez lurtean zuzentzen eta zeruan salbatzen dituan ezkerro, euren lanean gogotsu bizkortu dagizan.
- 5 C Fedegaitik neketan diranen alde: Espiritu Santuak indarra ta itxaropena emon dagitsen.
- 6 D Sendotza artu dabenen alde: fedean bizkorturik, Kristo'ren autorle ta testigu sutsu agertu daitezcan.
- 7 D Sendotza artzeko gertatu dabezanen alde, aitita - amamen alde: fedearentzat beti babes eta laguntza izan daitezcan.
- 8 D Gaur emen gagozanon alde: Espiritu Santuak gaur geugan be Sendotzako grazia barriztu dagian.

Isuri, Jauna, zure Elizari egiaren eta maitasunaren Espiritu Santua. Emoiguzu, bere fedez, mundua argitzeko gaur eskatzen dautsugun indarra.

Jesukristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

LEENENGO JAUNARTZEAN

Anai-arrebok: otoitz egin daiogun zeruko Aitari, illunpeetatik atara eta bere Semearen Erreñura eroan gaituanari; eskatu daiogun gaur Jauna leenengoz artuko dabenen alde.

- 1 A I..... gure gotzaiñari eta Elizearen gotzain eta abade guztiai Jaunak jakituria, sendotazuna ta Artzain-ardura sutua emon dagitsen. Eskatu...
- 2 B Gaur Jauna leenengoz artuko daben gure umeai Jaunaren eriotzak eta biztuerak tentaldian garaipena, bildur diranean adorea eta nekepean dagozanean pozbidea emon dagitsen.
- 3 B Gure ume onein gurasoak beti ikasbide ona emon dagitseen, olan fedean sendoago iraun dagien.
- 4 C Jaunak lurreko erri guztiai egunoroko ogia ta Eukaristi-ogia ugaritu ta banatu dagitsen.
- 5 E Guri, bere serbitzarioi, erru, samin, bearrizan eta estualdi guztietan gorde eta Jesukristo'ren etorrera-egun goragarrian poz-pozik egoteko grazia emon daiskun.

Emon egiezu, Jauna, zure aurrean dagozan u m e o i gorputz-arimako osasuna: biotz-biotzez otseindu zagiezan eta euren eskintzak zintzoro bete dagiezan. Jesukristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

SEMINARIO-EGUNA

Anai-arrebok: Jaungoikoaren soloan lan asko dago egiteko, baiña langilleak gutxi. Eskatu daiogun soloaren jabeari, abadeak ugari bialdu dagizala.

- 1 A Eliza katolikuaren alde: mundu guztian eskiñia izan dakiola seruko Aitari Jesukristo'ren opari baliotsua: Meza santua. Eskatu...
- 2 B Abadegaien alde: euren gurari bizia beti Kristo izan daiten.
- 3 C Kristau-sendien (*familien*) alde: gure etxeak bokaziñuak sortzeko ta ugaritzeko lur ego-
kia izan daitezcan.
- 4 D Emen batuta gagozanon alde: ondo ulertu dagigun guztiok abade, praille ta monjak bear doguzala gure artean, Jesukristo'ren Barri Ona zabaldu daiten.

Entzun, Jauna, gure eskariak, eta emon egiezu gure abadegaiari zure laguntza ta indarra, abadetzarako egoki gertatu daitezcan.

Jesukristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

ABADE TA PRAILLE-MONJAK UGARITZEKO

Anai-arrebok: langille-bearra dago Jaungoikoaren maastian, errialde batzuetan ez dago abaderik naikoa-ta. Otoitz egin daiogun Jaungoikoari, Beretzat abadetzarako laguntzaille asko aukeratu eta bere salbamen-arazorako praille ta monjak ugaritu dagizcan.

- 1 A Eliza katolikuaren alde: Jesukristo'ren Opa-

ria Jaungoikoari mundu guztian eskiñi dation. Eskatu...

- 2 A Abadeen alde: gazte biozdun askorentzat, arein bizikerea jarraibide ta bizkorgarri izan daiten.
- 3 A Abadegaien alde: biotz eta uste onez betirik, Kristo eurakaz dabela, abadetzan aurre-ra egin dagien.
- 4 A Kristau-familien alde: Jaungoiko-deiak sortzeko ta indartzeko lur on izan daitezcan.
- 5 B Era guztietariko irakasleen alde: gazteen biotzeko Kristo'ren deiak ito bagarik, biztu ta berotu dagiezan.
- 6 C Egiatzko euren bizibidea aurkitu eziñik dabizanen alde: Espiritu Santuak argia ta laguntza emon dagitsen.
- 7 C Jaungoiko-deiari gogor egiten dautsoenen alde: arein biotzak graziak ikutu dagizcan, eta Jaunak areintzat daukan eginkizun ederra ikusi dagien.
- 8 D Emen batuta gagozanon alde: abade, praille ta monjen bearrizana ezagutu dagigun, eta areik ugaritzeko aalegiñak egin dagiguzcan.

BAKEAREN ALDE

Anai-arrebok: Jesus, gizonai alkar maitatzen irakasteko il zanarren, gorroto ta gerrateak ugari dira lurrean. Otoitz egin daiogun Jaungoikoari, Aren maitasunezko espirituak gerrateak ezereztu dagizcan.

- 1 A Eliza gure Amaren alde: aren bakezko Barri Ona gizon guztiak entzun dagien. Eskatu...
- 2 B Munduko bakearen alde lanean diarduen alde: gizonen eragozpen, gaiztakeri, zirzillkeri ta min-txarkerien erdian be, iñoiz be aspertu ez daitezcan.
- 3 B Erri-agintarien alde: andikeria ta arrokeri kaltegarria nagusitzen itzi ez dagien.
- 4 B Bake-bitartekotzan dabizanen alde: euren espiritu zorrotza beti zuzentasunaren alde erabili dagien.
- 5 C Gerrateak dirala-ta nekepean bizi diranen alde: gorrotoak azpiratu ez dagizcan eta euren estualdietatik onik urten daitezcan.
- 6 B Gure parrokiaren alde: gure etxeetan, auzokoen artean, laneko lagunakan eta artu-emon guztietan senide-arteko bake iraunkorra indartu ta sendotu dadin.

Gurari santuak, asmo zuzenak eta egintza onak Zeugandik datoz, Jainko Jauna! Emon egiezu zure menpekoai munduak ezin emon daiken bakea; gure biotzak zure aginduai lotuta eta arerioen bildur bagarik, aldi oneitan, zure laguntzaz, bakea izan dagigun.

Jesukristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

GOSEAREN AURKAKO EGUNEAN

Otoitz egin daiogun Jaungoiko gure Aitari, munduko gosearen aurka lanean diarduen guztiakaz batera.

- 1 A Fededun guztiok osotzen dogun Elizea Zoriontasunen bidetik ibili daiten, zuzentasun, maitasun eta txirotasun-eredu izanaz. Eskatu...
- 2 B Agintarien alde: munduko gosearen aurrean laguntza-bide egoki batzuk billatzen aalegin-du daitezcan.
- 3 B Ogi ta kultura-gose diranak, lanbide ta aurrerapide-gose diranak, euren egoeratik urten daitezcan eta Jesus'en irakaspina sinistu dagien.
- 4 D Jaunaren maian eskuartzera gatozan guztiok, gure munduko gaitz sakon au zuzarretik atarateko aalegiñak egin daiguzan.

Munduko ondasunak gizon guztientzat sortu dozuzan Jaungoiko gure Aita: gose danak ogia izan dagiala nai dozu Zuk; entzun, ba, biotz onez, orain egin dautsuguzan eskariak eta onartu gure gurari zintzoak.

Jesukristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

AMEN EGUNEAN

Anai-arrebok: gaur, lurreko geure amak goratzen ditugu. Otoitz egin daiogun biotzez Jaungoikoari, euron bidez Bere maitasunaren izpi bat agertu dauskulako eskerak emonaz, eta euren eginbideetan lagun egin dagitsela eskatuaz.

- 1 A Elizearen alde: gizon guztientzat ama ta irakasle izan dadin. Eskatu...
- 2 B Lege-egille guztien alde: familien bearrizanak eta amen ardurak iñoiz be aaztu ez dakiezan.
- 3 C Bertan-beera itzitako amen alde: arein zoritzarra ezagutu ta gozotuko dabezanak aurkitu dagiezan.
- 4 C Ama bagariko umeen alde: egunen baten ain bearrezko dan maitasuna jadetsi dagien.
- 5 D Gure amen alde: Jaungoikoak luzaro gorde dagizan, eta egin daben onaren saria emen berton emon dagitsen.

NORBAIT IL DAN EGUNEAN (I)

Anai-arrebok: otoitz egin daiogun uste osoz Jaungoiko Aitari, bizien eta illen alde; Jesus bere Semea be illen artetik Berak biztu eban-eta.

- 1 C Betiko biziaren itxaropenean loak artu dituan guztien alde: Jaungoikoak bere argitan artu dagizan. Eskatu...

- 2 D Gaur lagun egiten dautsagun I.....'ren alde: betiko biziaren azia Bateoan artu eban ezkerro, aren frutua oraintxe batu dagian.
- 3 D Gaurko ildakoaren alde: bere janaria bizitza onetan Kristo'ren Gorputza izan zan ezkerro, azken-egunean Jaungoikoak zerurako biztu dagian.
- 4 D I.....'abadearen alde: Elizeak emon eutsan egitekoa abadetzan bete dauan ezkerro, Jaungoikoak zeruko liturjian eginkizuna emon dagian.
- 5 D Ildako gure guraso, senide ta adiskideen alde: gure onerako egin ebezan lanakaitik, Jaungoikoak saritu dagizan.
- 6 D Biotz-minduta dagoan familiaren alde: Jaungoikoak laguntza ta poza emon dagitsen.
- 8 B Mundu guztiaren alde: Jaungoikoak gerrateetatik eta burrukaldietatik gorde ta bakean zaindu dagizan.

Jaungoiko gure Jauna, gure fedearen argia! Entzun egizu gure otoitza. Emon egiezu zure serbitzariai bakezko bizitokia ta zure argiaren ditzira.

Jesukristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

NORBAIT IL DAN EGUNEAN (II)

Anai-arrebok: Guztiok alkarregaz dei egin daiogun Jaungoiko Jaunari ildako gure anai-arreben alde, Elizearen alde, munduaren alde eta geure alde.

- 1 A Jaungoikoak I..... bere serbitzaria Beragandik urrun itzi ez dagian, bere zorionean artu baiño. Eskatu...
- 2 D Jaungoikoak, aren utsegifiñak aaztuta, pekatuak parkatu dagiozan.
- 3 D Jaungoikoak, bere argitan eta bakean, Beragaz artu dagian.
- 4 D Ildako gure guraso ta ongilleen alde: Jaungoikoak bere aintza zorionsuan betiko sartu dagizan.
- 5 C Ildako fededun guztien alde: Jaungoikoak zeruetako erreñuan lekua emon dagitsen.
- 6 C Gorputz-arimetako nekepean bizi diranen alde: Jaungoikoak bere laguntza bagarik bein be itzi ez dagizan.
- 7 B Agintarien alde: zuzenbidea ta bakea goren jarten alegindu daitezcan.
- 8 A Eliza osoaren alde: bizien eta illen nagusia munduari Kristo dala irakatsi dagion.

Erruki, Jauna, zure serbitzariai; eta, ustea Zeugan izan eben ezkerro, betiko zorionsu izan daitezcala.

Jesukristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

NORBAIT IL DAN EGUNEAN (III)

Anai-arrebok: maite genduan bati, azken-bizitokira lagun egiteko batu gara, baita bere etxekoai gure atsekabea agertzeko be. Bat egin dagigun, gure otoitzak ildako onen eta ildako guztien salbamenerako eta emen biotz-mindurik dagozanen naigabea gozotzeko.

- 1 A Kristau guztien alde: beti, egiazko itxaropenaren autorle ta testigu izan daitezcan. Eskatu...
- 2 C Ildakoren bat dala-ta, atsekabetan dagoan famili guztien alde: euren naigabea, ildakoa barriro ikusiko daben ziurtasuna, izan dagien.
- 3 C Ildako guztien alde: betiko bizitzan, Jaungoikoaren argitan alkar ikusi dagien.

- 4 D Gure ildakoen alde: Maria Birjiñak eta Santu guztiak zeruan ondo-etorria egin dagitsen.
- 5 D Emen biotz-minduta dagozanen alde: Jaungoikoak orain indarra ta adorea, eta gero, egunen baten, ain maite dabena barriro ikusteko grazia emon dagitsen.
- 6 D Emen batu garan guztion alde: eriotzak onenbeste naigabetu ez gagizan; eta betiko argitara ta zorionera zabaltzen dan atea bera dala konturatu gaitezcan.

Jauna, gizona orrenbeste maite dozun ez-kero, egizu, Elizaren otoitzak illen eta bizien salbamenerako balio dagiala.

Jesukristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

AURKIBIDEA

ASTEGUNETAKO MEZA-OTOITZAK

Abendu-aldia	3
Gabon-aldia	11
Garizuma-aldia	13
Pazko-aldia	24
Santuen atala	36
Urtebarruko Santuak	41
Urtebarruko Asteak	71

JAINKO-ERRIAREN OTOITZA

Zer dan	76
Abadearen deia	77
Amaierako Otoitzak	78
Igandeetarako	79
Jaiegunetarako	93
Andra Maria'ren eta Santuen egunetarako	97
Beste egun batzuetarako	99